Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetza**ren arloan sortutako dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra

# 2. Iragana argitzea

3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

**2016ko urria**
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetza**ren arloan sortutako dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra

# 2. Iragana argitzea

3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

**2016ko urria**
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia

# Aurkibidea


Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra. 5

Liburu honen aurkezpena. 6

**1. dokumentua.** Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013). 9

**2. dokumentua.** 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua. 31

**3. dokumentua.** ETAk mehatxatutako pertsonek jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011). 103

**4. dokumentua.** Ertzainek eta haien familiek ETAren mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011). 153

**5. dokumentua.** Euskadin gertatutako tortura-kasuak ikertzeko proiektua 1960-2010. 197

**6. dokumentua.** Datuak bildu eta oinarrizko txostena egiteko 1936-1978 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzko Lankidetza-hitzarmena. 245

**7. dokumentua.** Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean. 257

**8. dokumentua.** Zuzendu programa, Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia egiteko dibulgazio programa. 265

# Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-kontseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetza Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Bigarren liburu honek giza eskubideen urraketen ikuspegitik iragana argitzea helburu duten eta Legegintzaldiaren zehar sortutako dokumentuak jasotzen ditu.

# Liburu honen aurkezpena

Gizarte batek terrorismoaren, indarkeriaren eta zatiketaren bizipen traumatiko eta jarraitua pairatu badu, bi premisatatik heldu behar zaio bizikidetzaren berreraikuntza osasuntsuari, bai eta etorkizunari aurre hartu ere: biktimei errekonozimendua eta ordaina ematea batetik, eta iragana kritikoki oroitzea, bestetik.

Elkarri osatzen dioten bi zutabe horiek zera dute oinarri: pairatutako giza eskubideen urraketa oro zorrotz argitzea. Egitate objektiboen egia oinarri da biktima guztiei errekonozimendua emateko, bai eta iragana modu ez-arbitrarioan eta ez-zeharkakoan oroitzeko; alegia, zorroztasunez egiaztatutako egitateak oinarri hartzeko.

Gertatutakoa argitzea abiapuntu da gure iraganarekin aurrez aurre jartzeko, gizarte gisa, politikari gisa eta erakunde gisa, eta modu konstruktibo batean egin ahal izateko. Nolanahi ere, ez da lan erraza; izan ere, erosoagoak dira ikuspegi partzialak; hots, gertatutakoaren irakurketa alderdien edo ideologien interesei egokitzea. Giza eskubideen urraketak erabat argitzea hainbat motatako erresistentziekin eta aurkaritzekin topatzen da maiz. Hala eta guztiz ere, funtsezkoa da argitze horri heltzea, ikuspegi etikotik, pedagogikotik eta bizikidetzarenetik.

Arlo honetan, Bake eta Bizikidetza Planaren kudeaketa egia-zatiak berreskuratzean zentratu da. Filosofia horri esker, helburu horretara bideratutako hainbat azterlan jorratu dira azken lau urteetan. Horietako bakoitza giza eskubideen urraketaren arloan gertatutakoaren puzzlea osatzen laguntzen duen pieza bat da.

Berreraikuntza horren lehen pieza liburu honen 1. dokumentua da; hots, «Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)». Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramón Mugicak eta Juan Maria Uriartek egindako ikerketa bat da, eta 2013ko ekainean aurkeztu zen. Helburua zera zen: euskal kasuan 1960tik 2013ra bitartean gertatutako giza eskubideen urraketa guztien lehen argazki orokor bat aurkeztea. Lehen aldiz heldu zitzaion halako lan oso bati.

Sintesi horri esker, zenbait ondorio eta lehentasun ezarri ahal izan ziren argitzearen arloan, eta, horien ondorioz, geroago jorratu ziren ikerketak eta proposamenak egin ziren. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da berariazko bost azterlan enkargatu, egin eta aurkeztu zirela. Liburu honen 2. dokumentuak «1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua» biltzen du. Lan horrek hainbat biktimen elkarteren eskaerari erantzuten dio, eta argitu ez diren atentatuetan hildako biktimen familiek pairatzen duten sufrimendua islatzen du. Errealitate horrek 1970eko eta 1980ko hamarkadetan izan zuen inpakturik handiena, eta ETAren hainbat adarren edo GALen, BVEren eta antzekoen biktimei eragiten die.

Hirugarren dokumentuak «ETAk mehatxatutako pertsonek jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)» jasotzen du. Laugarren dokumentuak, berriz, «Ertzainek eta haien familiek ETAren mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)» biltzen du. Hildako biktimen edo zauritutako biktimen familiek errekonozimendua eta ordaina jasotzeko lege- eta erakunde-esparru bat izan dute, berandu eta modu inperfektuan izan bada ere. Dena dela, ETAren mehatxupean bizi izan diren pertsonak beren errealitatea ikusezinarazteko testuinguruan bizi izan dira. Bi azterlan horiei esker, milaka pertsonek pairatutakoak eta jasandakoak azaldu eta errekonozitu ahal izan ditugu; izan ere, beren bizitza indarkeriaz eta bidegabe galtzearen mehatxua nozitu dute egunero-egunero, urtetan.

5. dokumentuak Euskadin izandako torturari buruzko ikerketa-proiektuaren lehen ondorioak islatzen ditu. 2014ko martxoan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Euskadin 1960tik 2010era izandako torturari buruzko ikerketa sakona egiteko enkargua egin zion Kriminologiaren Euskal Institutuari, Paco Etxeberria forentsearen zuzendaritzapean. Tortura giza eskubideen urraketa gaitzesgarrietan gaitzesgarriena da. Dena dela, zaila da halakorik dagoela frogatzea; izan ere, atxilotutako pertsonak tratatzen diren espazioak kontroletik kanpo daude batzuetan, eta horrek zigorgabetasuna errazten du. Salaketa ugari jarri dira 50 urte hauetan zehar. Bestalde, nazioarteko erakunde eskudunak bat datoz: Espainian izandako torturaren

fenomenoa ezin da noizean behingo kasuistika hutsera mugatu. Bizikidetza berreraikitzeko, funtsezkoa da ikusezin bihurtutako errealitate horren berri ematea, bai eta biktimei bidezko errekonozimendua ematea ere.

Fenomeno horrek 50 urtetan izan duen benetako eraginaren berri ematea da azterlanaren helburua, eta errekonozimendu, ordain eta prebentzioari lotutako ondorioak zehaztea. Lana handia eta konplexua da eta, ondorioz, 2016aren amaierara arte luzatuko da. Liburu honetan, aurtengo ekainaren 27an aurkeztutako lehen ondorioak aurkezten dira.

Orain dela gutxiko iragana argitzearen eremu horretan bertan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bestelako azterlanak ere babestu edo diruz lagundu ditu; esaterako, «ETAk eragindako estortsioa eta indarkeria enpresa-ermuaren aurka» txostena (Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroa), eta hainbat dokumental, besteak beste, hauek: *Reconciliación, El reencuentro, Aldana 1980. Isiltasun ez-tanda, El valor de la autocrítica, Oinatz galduak.*

Argitzearen arloan halaber, kasu honetan gerra zibilaren eta frankismoaren memoria historikoa hartzen duen aldiari helduta, Eusko Jaurlaritzak anbizio handiko ikerketa bat abiarazi du 2016an. Hain zuzen ere, «Giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1936-1978)». Zenbait urte beharko dira amaitzeko. Xede horrekin, datuak bildu eta oinarrizko txostena egiteko 1936-1978 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzko Lankidetza-hitzarmenean agertzen diren lehen idazkiak, bada, liburu honetan aurkezten dira, 6. dokumentu gisa.

Bigarren liburuan, beste bi dokumentu sartzen dira. Horiek ere iragana argitzea dute xede, indarkeriaren amaiera ordenatuaren ikuspegitik. 7. dokumentuak Eusko Jaurlaritzak Legegintzaldi honetan defendatu duen armagabetze-proposamena jasotzen du, eta 8. dokumentuak, berriz, Zuzendu Programa aurkezten du, giza eskubideen urraketari lotutako autokritikaren balioa hizpide duena.

Iragana argitzea gertatutakoaren berri ematea da, baina baita ez errepikatzeko baldintzak eta bermeak sortzea ere. Baldintza hori ezean, iragana ez da ez argitzen ez gainditzen, bere mehatxua orainean ere suma daitekeelako eta etorkizunera ere proiektatzen delako. ETAren armagabetzea eta desagerpena amaiera ordenatu baten eta errepikatu behar ez den iragan hori argitzearen baldintzak dira. Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 21ean argitaratu zuen armagabetze-proposamena, bada, testuinguru horretan kokatzen da.

Era berean, eta ez errepikatzeko helburu berarekin, oraingo eta etorkizuneko bizikidetzak hausnarketa kritiko bat izan behar du oinarri, hain zuzen ere, terrorismoak eta indarkeriak ekarri zutenari buruzko hausnarketa kritiko bat. Hausnarketa hori garrantzitsua da ikuspegi kualitatibotik, baita kuantitatibotik ere. Giza eskubideen urraketak ikusgai egin behar ditugu, baldin eta errealitate hori kritikoki epaituko badugu gizarte gisa. Giza eskubideen autokritikarako pedagogia bat hedatzeko programa bat garatzen du Zuzendu dokumentuak.

Azken batean, eta balantze modura, 2013aren eta 2016aren artean, asko aurreratu dugu pairatutako giza eskubideen urraketak argitzearen arloan, dela gertakari eta errealitate bidegabeak argitzearen ikuspuntutik, dela horiek kritikoki eta kualitatiboki baloratzearen ikuspegitik. Badago zer eginik oraindik; baina aldi horretan zehaztutako oinarriak prozesu honen jarraitutasunak funtsezko bi premisa aintzat hartzeko baldintza egokiak sortu ditu. Lehena, iragana argitzeak ezin du partziala edo zeharkakoa izan, alderdien edo politikaren interesek bultzatuta; aitzitik, globala izan behar du, eta giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko erabateko konpromisoa hartu behar du aintzat. Bigarrena, edonolako giza eskubideen urraketak argitzea ezin da erabili indarkeria batzuk beste batzuekin lausotzeko, diluitzeko, orekatzeko edo justifikatzeko, baizik eta horietako bakoitza berariaz eta espezifikoki baloratzeko, giza eskubideekiko konpromiso etiko eta ez-demagogiko batetik.

# **1.** dokumentua

## Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena
(1960-2013)

# Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)

Manuela Carmena
Jon Mirena Landa
Ramón Múgica
Juan Mª Uriarte

**Gazteiz, 2013ko ekaina**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
**enkarguz egina**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

# Aurkibidea

**I.** Sarrera.

**II.** Interpretazio esparru orokorra.
1. Txostenaren printzipio gidaria.
2. Txostenaren edukia, eremua eta nondik norakoa.

**III.** Datuak. Gertaturiko giza eskubideen urraketen zerrenda eta deskribapena.

I. aldia (1960-1978).
 1 ETA eta indarkeria erabili duten beste talde batzuk.
 2 Estatua eta Estatuko Segurtasun Indarrak.
 3 Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak.
 4 Egile ezezaguna.
II. aldia (1979-2013).
 1 ETA eta indarkeria erabili duten beste talde batzuk.
 2 Estatua eta Estatuko Segurtasun Indarrak.
 3 Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak.
 4 Egile ezezaguna.
Laburpen-koadroa.

**IV.** Gomendioak.

**V.** Bibliografia.

# I. Sarrera

2013ko otsailaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak erabaki zuen dokumentu honen sinatzaileei eskatzea 1960tik 2013ra bitarte euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketak egiaztatzeko txostena egiteko, txosten horren bitartez urraketa horien maparen atariko mugaketa edukitzeko, eta, era berean, mapa hori erreferentzia fidagarria izateko, iraganeko memoriaren eta berrikuspen kritikoaren alorrean ez ezik, biktimen aitorpenaren eta ordainaren alorrean ere, gauzatuko diren ondorengo jardunak definitzeko.

Landu beharreko xedea definitzeaz gain, eskaturiko aginduan txostenaren ezaugarriak ere azaltzen dira:

- Gure herrialdean pairatutako asmo politikoko indarkeriaren testuinguruan, 1960tik aurrera egiaztaturiko giza eskubideen urraketen sailkapena eta kuantifikazioa egin beharko da, betiere izandako biktimei dagokienez eta horiei erreferentzia eginez, horiek baitute lehentasuna.
- Sailkapen horren ondorioz ez da beste mota edo izaera bateko urraketen parekatzerik, erkatzerik edo konpentsaziorik egingo edo emango, txostenaren egiturak testuinguru biktimologikoak eta kriminologikoak errespetatu behar baititu, eta arlo horretako nazioarteko estandarren erreferentzia bilatu behar baitu.
- Txostenean ez da baloraziorik edo interpretaziorik egingo, eta eskuragarri dauden datu objektiboen deskribapenean oinarritu behar du. Nolanahi ere, giza eskubideen urraketaren kategoria bakoitzean oraindik argitzeko, justizia egiteko, onartzeko edo ordaintzeko dauden prozesuei dagokienez, oharrak gehitu ahal izango dira, baita egokitzat hartzen den beste edozein oharpen ere.
- Txostena idazteko batzordeak ere gomendioak edo iradokizunak egin ahal izango ditu, batzorde horren iritziz eta txosteneko datuak kontuan hartuta, memorian politika publikoak definitzerakoan kontuan hartu beharko liratekeenak.

Agindu horri erantzuna emateko asmoz, ondoren garatuko den testuak sarrera honetaz eta derrigorrezko bibliografiaz gain, hiru atal nagusi ditu:

- Txostena kokatzeko eta txostena ulertu ahal izateko interpretazio-esparru orokorra.
- Datuen gorputz nagusia: giza eskubideen urraketen zerrenda eta deskribapena, dagozkien oharrekin, eta, azkenik, laburpen-koadro globala.
- Tartean sartutako sailei bideraturiko gomendioen edo iradokizunen zerrenda, biktimentzat egokiagoa izango den ordaina lortzeko (ordain soziala, legala, politikoa, eta abar).

Aurretiko materialetatik, txostenetatik, ikerlanetatik eta batzordeetatik eratorritako datuak biltzea eta antolatzea da, funtsean, eskaturiko zeregina. Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu zeregin hori gauzatu duten pertsona guztiei, egin duten lanarengatik, oso baldintza zailetan egin behar izan baitute askotan. Era berean, bidezkoa da talde teknikoak egindako lana aitortzea, talde horrek egindako azterketari esker egin ahal izan baitugu agindu hau.

Txostena idatzi duen batzordeak, lau hilabetez lanean jardun ostean, txosten hau aurkeztu du Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiak azter dezan, Eusko Jaurlaritzak eskaturiko aginduari behar bezala erantzun diogulako itxaropenarekin. Espero dugu tresna hau baliagarria izatea bakea lortzeko eta bizikidetza berreskuratzeko indarkeriako hainbat hamarkada igaro ostean.

**Gasteiz**, 2013ko ekaina

Manuela Carmena
Jon Mirena Landa
Ramón Múgica
Juan Mª Uriarte

# **II.** Interpretazio esparu orokorra

## 1. Txostenaren printzipio gidaria

Ezin da inolako ideia, proiektu politiko, aberriarekiko maitasun edo Estatuko arrazoi honako hauen aurretik jarri: giza eskubideen muin ukiezinaren, hots, gizakiaren biziaren, osotasun fisikoaren eta psikikoaren eta duintasun moralaren aurretik. Gizakiak hiltzeak, gorputz-atalak mozteak, torturatzeak, bahitzeak, doilortzeak eta galbideratzeak ez du inolako justifikazio moralik inoiz.

Funtsezko baieztapen horretatik abiatuta, giza eskubideen urraketen biktima direnekin gauzatuko den jarduna ondoren aipatuko diren printzipio etikoek gidatu behar dute. Printzipio horiek giza eskubideen nazioarteko eskubidean bilduta daude, eta, hain zuzen ere, arrazoi horregatik hartuko dira txosten honen erreferentziatzat.

Giza eskubideen urraketa larriak pairatu dituzten pertsona guztiek egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubideak izan behar dituzte; eskubide horiek biktimak honako hauetarako eskubidea izatean laburbiltzen dira: a) justiziarako sarbide berdina eta eraginkorra izateko eskubidea; b) pairaturiko kaltearen ordain egokia, eraginkorra eta azkarra jasotzeko eskubidea, leheneratzea, ordaina, birgaitzea, gogobetetzea eta berriz horrelakorik gertatuko ez dela bermatuz; c) indarkeriei eta ordain-mekanismoei buruzko informazio egokia lortzeko eskubidea. Hori guztia Nazio Batuen 2005eko abenduaren 16ko Batzar Nagusian onarturiko «Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak pairatu dituzten biktimek errekurtsoak aurkezteko eta kalte-ordainketak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta jarraibideetan» bilduriko baldintzen arabera. Printzipio horiek bat datoz 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin, eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbide osoarekin; Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluak dioenaren arabera, horiek guztiek dute gai hau interpretatzeko erreferentzia-esparrua.

Giza eskubideak erreferentziazkoak izateak berekin dakar eskubide horiek dituzten ezaugarriak –hots, zatiezintasuna, elkarren mendetasuna, eta unibertsaltasuna– derrigorrez onartu behar izatea, eta ezin da onartu eskubide horietako baten edo batzuen iruzurrezko aldarrikapena egitea beste eskubide batzuen indarkeria eta edukiak erlatibizatzeko asmoz.

Nolanahi ere, ezinbestekoa da aipatzea bizitzeko eskubidearen urraketak eta bizitza behin betiko eta bidegabeki gabetzeak, egilearen erantzukizuna alde batera utzita, giza eskubideak urratzea dakartela; urraketa hori araudiaren hierarkiaren gailurrean dago eta haren erabateko eta behin betiko itzuliezintasuna ezartzen du.

Horrenbestez, txosten honetan biltzen eta egiaztatzen diren urraketak larriak direla badakigunez, txosten honen lehentasunezko asmoa honako hau da: indarrez kendutako bizitza guztiak ikusaraztea eta aintzat hartzea, txostenaren hierarkiarekin kontsekuente izanik, betiere kontuan hartuta bizitza horiek guztiek beren banakotasun ordezkaezinean (eta ez zifra soilek) balio absolutua osatzen dutela, eta bizitza ukatzeak arreta etiko, sozial eta politikoaren muina osatzen duela.

## 2. Txostenaren edukia, eremua eta nondik norakoa

### *2.1. Edukia*

Txosten honen edukia giza baliabideen urraketa larrietara mugatzen da, ez, ordea, asmo politikoa duen indarkeriaren inguruan sortutako era askotako sufrimendura, nahiz eta sufrimendu horretan gizarte-inpaktu nabarmena sortu duten eta bizikidetza berreraikitzeko ikuspegitik kontuan har daitezkeen errealitate mingarriak biltzen diren.

Giza eskubideen urraketa larriaren irizpidera mugatu garenez, giza eskubideen urraketa non dagoen identifikatzeko eta indarkeria horrek indarkeria pairatzen duena biktima noiz bihurtzen duen identifikatzeko estatuek hartzen duten nazioarteko araudian aitortzen eta azaltzen diren irizpide etikoei lotu gatzaizkio. Irizpide moral eta legezko horiei esker, zenbait motatako urraketak erregistra ditzakegu, urraketa horien larritasun-mailak ezar ditzakegu eta ez digute uzten bereizitasunik gabeko orokortasunik egiten eta ez dugu biktima mota bakar bat ere kaltetzen.

## *2.2. Eremua*

Txostena une jakin batetik aurrera abiatzen da: 1960. urtetik aurrera. Data hori konbentzionala da. Gure testuinguruan, giza eskubideen urraketak –urraketa horiek ofizialki 1948an aldarrikatu ziren neurrian– diktadura frankistaren garaikoak dira, eta, atzera begiratuz gero, talde lehiakideek Espainiako gerra zibilean egindako izugarrikerietan ikus ditzakegu.

Bi arrazoi daude aipaturiko data aukeratzeko. Zailtasun handiagoak daude 1960. urtea baino lehenagoko datuak lortzeko. Gainera, terrorismoaren biktimei buruzko politikek urte hori hartzen dute erreferentziatzat.

Aukera horrek ez du esan nahi aurreko bi aldi horietan izandako urraketei buruz egingo diren ikerketak eta ondoriozko ordaina aukera hau bezain legezkoak ez direnik eta beharrezkoak ez direnik.

Arestian adierazitakoa kontuan hartuta, txosten honen denboraldia 1960tik 2013ra bitartekoa da; dena den, denboraldi horren barruan lau aldi bereizi ahal izango dira[1] denboraren bilakaeran jarraitutasuna eragiten duten gertakari historiko garrantzitsuak oinarri hartuta. Horrez gain, aldi historiko horietan hainbat gertakari bortitz espezifiko eta esanguratsu gertatu ziren, eta, gure ustez, kontuan hartu behar dira aldi horietako bakoitzean gertatzen diren zirkunstantzia bereziez jabetzeko. Hori horrela izanik:

- **1960-1975:** Aldi horretan diktadura frankistaren azken urteak eta ETAren indarkeria terroristak izandako igoera biltzen dira, ETA ondasun materialen aurkako jardunak egiten hasi zen (sabotajeak, lapurretak eta abar), baina aldi honetan bertan pertsonen eta horien funtsezko eskubideen aurkako atentatuak egin zituen (bahiketak eta hilketak). Era berean, aipatu behar da Estatuak errepresioa garatu zuela, behar bezalako bermerik ez zuen sistema judiziala erabiltzen baitzuen, eta torturatzeko ohiko praktikak gauzatzen zituen polizia-jarduna baitzegoen. Horri guztiari eskuin-muturreko elementu inkontrolatuen jarduna erantsi behar zaio, indarkeriazko esku-hartze larriak egin baitzituzten (hilketak, bahiketa, erasoak eta abar), gehienek inolako zigorrik jaso gabe. Aldi hau Francisco Franco hil zen urtean amaitu zen, 1975ean.
- **1976-1978:** Oso aldi laburra, baina bizia eta asalduzkoa, trantsizio politikoaren hasierarekin bat datorrena, Arias Navarroren gobernutik hasita Konstituzioa onartu zen arte, lehenengo hauteskunde demokratikoetatik igarota. 1977ko amnistia orokorra gertatu zen. ETAk jarraitu egin zuen eta areagotu egin zuen bere jardun terrorista. Egiaztatzen da Estatuko hainbat aparatutan ez dela behar adinako garbiketarik egin, eta normalean frankismoaren garaiko metodoekin jarduten dutela. Horrek azaltzen du zailtasunak izatea, gaur egun oraindik ere badaude, aldi horretan gertaturiko giza eskubideen urraketa askori buruzko informazio egiaztatua lortzeko.
- **1979-1982:** EAEren Autonomia Estatutua onartu zen 1979an. Terrorismoaren biktimen Espainiako lehenengo elkartea (AVT) sortu zen (1981). Urte horretan bertan arrakastarik gabeko Estatu-kolpea izan zen. ETAren jarduera terroristaren urte odoltsuenak izan ziren, euskal autogobernuan aurrerapen esanguratsuak egin ziren arren. ETA(pm) taldeko kideen gizarteratzea gertatu zen, taldearen banaketaren ondoren. 1982an alderdi sozialistak irabazi zituen hauteskundeak, eta gertakari horrek eman zion amaiera Espainiako trantsizio politikoari. Terrorismoaren aurkako borrokari dagokionez, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek kasu askotan ez zituzten bete giza eskubideen nazioarteko eskubidearen estandarrak. Elementu parapolizialek edo inkontrolatuek ekintza terroristak gauzatu zituzten (Guerrilleros de Cristo Rey, Batallón Vasco-Español, GAE, Triple A…).
- **1983-2013:** Sistema demokratikoa finkatu zen Espainian, boterean PSOE eta PP egonik txandaka. 1983an GAL taldea sortu zen, eta 1987an amaitu zuen bere jarduera terrorista. ETAk, bestalde, bere jardun terroristarekin jarraitu zuen, dagoeneko sendotuta zegoen testuinguru demokratikoari jaramonik egin gabe. Paradoxikoa bada ere, Estatuak demokrazia defendatzeko egindako jardunak ez du eragozten giza eskubideen inguruan gehiegikeriak eta urraketak izaten jarraitzea, torturaren itzalarekin jarraitzen baita ikerketarik egin gabe. 1988tik aurrera terrorismoaren biktimen aldeko legegintza-jarduera bati ekin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Estatuan. Memoria Historikoaren Legea deiturikoa atera zen 2007an. EAEn ere okerreko polizia-jardunen biktimen errealitateari ekin zitzaion lehenengo aldiz 2008an. ETAk bere jarduera terroristaren amaiera aldarrikatu zuen 2011n.

Bestalde, Txostenaren lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoaren eremua baino zabalagoa da, guk aipatu ditugun indarkeriari lotutako giza eskubideen urraketa larri asko Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo gertatu baitziren.

[1] Nahiz eta dokumentuan, espazioaren arrazoi praktikoak direla medio eta errepikapenik ez izateko, bi taldetan bildu diren.

## *2.3. Nondik norakoa*

Azkenik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak esanbidez aginduta, txosten honetan aurreko txostenetako dokumentuak bildu dira eta ondoren sor litezkeen txostenen aurrekoa da. Horregatik, egiaztatutako eta iturri fidagarriak eta behar bezala dokumentatuak eta lehendik daudenak oinarri hartuta egiazta daitezkeen zapalketak sailkatu eta kuantifikatuko dira txosten honetan. Azken batean, helburua ez da kasuen ikerketa berri bati ekitea, baizik eta oinarrizko hurbilketa bat egitea, aurretiko txostenetan dauden datuak bilduz eta metatuz. Ondorengo ikerketa-premiak ezartzea izango da txosten honen gomendioetako bat.

Hala eta guztiz ere, hainbat eremutan, non esan daitekeen giza eskubideen urraketa larriak daudela, baina kuantitatiboki dokumentatu ezin denetan, errealitate hori nazioarteko estandarren arabera halakotzat hartu diren atariko aztarnen bitartez islatuko da.

# **III.** Datuak

## Gertaturiko giza eskubideen urraketen zerrenda eta deskribapena

Datuen azalpen sistematikoa egiten hasteko lau ideia garrantzitsu nabarmendu behar ditugu, ideia horiek ezin baititugu ahaztu hemen jasoko dena behar bezala ulertzeko:

- urraketa kopuru bakoitzaren, datu bakoitzaren edo kasu bakoitzaren atzean pertsona jakin batzuk daude, izen-abizenak dituztenak eta pairaturiko bidegabekeriak markaturiko bizitzak dituztenak;
- zuzeneko biktimez gain, gertakari mingarri bakoitzak pertsona-nukleo zabalago bat hartzen du eraginpean (ahaideak, lagunak, bizilagunak, lana, eta abar); horregatik, aurre egin behar zaion arazoak bilduriko datuen batuketa aritmetiko sinplea baino gehiago hartzen du;
- datu horiek aldatzeko aukera egongo da ikerketa berriak ezagutzen diren neurrian;
- denboraldiek gertakariak nola jazo diren azalduko diguten testuinguruaren berri eman diezagukete (diktadura, trantsizioa, demokrazia, eta abar), baina ezin dute inola ere justifikatu bereizketak egitea biktimen eskubideen alorrean.

## I. Aldia: 1960tik 1978ra

### 1. ETA eta indarkeria erabili duten beste talde batzuk

#### 1.1. Bizitzeko eskubideen urraketak

**Atentatuetan**
- Euskadi Ta Askatasuna (ETA), zatiketaren aurretik: 18.
- ETA (militarra): 89.
- ETA (politiko-militarra): 7.
- Comandos Autónomos Anticapitalistas (CCAA): 4.
- Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación (DRIL): 1.
- Beste batzuk: 2.
- Ikerketa zehatzagoa behar duten kasuak: 11.

**Heriotza eragin duten bahiketak**
- ETA(pm): 2.
- Gorpuak geroago aurkitu ziren: 2 (1976-1977).

#### 1.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak

Oraindik ez da azterlan ofizialik egin.

**Atentatuetan larri zaurituak:**
- ETA, ETA(pm) eta ETA(m): 230.
- Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación (DRIL): 5.
- Beste batzuk: 1.
- Manifestazioetan zauritutako poliziak: kopuru zehaztugabea.

**Bahituak eta zangoan tiroa(k) emanda libre utzitakoak**
- ETA(pm): 3.

**Bahituak eta libre utzitakoak**
- ETA zatiketaren aurretik: 3.
- ETA(pm): 6.

• Ikerketa zehatzagoa egin behar da: 2.
**Atentatuan erabiltzekoa zen ibilgailua lapurtzeko atxikiak izan direnak:** 8.

**1.3. Askatasunaren aurkako delituak**

• 3.600 atentatu inguru, txostenaren bi aldietan.
• Kale borrokako ekintzak, guztira: 4.500 inguru bi aldietan.
• Estortsio ekonomikoa: kopuru zehaztugabea.
• Mehatxuak: kopuru zehaztugabea.
• Mehatxuak, erasoak, presioa eta abar direla medio beren etxea utzi behar izan dutenak: kopuru zehaztugabea.
• Komunikabideen aurkako atentatuak: 8.

**1.4. Kalte-delitua**

• Kopuru zehaztugabea.

## 2. Estatua eta Estatuko Segurtasun Indarrak

**2.1. Bizitzeko eskubideen urraketak**

• Poliziaren zaintzapean hildakoak: 3.
  - Ikerketa zehatzagoa egin behar da: 2.
• Errepideko kontroletan edo antzekoetan: 14.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 5.
• Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz: 10.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 13.
• Istiluetan edo zerbitzutik kanpoko agenteek eragindakoak: 5.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 22.

**2.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak**

**Tortura** (Ikus izen bereko erreferentzia II. aldian):
  - Polizia-etxean zeuden bitartean ospitaleratu direnak: 13.

**Zaurituak**

• Errepideko kontroletan edo antzekoetan: 21.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 1.
• Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz: 17.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 10.
• Istiluetan edo zerbitzutik kanpo: 5.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 1.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 422.
  - Erkaketa eta ikerketa zehatzagoa egin behar da: 3.

**2.3. Jurisdikzio militarra, auzitegi bereziak eta eskubide zibilen urraketa**

• Adierazteko, biltzeko eta elkartzeko funtsezko eskubideen legeria oso kaltegarria[2].
• Ordena Publikoaren Auzitegia (OPA): Kalkulatzen da 1.759 pertsona auzipetu zituztela Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ordena Publikoaren Auzitegian 1963tik 1977ra bitarte, guztizkoaren % 21,2.
• Defentsarako eskubidea: bermerik gabe.
• Gerra Kontseiluak, auzitegi militarrak eta epaiketa sumarisimoak aldi honetan: gutxienez 238 pertsonari eragiten dietenak.
• Heriotza-zigorraren aplikazioa: 2 fusilatu (eta beste 10 heriotza-zigorrera kondenatu zituzten, ondoren konmutatu egin zituzten).
• Atxiloketa arbitrarioak, prebentziozkoak, eta abar: kopuru zehaztugabea.

[2] Ez du zehatza izan nahi: Bidelapurreriari eta Terrorismoari buruzko 18.4.1947 Lege Dekretua, Matxinada militarrari, bidelapurreriari eta terrorismoari buruzko 21.9.1960 Dekretua; terrorismoaren prebentzioari buruzko abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua (otsailaren 18ko 2/1976 Lege Dekretuak berrikusia); Erantzukizun Politikoei buruzko 1939ko otsailaren 9ko Legea (1939-02-13ko BOE); Masoneria eta Komunismoa Erreprimitzeari buruzko 1940ko martxoaren 1eko Legea (12.667. zenbakiko BOE); Prentsari eta Inprentari buruzko martxoaren 18ko 14/1966 Legea (1966-03-19ko BOE, 67. zk.).

• Prozesamenduak eta epaiketak kazetariei edo espetxeratzeak: 32.
• Hainbat argitalpen itxi, bahitu, zentsuratu eta debekatzea: kopuru zehaztugabea.

**2.4. Espetxe-eremuan gertaturiko giza eskubideen urraketak**
Giza eskubideak defendatzeko erakunde ofizialek (bereziki Tortura Prebenitzeko Batzordearen Europako txostenak) bilduriko zantzuen eta gomendioen arabera, ikertzeko eta kuantifikatzeko geratzen dira presoei emandako tratu txar ankerren eta umiliagarrien salaketak**.**

## 3. Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak

**3.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak**
• Heriotza eragin duten atentatuetan eta erasoetan: 5.
  - Batallón Vasco Español (BVE): 3.
  - Alianza Apostólica Anticomunista (Triple A): 2.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 3.

**3.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak**
• Atentatuak eta erasoak: 103 (bahiketak sartu gabe).
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 22.
• Larderia, galdeketa eta tortura biltzen dituzten bahiketak: 9.

**3.3. Kalte-delitua**
• Ondasunen aurkako atentatuak eta heriotza-mehatxuak: 355.
• Komunikabideen aurkako atentatuak: 11.

## 4. Egile ezezaguna

**4.1. Ikerketa zehatzagoa behar dutenak:**
• 3 desagertu (1973. urteaz geroztik).
• Bahitu eta desagertutako 1 (1976. urteaz geroztik).

# II. Aldia: 1979tik 2013ra

## 1. ETA eta indarkeria erabili duten beste talde batzuk

**1.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak**

**Atentatuan**
• ETA (militarra): 644.
• ETA (politiko-militarra): 12.
• Comandos Autónomos Anticapitalistas (CCAA): 25.
  - Ikerketa zehatzagoa behar duten kasuak (ETA+CCAA): 13.
• Iparretarrak (IK): 2.
  - Ikerketa zehatzagoa behar duen kasua: 1.
• Iraultza: 1.
• Itsasondoko gaztea: 2.
• Kale borroka: 2.
  - Ikerketa zehatzagoa behar duen kasua: 1.
• Juridikoki ebatzi gabeko kasuak: ez dago datu ofizialik; FVT fundazioak 314 direla esan du (bi aldietan).

**Heriotza eragin duten bahiketak**
• ETA(pm): 2.
• ETA VIII. Biltzarra: 1.

• ETA(m): 8.
• CCAA: 2.

### 1.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak

**Zaurituak**

• Azterketa ofizialik ez da egin, baina Covite kolektiboak 1978tik 2003ra bitarte (bi urte horiek barnean hartuta) honako hauek zenbatu zituen: 2.068. 2009. urtean arartekoak egindako txosten baten arabera, 16.000 zauritu izan ziren, betiere FVT, AVT eta Covite kolektiboen datuetan oinarrituta.
• Kale borrokagatik: 27.
  - Ikerketa zehatzagoa behar duten kasuak: 1.

**Bahituak**

• Zangoan tiroa(k) emanda libre utzitakoak
  - ETA(pm): 12.
• Bahitzaileek libre utzitakoak
  - ETA banaketaren aurretik: 3.
  - ETA(pm): 11.
  - ETA VII. Biltzarra: 1.
  - ETA VIII. Biltzarra: 4.
  - ETA(m): 14.
  - CCAA: 2.
• Ikerketa zehatzagoa behar dutenak: 8.
• **Estatuko Segurtasun Indarrek askatutako bahituak**
  - ETA(pm): 1.
  - ETA VIII. Biltzarra: 1.
  - ETA(m): 3.
  - CCAA: 1.
• **Atentatuan erabiltzekoa zen ibilgailua lapurtzeko atxikiak izan direnak:** 89.

### 1.3. Askatasunaren aurkako delituak

• Estortsio ekonomikoa: estortsioaren aurrean amore ematen ez zuten enpresa eta enpresaburuen aurkako atentatu ugari izan dira, baina ez dago atentatu horien, kasu horien eta kasuen zenbatekoaren kuantifikazio ofizialik.
• Mehatxuak, irainak, gutunak, hainbat objektu dituzten paketeak, pintadak, hainbat zerrendatan agertzen diren izenak, telefono-deiak, senitartekoei deiak…: kopuru zehaztugabea.
  - ETAk armak behin betiko utzi arte bizkartzaina izan dutenak: 1.492.
• Mehatxuak, hertsapena, erasoak, presioa… jasan dituztelako etxetik alde egin behar izan dutenak: kopuru zehaztugabea.
• Komunikabideen aurkako atentatuak: 32

### 1.4. Kalte-delituak. Ondasunen aurkako atentatuak

• 3.600 atentatu inguru txostenean bildutako bi aldietan, 2010. urtera bitarte.
• Kale borrokako ekintzak, guztira: 4.500 inguru, bi aldietan.

## 2. Estatua eta Segurtasun Indarrak

### 2.1. Bizitzeko eskubidearen urraketak

• Poliziaren zaintzapean hildakoak:
  - Polizia-etxeetan: 5.
  - Poliziaren ibilgailu batean atxikia: 1.
  - Ikerketa zehatzagoa behar duten kasuak: 6.
• Espetxeetan: ikerketa zehatzagoa behar dutenak: 2.
• Errepideko kontroletan edo antzekoetan: 6.
  - Ikerketa zehatzagoa behar dutenak: 5.
• Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz: 7.
  - Ikerketa zehatzagoa behar dutenak: 11.
• Istiluetan edo zerbitzutik kanpoko agenteek eragindakoak: 11.

- Ikerketa zehatzagoa behar duen kasua: 1.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 8.
- Ikerketa eta kontraste zehatzagoa behar dutenak: 2.

**2.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larriak**

**Tortura**

Ez dago kontrastaturiko behar beste datu. Jarrerak oso bestelakoak dira: batzuek ukatu egiten dituzte eta beste batzuek 10.000 kasu zenbatzen dituzte. 5.500 salaketa publiko daudela (judizialak eta auzibidez kanpokoak batuta bi aldietan) egiaztatu daiteke. Giza eskubideen arloko nazioarteko erakundeen arabera, tortura ohikoa zen laurogeiko hamarkadara arte, baina oraindik ere «noizbehinka baino gehiago» gertatzen da. Horrek guztiak esan nahi du ikerketa zehatzagoak egin behar direla.

• Polizia-etxean zeuden bitartean ospitaleratu direnak: 124.
• Epaiak: 19, torturatutako 31 lagun eraginpean hartzen dituztenak, 62 agenteren aurka (horietatik 27ri indultua eman zieten).

**Zaurituak**

• Errepideko kontroletan edo antzekoetan: 26.
- Ikerketa eta kontraste zehatzagoa behar dutenak: 4.
• Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz: 23.
- Ikerketa eta kontraste zehatzagoa behar dutenak: 16.
• Istiluetan edo zerbitzutik kanpo: 13.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 219.
- Ikerketa eta kontraste zehatzagoa behar dutenak: 3.

**2.3. Adierazpen-, informazio- eta iritzi-askatasunerako eskubidearen zapalketa**

• Komunikabidearen kautelazko itxiera bidegabea: 2.

**2.4. Espetxe-eremuan gertaturiko giza eskubideen urraketak**

Giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde ofizialek (batik bat, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak) bildutako gomendio eta zantzuen arabera, tratu txar krudel eta iraingarrien salaketak ikertu eta zenbatu egin behar dira oraindik.

## 3. Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak

**3.1. Bizitzeko eskubidearen urraketa.**

• Heriotza eragin duten atentatuak:
- Batallón Vasco Español (BVE): 14.
- Triple A: 3.
- Antiterrorismo ETA (ATE): 1.
- Grupos Antiterroristas Españoles (GAE): 7.
- Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL): 24.
• Desagertuak, baina hilotza agertuta: 2 (1983-1995).
• Bortxatu eta hildako emakumeak, BVEk bere gain hartuta: 2.
• Heriotza eragin duten bahiketak: 2.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 3.
• Argitu gabe: talde horiek heriotza eragin zuten 73 atentatu egin zituzten guztira bi aldietan; Auzitegi Nazionalean 33 kasuren eginbideak izapidetu dira, hau da, erdia baino gutxiago, eta epai irmoz 17 burutu dira.
• Argitu egin behar dira: 3.

**3.2. Osotasun fisikorako eta psikikorako eskubidearen urraketa larria**

• Atentatuak eta erasoak: 220.
- Ikerketa zehatzagoa behar dutenak: 12.
• Askotariko manifestazio eta mobilizazioetan: 10.
• Bortxatutako emakumeak, errebindikazio politikoarekin: 13.
• Larderia, galdeketa eta tortura biltzen dituzten bahiketak: 49.

## Giza eskubideen zapalketen laburpen-taula

| | 1960-1975 | 1976-1978 | 1979-1982 | 1983-2013 | 1960tik 2013ra<br>Guztizko zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| **ETA, ETA(pm), ETA(m), ETA VII, ETA VIII, CCAA, DRIL, IK, Iraultza eta beste batzuk** | | | | | |
| **Hildakoak** | | | | | **837** |
| - Atentatuetan | 24 | 99 | 244 | 444 | 811 |
| - Bahitu eta hildakoak | - | 2 | 8 | 5 | 15 |
| - Oraindik desagertuta daudenak | 3 | - | - | - | 3 |
| - Hilotz agertu direnak | 2 | - | - | - | 2 |
| - Kale borrokagatik | - | - | - | 2 | 2 |
| - Beste batzuk | 1 | 1 | - | 2 | 4 |
| **Zaurituak** | | | | | **2.365-2.600** |
| - Atentatuetan | 103 | 132 | 347 | 1597 | 2179 |
| - Bahitu eta zangoan tiroa(k) emanda | - | 3 | 12 | - | 15 |
| - Bahitu eta askatuak | 3 | 6 | 18 | 14 | 41 |
| - Bahitu eta Estatuko Segurtasun Indarrek askatuak | - | - | 2 | 4 | 6 |
| - Ibilgailua lapurtzeko bahituak | ? | 8 | 44 | 45 | 97 |
| - Kale borrokagatik | | | | | 27 |
| **Beste datu batzuk** | | | | | |
| - Atentatuen kopurua | | | | | 3.600 inguru |
| - Ekonomikoki estortsionatuak | | | | | Pertsonak milakotan |
| - Bizkartzaindunak | | | | | 1.500 a 2.000 |
| - Kale borrokako ekintza kopurua | | | | | 4.500 inguru |
| **Segurtasun Indarrak** | | | | | |
| **Hildakoak** | | | | | **94** |
| - Poliziaren zaintzapean | 3 | - | 3 | 3 | 9 |
| - Poliziaren kontroletan edo antzekoetan | 9 | 5 | 6 | - | 20 |
| - Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz | 7 | 3 | 5 | 2 | 17 |
| - Polizien istiluak zerbitzutik kanpo | 1 | 4 | 7 | 4 | 16 |
| - Manifestazio eta mobilizazioetan | 4 | 18 | 3 | 5 | 30 |
| - Heriotza-zigorraren ondorioz | 2 | | | | 2 |
| **Zaurituak** | | | | | **746** |
| - Poliziaren kontroletan | 6 | 15 | 17 | 9 | 47 |
| - Nahasteen, abusuen eta bestelakoen ondorioz | 3 | 14 | 7 | 16 | 40 |
| - Polizien istiluak zerbitzutik kanpo | 1 | 4 | 4 | 9 | 18 |
| - Zauri larriak manifestazioetan | 71 | 351 | 40 | 179 | 641 |
| **Beste datu batzuk** | | | | | |
| - Tortura | **Ez dago datu nahikorik. 5.500 salaketa publiko** | | | | |
| **Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak** | | | | | |
| **Hildakoak** | | | | | **73** |
| - Atentatu eta erasoetan | 2 | 3 | 28 | 28 | 61 |
| - Mobilizazioetan | - | 3 | - | - | 3 |
| - Bahitu ostean | - | - | 2 | 2 | 4 |
| - Oraindik desagertuta daudenak | - | 1 | 1 | 1 | 3 |
| - Bortxatu eta hildako emakumeak | - | - | 2 | - | 2 |
| **Zaurituak** | | | | | **426** |
| - Atentatu edo erasoetan | 16 | 87 | 119 | 101 | 323 |
| - Manifestazio eta mobilizazioetan | ? | 22 | 8 | 2 | 32 |
| - Bortxatutako emakumeak | - | ? | 12 | 1 | 13 |
| - Bahituak (Galdekatuak, kolpatuak eta mehatxatuak) | 3 | 6 | 12 | 37 | 58 |
| **Beste datu batzuk** | | | | | |
| - Ondasunen aurkako atentatuak edota heriotza-mehatxuekin | 138 | 217 | 204 | 394 | 953 |

Oharra: Ikerketa zehatzagoa behar duten 201 kasuak ez ditugu sartu; 201 kasu horietan 77 hildako izan ziren.

**3.3. Mehatxuak eta kalte-delitua**

- Ondasunen aurkako atentatuak eta heriotza-mehatxuak: 598.
- Falange y Tradición: 25 baino gehiago 2008-2009 aldian.
- Komunikabideen aurkako atentatu eta sabotajeak: 10.

## 4. Egile ezezaguna

**4.1. Ikerketa zehatzagoa behar dutenak:**

- 2 desagertu (1980. eta 1983. urteetatik).
- Kasu 1 argitu gabe.

# **IV.** Gomendioak eta iradokizunak

## Aurretiazko gogoeta

Dokumentu hau idatzi dugunok jakin badakigu jarraian proposatuko ditugun neurriek askotariko mugak izango dituztela:

- biktimen eskubideak bermatzeko helburuan oinarritu diren arren, gomendio hauen bitartez ez dugu helburu hori erabat beteko. Asko jota helburu hori partzialki lortzen lagunduko dute;
- kopuruari, edukiari eta hartzaileei dagokienez, hautaketa bat egin dugu Txostena irakurri ostean baina alderdi guztietan osatzea behar dute;
- biktimei ematen zaien ordaina ez da inoiz erabatekoa izango eta, azken buruan, eraildakoen kasuan ezinezkoa da zapaldutako eskubide guztiak errekonozitu eta galera ordaintzea.

## I. Iradokizun orokorrak

Giza eskubideen urraketa larrien biktima guztiek egia, justizia eta ordaina izateko eskubidea dute. Horren ondorioz, txosten hau idatzi dugunok honako gomendio hauek ematen ditugu:

1. Erakunde publiko guztiei, giza eskubideak monitorizatzen dituzten nazioarteko organismo ofizialek emandako gomendioak betetzea.

2. Erakunde publiko, erakunde zibiko eta gizarte zibilari, giza eskubide guztiak –multzo zatiezintzat hartuta– errespetatu, sustatu eta defendatzea, Zuzenbide Estatuaren muina diren aldetik, eta iraganaren irakurketa autokritiko eta arduratsua egitea, biktimei eta, bereziki, bidegabe eraildakoei lehentasuna emanda.

3. Euskal alderdi politikoei, giza eskubideen aldeko eta biktimei laguntzeko politika publikoak babestea, alderdikeria alde batera utzita. Hartara, biktimizazio gehiago izatea saihestuko dute, eta bakegintzan eta adiskidetzeko prozesuan aitzindari izan daitezke.

## II. Gomendio zehatzak

Legegileek, epaileek eta gobernuak erantzukizun handia dute biktimei egia, justizia eta ordaina izateko eskubideak bermatzeari dagokionez. Horren ondorioz, honako gomendio hauek ematen ditugu:

1. Biktimei emandako laguntza arautzen duten lege-testuak garatu eta osatzea, baita lege horiek modu eraginkorragoan aplikatzea ere, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan 29/2011, 4/2008 eta 52/2007 Legeen eta 107/2012 Dekretuaren ebaluazio

independentea egiteko beharrezkoak diren txostenak egin daitezen gomendatzen dugu, formulazioan eta aplikazioan izan daitezkeen hutsune eta gabeziak detektatzeko eta txosten honen eremuko biktima guztiek babes legala izan dezaten egin beharreko aldaketa guztiak proposatzeko.

2. Gure txostenean egiaztatu dugunez, datu gutxi daude eta kasu asko geratu dira ikertu gabe; egoera horri aurre egitearren, alde batetik, argitu gabe dauden ETAren atentatuak, estortsio ekonomikoaren errealitatea eta norainokoa eta jazarpen-indarkeriaren ondorioz Euskal Herritik zenbat jendek alde egin duen argitzeko mekanismoak abiaraztea gomendatzen dugu; eta, bestetik, ordena publikoko indarrek edo talde biolentoek (kontrolatuak edo inkontrolatuak) egindako eta argitu gabeko giza eskubideen urraketak ikertzea, baita giza eskubideen urraketa eragin ahal izan duten bestelako jardunbideak ere (legegile, betearazle edo judizialak).

3. Txostenean jasota dagoenez, torturaren kasuan oso zaila da datuak eskuratzea eta kasuak aztertzea; beraz, tortura-salaketen fidagarritasunari buruzko azterketa bat egitea gomendatzen dugu, betiere irizpide psikologiko-forentseetan oinarrituta eta Istanbulgo Protokoloaren arabera. Horren guztiaren osagarri, 1978. urtetik 2013. urtera bitarteko tortura-salaketetan izandako gorabehera judizialei buruzko txosten bat egitea ere gomendatzen dugu.

4. Giza eskubideetan, bakean eta bizikidetzan oinarritutako hezkuntza-politika publikoak berraztertzea, txosten honetako datu eta hausnarketekiko koherenteak izan daitezen, memoria-politika barne-hartzaile baten oinarriak finkatzen hasi eta indarkeriazko aldi luze honetan jasandako giza eskubideen urraketa larriak berriz ez direla gertatuko bermatzearren.

## Azken iradokizuna

Nazioarteko estandarren arabera, sufrimendu guztiak ez dira giza eskubideen urraketatzat hartu behar. Horrek ez du esan nahi aintzat hartu behar ez direnik gizartea onbideratzeko ikuspegitik begiratuta. Bestalde, enpatia da humanismoaren eta zibilizatu izatearen funtsezko adierazgarria. Azkenaldiko gure historian mota horretako sufrimendu asko izan dugu.

Demagun familia-eremuaz ari garela. ETAren mehatxuak, estortsioa edo irainak jasan behar izan dituen norbaiten senitarteko bakoitzak sufritu egin du. Presoen senideek ere sufritu egin dute, baita 40.000 atxilotuen senitartekoek ere (Barne Ministerioaren arabera, atxilotutako horietatik 10.000 baino gutxiagori leporatu diete ETArekin harremana izatea).

Baina, bereziki, ez ahaztu beste 277 pertsona hil direla modu askotara, indarkeriarekin loturiko gertaera edo egoeretan: nork bere buruaz beste eginda, liskarretan, armak manipulatzean, polizia-kidegoen artean ustekabeko tiroen ondorioz... Gertakari horiek ezin dira zentzu hertsian giza eskubideen urraketatzat hartu baina, hala ere, gertaturikoaren memoria osatzen dute.

Txostena idatzi dugunon ustez, errealitate hori aztertu eta aintzat hartu behar da, eta esanbidez gomendatzen dugu hori egitea; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian gai horri buruzko hasierako hurbilpen-dokumentu labur bat aurkeztu dugu.

# V. Bibliografia

Jarraian, txosten hau egiteko erabili ditugun dokumentu-iturri guztien erreferentziak aipatuko ditugu, ordena alfabetikoan. Txostena idatzi dugunok modu kritikoan eta askotarikoan erabili ditugu, kasuen arabera, betiere dokumentu horien jatorria, planteamenduak, edukiak, izaera, zorroztasuna eta fidagarritasuna oso heterogeneoak direla aintzat hartuta. Zerrenda honetan aipatzeak ez du esan nahi dokumentu hori bermatutzat hartzen dugunik.

## *Nazioarteko txostenak*


Amnistia Internazionala: *Misión España: julio 1975.*

Amnistia Internazionala: *España: sal en la herida,* 2007.

Amnistia Internazionala: *España: sal en la herida. Impunidad policial dos años después,* 2009.

Amnistia Internazionala: *España: Salir de las sombras. Es hora de poner fin a la detención en régimen de incomunicación,* 2009.

Amnistia Internazionala: *País Vasco. Una agenda de derechos humanos,* 2013.

Torturaren aurkako Batzordea: CAT/C/ESP/CO/5, 2009.

Giza Eskubideen Batzordea: CCPR/C/ESP/CO/5, 2009.

Giza Eskubideen Batzordea: CCPR/C/107/D/1945/2010, 2013.

Giza Eskubideen Kontseilua: A/HRC/15/6, *Informe del Grupo de Trabajo sobre el examen periódico universal,* Espainia, 2010.

Tortura Prebenitzeko Batzordearen txostenak [argitaratu diren azkenak: CPT/Inf (2011) 11, 2007. urtean egindako aldizkako bosgarren bisitaldiari dagokiona; CPT/Inf (2013) 6, 2011. urtean egindako aldizkako seigarren bisitaldiari dagokiona].

Scheinin Txostena, A/HRC/10/3/Add.2, 2008.

Theo Van Boven Txostena, E/CN.4/2004/56/Add.2, 2004.


## *Txosten nazionalak*


Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta,* 2009.

Ararteko: *Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme-sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak,* 2010.

Arartekoa: *Egia, justizia eta ordaina diktadura frankistaren biktimentzat: esanahia eta politika publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan*, 2012.

Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena,* 2008.

Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak,* Eusko Jaurlaritza, 2008.

Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Euskadin Egiaren Batzorde bat abian jartzeko oinarriak,* Eusko Jaurlaritza, 2009.

Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Tortura: hurbilketa zientifikoa (2000-2008),* Eusko Jaurlaritza, 2009.

Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak,* Eusko Jaurlaritza, 2011.

Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Terrorismoaren biktimei eta motibazio politikoko bizkitimei buruzko irizpena,* Eusko Jaurlaritza, 2009.

Kriminologiaren Euskal Erakundea: *Itzulera proiektua,* 2011.

Eusko Legebiltzarra: *Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordea, Indarkeriaren Biktima*k, 2000ko azaroa.


## *Erakundeen webguneetako erreferentziak*


Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza,
http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-shomedh/es/

Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza,

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-subvicti/es/

Barne Ministerioa, www.interior.gob.es/prentsa-3/balantzeak21/ultimas-victimas-mortales-de-eta-cuadros-estadisticos-630

## Egileen obrak

Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez eta Marcos García Rey: *Vidas rotas,* Espasa, 2010.

Calleja, José María eta Ignacio Sánchez-Cuenca: *La derrota de ETA,* Adhara, 2006.

Celhay, Pierre*: Consejos de guerra en España,* Ruedo Ibérico, 1976.

De la Cuesta, José Luis eta José Ignacio Muñagorri: *Clausura de medios de comunicación vascos,* Eusko Jaurlaritza, 2008.

Landa Gorostiza, Jon Mirena: *Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak. Víctimas de vulneraciones de derechos humanos derivadas de la violencia de motivación política. Victims of human rights violations derived from pollitically motivated violence,* Eusko Jaurlaritza, 2009.

Landa Gorostiza, Jon Mirena: «La tortura en relación con la banda terrorista ETA: estado de la jurisprudencia penal. A la vez un comentario a la STS 2 noviembre 2011 (*caso Portu y Sarasola*)» in *Jueces para la Democracia* 73 (2012), 81-104 or.

Martin Beristain, Carlos y Darío Páez, *Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social,* Fundamentos, 2000.

Morentin, Benito eta Jon Mirena Landa: «La tortura en relación a la aplicación de la normativa antiterrorista: una aproximación estadística multifactorial» in *Eguzkilore* 25 (2011), 49-73 or.

Ormazabal Elola, Sabino: *Un mapa (inacabado) del sufrimiento*, Manu Robles-Arangiz Institutua, 2003.

Pulgar Gutiérrez, Belén: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004,* Dykinson SL, 2004.

Sánchez Soler, Mariano: *La transición sangrienta,* Bartzelona, Península, 2010.

Sartorius, Nicolás eta Javier Alfaya: *La memoria insumisa. Sobre la dictadura de Franco*, Espasa, 1999.

Unzueta, Patxo eta José Luis Barbería: *Cómo hemos llegado a esto,* Taurus, 2003.

## Elkarteen ikerketak

Argituz giza eskubideen aldeko elkartea: www.argituz.org

Terrorismoaren Biktimen Elkartea (AVT): www.avt.org

Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkartea (Covite): www.covite.org

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea: www.gesto.org

Euskal Memoria Fundazioa: www.euskalmemoria.com

Fernando Buesa Blanco Fundazioa: www.fundacionfernandobuesa.com

Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokia: www.behatokia.info

Goldatu: www.goldatu.org

Jaiki Hadi: www.jaikihadi.blogspot.com.

Torturaren Aurkako Taldea: *Urteko txostenak:* www.stoptortura.com

## Kazetaritza-erreferentziak

Hainbat komunikabide: Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, EITB, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Gara, La Razón, Noticias de Gipuzkoa.

Vasco Press Agentzia: *Crónica de documentación y actualidad*, 1.176. zk., 2004ko abuztua.

# **2.** dokumentua

## 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua

# 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua

Testuak eta koordinazioa:
Carlos Fonseca

Aholku Batzordea:
Enara Garro Carrera
José Antonio Martín Pallín
José Manuel Rodríguez Uribes

**2014ko abendua**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren **enkarguz egina**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

*«Inork ez dezala izan hilez jabetzeko asmoa, bere mesedetan eta demokraziaren aurka erabiltzeko. Hilak ondratzea (…) eta arerio politikoari eraso egiteko hilak baliatzea, errespetu falta dena, justu kontrakoak dira (…) Desadostasun politikoa, are liskar ideologikoa ere, ezin da izan zatiketa eragiteko arrazoi hilketaren aurrean: denek oroitu eta ohoratu behar dituzte terrorismoaren biktimak»[1].*

**Elías Díaz**

1 Elías Díaz. "*Algunas condiciones para hacer más ineficaz el terrorismo", La transición a la democracia.* Eudema argitaletxea. Madril, 1987.

# Aurkibidea


## **I.** Sarrera

## **II.** Interpretazio-esparru orokorra.

1. Erreferentzia-esparrua.
2. Helburua.
3. Zehaztapen kontzeptualak.
4. Iturriak eta metodoa.

## **III.** Datuak.

**1.** ETA.
- 1.1. Barne Ministerioa.
- 1.2. Biktimen elkarteak.
- 1.3. Kasu eztabaidagarriak.

**2.** BVE eta talde sateliteak.
- 2.1. Barne Ministerioa.
- 2.2. Biktimen elkarteak.

**3.** GAL.
- 3.1. Barne Ministerioa.
- 3.2. Biktimen elkarteak.

## **IV.** Emaitzak.

**1.** ETA.
**2.** BVE eta talde sateliteak.
**3.** GAL.
**4.** Egile ezezagunak eta bestelakoak.

## **V.** Bibliografia.

## **VI.** Eranskinak.

# I. Sarrera

2014ko martxoaren 4an, 1960 eta 2014 artean hildakoak eragindako eta egile ezezaguneko atentatu terroristen gaineko txostena osatzea agindu zion Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Goreneko fiskal eta magistratu emeritu José Antonio Martín Pallín, Madrileko Carlos III. Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titular eta 2005 eta 2011 urteen artean Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendari nagusi ohi José Manuel Rodríguez Uribes, Euskal Herriko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle agregatu Enara Garro eta koordinazio zein idazketaz arduratutako Carlos Fonseca kazetaria kide zituen taldeari.

Eusko Jaurlaritzak honako agiri hau osatzeko emandako agindua Bake eta Bizikidetza Planaren barne dagoen iragana argitzeko konpromisoaren ondorio da. Horretarako, euskal kasuko giza eskubideen urraketen oinarrizko txostena (1960-2013) idatzi zen. Bertan, euskal kasuko argitu gabeko atentatu terroristen egoera argitzera zuzendutako berariazko mekanismoak abian jartzea gomendatzen zen, nagusiki, «*bizitza-eskubidea urratu eta modu bidegabean zein behin betiko kendu denean, edozein dela ere egilea, arau-hierarkian giza eskubide gorena denaren urraketa dakarrelako*», eta, ondorioz, horiek ikusgarri egitea eta arreta jasotzea lehentasunezkoa delako.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren enkarguan bi azterketa-esparru zehaztu ziren:

a) Hildakoak eragindako eta argitu gabeko erakunde terroristen atentatu-kopurua.

b) Kasu horien auzibide-egoeraren araberako sailkapena.

Oinarria hori izanik, eta aipatutako gaiei aurre egiteko xedez, agiriak honako egitura hau izango du:

a) Lehenik, sarrera eta gero, txostenaren erreferentzia-esparrua aurkeztu dugu, hala nola helburua, eta iturri zein metodoen gaineko zenbait zehaztapen egin ditugu, agiriak bildutako datuak interpretatzeko gida gisa erabili ahalko diren zehaztapen kontzeptualez gain.

b) Bigarrenik, eta lehen atalean zehaztutako aztergaian oinarrituta, erakunde terroristaka antolatu dira datuak, datuon iturriaren araberako azpitaldetan banatuta.

c) Hirugarrenik, emaitzak aurkeztu ditugu; alegia, hildakoak eragindako eta argitu gabeko atentatuei buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak, kasuon auzibide-egoera eta erakunde terrorista bakoitzari egotzitako atentatuak kopuru osotik ehuneko zenbat diren. Emaitzak ahalik eta modu grafikoenean aurkeztu nahi izan ditugu, ikusterrazak izan daitezen.

d) Azkenik, txostena egiteko erabilitako dokumentu-iturriak zehatz aipatzen diren atala dago.

# II. Interpretazio esparru orokorra

## 1. Erreferentzia-esparrua

Txosten hau egiteko erreferentzia-esparrua Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartutako dokumentu hau da: *«Giza eskubideen urraketen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak aurkezteko eta ordaina lortzeko duten eskubidearen gaineko oinarrizko printzipioak eta zuzentarauak»*. Ebazpenak honako betebeharra ezartzen die Estatu kideei: «[giza eskubideen] urraketak eragozteko neurri egokiak eta lege- zein -administrazio xedapenak onartzea; urraketok bizkor, eraginkortasunez, sakon eta inpartzialtasunez ikertzea eta, hala dagokionean, Estatuko eta nazioarteko zuzenbidea jarraiki, ustezko erantzuleen aurkako neurriak hartzea; giza eskubideen edo giza zuzenbidearen urraketaren baten biktima direla diotenei justiziarako sarbide ekitatibo eta egiazkoa eskaintzea, urraketaren erantzulea edozein dela ere, eta biktimoi bitarteko eraginkorrak eta erreparazioa ematea (...)».

Printzipio hori bat dator 1948 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, 1966ko Giza Eskubideen eta Eskubide Politikoen Nazioarteko Hitzarmenarekin eta giza eskubideen gaineko nazioarteko zuzenbidearekin. Horiek guztiek osatzen dute, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, gai honi dagokion interpretazio-esparru orokorra.

## 2. Helburua

Txosten honen helburua hildakoak eragindako eta argitu gabeko atentatuak dira. Heriotza zuzenean atentatu terroristari egotz dakiokeen kasuak baino ez dira kontuan hartuko.

Txostenak ez ditu aztertuko, beraz, indarkeriari loturiko gertaeretan edo baldintzetan hil direnen kasuak, suizidioak, armak maneiatzean hiltzea, polizien arteko tiroketa nahigabekoak, atentatuen biktimei laguntzean izandako istripuak eta bestelakoak, kasu.

Txostenak hildakoak eragindako atentatuak bakarrik barne hartzeak ez du esan nahi bestelako eskubide-urraketak jasan dituztenak ez direla biktima, ezta zalantzan jartzen direnik ere azter-eremutik kanpo geratutako gainerako egoerek eragindako oinazea eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea. Alabaina, azterlana zehatza izango bada, irizpide-batasuna beharrezkoa da kasu bat aztertu beharrekoa denetz ziurtasun osoz zehaztu ahal izateko. Hala, talde honek eskura izandako datuak aintzat hartuta, erabilitako irizpide hori da txostenak bildutako kasu guztiak baldintza berdinetan gertatu zirela bermatzen duen bakarra.

## 3. Zehaztapen kontzeptualak

«Argituta» kontzeptua hutsala eta anbiguoa gerta daiteke. Ez da kontzeptu tekniko-juridikoa. Txostenaren asmoa datu objektiboen deskribapena ematea denez, agiriaren erdiko atalean 1960 eta 2014 urteen arteko atentatuetan hildakoak zenbatzen dira, hilketa egotzitako erakundearen arabera. Horien auzibide-egoera zenbakizko datuen bidez adierazi da. Lege-esparrura mugatuz, honako egoera hauek bereizi ditugu:

**a) Epaia emanda.** Atal honetan sartu ditugu dagoeneko epaia emandako prozedurak. Askotariko kasuak dira; batzuetan atentatuaren egile materialetako batzuk atxilotu, epaitu eta zigortu dira; beste batzuetan, kolaboratzaileak bai, baina egile materialak ez; eta ez dira falta aldi berean auzipetuetako bat edo batzuk zigortu eta beste bat edo batzuk largetsi edo auzi-iheslari deklaratu direnak. Horiek ulertzeko, hona hemen adibide batzuk:

*48/83 auzia, Juan Maldonado Moreno polizia nazionalaren hilketarena, 1983ko ekainaren 22an Pasaian gertatu zena, 1985eko apirilaren 23ko epaian egile materialtzat jotako Ignacio Celaya Aldana zigortuta ebatzi zen. Geroagoko ebazpen batek, 1988ko urriaren 6koak, Ángel Luis Hermosa Urra ere egile material gisa zigortu zuen. Azkenik, Sebastián Echaniz Corta 2005eko maiatzean absolbitu zuten eta 2010ean heriotzagatiko largespen librea eman zioten Enrique Iztueta Barandicari.*

*Andrés Guerra Pereda eta Alberto Negro Viguera Lemoizeko zentral nuklearrak kontratatutako Ibemo muntaketa-enpresako langileak ETAk jarritako lehergailu batek eztanda egitean hil ziren. 1/79 auzian, José Antonio Torre Altonaga zigortu zuten (1981eko apirilaren 11ko epaia) eta Miguel Goyenechea Fradura (1990eko maia-*

*tzaren 9ko epaia), Juan Lorenzo Lasa Mitxelena (1993ko maiatzaren 14ko epaia), Martín Apaolaza Azcargorta eta José Luis Palmou Fidalgo (1999ko maiatzaren 11ko epaia) absolbitu zituzten. 2000ko apirilaren 5ean, Emilio Martínez de Marigortari preskripziogatiko largespen librea ematea adostu zen.*

*101/80 prozedura, Antonio Gómez Ramos eta Aurelio Navío Navío guardiazibilen hilketarena, 1980ko uztailaren 13an Orion gertatu zena, Juan María Tapia Irujo, Jerónimo Azcue Arrizabalaga eta Manuel Echave Urrestrilla estaltzaile gisa zigortzen zituen 1989ko martxoaren 7ko epaiarekin burutu zen. Alabaina, Auzitegi Gorenak Azcue eta Echave errugabetu zituen geroago. Lehenago, 1983ko martxoaren 22an, Auzitegi Nazionalak Francisco Javier Cendoya Aizurua absolbitu zuen. Halaber, 1987ko azaroan, Miguel Ángel Goicoetxea Elorriagari largespen librea eman zioten heriotzagatik. 2000 urtean, auzitegiak behin betiko largespena eman zion José Luis Zabaleta Elóseguiri eta auzi-iheslari deklaratu zuen Pedro María Leguina Aurre. Carlos Lucio Fernández eta Ignacio María Gabilondo etakideak atentatuaren egunean bertan hil ziren.*

**b) Amnistia emanda.** Taula estatistikoetan daude jasota 1977ko amnistiak eragindako prozedurak (urriaren 15eko 46/1977 Legea), «1976ko abenduaren 15a baino lehenago egindako asmo politikoko ekintzak, delitu eta falta gisa tipifikatutakoak, edozein zela ere ondorioa» (a) paragrafoa, lehen artikulua) zigor-erantzukizunetatik salbuetsi zituen. Halaber, «mota bereko ekintzak, 1976ko abenduaren 15etik 1977ko ekainaren 15era artean egindakoak, asmo politikoaz gain, askatasun publikoak berrezartzeko edo Espainiako herrialdeen autonomia aldarrikatzeko asmoa zutenak» salbuetsi zituen (b) paragrafoa, lehen artikulua). «Amnistiak, oro har, ezarritako zigorren edo ezarri daitezkeen zigor nagusi zein osagarrien ondoriozko erantzukizun kriminalak iraungitzea ekarriko du». Amnistia emandako kasuei dagokienez, ez dugu nahikoa datu argituta daudenak eta argitu gabekoak bereizi ahal izateko.

ETA pm-ko kideen gutxiengo batek indarkeria behin betiko lagatzea eta erakundea disolbatzea erabaki zuen 1982an, orduko Barne ministro Juan José Rosónek (UCD) eta Euskadiko Ezkerrako buruzagi Juan María Bandresek eta Mario Onaindíak urtebetez negoziatu eta gero. Ondorioz, erakunde terroristako presoak espetxetik atera ziren, graziazko neurriak aplikatu zitzaizkienez. Prozesuak aurrera jarraitu zuen PSOEk irabazitako hauteskundeen ondorengo Felipe Gonzálezen lehen gobernuaren Barne ministro izandako José Barrionuevoren eta garai hartan EAJren senatari zen Joseba Azkarragaren arteko kontaktuen bidez.

**c) Preskripzioa.** Delitua egin zenean indarrean zegoen Zigor Kodeak ezarritako denbora igaro eta ikerketa-izapiderik egin ez bada, delitua preskribatutzat jotzen da. Zigor Kodearen 2010eko erreformarekin indarrean sartu ondoren egindako terrorismo-delituak ez dira preskribatzen pertsona baten edo gehiagoren heriotza eragin badute (ikus Zigor Kodearen 131. artikulua).

Preskribatuta egon daitezkeen kasuen berririk ez dugu, horixe adierazten duen epairik ez dugunez. Epairik ematen bada, justizia materialaren ikuspegitik, argitu gabeko kasutzat hartu beharko dira.

**d) Behin betiko largespena.** Delitugilea ezezaguna bada edo leku ezezagunean badago (PZL-Prozedura Zibilaren Legearen 641. artikulua).

**e) Berrirekiera.** Artxibatzea erabaki zenean ezezagunak ziren egitateak edo datuak agertzean erabakitzen da.

**f) Xahuketa.** Epailearen erabakia dela medio, antzinakotasunagatik ikerketa eraginkorrik ezin egin daitekeen espedienteen suntsipena dakar.

**g) Frantziako auzitegiek epaia adieraztearen zain.**

## 4. Iturriak eta metodoa

Txostena egiteko, izaera, jatorri eta zehaztasun heterogeneoko iturriak erabili dira, horien guztien bidez lortutako emaitzak alderatuz. Kontsultatutako dokumentu-iturri guztiak amaierako bibliografian aipatzen diren arren, txostenaren sinatzaileei ez zaie iruditzen horiek guztiek emandako datuek fidagarritasun- eta baliozkotasun-estandarrak maila berean betetzen dituztenik ikuspegi metodologikotik, eta, ondorioz, ez dituzte guztiak maila berean aintzatetsi honako dokumentu hau egiteko.

Erabilitako iturriei dagokienez, bi zehaztapen garrantzitsu egin behar dira, zentzu desberdinekoak:

**a)** Barne Ministerioak ez du lagundu txosten honen osaeran. Taldeak behin baino gehiagotan eskatu arren, lan-metodologia aurrez azaldu eta ager litezkeen zalantzak argitzeko prest egon arren,

Estatuaren Segurtasun Idazkaritzak eta Idazkaritzaordeak ez dute erantzunik eman. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak eskatutako datuetarako sarbidea eskaini zuen, Datuak Babesteko Legea urratzen zuen edo ez ebazteko aurretiazko azterlan juridiko bat egitearen baldintzarekin [2]. Ikerlana burutu arren, ez dugu haien erantzunik jaso.

Biktimen intimotasun-eskubidea babesteko lege-prebentzioak argudiatu eta oinarrizko informaziorako (biktima guztien identitatea, kasu) sarbidea ukatu arren, paradoxikoa da Barne Ministerioaren webgunean bertan ETAren azken biktima guztien izen-abizenak ematea. Halaber, izaera publikoko Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren (FVT), Terrorismoaren Biktimen Elkartearen (AVT) eta Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboaren (COVITE) webguneetan –erakunde horiek hautatu dira kide kopuru handienekoak direlako– biktima guztien izen-abizenak eta kronologia eskaintzen dira. Bestalde, Justizia Ministerioaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulego Elektronikoak, oraindik ere erabat erabilgarri ez dagoenak, sarbide publikoa eskaintzeko asmoa du, «edonork lor ahal izan dezan hildako biktimen eta atentatuen kokaguneen gaineko informazioa», webgunean dioenez.

Agerikoa den arren, gogora ekarri behar dugu Estatuaren eta euskal administrazioaren arteko lankidetza, biktimen egia-, justizia-, memoria- eta erreparazio-eskubidearen defentsa egiteari dagokionez. Lankidetza horren oinarria, desadostasunak zilegi direla jakinik, elkar errekonozimendua, konfiantza eta errespetua izan behar dira, hala nola informazio-trukea, interes politikoak eta alderdikoiak alde batera utzita.

**b)** Elkarte eta fundazio guztiak eta ministerio batzuk ordezkatuta dauden Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (FVT) ere ezin izan gara elkarlanean aritu, ezta ministerio horiekin ere, hainbatetan eskatu arren.

**c)** Ezin izan dira kontsultatu Auzitegi Nazionalak izapidetutako auziak, eta, horrenbestez, ez dakigu zein auzibide-egoeratan dauden kasuok. Fiskalburuak horiek aurkitzeko zailtasunak argudiatu zituen, terrorismoaren biktimen izenen zerrendarik ez dagoelako; sumarioak instrukzioko epaitegietan sakabanatuta eta auzibide-agiriaren zenbakiaren arabera artxibatuta daude. Fiskaltzaren beraren egiaztapena eskatu genuen orduan, baina erantzunik ez dugu jaso.

Baldintza horietako batek ere ez du higatu terrorismoaren biktimen egoera pertsonalaren eta auzibide-egoeraren hurbilketa ahalik eta zintzo, egitati eta zehatzena egiteko borondatea; izan ere, erakundeei beren eskubideen aitorpen osoa eskatzea ahalbidetzea da gure xedea, biktimok jasandako kalte konponezina onartuta. Halaber, argi utzi nahi dugu errespetatzen dugula txosten honen emaitzekin ados ez daudenen iritzia. Kritika eraikitzaileak gustura hartuko ditugu, konbentzituta baikaude ez dagokigula egin osoaren jabetza, horretarako asmorik ere ez dugunez.

Ziur aski, agiri honek akatsak izango ditu, zati batean behintzat, erabilitako informazioa dokumentazio ofizialarekin alderatzeko ezintasunari zor zaizkionak. Barkamena eskatu besterik ezin dugu egin.

Eusko Jaurlaritzari dagokio, txostenaren sustatzailea den aldetik, emaitzak baloratzea.

2 Horri dagokionez, adierazi behar da, datuak babesteko indarreko legean ezarritakoari jarraiki, azterlan honetako informazioa Eusko Jaurlaritzari baizik ez zaiola emango.

# III. Datuak

1960tik 2011ko abenduaren 31ra arte, legeak 6.000 pertsonari aitortu dio terrorismoaren zuzeneko biktimaren izaera; horietatik 1.400 hildakoak dira eta 4.400dik gora zauritu fisiko eta/edo psikikoak, % 60 inguruk baliaezintasun handia dutenak. Biktima gehienak, ia % 65, ETAk eragindakoak dira; % 20 nazioarteko terrorismo yihadistak; gainerakoa, % 15, eskuin edo ezker muturreko erakunde dagoeneko desagertuek, BVEk, A hiruoitzak, GALek edo GRAPOk[3].

Indarkeriaren gizarte-deslegitimizazioa eta biktimen ikusgarritasuna, egindako kaltearen gizatiartzea eta kaltea zuzenean jasan duten pertsonak duintzea aldibereko fenomenoak dira. Hori dela eta, gure ustean, pertsonalizatzeak biktimak gauza bihurtzea (urte luzez gertatu dena) ekiditen du. Agerikoa den arren, estatistiketako kopuruen hondoan pertsonak daude. Pertsona horien izen-abizenak biltzea haien memoria aberastea da.

## 1. ETA

### 1.1. Barne Ministerioa

Zeinu bateko zein besteko erakunde terroristek eragindako hildakoen kopurua informazio-iturriaren araberakoa da. Barne Ministerioaren webgunearen arabera, 1960 eta 2014 urteen artean 1.380 hildako eragin ziren; 829 ETAk; 82 GRAPOk; 232 nazioarteko eta islamiar terrorismoak; eta 239 Ministerioak «besteak» deitutako horiek.

Ministerio beraren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak 2009an egindako dokumentu batek kopuru horietako batzuk aldatu eta zehaztasun handiagoa du: 843 hildako eragin zituen ETAk eta 12 gehiago ETAri atxikitako erradikalismoak (855 guztira). Horietatik 842k jaso dituzte kalte-ordainak, Terrorismoaren Biktimen Babes Integralerako eta Errekonozimendurako 29/2011 Legea edo 1999ko Elkartasun Legea aplikatuta. Kalte-ordaina jaso gabeko biktima frantziar polizia Serge Nérin da, Frantzian hil zutena eta bertan jaso zituena kalte-ordainak.

Zerrenda horretan daude, halaber, 1979ko uztailaren 12an, Corona de Aragón hotelaren sutean hildako 64 pertsonak. Egun hartan, asko ziren hotelean ostatu hartutako militarrak eta beren senideak, Akademia Militar Nagusia ofizial berriei idatzagiriak emateko ekitaldia ospatzekoa zen eta. Hoteleko bezeroen artean zegoen Carmen Polo, Francisco Franco diktadorearen alarguna, Villaverdeko markesek eta horien seme-alabek lagunduta. Horietako batek, Cristóbal Martínez-Bordiuk, ekitaldi militarrean parte hartu behar zuen.

AVTk sortzetik beretik aldarrikatu du agintariek ETAk eginiko atentatu gisa aitortu behar dutela, nahiz eta gertatutakoa ez den inoiz guztiz argitu eta frogatu. Auzitegi Nazionalak 1980an emandako epaian berretsi zuen ez zela egiaztatu gertaera hura, 78 pertsona hil eta 113 zauritu zirena, egintza terrorista zenik. Hala, 1982an, Zaragozako Auzitegiak auzia largetsi zuen. Urte batzuk geroago, 2009an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak Terrorismoaren Biktimen Errekonozimenduaren Errege Ordenaren Gurutze Handia jasotzeko eskubidea aitortu zion biktima bati epai batean. Horretarako, kontuan hartu zuen aditu-txosten bat, esaten zuena sutea «ezin izan zuela piztu bere kasa ziharduen pertsona bakar batek, eta ausaz ere ez zela piztu». Biktimen senideek kalte-ordainak jaso zituzten 2000 urtean, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunaren Legearen, 1999koaren, babesean.

Duela gutxiago, 2013ko apirilean, Fernando Andréu magistratuak, Auzitegi Nazionaleko 4. Instrukzio Epaitegi Nagusiaren titularrak, auzia berrireki zuen eta Poliziaren Informazio Komisaria Nagusiari agindu zion gertatutakoaren ardura ETAri ote zegokion jakinarazteko. Erakunde terroristaren baten parte-hartzea bermatu zezakeen datu berririk ez zuela aurkitu adierazi zion epaileari txosten bidez, eta magistratuak iazko uztailean artxibatu zuen auzia.

Barne Ministerioaren mendeko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak 2010ean, Espainiari EBren presidentetza zegokiola eta, egindako txosten batean esaten denez, ETAk 856 biktima eragin zituen, 229 terrorismo islamikoak eta 297 beste talde batzuek, terrorismoaren biktimak, guztira, 1.382 direla.

3 Rodríguez Uribes, José Manuel. *Las víctimas del terrorismo en España*, Madril, Dykinson argitaletxea, 2013.

## 1.2. Biktimen elkarteak

Elkarte nagusiak kidetuta dauden Terrorismoaren Biktimen Fundazioak (FVT) 1.222 hildako zenbatu zituen; 829, ETAk eragindakoak; 85, GRAPOk; 190, M-11ko atentatuak (koadro estatistikoetako batean kopuru hori ageri bada ere, beste batean 193 ageri da); 118 «besteak» izeneko atalean sartu dira; eta 22 atzerrian egindako atentatu terroristetan hil ziren.

COVITEren iritziz, 858 dira ETAk hildako pertsonak. AVTren webgunean ez dago estatistikarik.

## 1.3. Kasu eztabaidagarriak

Jarraian, kontsultatutako iturrietako datuak gurutzatzean bat ez datozen edo kontrajarriak diren kasu jakin batzuk azaldu eta aztertuko ditugu. Errealitatea irudikatu nahi duen balorazioa denez, iritzi eta ekarpenetara ireki dago. Hala:

### 1960ko ekainak 28.- Begoña Urroz Ibarrola.

22 hilabete zituen Amarako (Donostia) tren-geltokian ipinitako bonba batek hil zuenean. Barne Ministerioak ETAren biktimatzat hartzen duen lehen pertsona da. Hala ere, Barne Ministerioaren beraren webgunearen arabera, erakunde terroristak lehen atentatua 1968an egin zuen, José Antonio Pardines Arcayren aurka. FVTk ez du sartu aipatutako erakunde terroristaren biktimen zerrendan (1968tik aurrerako biktimak daude), bai, ordea, COVITEk eta AVTk. ETAren biktima gisa ageri da, halaber, *Vidas Rotas* eta *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* lanetan.

1992an egotzi zitzaion aurrenekoz egiletza ETAri, gertatu eta hogeita hamabi urtera. Orain gutxiko ikerlan bati esker, 2013ko maiatzean 1961eko polizia-txosten bat topatu zen, egiletza Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación (DRIL) erakundeari leporatzen ziona.

Kasua egile ezezaguneko atentatuen eta bestelakoen kategorian sartu dugu.

### 1975eko ekainak 26.- Fernando Fernández Moreno.

Lehergai baten eztandak hil zuen. Ez da Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan ageri. *Vidas Rotas* liburuan ere ez da aipatzen. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctim*a lanean esaten denez, erakundeak ez zuen sekula bere gain hartu ekintzaren egiletza. AVTren eta COVITEren zerrendetan, aldiz, ETAren biktima gisa ageri da. *El Pueblo de Ceuta* egunkariaren arabera, egilea ez da ezagutzen.

Egile ezezagunekoen eta bestelakoen zerrendan sartu dugu.

### 1975eko urriak 12.- Germán Aguirre Irasuegui.

Taxilaria. Hilda aurkitu zuten, garondoan hiru tiro emanda. ETAk ez zuen inoiz atentatua bere gain hartu. Ministerioak ETAren biktimatzat hartzen du, eta *Vidas Rotas* liburuak erakunde terrorista horri egozten dio hilketa, 1992an José Luis Álvarez Santacristina «Txelis» ETAko buruzagiari atzemandako biktimen zerrenda bat oinarri hartuta. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuan ez dute jaso horri buruzko datu eztabaidaezinik ez dagoelako. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zehaztu gabeko eskuin muturreko taldeei leporatu zien hilketa.

Informazio gehiagorik ezean, egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

### 1976ko uztailaren 23an.- Eduardo Moreno Bergaretxe «Pertur».

ETA politiko-militarreko buruzagia, Frantzian desagertu zen eta orain arte ez dute haren gorpua aurkitu. Talde terroristak Poliziari leporatu zion haren desagertzea, baina ordutik egindako ikerketek ez dute baztertzen Bereziak taldeetako kideek bahitu izana, erakundeak jarraitu beharreko estrategiari buruzko desadostasunak baitzituen haiekin. Zinema-zuzendari eta ETA pm-ko kide ohi Ángel Amigok kasuari buruzko dokumentu bat egin zuen, eta horretan, Poliziaren aginduz Frantziako hegoaldean ETAren aurkako hainbat atentatu egin zituzten neofaxista italiarrei egotzi zien bahiketa.

Fernando Andreu epaileak auzia behin-behineko largesteko agindu zuen 2012ko irailean, ezin baitzen gertatutakoaren argumentu-lerrorik zehaztu eta ez baitzegoen zantzu oinarridunik inor desagerketaren arduradun jotzeko.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

### 1977ko ekainaren 13a.- José María Basáñez Jáuregui.

COVITEk baino ez dio atentatua ETAri leporatzen. Biktima ez dago jasota Barne Ministerioaren, FVTren eta AVTren ETAren biktimen zerrendetan. Ezta *Vidas Rotas* edo *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima. De la primera a la última víctima* liburuetan ere. *Eldiariomontañes.es* egunkariak dio Jesús María (Josu) Basañez Jáuregui 1977an lehergailu bat esku artean zartatuta hil zen ETAko kide bat zela. Pertsona bera den baieztatzeko daturik ez dugu aurkitu.

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan sartu.

### 1977ko ekainaren 26a.- Valentín Godoy Cerezo.

Polizia Armatuko kidea. G Bikoitza (Gazte Gudarostea) izeneko talde ezezagun batek hartu zuen bere gain haren hilketa. Ez dago jasota Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan. *Vidas Rotas* liburuak ere jasotzen du, baina ez *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuak. Barne Ministerioak ez du biktimen bere zerrendan jaso, baina 2005eko martxoaren 18an egindako Ministroen Kontseiluak Poliziako Ofizial mailara igo zuen terrorismoaren biktima gisa. Horiek horrela, izaera horrekin jaso dugu zerrendan, baina egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan.

### 1978ko apirilaren 16a.- Jesús Lolo Jato.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren zerrendaren biktimen artean, ezta FVTren zerrendan edo *Vidas Rotas* liburuan ere, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan. *El País* egunkariak 1978ko apirilaren 16ko edizioan jakinarazi zuen identifikatu gabeko bi gazte tiroka hasi zirela aurreko gauean Portugaleteko (Bizkaia) bi udaltzainen aurka. Lolo Jatok zauri larriak pairatu zituen eta bere lankideak ez zuen zauririk [4]. Gurpil-aulkian, ebakuntza ugari egin zizkioten eta 25 urte geroago hil zen, 2003ko maiatzaren 17an. Data hori aipatzen dute AVTren eta COVITEren zerrendetan.

Auzitegi Nazionalean auziaren prozesu-egoera ezagutzeko aurkeztu zuten argitu gabeko hilketen zerrendan jaso zuten biktimen elkarteek. Biktimei Laguntzeko bere bulegoan ebazpen judizial gisa auziaren behin-behineko artxibatzea ageri da. Gure ustez atentatutik heriotzara arte igarotako denboragatik ez dago kausalitate-erlazio bat ezartzerik. Ez dugu jaso ETAren biktimen zerrendan.

### 1978ko maiatzaren 18a.- Alfredo Aristondo Trincado.

Barne Ministerioak ez du ETAren biktimatzat hartzen, eta ez dago jasota, halaber, FVTren, AVTren eta COVITEren zerrendetan, baina, kontraesankorra bada ere, bai agertzen dela biktimen elkarteek Auzitegi Nazionalari emandako argitu gabeko atentatuen biktimen zerrendan, eta bertan diote auziak «epaia» duela. *Vidas Rotas* liburuak biktimen zerrendan jasotzen du eta *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuak dio atentatu batean zaurituta gertatu zela baina ez zela horren ondorioz hil. Bildutako datuen arabera, Alfredo Aristondo balaz zauriturik gertatu zen baina ez zen hil. Bi urte eta erdi geroago, 1980ko azaroaren 6an, Auzitegi Nazionalak Ramón Sagarzazu Mendibe etakidea zigortu zuen huts eginiko hilketa baten egile gisa.

Ez dugu jaso ETAren biktimen zerrendan.

### 1978ko maiatzaren 24a.- Martín Merquelanz Sarriegi.

Barne Ministerioak ETAren biktimatzat hartzen du. FVT, AVT eta COVITE elkarteek beren zerrendetan jaso dute. Taxilaria ogibidez, hainbat lankidek haren gorpua aurkitu zuten. Buruan tiro bat eman zioten; gainera, esku bat hautsita eta hainbat kolpe eta ubeldura ere bazituen gorputzean [5]. Bere alaba

4 1978ko apirilaren 18ko *El País* egunkaria.

5 1978ko maiatzaren 25eko *ABC* egunkaria.

Ana Merquelanzek parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Glencree ekimenean. ETAren biktimen eta lehenengoaren aurka aritu ziren talde parapolizialen eta eskuin muturreko taldeen biktimen arteko topaketa errazteko sustatu dute ekimen hori. Merquelanzek BVEren biktima gisa esku hartu zuen. Eusko Jaurlaritzak horien artean sartu zuen «Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txosten»ean.

Horiek horrela, BVEren biktimen zerrendan jaso dugu.

### 1978ko ekainaren 29a.- Jesús Manuel Campos Rodríguez.

Ikastetxearen kanpoaldean, beste ikaskide batzuekin bengala batekin jolasean ari zela, bengala hori zartatuta hil zen [6] Pasai San Pedroko udalerrian (Gipuzkoa). Barne Ministerioak ez du ETAren biktimatzat hartzen, eta ez dago jasota FVTren zerrendan, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan.

Ez dago ETAren biktimen zerrendan jasota.

### 1978ko azaroaren 15a.- Emilia Larrea Sáez de Adana.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren biktimen zerrendan, ezta FVTren zerrendan ere, baina bai AVTren eta COVITEren zerrendetan. *Vidas Rotas* liburuak dio Komando Autonomo Antikapitalisten (CAA) eta guardia zibilen arteko tiroketa baten ondorioz hil zen emakume bat dela. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuak jasotzen duen kontakizunak tesi hori aldatzen du; horren arabera guardia zibilen arteko tiroketa baten biktima izan zen, guardia zibil batzuek kalez jantzitako beste guardia zibil batzuk terroristekin nahastu ondoren.

Egun hartan bi tiroketa izan ziren. Bata, Guardia Zibileko eta Komando Autonomo Antikapitalistetako (CAA) kideen artean –bi terrorista hil zituzten–, eta bestea, Aretxabaletako eta Arrasateko kuarteletako guardia zibilen artean, lankideak tirokatu baitzituzten etakideak zirelakoan (kalez jantzita eta armak eskuan zihoazen). Bigarren tiroketa horren ondorioz hil zen Emilia Larrea. Eusko Kontseilu Nagusiaren (egungo Eusko Jaurlaritzaren aurreko erakundea) Herrizaingo Sailaren ohar batek, 1978ko azaroaren 16koak, honela zioen: «Lehen tiroak izan eta hiru bat minutu geroago beste ibilgailu bat iritsi zen eta Guardia Zibileko hainbat kide jaitsi ziren handik, kalez jantzita antza denez; guardia zibil horiek, metrailetak zeramatzaten gizon armatu batzuk ikusita (Guardia Zibileko lehen kideak, hain zuzen), tiro egin zuten horien aldera, eta horren ondorioz Emilia Larrea andrea hil zuten, baita beste hiru lagun gehiago zauritu ere».

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan sartu.

### 1979ko martxoaren 5a.- Agustín Muñoz Vázquez.

Brigadako jenerala, etxeko atean hil zuten auto ofizialetik jaistear zegoenean. Ez dago jasota Barne Ministerioaren ETAren biktimen zerrendan. COVITE eta AVT elkarteek hilketaren egiletza erakunde horri egozten diote, eta FVTk GRAPO taldeari (egiaz talde hau izan zen). Auzitegi Nazionalak GRAPOko José María Sánchez Casas, Antonio Tosina García, Alfonso Rodríguez García eta María del Carmen López Anguita kideak epaitu zituen 1980ko urrian atentatuaren ustezko arduradun gisa [7]. GRAPOko lau kideak urte horretako azaroaren 18an zigortu zituzten atentatuaren egile gisa [8].

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan sartu.

### 1979ko maiatzaren 17a.- Emeterio de la Fuente Aller.

Brigadako jeneral erretiratua, Barne Ministerioak ez du ETAren biktimen artean jaso, eta FVTk GRAPOren biktimen zerrendan sartu du. COVITE eta AVT elkarteek ETAri egozten diote hilketa, eta 1979ko uztailaren 1ean izan zela diote. *Vidas Rotas* eta *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuek ez dute aipatzen. GRAPOk urte horretako maiatzaren 17an egindako atentatu baten biktima izan zen [9], eta bi hilabete geroago hil zen.

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan sartu.

6 *El País* egunkaria, 1978ko ekainak 30.
7 *El País* egunkaria, 1980ko urriak 2.
8 *ABC* egunkaria, 1980ko azaroak 19.
9 *El País* egunkaria, 1979ko maiatzak 17.

### 1979ko abuztuaren 2a.- Juan José Lopategi Carrasco.

ETAko kidea, Lapurdiko Angelun buruan jasotako tiro baten ondorioz hil zen. Barne Ministerioak ETAren biktimen bere zerrendan jaso du. AVTk ez du aipatzen terrorismoaren biktimen zerrendan. COVITEk hilketa BVEri egozten dio. Eusko Jaurlaritzak ere talde horri leporatu dio.

BVEren eta talde sateliteen (Triple A, GAE) biktimen zerrendan jaso dugu.

### 1979ko irailaren 23a.- Carlos Seijas Fernández.

Itsas infanteriako kapitaina, Ferrolgo basean hil zuen Antonio Cabanillas Cabrera kaboak. Gerra Kontseilu batek 30 urteko giltzapealdira zigortu zuen kaboa. AVTk baino ez du ETAren biktimatzat hartzen.

Aipatutako kaboak ahozko ikustaldian adierazi zuen kapitaina tirokatu egin zuela berari eta familiari gerta zekiekeenaren beldur, bere aitak Basaurin zuen arotzeriako tailerrean ETAri egotzitako hainbat ohar ikusi baitzituen; horien bidez ETAk eskatzen zion berehala ekiteko baseko komandantearen aurka. Lekukotasun hori oinarri hartuta, hildako militarraren alargunak terrorismoaren biktima gisa hil osteko Gurutze handia eskatu zuen bere senarrarentzat 2000ko urtarrilaren 24an; eskaera hori, baina, ezetsi egin zuen 2008ko azaroaren 14ko Ministroen Kontseiluak. Gobernuak alegatu zuenez, Barne Ministerioaren 2001eko txosten batek adierazten zuen ez zela egiaztatu aipatutako gertaeretan terrorismoak zerikusia izan zuenik eta «aipatutako domina terrorismoaren biktimentzat» bakarrik dela..

Barne Ministerioak 2001eko martxoko eta uztaileko bi ebazpenetan ere ukatu zuen familiak egindako kalte-ordainaren eskaera, Terrorismoaren biktimen elkartasunerako Legearen babespean. Uko horren aurkako helegitea aurkeztu zuten Auzitegi Nazionalean, baina kalte-ordaina ematea ezetsi zuen horrek heriotza ez zela atentatu terrorista baten ondorioa izan iritzita.

Auzitegi Gorenak Ministroen Kontseiluaren erabakia indargabetu zuen 2010eko otsailaren 16an, uste baitzuen elementu nahikoak zeudela ulertzeko aipatutako heriotza Terrorismoaren biktimen elkartasunerako Legeak babestutako kasuetan sartzen zela; izan ere, egileak adierazi zuenez, ETArekin lotutako beldurrak eta presioek eraginda jardun zuen. Auzitegiaren iritziz, kaboaren ekintza lege horren hirugarren kasuan sartzen dela, hau da: «herritarren bakea eta segurtasuna modu larrian asaldatzeko jokatzen duen (...) pertsonak edo pertsonek gauzatutako gertaerak».

Salaren epaiak zioenez, gertaerak jazo zirenean horiek ez ziren egokitzen orduan terrorismoaren delitutzat hartzen ziren eta zigor-kondena jaso behar zuten gertaeretara, baina agerian utzi zuen egoera hori bai dagoela jasota 1999ko lege-testuan; halaber, epaian dio gertaera horiek onartzea ez dagoela lotuta terrorismo-delituagatiko kondena ezartzen duen epai irmo bat egotearekin.

ETAren biktimen zerrendan ez jasotzea erabaki dugu.

### 1979ko irailaren 30a.- Santos Sampedro Lozano.

Guardia Zibileko agenteek errore baten ondorioz tirokatu zituzten biktima eta lankidea, Carlos Martínez Manuel, zauri larriak izan zituena, beraiengana pistolak eskuan hurbiltzen ari zirela ikusita [10]. COVITE eta AVT elkarteek ETAri leporatzen diote hilketa, baina ez Barne Ministerioak ezta FVT elkarteak ere.

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan sartu.

### 1979ko urriak 7.- Eugenio Recio Guzmán eta Manuel Pérez Comerón.

Guardia Zibileko sarjentuak, Kantabriako Puente Arceko kuartel-etxearen barruan hil zituzten Guardia Zibileko bi kide ohik [11]. Horrela ere jasota dago kasua *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuan. COVITE eta AVTren zerrendetan ETAren biktima gisa ageri dira, baina ez FVTren edo Barne Ministerioaren zerrendetan.

Ez ditugu ETAren biktimen zerrendan jaso.

10 *El País* egunkaria, 1979ko urriak 2.
11 *El País* egunkaria, 1979ko urriak 9.

### 1980ko urtarrilak 20.- Liborio Arana Gómez, Manuel Santacoloma, Pacífico Fica Zuloaga eta María Paz Ariño Varón.

Bizkaiko Alonsotegi udalerriko Aldama tabernaren atean sei kilo goma-2k osatutako lehergailua zartatuta hil ziren. AVTk ETAren biktimen artean jasotzen ditu; COVITEk GAE *Grupos Antiterroristas Españoles* taldeari egozten die atentatua, eta FVTk eskuin muturrari. GAE ultraeskuindarrak bere gain hartu zuen atentatua biharamunean [12].

Lau biktimak BVEren eta talde sateliteen (triple A, GAE) zerrendan jaso ditugu.

### 1980ko otsailak 17.- Mario Cendán Geimonde.

Taxilaria ogibidez, ETAk ez zuen inoiz hilketa bere gain hartu. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dute ETAren biktimatzat hartzen, baina bai AVTk eta COVITEk. *Vidas Rotas* liburuan ere ez da agertzen. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuan zalantzazko kasua dela diote, eta gaineratzen du hiltzaileak bala-zorroa eraman zuela, eta hori ez da inoiz izan ETAren modus operandia..

ETAren biktimen artean jasotzea baztertu dugu datu eztabaidaezinik ez dagoelako.

### 1980ko uztailaren 23a.- Antonio Contreras Gabarra, María Contreras Gabarra eta Anastasio Leal Serradillo.

Bilboko Amezola plazan dagoen Iturriaga ikastola-haurtzaindegitik gertu ipinitako lehergailu baten ondorioz hil ziren hirurak [13]. COVITE eta AVT elkarteek ETAri egozten diote atentatu hori, eta FVTk eskuin muturrari. Atentatuak Triple A taldeak hartu zuen bere gain.

Hiru biktimak BVEren eta talde sateliteen (triple A, GAE) zerrendan jaso ditugu.

### 1980ko azaroak 6.- Jeanine Pueyo.

Barne Ministerioak ez du ETAren biktimatzat hartzen, eta FVTren, AVTren eta COVITEren zerrendetan ere ez dago jasota. *Vidas Rotas* liburuan diote horren hilketa KIBAETAM ETA Militarra Laguntzeko Komando Independente Bereziak deitutakoek hartu zutela beren gain. Joseph Zuritaren neskalaguna zen; mertzenario bat zen hori, eta Juan José Etxabe etakidearen aurkako atentatuan esku hartu zuen; Etxaberen emaztea hil zen atentatu horretan.

Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

### 1982ko urtarrilaren 2a.- Pablo Garayalde Jaureguizábal.

Ez dago jasota Barne Ministerioaren ETAren biktimen zerrendan. COVITE eta AVT elkarteek ETAri egozten diote hilketa hori, eta FVTk eskuin muturrari [14]. Triple Ak hartu zuen bere gain hilketa.

BVEren eta talde sateliteen (triple A, GAE) zerrendan jaso dugu.

### 1982ko abuztuak 27.- José Luis Barona Zorilla eta Francisco Javier Angulo Fernández.

Biak egun berean hil zituzten Bilbon egindako bi atentatutan. COVITE eta AVT elkarteek diote ETAk egin zituela biak. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dituzte ETAren biktimen zerrendan jaso. EtaVidas Rotas liburuan ere ez daude jasota ETAren biktima gisa. *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuak drogaren munduarekin lotutako kontu-garbitze bati egozten dizkio hilketa horiek. Zentzu horretan ere jakinarazi zituen El País egunkariak 1982ko abuztuaren 28an.

Ez ditugu ETAren biktimen zerrendan jaso.

12 *El País* egunkaria, 1980ko urtarrilak 22.
13 *El País* egunkaria, 1980ko uztailak 24.
14 *El País* egunkaria, 1982ko urtarrilak 5.

### 1982ko urriaren 5a.- Juan Carlos Ribeiro de Aguiar.

Haren gorpua Bermeo eta Bakio udalerriak lotzen dituen errepideko bazterbidean aurkitu zuten, tirokatuta. Poliziak hilketaren egilea ETA izan zitekeela espekulatu zuen, baina ez zuen baztertu drogengatiko kontu-garbitzea izatea. Ez Barne Ministerioak ezta FVTk ere ez dituzte ETAren biktimen zerrendan jaso. Bai, ordea, COVITEk eta AVTk. *Vidas Rotas* liburuak aipatzen du 9 mm parabellum kalibreko zenbait bala-zorro (erakunde terrorista horrek munizio hori erabili ohi du) aurkitu zirela krimena ETAri leporatzeko. Berdin ere egiten du *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuak.

Ez dugu zerrendan jaso gure iritziz ez dagoelako elementu nahikorik adierazteko hilketa erakunde terroristak egin zuela.

### 1983ko otsailaren 20a.- Luis Manuel Allende Porrúa.

ETAk bahitu zuen 1982ko ekainaren 1ean, eta bederatzi egun geroago askatu zuen, erreskatea ordaindu ondoren. Ondoren minbizia garatu zuen, eta urtebete geroago hil zen. Familiak bahiketari egotzi zion gaixotasuna. Auzitegi Nazionalak 1985eko martxoan José Hernández Iñigo eta Juan Luis Bicandi Iturbe etakideak zigortu zituen bahiketaren egile gisa, baina epaian ez dute adierazi horien biktimaren heriotzak zerikusirik duenik bahituta egon zen aldiarekin [15].

Geroago, Bilboko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak, erantzukizun zibileko demanda batean, gaixotasuna bahiketan pairatutako estres bortitzak eragin zuela erabaki zuen 1988ko otsailean, eta familiarentzat 30 milioi pezetako kalte-ordaina agindu zuen. Barne Ministerioak ETAren biktimen artean jaso du.

Horrenbestez, epai judizialarekin batera jaso dugu gure zerrendan. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

### 1983ko ekainaren 23a.- Juan Emilio Casanova López.

Barne Ministerioaren ETAren biktimen zerrendan jasota dago. *El País* egunkariak biktima Emilio Juan Casanova López zela esan zuen [16], eta hala FVTk nola AVT eta COVITEk sartu dute beren zerrendetan. Lehena, CAAren biktima gisa; beste biak, ETAren biktima gisa.

ETAren biktimen zerrendan sartu dugu Barne Ministerioak emandako nortasunarekin.

### 1983ko irailaren 6a.- Francisco Julián Alberdi Igartua.

Barne Ministerioak ez du ETAren biktimatzat jotzen, ezta FVTk eta COVITEk ere, baina bai AVTk. *Vidas Rotas* liburuak hilketa ETAri egozten dio, baina biktimari Francisco Javier Alberdi Iriarte izen okerra ematen dio. Salmentetako ordezkaria Gorostiaga y Goytisolo enpresan, *El País* egunkariak irailaren 8ko edizioan esan zuen egileak biktima lapurtu nahi zuten gaizkile arruntak izan ziren hipotesia aztertzen ari zela polizia (ez dugu geroagoko erreferentziarik aurkitu). Horixe bera jasota dago *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuan. Biktimen elkarteek hilketa hori jaso zuten Fiskaltzari eta Auzitegi Nazionaleko Biktimei Laguntzeko Bulegoari aurkeztutako argitu gabeko kasuen zerrendan. Azken horrek egindako txostenean artxibatuta dagoela ageri da ebazpen judizialari dagokionez.

Ez dugu jaso ETAren biktimen zerrendan.

### 1983ko urriaren 12a.- Raúl Santamaría Alonso eta Jesús Postigo Pérez.

Bi polizia horien hilketa AVTren terrorismoaren biktimen zerrendan ageri da, egiletza ezezaguna dela aipatuta. Ez daude jasota COVITEren, FVTren edo Barne Ministerioaren zerrendetan. Gaizkile arrunt batek hil zituen bi poliziak Burgosko ospitaletik ihes egin ondoren; hara espetxetik eraman zuten guraize batzuez bere burua zauritu zuelako [17].

Ez ditugu ETAren biktimen zerrendan jaso.

15 *El País* egunkaria, 1985eko martxoak 5.
16 *El País* egunkaria, 1983ko ekainak 24.
17 *El País* egunkaria, 2008ko abuztuak 2.

### 1984ko abenduaren 26a.- Pedro García Suárez.

Hedabideek egun horretan ETAk Miguel Castellanos Escamilla, Gurea tabernaren jabea, hil zuela jakinarazi zuten; hamaika urte geroago nortasun hori gezurrezkoa zela frogatu zen. Biktima Pedro García Suárez zela identifikatu zuten orduan. Izen horrekin ageri da Barne Ministerioaren eta FVTren zerrendetan, eta horrela ere jaso dugu ETAren biktimen gure zerrendan. Uste dugu COVITEk bere zerrendan Pedro Pardo Romero izenarekin aipatzen duen biktima izan daitekeela. AVTk ez du egun horretan biktimarik jaso hiru nortasun horietakoren batekin.

### 1985eko uztailaren 1a.- Esther Grijalba Gómez.

COVITE eta AVT elkarteek ETAri egozten diote hilketa, eta 1985eko uztailaren 11n izan zela diote. FVTk «terrorismo arabiarra»ri egozten dio. ABC egunkariak Madrilgo Kale Nagusiko British Airways enpresaren bulegoen aurkako atentatu baten berri eman zuen uztailaren 2an. Orduko barne-ministro José Barrionuevok terrorista arabiarrei egotzi zien. Ez dago jasota Barne Sailaren biktimen zerrendan.

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan jaso.

### 1986ko ekainaren 1a.- Juan Caballero Porral.

Abokatu donostiar hori miokardio-infartu batek jota hil zen hainbat pertsona bere etxean bahitu nahian ari zirenean [18]. Barne Ministerioaren zerrendan ageri da ETAren biktima gisa. Ez dago jasota FVTren, AVTren eta COVITEren zerrendetan, eta haren heriotza *Vidas Rotas* zein *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima* liburuetan ere ez da ageri. Erakunde terroristak ez zuen inoiz bahiketa-saioa bere gain hartu. Egiletza ezezaguneko biktimen eta bestelakoen zerrendan jaso dugu.

Desadostasun handiak izan dugu zerrendan sartzeaz. Txostenaren egileen gehiengo bidez hartu da erabaki hori.

### 1986ko ekainaren 28a.- Carlos José Marrero Sanabria.

Guardia Zibila, atentatu batean zaurituta gertatu zen (bere lankide Francisco Muriel Muñoz hil zen atentatu horretan). Marrero Sanabriak ondorio psikiko larriak izan zituen, eta horien ondorioz Kanaria Handiko Las Palmaseko zentro psikiatriko batean sartu zuten. Bere buruaz beste egin zuen 1988ko urtarrilaren 10ean ospitalean, bisitatzera joan zen lankide bati arauzko arma kendu ondoren [19]. Barne Ministerioak ETAren biktimatzat hartzen du. Baita FVTk, COVITEk eta AVTk ere.

Ez dugu ETAren biktimen zerrendan jaso.

### 1986ko abenduaren 11.- Francisco Royo Giménez.

2015. urtearen hasieran Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuari lan hau agindu zion: ETAren mehatxua jaso zuten pertsonek jasandako bidegabekeria islatu eta aztertzeko txosten bat egitea, hain zuzen ere, hertsapen horretatik babesteko eskoltaren beharra izan zuten pertsonek jasandako bidegabekeria. Txostena orokorra da, eta intimidazio terroristak[1] askatasuna, bizitza eta eskubideak hertsatu zizkien pertsonen errealitatean sakondu nahi du.

Datu kuantitatiboak (informazio pertsonalik gabekoak) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eman ditu eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuaren ikerketa-taldeak konfidentzialtasun eta ardura osoz erabili ditu. Pertsona ugarik hartu dute parte, euren borondatez eta zabaltasunez, ikerketarako lekukotzak emanez; horretaz gain, *Zaitu*k (ETAk mehatxatutako pertsonen elkartea) ere parte hartu du, datu eta lekukotzak bilduz lan hau egin ahal izateko.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lanaren denbora-esparrua 1990etik 2011ra bitartean mugatu zuen. Jakina da 90eko hamarkadaren lehenengo urteetatik aurrera ETAren estrategia zela jazarpena hainbat sektoretara zabaltzea, eta geroago *sufrimenduaren sozializazioa* ideia adierazi zuela. 2011ko urriaren 10ean, ETAk indarkeria terrorista behin betiko geldiaraziko zuela iragarri zuen.

Egindako azterketa Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren barruan kokatzen da, eta, horregatik, datu kuantitatibo hauek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskolta-operatibo bat jarri zitzaien pertsonei buruzkoak dira.

## 1.2. Txostenaren edukiak eta egitura

Txostenak jasotzen duen informazioa lan honetarako ezarri diren helburuen arabera egituratu da. Hauek dira helburuak:

- ETAk mehatxatu zituen pertsona horiei eragin zitzaien sufrimendu bidegabearen deskripzio kuantitatibo eta kualitatibo bat eskaintzea.
- Bi gai hauetan ondorio batzuetara iristea: mehatxuz urratutako giza eskubideen argiketa; eta halako biktimen erreparazioa.

Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak edukien egitura hau garatu:

a) Erabilitako kontzeptuen argiketa terminologikoa. Lan honen ondorioetarako pertsona mehatxatua zer den zehaztea, bai eta hurrengo txostenetan aztertu beharko liratekeen sufrimendu edo jazarpen-indarkerien motak ere.

b) Txostenek hartzen duten denbora-esparruaren testuinguru historikoaren azalpena laburra. 90eko hamarkada, 1992ko ekitaldiei eginiko mehatxutik *Oldartzen* txostenera eta *sufrimenduaren sozializazioa* ideiara arte. Gure denbora-esparrua bukatzen da ETAk bere jarduera terrorista amaitutzat jotzeko zuen asmoa iragarri zuenean.

c) Eskura dauden datuen analisia.

Alderdi kuantitatiboa. ETAren mehatxua jasan zuten pertsona-kopurua ematen da, alderdi desberdinetan (kronologikoa, geografikoa, jarduera-arloen arabera…) eskuragarri dagoen informazioaren analisian oinarrituta.

Alderdi kualitatiboa. Eskolta edukitzeak eta mehatxatuta bizitzeak berekin dakarren giza kostuan sakontzen da, zenbait pertsonak beren esperientzia adierazgarria zuzenean kontatuz. Agerian geratzen da mehatxatutako pertsonen eta haien familien askatasunean eta eguneroko zereginetan duen eragina.

1 Txosten honekin batera, Ertzaintzarengan ETAk gauzatutako mehatxua islatu eta aztertuko lukeen beste txosten bat eskatu zen. Modu espezifikoan, ertzainen kolektiboan eta hauen familietan gertakari honen eragina aztertu behar zuen ikerketak. Bi azterlanak modu paraleloan egin dira, ikuspegi metologikoa partekatzen dute eta neurri batean osagarriak dira.

d) Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa. Aurreko ataletan aztertu diren datu kuantitatibo eta kualitatiboen interpretaziotik abiatuta, gertaeren interpretazio juridikoa egitea proposatzen da, gertaera haiek giza eskubide zehatzen urraketa izan baitziren, eta, gainera, mehatxatutako pertsonek ez baitzuten inolako baliabide juridikorik eduki eskura beren eskubideen defentsa edo erreparaziorako.

e) Azken gomendioak. ETAk mehatxatutako pertsonek jasan zuten sufrimendu bidegabea arintzen laguntzen duten erreparazio moralerako iradokizunak.

f) Aipatutako bibliografia.

## 1.3. Metodologia

Adierazi den bezala, azterketa honek ikuspuntu kuantitatibotik eta kualitatibotik aurkezten ditu bildutako datuak. Alde batetik, ikuspuntu kuantitatiboa erabiltzen da, Euskadin ETAk mehatxatuta zeuden eta eskolta zuten pertsona-kopurua eta datu horrek denboran izan zuen bilakaera aurkezteko. Denbora-esparrua urte naturaletan banatu da, eta horrela, ikus daiteke 1990etik 2011ra arte zein urtetan egon ziren pertsona gehien babestuta. Eskoltaren bidez babestutako pertsonen kolektiboa aldagai hauen arabera aztertu da: adina, sexua, jarduera profesionala eta bizitokia.

Alderdi kuantitatiboa aztertu ondoren, ikuspuntu kualitatiboa erabili da, banakako elkarrizketen bidez. Elkarrizketa erdi egituratu horietan, biktimen hizpidea bideratzen da haien hitzaldia mugatu gabe, eta horrela, izan zituzten esperientziak zehatz-mehatz azaltzeko aukera izan zuten. Datu kuantitatiboetan emandako jarduera profesional edo lanbide guztietako pertsonen lekukotzak bilatu dira. Biktimek beren bizitzaren lekukotzak partekatzean izan duten eskuzabaltasuna islatzen dute elkarrizketek, batez ere, askotan gertaera bereziki mingarriak berriro bizi behar izan dituztela kontuan hartuta. Gure esker-ona eta aintzatespena adierazi nahi dugu berezko lotsari aurre egiteko eta intimitateko pentsamendu eta sentsazioak agerian uzteko egin duten ahaleginagatik. Biktimen hitzei esker ezagutu dugu eskolta etengabe eduki beharrak beraien familia eta bizitzetan izan zuen eragina. Elkarrizketetan agerian geratzen dira pertsona mehatxatuek jasandako sufrimenduaren alderdi batzuk, fenomeno honen inguruko hausnarketa publikoan aintzat hartu beharko liratekeenak, hain zuzen ere, denbora luzean hertsapena jasatearen kostu emozionala, larritasun horrek pertsonen osasunean izan dituen eraginak, edo lanaldi osoan eskolta bat eduki beharragatik pertsona horiek laneratzeko edo lan-merkatuan jarraitzeko izan dituzten zailtasunak. Jazarpen kronikoak batzuetan familia-egonkortasunari ere eragiten zion, eta sarritan adiskidetasun- eta auzo-harremanak ere aldarazi zituen. Bildutako lekukotzek adierazi dutenez, arlo bat (pertsonala, familiakoa eta lanekoa) ere ez zen mehatxu terroristaren errealitate latzetik kanpo geratu.

Aurkezten ari garen txostenaren azken urrats gisa, lortutako informazioa giza eskubideek ezartzen duten parametro etiko-juridikoaren arabera ebaluatuko da. Indarreko lege-testuetan (Konstituzioa eta erreferentziako nazioarteko hitzarmenak barne) jaso eta ETAren hertsapen eta jazarpenaren bidez urratu ziren printzipio eta eskubideak aztertuko dira.

# **2**. Eskolta mehatxua definitzeko irizpide gisa, lan honen ondorioetarako

Azterlan honen edukiak garatu baino lehen, lan honen ondorioetarako pertsona mehatxatua zer den zehaztu behar da. ETAren terrorismoaren ardatz bat luzaroan hertsapen mota batzuk gauzatzea izan zen: pertsonen eta haien ondarearen aurkako erasoak, jazarpena, heriotza mehatxuak edo atentatuak. Hertsapen modu horiei izen hauek eman zitzaizkien: *intentsitate txikiko terrorismoa, aurretiazko biktimazioa edo jazarpen-indarkeria.* Beharbada, azken termino hori da erabiliena intimidazio mota hori izendatzeko. Indarkeria mota horren berezitasunak eta hura gauzatzeko modu desberdinak direla eta, biktimazioa, edo, bestela esanda, pertsona bat biktima bihurtzeko prozesua hainbat motatakoa izan daiteke. Bestalde, mehatxu egin zutenen helburuek, hau da, intimidazioak, borondatea deuseztatzeak eta norberaren bizitza arriskua dagoela jakitearen estresak, nabarmentzen dute biktima bakoitzak, subjektiboki, bere sufrimendua bideratu eta kudeatu zuela. Ondorioz, indarkeria hori ekiditeko edo horri aurre hartzeko baliabide desberdinak erabili ziren. Hori dela eta, ezkutuko biktima asko dago[2].

2 Gai honi buruz aurretik egindako txostenek ere jaso dute inguruabar hori. Arartekoa, *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeen emandako arreta. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia*, Vitoria-Gasteiz: Herriaren defendatzailea-Defensoría del pueblo, 2009ko ekaina, 495.-501. or.

Sarritan, biktima ere ez da jabetu biktima dela. Pertsona bati jakinarazten zitzaionean bere izena edo bere jarduerei buruzko dokumentazioa banda terroristari aurkitutako materialaren artean zegoela, beharbada une horretara arte ez zekien ETAren jomugan zegoela. Hala ere, norberaren arrastoei hain sakon jarraitu zietela jakiteak hain larritasun handia eragiten zuen, non pertsona horien bizi-kalitatea izugarri kaltetzen zen, eta horretarako konponbidea gorabehera, larritasun hori sufrimendu gisa aintzatetsi behar da. Bestalde, mehatxatuta daudela jakitean, indarkeria mota horren biktimen erreakzioak biktima-kopurua zenbatzea zailtzen du. Pertsona askok eguneroko zereginekin jarraitzea erabaki zuten, nahiz eta horrek beren bizitza eta integritatea babesteko neurrien pean bizitzeko ohitura lazgarria ezartzen zien. Hala, prezio altua ordaindu behar zuten, esaterako, lasai ibiltzeko aukera mugatuta izatea, bai beraiek bai beren familiek. Beste pertsona batzuk, ordea, egoera pertsonalagatik, denbora-tarte laburrean helbidez aldatu ahal izan ziren eta ekintza terroristatik ihes egitea, edo, gutxienez, zailtzea erabaki zuten, gehiago itxaron gabe. Ziur aski pertsona batzuek beren bizitza erabat aldatu behar izan zuten, egoera pertsonalagatik edo familiagatik beste irtenbiderik ez zutelako, eta jarduerei utzi behar izan zieten pertsona ezagunak ez izateko. Horrek esan nahi du prezio altua ordaindu behar izan zutela: adierazpen-askatasuna galtzea edo beren nortasuna modu askean garatu ezin izatea.

Txosten honen ondorioetarako, pertsona mehatxatuen errealitatea modu objektiboan kuantifikatzeko, irizpide bat hautatu behar izan da. Horrela, pertsona talde batek denboraldi zehatz batean bizi izan zuen errealitate gordina erakutsiko da. Hautatu den irizpidea hau da: mehatxatutako pertsonei eskolta-sistema jarri beharra ezarri zuen poliziaren analisia. Irizpide horrek txostenaren edukia mugatzeko ere balio du. Beraz, txosten honetan aztertu nahi da ETAk mehatxatzeagatik eskolta eduki zuten pertsonen egoera. Irizpide hori erabilita, gure azterlanetik kanpo geratzen dira mehatxatuta egon ziren beste pertsona batzuk. Badakigu kalifikazio generiko horretan hertsapen modu asko sartzen direla eta beraz, biktimazio modu asko ere bai, ikuspuntu kuantitatibotik modu objektiboan hartzen zailak direnak. Geroagoko azterlanetan komenigarria eta zilegi da ikertzea, ziur aski beste metodologiaren bat erabiliz, hertsapen modu desberdinen bidez mehatxatuta egon ziren eta bestelako estrategia edo baliabideekin egoerari konponbidea jartzen saiatu ziren pertsonek jasandako bidegabekeria.

Beraz, eskolta eduki beharraren datuan oinarrituta, zehaztu behar da errealitate hori iritzi publikoaren aurrean agertzeko eta aintzat hartu eta arautzeko egokitasuna zenbait erakundek nabarmendu zutela. Gesto por la Paz eta Elkarri erakundeek adierazpen bateratu bat egin zuten egoera hori salatzeko, eta mehatxatutako pertsonen eta haien familien askatasunean eta osasunean, eta, oro har, bizikidetza demokratikoan zituen eraginak azpimarratu nahi izan zituzten.[3]

- *Jazarpen-indarkeria milaka lagunek pairatzen dute gure herrian. ETAk mehatxatutako pertsonak dira, zenbait kolektibotakoak direlako edo jendaurrean euren ideiak edo konpromiso politikoa adierazten dutelako eskoltarekin bizi behar dute nahitaez.*
- *Mehatxua indarkeria-mota bat da, gure herrikideak seinalatu, jazarri eta isolatu nahi dituen indarkeria-mota. Mehatxuak beldurra eta nahigabea sortzen du. Mehatxatuta dagoenak bere askatasuna murriztuta dauka eta bere inguruarekin harremanak aldatu behar ditu bere bizitza babesteko.*
- *Jazarpen-indarkeriak, mehatxatutako pertsonen, beren familiaren eta hurbilekoen kontra ez ezik, gurea bezalako gizarte plural eta konplexu batean, bizikidetasun demokratikoaren oinarrien kontra ere egiten du.*

Geroago, terrorismoaren biktimak duin bihurtzeari eta haien eskubideei buruzko Balmasedako Adierazpenak proposatu zuen mehatxatua eta jazarritakoa sartzea terrorismoaren biktimaren definizio juridikoan. Halaber, mehatxatutako pertsonaren familiaren sufrimendua ere nabarmendu nahi zuen.[4]

> *Definizio horretan sartzen dira hertsapenaren eta mehatxuen biktima diren pertsonak. Eta biktimaren (hilda egon zein ez egon) zuzeneko senideak ere bai; izan ere, askotan senideak biktima bihurtzen dira eta sintomatologia psikologikoa izaten dute, lehenengo biktimak jasaten duen egoeraren ondorioz edo erreakzio moduan.*

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak Zioen Azalpenean aipatzen zuen 8. artikuluak biktimen memoriarako eskubidea ezartzen zuela: «*Memoria, lehenik, absenteena, eraildakoena, baina baita bizirik irtendakoena, zaurituena, bahitutakoena, estortsionatutakoena, mehatxatutakoena eta haien guztien familiarteko eta lagunena*». Lege horren hurrengo xedapen batzuek mehatxatuta egon diren pertsonak ere sartzen dituzte hartzaileen artean.

3 Gesto por la Paz eta Elkarri, *Manifiesto conjunto sobre la violencia de persecución*, 2004ko ekaina, 1. or.

4 ARCO – Colectivo de víctimas del terrorismo en Euskadi, *Declaración sobre la dignificación y derechos de las víctimas del terrorismo. Primeras jornadas de trabajo, Construyendo una nueva solidaridad: los derechos de las víctimas del terrorismo.* 2007ko otsaila, 7. or.

- 9. artikuluak legez kontrakotzat jotzen du indarraren erabilera edo erabiltzeko mehatxua herritarren artean beldurra zabaltzeko.
- 11. artikuluak kalte materialak konpontzeko diru-laguntzak jasotzen ditu, eta kalte horien artean daude EAEko gertaera terroristen ondoriozko ondasun higiezin eta higigarrietan eragindakoak. *«Ordaindu ahal izango dira, halaber, mehatxupean edo arrisku-egoeran dauden pertsona fisiko edo juridikoek segurtasun-arrazoiengatik ondasun higigarrietan eta higiezinetan egin behar izan dituzten gastuak».*
- 17. artikuluak ezarritakoaren arabera, *«ekintza terroristekin lotutako jazarpena, mehatxua edo hertsapena jasaten duten pertsona fisiko edo juridikoek diru-laguntza eskuratu ahal izango dute beren etxebizitzetan, establezimenduetan eta ibilgailuetan segurtasun-sistema egokiak instalatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko*».

Gai horretan gehiago sakontzeko asmoz, Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako irailaren 22ko 29/2011 Legeak, neurri hau sartu zuen bere helburuak lortzeko ezarri beharreko neurrien artean: talde terroristen eta haien inguruaren mehatxua eta hertsapena jasan duten pertsonak aintzatestea eta laguntzea. 5. artikuluak mehatxatutako pertsona honela definitu zuen: erakunde terroristen zuzeneko mehatxua edo hertsapena behin eta berriz jasan duela egiaztatzen duen pertsona.

# **3**. Azterlanaren esparru kronologikoaren aipamen laburra (1990-2011)

Txosten honen denbora-esparrua 1990etik 2011ra artekoa da. Ausazko hautaketa horren arrazoia da urte horietarako datu gehiago daudela aurreko hamarkadetarako baino. Horregatik, beharrezkoa da azterlanean sakontzea, hartzen duen denbora-tartearen aurretik izan ziren gertaerak argitzen dituzten materialak eta lekukotzak iritzi publikoari aurkezteko.

Era honetako lan bat egiteko beharrezkoa da esparru kronologikoa zehaztea, ikertzen ditugun gertakariek sarritan ez baitute hasierako data zehatzik. Nola nahi ere, 90eko hamarkadan hasten den denbora-tarteari buruzko datu gehiago daude eskura, aurreko urteetakoak baino. Izan ere, aurrerago azalduko den bezala, gizarte-eremu desberdinetara hedatu zen ETAren atentatuen estrategia (*sufrimenduaren sozializazioa* izenez ezaguna) eta *kale borroka*ren aldeko apustua direla eta, terrorismoaren mehatxuaren aurkako babes-mekanismoak areagotu eta gehiago hedatu behar izan ziren. Horrek esan nahi du lan honen aurreko urteetan ETAren mehatxutik babestu beharra izan zuten pertsonei buruzko ikerketa oraindik egin gabe dagoela, eta, ziur aski, ikuspuntu metodologiko desberdin batekin egin beharko litzatekeela, kontuan hartuta datu kuantitatiboak eskuratzeko zailtasun handiagoa dagoela.

Aipatutako urteetan gertaera garrantzitsuak izan ziren. Aldian aldiko dinamikak kontuan hartzea oso erabilgarria da datuek erakusten dituzten joerak azaltzeko. Helburu horrekin, analisiaren denbora-tartea lau zatitan banatu da, bakoitzaren ezaugarri berezien arabera.

**1990-1995.** Aurreko hamarkadan Aljerren izan ziren Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko elkarrizketek porrot egin zutela eta, 90eko hamarkadaren hasieran erakunde terroristak areagotu egin zuen estatuaren aurkako erasoa. Bazirudien terrorismoaren jardueraren helburua 1992ko nazioarteko ekitaldi garrantzitsuak zapuztea zela. (Adibidez, 1991. urtea bereziki gogorra izan zen: 46 hildako eta 149 indarkeria-ekintza, 1990ean baino % 19,25 gehiago). ETA Irurtzun-Andoain autobiaren aurka zegoen (Leitzarango autobia), eta autobia horren eraikuntzarekin zerikusia zuten enpresak ETAren jomugan zeuden. Hala ere, 1992ko martxoaren 2an, Bidarten, ETAk kolpe gogorra jaso zuen bere aurkako operazioan goi-karguak atxilotu zituztenean. ETAren ahultasuna bat dator HBn gertatzen ari ziren barne eztabaidekin; Ajuria Eneako Itunak eragin zuen isolamendua gainditzen lagunduko zuen estrategia bat argitu nahi zuten eztabaida horietan. Garrantzi handiko zenbait agirik aldi horren amaiera ezarri zuten. 1995ean HBk Oldartzen txostena onetsi zuen eta bertan adierazten zen esku hartzeko ildoa egokitu beharra zutela. Sufrimenduaren sozializazioaren kontzeptua ez da aipatzen, baina, garai hartan, gutxi gorabehera, jazarpen indarkeriaren

estrategiak oro har gauzatzen hasi ziren. Zuzen 79 barne-argitalpenetik ondorioztatzen da ETAk PP eta PSOEko politikarien aurkako atentatuak egiteko erabakia hartu zuela. KASen Karramarro txostenak kale borroka Ezker Abertzalearen lorpen handiena bezala definitu zuen.

**1995-1998.** Ardanza lehendakariak aitortzen du kale borrokak gainditu egin zuela prebentziorako eta defentsarako mekanismoek zuten erantzuteko ahalmena (1995. urtean, 365 egunetatik 136 egunetan izan ziren kale borrokako ekintzak[5]). Urte horietan, datu kuantitatiboen arabera ETAk estigmatizatu zituen hiru kolektibok atentatuak izan zituzten, eta horrek oihartzun handia izan zuen iritzi publikoan. Lehenik, enpresaburuak; Julio Iglesias Zamora eta José María Aldaia enpresarioen bahiketak nabarmendu behar dira. ADEGIk parte-hartze aktiboa izan zuen horren salaketan, eta, horregatik, mehatxu argiak jaso zituen. Bigarrenik, espetxeetako funtzionarioak; profesional horien aurkako atentatuetan hildakoak egon ziren eta José Antonio Ortega Lararen bahiketa luzea. Hirugarrenik, udal hautetsiak; Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta hilketaren ondoren, Gobernuan zegoen Partido Popularraren zinegotzien aurkako atentatuak egin ziren Euskadiko udalerrietan. Hautetsi horietako batzuek uko egin zioten eskolta izateari, eguneroko bizimoduarekin bateraezina zela uste baitzuten. 1998ko irailaren 14an, ETAk alde bakarreko, erabateko eta mugarik gabeko su-etena iragarri zuen.

**1999-2005.** Su-etenak 438 egun iraun zuen, eta su-etena indarrean egon zen bitartean elkarrizketak egon ziren Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAren artean. PSE eta PPko buruzagi eta hautetsien aurkako atentatu gehiago egon ziren. Bestalde, hildakoak egon ziren ETAk mehatxatutako jarduera-arloetako pertsona adierazgarrien aurkako atentatuetan (prentsan, José Luis López de Lacalle, Santiago Oleaga; enpresaburuak: José Luis Korta; botere judizialean, José María Lidón; Ertzaintzan, Ana Isabel Arostegui eta Javier Mijangos). 2000ko abenduaren 8an, Askatasunaren aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituna izenpetu zen, eta horren ondoren, Alderdi Politikoen 6/2000 Lege Organikoa onartu zen. ETAren aurkako beste erasoaldi gogor bat izan zen Mikel Antza eta Soledad Iparragirreren atxiloketa. Diputatuen Kongresuak Gobernuaren eta ETAren arteko elkarrizketak baldintza batzuekin proposatzeko mozio bat onartu zuen. 2005eko ekainean, ETAk hautetsi publikoetarako su-etena iragarri zuen. Euskadin 956 pertsonak zeukaten mota bateko edo besteko eskolta. 2006. urtean Segurtasun Sailak 62 milioi euroko aurrekontu-partida zuen gai horretarako. [6]

**2006-2011.** Espainiako Gobernuko ordezkarien eta ETAren arteko kontaktu gehiago egon ziren. 2006ko martxoaren 22an ETAk su-eten mugagabea iragarri zuen, eta abenduaren 30ean Barajas aireportuko T4 terminalean egin zuen atentatu mortalak amaiera eman zion su-etenari. 2007ko ekainaren 6an ETAk su-eten mugagabearen amaiera iragarri zuen. Pertsona ugarik eskolta eduki behar zutela ikusi eta berriro abiarazi zen eskolta sistema. ETA AHTren proiektuaren aurka azaldu zen eta atentatuak egin zituen proiektuarekin zerikusia zuten pertsona ezagunen eta enpresa kontratisten aurka. 2010eko martxoaren 29an Brian Currin-en "Bruselako Adierazpena"-ren aurkezpen publikoa egin zen. 2011ko urtarrilaren 10ean ETAk su-eten iraunkorra, orokorra eta egiaztagarria iragarri zuen, eta urte horretako urriaren 20an indarkeria terroristaren amaiera jakinarazi zuen.

# **4**. Datuen aurkezpena

## 4.1. Datu kuantitatiboen azterketa

Hurrengo orrialdeetan aurkezten den informazioak elementu kuantitatiboak erakutsi nahi ditu, 1990. eta 201. urteen bitartean eskolta-zerbitzuaren beharra izan zuten mehatxatutako pertsonen errealitateari buruz. Datu horiek Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzak emandako informaziotik hartu dira. Bide batez, azpimarratu nahi dugu Segurtasun Sailburuordetza ahalik eta gehien laguntzeko prest egon dela eta beraren elkarlana ezinbestekoa izan dela azterlan hau egiteko. Taula eta grafikoak azterlan hau egin duen ikerketa-taldeak prestatu ditu, eta modu erraz eta argi batean erakutsi nahi dute urte haietako gertakarien irudi globala.

Bildu eta orrialde hauetan aurkezten den informazioa ikerketa-taldeari emandako dokumentazioan oinarrituta dago (konfidentzialtasun osoz erabili da). Informazio horretan ematen da 1990etik 2011ra

5 Azurmendi, José Félix; *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato.* Donostia: ttarttalo, 2014, 246. or.

6 Datu hori hemen ikus daiteke: Pérez, Kepa; *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005, 13. or.

Ertzaintzak eskoltaren bidez eta modu etengabean babestu zituen pertsonen zerrenda. Zerrenda horrek ez zeukan inolako datu pertsonalik ikerketa-taldeari eman zitzaionean, eta informazio hau ematen da: sexua, jaiotza-urtea, jaioterria, lanbidea eta kargua (eskoltaren babes-sistema ezartzeko arrazoi nagusia).

Osagarri moduan, txosten honen amaieran, 1. eta 2. eranskinetan, dokumentazio interesgarria ematen da ETAren mehatxuaren irismen kuantitatiboa neurtzeko. Hain zuzen ere, talde terroristari aurkitutako dokumentazioan agertzen ziren datu pertsonalei buruzko pertsonen kopurua ematen da, elaborazio-maila desberdinekin (1. eranskina), bai eta Ertzaintzak pertsonei eman zien arrisku-mailen zerrenda ere, pertsona bakoitzari zegokion mehatxatutako kolektiboaren arabera.(2. eranskina).

Eskolta duten pertsonei buruzko informazioa sailkatu da elementu demografikoen arabera, eta eskolta edukitzeak denboran duen eraginaren arabera. Lehenengo kasuan, datuak sexuaren, jaiotza-urtearen eta jaioterriaren arabera sailkatu dira. Bigarrenik, dokumentazioan jasotzen da zenbat urtetan eduki duten eskolta eta zein urtetan, zehatz-mehatz, eduki duten babes hori. Informazio hori esparru edo kolektiboen arabera sailkatuta ematen da. Atal kuantitatibo horren amaieran bi taula daude (4 eta 5), eta informazio osoa ematen dute eskolta bidezko babes-sistemak denboran zehar izan duen eraginari buruz.

**Datu kuantitatibo orokorrak**

| | |
|---|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura, eskolta-operatibo baten bidez babestutako pertsona-kopurua | 1.619 |
| Azterketa honek aztertzen duen denbora-esparruan, EAEn eskolta-operatibo baten bidez babestu behar izandako pertsona-kopuruaren estimazioa | 3.300 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa[7]

## 4.1.1. Eskolta zeukaten pertsona mehatxatuen sailkapena elementu demografikoen arabera (1990-2011)

Guztira, 1.619 pertsonak jaso behar izan dute babesa eskolta sistemaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura. Pertsona-kopuru hori **sexua**ren arabera sailkatuta, 1. taulan eta 1. grafikoan ikusten den moduan, emakumeak baino gizon gehiagok eduki dute eskolta; izan ere, eskolta zeukaten pertsonen bi heren gizonak ziren. Hain zuzen ere, % 65,78 gizonak ziren eta % 34,22 emakumeak.

**1. taula. Sexuaren araberako banaketa**

| Sexua | Pertsona-kopurua |
|---|---|
| Gizonezkoak | 1.065 |
| Emakumeak | 554 |
| Guztira | 1.619 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**1. grafikoa. Sexuaren araberako banaketa**




Informazio hori eskolta zeukaten pertsonen **adinaren datuekin** erkatzen bada, ikus daiteke gizon eta emakumeen arteko aldea nabarmenagoa dela adintsuenen artean, 2. taulak erakusten duenez. Eskolta zeukaten pertsona mehatxatuen kopurua eta portzentajea biztanleriaren azken segmentuetan orekatuagoa eta antzekoagoa da, lehenengo segmentuetan baino.

7 Eskoltarekin babestu ziren pertsona guztien kopuruari buruz Segurtasun Sailean erregistro ofizialik ez dagoenez, estimazioa egiteko segurtasunaren arloko ardura duten erakunde publikoen (Segurtasun Sailaren eta Barne Ministerioaren) artean dagoen akordio bat baliatu da, zeinak segurtasun-indarrek zein enpresa pribatuek egindako eskolta-operatiboek eragindako erantzukizunak eta gastuak modu ekitatiboan banatzeko helburua baitu.

Adinaren informazioa (jaiotza-urtea) 5 urteko segmentuetan taldekatu da (azken bi taldeak izan ezik), aztertzen ari garen gertakariak belaunaldi desberdinetan zer eragin eduki duen jakiteko. Oro har, baiezta daiteke eskoltarekin bizi izatea ez dagokiola adin tarte zehatz bati, aitzitik, biztanleriaren esparru guztietara zabaltzen da; dena den, egia da biztanleriaren talde batzuetan handiagoa dela eskolta duten pertsonen portzentajea, hain zuzen ere, 1942. eta 1971. urteen bitartean jaiotakoen taldean.

Bestalde, adinean aurrera egin ahala, oreka handiagoa dago emakume eta gizonen artean, ziur aski, gizarte-aldaketengatik, esaterako, laneratzeko berdintasun handiagoa gizon eta emakumeen artean.

**2. taula. Jaiotza-urtearen eta sexuaren araberako banaketa**

| Jaiotza-urtea | Gizon-kopurua | **Emakume-kopurua** | Guztira |
|---|---|---|---|
| 1922-1927 | 4 | 0 | 4 |
| 1928-1931 | 17 | 1 | 18 |
| 1932-1937 | 30 | 4 | 34 |
| 1938-1941 | 51 | 15 | 66 |
| 1942-1947 | 91 | 26 | 117 |
| 1948-1951 | 150 | 46 | 196 |
| 1952-1957 | 165 | 45 | 210 |
| 1958-1961 | 148 | 75 | 223 |
| 1962-1967 | 138 | 80 | 218 |
| 1968-1971 | 81 | 88 | 169 |
| 1972-1977 | 57 | 63 | 120 |
| 1978-1982 | 29 | 15 | 44 |
| 1983-1989 | 5 | 4 | 9 |
| Daturik gabe | 99 | 92 | 191 |
| Guztira | 1.065 | 554 | 9 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**2. grafikoa. Jaiotza-urtearen araberako banaketa osoa (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**3. grafikoa. Gizonen banaketa jaiotza-urtearen arabera (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**4. grafikoa. Emakumeen banaketa jaiotza-urtearen arabera (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

Eskolta duten pertsona mehatxatuen **jaiotza-datari** buruzko datuek, sexuari eta adinari buruzko datuek bezalaxe, ez dute ezer aipagarririk adierazten. 3. taulan eta 5. grafikoan ikus daitekeenez, portzentajeen banaketa eta biztanleria osoarena antzekoak dira, eskolta duten pertsonen portzentajerik handiena Bizkaian baitago (% 38,17); bigarrena Gipuzkoa da (% 29,15) eta Araba azkena (guztiaren % 17,7). Aipagarriena da gertakariak antzeko eragina izan zuela lurralde historiko guztietan. Ikerketa-taldeari eman zaion informazioan ez dago pertsona horien bizitokiari buruzko daturik. Datu hori eskuratzea interesgarria izan liteke geroagoko azterlanetarako, gertakariak gehien eragiten dituen eremuen mapa bat egiteko, datuek halaxe erakutsiko balute.

**3. taula. Jaioterriaren araberako banaketa**

| Probintzia | Emakumeak | Gizonezkoak | Guztizkoak |
|---|---|---|---|
| Bizkaia | 226 | 392 | 618 |
| Gipuzkoa | 146 | 326 | 472 |
| Araba | 78 | 210 | 288 |
| Bestelakoak | 14 | 30 | 44 |
| Daturik gabe | 90 | 107 | 197 |
| Guztizkoak | 554 | 1.065 | 1.619 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**5. grafikoa. Jaioterriaren araberako banaketa osoa (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**6. grafikoa. Gizonezkoen banaketa jaioterriaren arabera (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

**7. grafikoa. Emakumezkoen banaketa jaioterriaren arabera (portzentajeak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

### 4.1.2. Eskolta duten pertsona mehatxatuak denbora-tartearen (urteak eta urte-kopurua) eta eremuen arabera

Eskolta duten pertsona mehatxatuei buruzko informazioak beste datu bat ematen du: eskolta edukitzeak pertsona horien bizitzan zehar duen denbora-eragina. Lehenengo datua da pertsona horiek zenbat urtez bizi izan ziren eskoltarekin, eta ondorioa 8. grafikoan ikus daiteke: 2 eta 14 urte bitartean. Pertsona horien bi heren baino gehiagok (1.124 pertsona) 1 eta 5 urte bitartean eduki zuten eskolta, eta bosten batek (307 pertsona) 10 urtez, gutxi gorabehera. Aipatu beharrekoa da 5 pertsonak, gutxienez, eskolta eduki zutela txosten honek hartzen duen ia-ia denboraldi osoan (20 urte edo gehiago).

**8. grafikoa. Pertsona mehatxatuak, eskolta eduki duten urte-kopuruaren arabera (kopuru orokorrak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

Eskolta duten pertsona guztien eredua nahiko antzekoa da, eskolta izan duten urteen kopuruari begira. Baina urte-tarteei zehatz begiratzen badiegu, ezaugarri berezi batzuk antzeman daitezke, mehatxatutako pertsonaren kolektiboaren arabera. 9. grafikoan, adibidez, jasota dagoenez, alderdi politikoei edo kargu publikoei lotutako kolektiborik handiena da eta eredu bereziena duena; izan ere, eskolta izan duten urteetan kopuruek gora eta behera egiten dute; gainerako kolektiboetan, ordea, joera oso antzekoa da urteetan zehar. Kolektibo hori edo, zati bat, behintzat, aldi baterako da, eta baliteke hori joeraren azalpena izatea.

**9. grafikoa. Mehatxatutako pertsonak arloaren arabera eta eskolta eduki duten urte-kopurua**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

### Eskolta eduki duten pertsona mehatxatuak, urte-kopuruaren eta arloen arabera

Eskolta eduki duten pertsona mehatxatuen egoera argiago ikusi eta osatzeko lagungarria da ikustea pertsona horien kopuruak urteetan zehar izan duen eboluzioa. 10. grafikoak erakusten du urte horietan eskolta izan zuten pertsonen kopuruaren bilakaera osoa. Lehenengo eta behin, 1998an hasi zen gora egiten eskolta zuten pertsonen kopurua, eta 2003an goia jo zuen, alderdi politikoen 6/2002 Legea onartu ondoren eta 2005eko su-etenaren aurretik (une hartan apur bat behera egin zuen eskolta zuten pertsonen kopuruak). Su-etena amaituta, eskolta zeukaten pertsonen kopuruak gora egiten jarraitu zuen 2010era arte (826 pertsonak zeukaten eskolta).

**10. grafikoa - Eskolta zeukaten pertsona mehatxatuen kopurua urtearen arabera (kopuru osoak)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

9. grafikoan bezalaxe, datuak arloka banakatzean, ñabardurak antzematen dira kolektibo horien joeretan. Kargu politikoen edo alderdi politikoren bati lotutako pertsonen kasuan, joerak goia jo zuen 2003. eta 2007. urteetan, eta 2009tik aurrera joera egonkortu egin zen (500 pertsona baino gehiagok zeukaten eskolta). Enpresaburuen kasuan, goranzko joera 2007an hasi zen; urte horretan pertsona-kopurua aurreko urtekoaren bikoitza zen, eta kopururik handiena 2009an izan zen (105 pertsonak zeukaten eskolta). Bi kolektiboetan ikusten da ETAren su-etenen amaierak haien bizitzetan duen eragina.

Zenbait berezitasun duen hirugarren kolektiboa justizia-administrazioa da. Eskolta zeukaten pertsonen kopurua 2000. urtean gora egiten hasi zen, eta 2002. urtean 100 pertsona baino gehiago ziren: kopuru hori 2010. urtera arte mantendu da, gutxi gorabehera. Eskolta zeukaten pertsonen kopururik handiena (185 pertsona) 2008. urtean izan zen.

### 11. grafikoa- Eskolta zeukaten pertsonen kopurua urtearen arabera (arloka)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egindakoa

### 4. taula. Eskolta zeukaten pertsona mehatxatuen kopurua arloka eta eskolta eduki duten urte-kopuruaren arabera banatuta

| Urte-kopurua | | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA | GIZONA | 1 | 33 | 27 | 17 | 18 | 10 | 5 | 1 | 4 | 4 | 6 | 11 | 6 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | EMAKUMEA | 0 | 54 | 46 | 27 | 17 | 15 | 5 | 8 | 2 | 5 | 8 | 6 | 5 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ENPRESABURUAK | GIZONA | 0 | 19 | 30 | 35 | 15 | 4 | 2 | 3 | 2 | 4 | 1 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | EMAKUMEA | 0 | 0 | 1 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IRAKASKUNTZA | GIZONA | 0 | 2 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | EMAKUMEA | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ALDERDI / KARGU POLITIKOA | GIZONA | 1 | 109 | 77 | 76 | 36 | 71 | 22 | 22 | 16 | 53 | 21 | 46 | 33 | 19 | 2 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 2 | 2 |
| | EMAKUMEA | 0 | 45 | 31 | 35 | 22 | 62 | 5 | 9 | 10 | 21 | 6 | 28 | 18 | 5 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| HEDABIDEAK | GIZONA | 0 | 12 | 12 | 8 | 3 | 0 | 5 | 4 | 6 | 1 | 4 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | EMAKUMEA | 0 | 5 | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BESTELAKOAK | GIZONA | 0 | 34 | 34 | 12 | 13 | 6 | 2 | 8 | 4 | 2 | 2 | 2 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | EMAKUMEA | 0 | 26 | 6 | 3 | 2 | 3 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | | 2 | 339 | 269 | 218 | 126 | 172 | 47 | 55 | 44 | 90 | 48 | 104 | 65 | 28 | 2 | 1 | 2 | 1 | 1 | 0 | 1 | 2 | 2 |

**5. taula. Eskolta zeukaten pertsona mehatxatuen kopurua arloka banatuta eta eskolta eduki duten urte-kopuruaren arabera**

| Eskolta zeukaten pertsonen kopurua urtearen eta arloaren arabera | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 1 | 3 | 3 | 10 | 33 | 54 | 155 | 152 | 135 | 144 | 121 | 122 | 185 | 113 | 115 | 90 |
| ENPRESABURUAK | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 9 | 15 | 16 | 18 | 17 | 16 | 15 | 18 | 35 | 105 | 102 | 78 |
| IRAKASKUNTZA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 4 | 5 | 5 | 5 | 5 | 3 | 3 | 4 | 3 | 5 | 3 |
| ALDERDI/KARGU POLITIKOA | 18 | 39 | 22 | 20 | 19 | 25 | 15 | 14 | 14 | 113 | 229 | 303 | 327 | 413 | 383 | 366 | 318 | 447 | 432 | 509 | 509 | 511 |
| HEDABIDEAK | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 4 | 23 | 28 | 25 | 19 | 31 | 27 | 19 | 12 | 23 | 33 | 39 |
| BESTELAKOAK | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 | 18 | 42 | 44 | 43 | 43 | 36 | 24 | 29 | 27 | 61 | 62 | 35 |
| GUZTIRA | 19 | 39 | 22 | 20 | 20 | 27 | 17 | 17 | 17 | 130 | 295 | 481 | 575 | 656 | 602 | 598 | 508 | 638 | 628 | 817 | 826 | 756 |

## 4.2. Datu kuantitatiboen azterketa

Azterlan hau egiteko metodologia mistoaren zati gisa, elkarrizketak egin zitzaizkien ETAren mehatxua zuzenean jasan zuten zenbait pertsonari, bai hertsapen hori jasateagatik eskolta zerbitzua behar zutelako bai senideren bat egoera horretan zeukatelako. Ikuspuntu kualitatibotik sakondu da izandako esperientzian eta sufrimenduaren alderdi subjektiboetan, datu kuantitatiboen bitartez ezin baita horrelako ikerketa sakonik egin. Datu kualitatibo horiei esker benetako ikuspegia ematen da, garai hartan mehatxatutako pertsonen bizitza eta integritate fisikoa zaindu eta babesten zituen eskolta batekin bizi behar izateagatik urratu ziren eskubideen inguruan.

15 elkarrizketa egin ziren galdetegi erdi egituratu batean oinarrituta, eta horrela, elkarrizketa gai garrantzitsu batzuen inguruan antolatu zen, pertsonen erantzunak mugatu gabe eta testigantzak nahi zuten moduan garatuz. Ikerketa honetan parte hartu duten pertsona batzuek adierazi dute ez dutela beren izen-abizenak aipatzea nahi, eta ikerketa honen egileok zorrotz bete dugu hori, anonimotasuna gordetzeko. Horregatik, lan honetan ematen diren testigantzak elkarrizketatuaren profil generikoarekin identifikatzea erabaki da, eta, irizpide bakar bati eusteko, horrela jokatuko da pertsona guztiekin, identitatea emateko arazorik ez zutela adierazi zein ez. Gure iritziz, horrela gehiago nabarmenduko dugu testigantzaren edukia, egilearen identitatea baino. Zenbaitetan, apur bat aldatu behar izan dugu hitzez hitzeko testigantzaren bat, anonimotasunean egon nahi zuten pertsonen identitatea agerian utzi ahal zuten aipamen geografikoak edo pertsonalak ezabatzeko.

Ikerketa honetan borondatez eta eskuzabaltasunez parte hartu duten pertsonei beren bizipenak gogoratu eta sentitzen dituzten moduan kontatzeko eskatu zaie. Beraz, haien ikuspuntutik, guri ariketa subjektiboa helarazten zaigu, guk gogoeta egin dezagun. “Gogoratzen saiatzeko” prozesu honetan “historia egiten” laguntzen dugu, hau da, kontakizun kolektibo bat egiten. Xabier Etxebarriak laburbildu zuen moduan, *testigantza espazio publikoan adierazitako memoria gisa ikusi behar da, herritarrek entzuteko egindakoa, edo erabilera desberdinetarako agiri-artxibo ireki bihurtzeko, edo prozesu judizial baterako frogagiri bihurtzeko, edo bake-hezkuntzako prozesuetan erabiltzeko*[8]. Hurrengo kapituluan egingo den bezala, lan honen helburua da kolaboratzaileek kontatutako prozesuan izan diren eskubideen urraketak antzematea, aztertu diren datu kuantitatiboen bidez ere antzeman ondoren.

Lortutako informazioa zenbait gai-multzotan banatu da; multzo horiek elkarrizketetan azaldutako ideiak eta bizipen nagusiak jasotzen dituzte.

8 Etxebarria, Xabier; *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilboo: Parrilla, 2007, 60-61. or.

4.2.1. Mehatxua ulertzea eta ez ulertzea, eta mehatxuaren adierazpenak: hertsapena, jazarpena eta intimidazioa.

4.2.2. Mehatxatutako bizitzaren egunerokoa, autobabesetik eskoltaren operatibora.

4.2.3. Bidegabeko egoeraren ondorioak.

*4.2.3.1. Askatasuna eta intimitatea galtzeagatik ordaindu beharrekoa.*

*4.2.3.2. Mehatxatutako pertsona laneratzeko zailtasunak.*

*4.2.3.3. Aurrera egiten laguntzen duten elementuak, familia eta lagunak (irabazitakoak nahiz galdutakoak).*

*4.2.3.4. Jazarpenak gizartean duen ondorioa: eskolta duen pertsonaren estigmatizazioa.*

*4.2.3.5. Eskolta nahikoa ez denean. Mehatxua gauzatzea, hala eta guztiz ere.*

*4.2.3.6. Jasandako larritasunaren kostu saihestezina. Trauma osteko estresa.*

4.2.4. Jasandako bidegabekeriaren kontzientzia eta memoria partekatzeko beharra.

Jarraian erakusten den taulan zerrendatu eta identifikatzen dira analisi kualitatibo honetan beren testigantza emanez lagundu zuten pertsonak.

| Laguntzailea | Jarduera-arloa | Sexua | Identifikatzailea |
|---|---|---|---|
| 1. elkarrizketatua | Udal-kargu hautetsia | Emakumezkoa | E1CEM |
| 2. elkarrizketatua | Enpresaburua | Gizonezkoa | E2EMP |
| 3. elkarrizketatua | Botere judiziala | Gizonezkoa | E3PJ |
| 4. elkarrizketatua | Espetxeetako funtzionarioa | Gizonezkoa | E4FP |
| 5. elkarrizketatua | Mehatxatutako udal-kargu hautetsi baten senidea | Emakumezkoa | E5F |
| 6. elkarrizketatua | Unibertsitateko irakaslea | Gizonezkoa | E6PU |
| 7. elkarrizketatua | Udal-kargu hautetsia | Gizonezkoa | E7CEM |
| 8. elkarrizketatua | Botere judiziala | Gizonezkoa | E8PJ |
| 9. elkarrizketatua | Udal-kargu hautetsia | Emakumezkoa | E9CEM |
| 10. elkarrizketatua | Udal-kargu hautetsia | Gizonezkoa | E10CEM |
| 11. elkarrizketatua | Hedabideak | Gizonezkoa | E11MC |
| 12. elkarrizketatua | Unibertsitateko irakaslea | Gizonezkoa | E12PU |
| 13. elkarrizketatua | Botere judiziala | Emakumezkoa | E13PJ |
| 14. elkarrizketatua | Mehatxatutako udal-kargu hautetsi baten senidea | Emakumezkoa | E14F |
| 15. elkarrizketatua | Kazetaria | Gizonezkoa | E15P |

### 4.2.1. Mehatxua ulertzea eta ez ulertzea, eta mehatxuaren adierazpenak: hertsapena, jazarpena eta intimidazioa

Elkarrizketatu guztiek ezaugarri nagusi bat dute: denek erabaki zuten, une zehatz batean eta bokazioz, lanbide bati ekitea, edo beren udalerriaren alde lan egitea beren pentsaera ideologikoan oinarrituta. Oinarrizko hautu horien ondorioz haien integritate fisikoa eta, are gehiago, haien bizitza ere arriskuan egon zen. Pertsona bakoitzaren ingurunea desberdina zen eta kasu batzuetan, bide bat hautatzeak ezinbestean eragiten zuen haien burua nabarmentzea, bai eta bazterkeria-egoeran egotea eta erasoak jasatea ere. Jarraian testigantza batzuk emango ditugu; horietan, agerian geratzen da elkarrizketatuek soil-soilik beren jarduera politikoagatik edo lanbideagatik jasan zituzten intimidazioen errealitate gordina. Pertsona horiek azaldu zutenaren arabera, oso garai latza izan zen bizitza pertsonalean, eta horrek ulertarazi zien zein zaila izango zen beraientzat bizimodu segurua eta nolabait anonimoa izatea.

> *Udalaren eraketa ekitaldian izan zen zinegotzien aurkako lehenengo gertaera bortitza. 300 pertsona inguru zeuden osoko bilkuren aretoan eta sarbideetan, udal-talde politikoen aurkako leloak oihukatzen (...). Eraso egin ziguten, astindu eta iraindu gintuzten, objektuak bota zizkiguten... Udaltzainak ez ziren gai jendetza hura geldiarazteko eta presidentearen mahaira eta zinegotzien eserlekuetara hurbiltzea oztopatzeko.* (E7CEM)

> *Nire jaioterrira bizitzera itzuli nintzen (…). Egun batean parkean nengoen alabarekin, eskolta apur bat urrunago zegoen eta orduan hogei edo hogeita bost urte (ez dakit adina) inguruko bizpahiru mutil agertu eta hau esan zidaten: “Badakigu hemen zaudela, kontuz ibili, zu zelatatzen aritzen gara eta”. Justizia Auzitegi Gorenari eta Ertzaintzari jakinarazi ondoren beste eskolta bat gehiago jarri zidaten, herrian oso ezaguna naizelako.* (E13PJ)

Beste kasu batzuetan, bizitzaren aurkako mehatxuaren kontzientzia bat-batean hartu zuten. Mehatxuak ezaugarri zehatzak zituen, arlo geografikoari dagokionez ere bai. Jarraian emango ditugun testigantza guztiek ezaugarri berdina dute: ikerketa-lan honetarako elkarrizketatu ditugun guztiek familia mehatxutik askatzeko zuten kezka. Baina norberaren familia babesten saiatzea alferrik zela konturatzea mehatxatuta egotearen esperientzia latzenetako bat izan zen.

> *Telefono dei batek (…) asaldatu ninduen: aurreko gauean, Alde Zaharreko hormak nire izena erdian zuten dianaz beteta agertu ziren. Zinegotziak lasaitzeko esan zidan, denak ezabatzea lortu zuten eta. (…) Kezkatuta nengoen dianen gertaera hutsagatik, baina, are gehiago, San Sebastian eguna zen eta goiz hartan nire semeak (…) danborradan jotzen zuelako, eta ez zen atsegina izango danborra jotzen desfilatzea mehatxuzko diana haien artean, aitaren abizena, eta, beraz, bere abizena erdian zutela. Udal garbitzaileen taldeak oso lan ona egin zuen eta ezin zitekeen jakin zer jartzen zuen ezabatutako pintadaren azpian. Baina diana egin berri bat zegoen ibilbidearen amaieran, eta argi eta garbi ikusten zen (…). Ziur aski, garbitzaileek aurrekoak ezabatu ondoren denbora eduki zuten berriro margotzeko. Nire semeak pintada ikusi zuen. Nik ere ikusi nuen, emazte eta alabarekin danborradan nengoela. Horixe izan zen, zalantzarik gabe, poliziaren babesarekin bizi izan nintzen hamar urte, bi hilabete eta bi egunetako unerik latzena.* (E6PU)

> *Iraultza-zergarena hasi zen eta patronalean nuen jarrera erabat ezaguna zen. Hedabideek aipatzen zutenean, ni aurka azaltzen nintzen beti, eta ez ordaintzeko esaten nuen, jakina (…). Pankartak eta kartelak agertzen ziren. Alde zaharretik joaten ginenean begiratu behar genuen non geunden, kartel batzuetan agertzen ginelako. Gauza batek bereziki mindu gintuen, nire semeak goiz batean ikastetxetik irtetean ikusi zuelako. Atarian bertan, odol-zurrusta bat ikusi zuen (behi-odola) lurrean, eta nire izena eta jarraian“hiltzailea” behin baino gehiagotan idatzita zegoen. Hori nire semeak ikusi zuen.* (E2EMP)

Jaioterriaren eta auzokideen ongizatearen alde lan egiteko bokazioa: horixe da elkarrizketatu ditugun zinegotzi hautetsi guztien ezaugarri komuna. Denboran irauten zuen intimidazio-egoera jasateko bidegabekeriak bizitza eta integritate fisikoa eskoltekin babestu beharra ekarri zuen. Familia ere mehatxatuta zegoela jakiteak, kasu askotan, eskoltaren babesa onartzeko eduki zitzaketen zalantzak edo eragozpenak desagerrarazi zituen.

> *Gregorio Ordóñez hil zutenean, nik alderdi horretan parte hartu nuen beti, noski, eta gertaera horrek zirrara handia eragin zidan, orduan, alderdian ni baino gehiago sartuta zegoen lagun batek esan zidan “Zergatik ez zara aurkezten zinegotzia izateko?” (…) udal politika onena da, herritarrengandik hurbilen dagoena baita. Nik han ia-ia ez dut politikarik egin, ondo moldatzen nintzen guztiekin eta ahalik eta gehien lagundu dut. Lagundu izan dut beti, nire hiria maite izan dudalako beti. (…) Dena ondo*

*zihoan, gauzak okertzen hasi ziren arte. Molotov koktel bat bota zuten nire etxearen aurka, nire alabaren negozioa erretzen saiatu ziren, eta orduan, eskolta behar genuela erabaki genuen.* (E9CEM)

*2001eko azaroan José María Lidón hil zutenetik, Euskadiko ia-ia 200 epaileri eta ehun fiskal inguruŕi babes-neurriren bat hartzeko gomendatu zitzaien. Niri eskolta bat jarri zidaten, eta, hamar urtez, nik ez ezik, nire familiak ere bizi behar izan zuen etengabe bi eskoltekin, eta, horrek, nolabait, gure ohiko bizimoduko jarduerak mugatu ditu.* (E8PJ)

Eskolta-sistemaren babesa onartzeak esan nahi du pertsona asko eta asko ez zirela kikildu mehatxu terroristaren aurrean, eta erabaki horren kostu handia gorabehera, beren lanarekin aurrera egiten jarraitzeko asmoa zeukatela. Gehienetan, denboran amaiera zehatzik ez zuen hain egoera bidegabeari aurre egiteko estrategia izaten zen nork bere jarduerei naturaltasuna ematea, ingurune hurbileko jendea (eta bidez batez, nork bere burua) konbentzitzeko beharrezkoa dela intimidazioari aurre egitea. Erabakia hartzea zein gogorra zen frogatzen du udal-kargu hautetsi baten senide baten lekukotzak. ETAk hil zuen arte, hautetsi horrek hiru urtez jazarpen modu desberdinak jasan zituen.

*Hiru urtez edo hil baino lehenago hasi ziren kaletik mehatxatzen, eta geroago, bere etxera etortzen hasi ziren. Kaletik zihoala kartzelari deitzen zioten, harrika aritzen zitzaizkion Gesto por la Pazen ordu laurdeneko agerraldietan (...). Taldearekin han zegoela, harriak bota izan dizkiote. Hori esan dit berarekin egoten zen jendeak. Geroago jakin dut berari bakarka, irakurri dudan artikulu baten arabera, beldurraren beldurrez edo … (nahiz eta berak uste zuen ez zutela hilko, baina azkenean egoerak gainditzen zaitu) eta negar egin duela beste batzuekin, eta nik hori ez dut inoiz jakin, etxean inoiz ez duelako horrelakorik egin. Nire alabak tiraderara haren gauzen bila joan zirenean, inoiz kontatu ez zizkigun mehatxuak zeuden.* (E5F)

Lekukotza horretan ageri den bezala, mehatxu terroristaren pean bizi izatearen kontzientziak larritasun bikoitza sorrarazi zien jazarpen eta intimidazioaren helburu ziren pertsonei: alde batetik, norberaren familia babestu beharragatik, eta bestetik, familia ezinegon horretatik urrun mantentzen saiatzeagatik. Bigarren asmo hori nekez betetzen zen, senideek ezin hobeto ulertzen baitzuten ikusten ari ziren gertaeren garrantzia. Mehatxatu eta azkenean hil zuten pertsona baten senideak honela azaldu zigun:

*Behin, nire emazteak, nire anaiarena gertatu ondoren, honela esan zidan:"Zuk zer uste duzu, ez nintzela konturatzen, zure anaia bazkaltzera etortzen zenean, gero egongelara joan eta han ordu eta erdiz hizketan egoten zinetela? (…) Ez nintzela konturatzen kotxea hartzerakoan garajera jaitsi eta miatzen zenuela beti? (…) eta horrek alde iluna sortzen du bikote-harreman batean, ez duzulako beldur hori transmititu nahi, baina, noski, bikotekidea ohartzen da eta batzuetan isiltasunak gehiago sufriarazten du, egia kontatzeak baino.* (E4FP).

Jazarpenak luzaro irauteak eta gainera, praktika horiek hain nabarmenak eta gordinak izateak, nahitaez, kalte emozional handia eragin zien mehatxatutako pertsonei. Ondorio horiek aurrerago aztertuko ditugu ikerketa kualitatibo honetan. Jarraian emango dugun testigantzan, udal-kargu hautetsi baten senideak azaltzen digu noiz hasi zen nabaritzen bere senarraren kemena gainbeheran hasia zela.

*Gau batean eskoltek etxean utzi gintuzten. Haiek joan eta hiru minutura deitu ziguten telefonoz: "Esan senarrari kalea pintadaz beteta dagoela bere izenarekin. Ertzaintzari deituko diogu, dena pintadaz beteta dagoelako". Senarrari esan nionean, horrela jarri zen* (esertzen da burua besoen artean) *sukaldean, eta ezetz... ezetz esaten edo. Zigarro bat piztu zuen (ez du inoiz erretzen) eta ez zuela nahi… Orduantxe hasi nintzen zerbait nabaritzen, berarengan zerbaitek huts egin zuela. (…) Lehenago pankarta erraldoi bat jarri ziguten gure etxe gaineko mendian, eta nire senarraren izena eta bere alderdi politikoa irakur zitekeen han, eta behean diana bat eta "hilda zaude" esaldia. Ertzaintzak mehatxu horren atestatua egin zuen baina inork ere ez zuen argazkirik egin. Hori dela eta, pintadak zeudela esan zidatenean, senarrari esan nion"goazen argazkiak egitera, pankartarekin gertatu zena berriz ez gertatzeko". Orduan senarrak ezetz esan zidan, ezin zuela... Argazki-makina hartu eta joan nintzen argazkiak egitera. Han nire senarraren izena, Ertzaintzarena eta "hilda zaudete" esaldia ageri ziren. Benetan, ia-ia bi kilometro. Gure etxetik hondartzaraino bi kilometro edo kilometro eta erdi inguru dago.* (E14F)

### 4.2.2. Mehatxatutako bizitzaren egunerokoa, autobabesetik eskoltaren operatibora

Esan bezalaxe, pertsona mehatxatuak zirela onartzeak, jasotako testigantzen arabera, kostu emozional handia eragin zuen, bizitzan oinarrizko eta ezinbesteko erabakiak (lanbidea, joera politikoa, udalerriaren alde lan egiteko konpromisoa, norberaren iritziak adieraztea...) hartzeagatik norberaren bizitza arriskuan

zegoela barneratzeko. Bidegabekeria horrekin batera, eguneroko ohiturak aldatu behar izan zituzten, mehatxuaren eta erasoen arriskua gutxitzen zuten neurriak hartzeko. Hasieran autobabeserako neurriak izaten ziren, eta denborak aurrera egin ahala, babeserako mekanismo integralak ziren, eskolten bidez. Horrek guztiak intimitatea eta joan-etorrietarako askatasuna galtzea zekarren, adierazpen-askatasuna edo kontzientzia-askatasuna babesteko asmoz.

> *Hasieran gomendioak ziren, etxetik irteteko, kaletik ibiltzeko, unibertsitatera joateko... Leku eta ordu batzuk arriskutsuagoak ziren, noski, Alde Zaharra eta herri batzuk, hitzaldiren bat iragarrita baneukan. Nire joan-etorrien zehaztasunak emateko eskatu zidaten, jaiegunen eta lanegunen arabera. Garai hartan kanpoaldean bizi nintzen, oso leku lasaian, eta autoa behar nuen edonora joateko. Handik gutxira manifestazioak egiten hasi ziren nire etxeko ate aurrean. (…) Ertzaintzan jakinarazi ondoren, kontrazaintza diskretua hasi zen: Ertzaintzaren auto bat pasatzen zen nire etxe aurretik unibertsitatera joateko irten behar nuenean. Geroago, etxean sartu eta irteteko ordu zehatza jakinarazi behar nien aurreko egunean. Aurrerago, berdin egin behar izan nuen unibertsitatera heldu eta handik irteteko, eta une horietan auto batek babesten ninduen. Egoera horrek, zenbait aldaketarekin, 2001eko urrira arte iraun zuen, nire izena ETAren paper batzuetan agertu zenean. Euskal Autonomia Erkidegoan nengoen bitartean, eskolta batekin joatea aholkatu zidaten. Nafarroan hitzaldi bat ematera gonbidatzen baninduten, adibidez, Guardia Zibilari ohartarazi behar zioten. Espainiako gainerako herrietan eskoltarik gabe ibiltzen nintzen. Inoiz ez nintzen egoera horretara ohitu; moldatu nintzen, salbuespen batzuekin. Oso arraroa zen“tranpa” egitea eta nire eskoltarengandik ihes egin eta nire kabuz joatea. Topaketa desatsegin batzuk eduki nituen eta kaletik ez nintzen lasai ibiltzen. Beti pentsatu nuen makurkeriaren bat egin nahi izanez gero, ni eta eskolta biok hilko gintuztela, baina pentsatu nuen, baita ere, arriskurik handiena ez zela ETA, baizik eta kale borroka, eta hedabideetan agertzeagatik ezagutzen ninduten eta nire iritziekin ados ez zeuden pertsonak.* (E6PU)

Autobabeseko neurri errazenetako bat, eta, aldi berean, mingarrienetako bat nork bere burua ezkutatzea zen. Pertsona batzuek egin ahal izan zuten, beren bizitokian ez zirelako ezagunak edo beste herri batera bizitzera aldatu zirelako, eta lanbidea edo aukera politikoa ez ezagutaraztea erabaki zuten, agerian ez geratzeko. Jendaurrean naturaltasunez agertzeari uko egiteak urradura emozionala eragiten du; izan ere, bizitzan hartu diren erabakiak lotsatzeko modukoak balira bezala jokatzera behartzen du jendea. Elkarrizketatu dugun botere judizialeko kide batek honela azaldu zigun:

> *Batzuetan iruditzen zitzaidan ahaztu behar nuela zer nintzen… Ezin dut ahaztu aitak behin esan zidan esaldia: “Pena handia ematen dit zure lanbideaz galdetzen didatenean, ematen duelako ezkutatu behar dudala, zerbait txarra egiten duzula, drogan edo prostituzioan edo horrelako zerbaitetan ibiliko bazina bezala…”. Eta izugarri sufritu nuen, nire aitak buru-belarri ikasten baino ez ninduen ikusi… Gu bizitzera joan ginen tokian ezkutatu nuen epailea nintzela, abokatua nintzela esaten nuen eta horrela aurkezten nuen neure burua.* (E13PJ)

Beste batzuetan, eskoltaz gain, babes-neurri osagarriak hartu behar izan ziren, esaterako, bizimodua eta, are gehiago, bizitokia aldatzea. Jende guztiak ezin du bere ingurune guztia aldatu, noski, eta arrazoiak agerikoak dira, baina gure elkarrizketatuak bai, eta ez zuen zalantzarik izan horretarako, nahiz eta erabakia zaila eta latza izan.

> *Ertzaintzaren informazio-unitateak deitu zidan nirekin elkarrizketa bat izateko. (…) ETAri dokumentazioa aurkitu zioten, eta ikertu ondoren esan zidaten nire izena agertzen zela, eta oso era landuan, gainera. Elkarrizketa horretan albistea eman zidaten eta erakutsi egin zidaten (dokumentazioa ikusi nuen). Hiru orri ziren eta argi eta garbi ikusten ziren atentatua egiteko modu desberdinak, postontziaren tamaina, atariaren neurriak, ibilbideak... Eta esan zidaten “guk dena baloratzen dugu beti; beste pertsona batzuk informazioaren arketipoak dira, izen bat BOEn agertzeagatik; baina hau ez, hau babesa ipintzeko modukoa da, eskolta ipintzeko modukoa”. Zuzenean baietz esan nien. Horren lehenengo ondorioa nire etxea uztea izan zen; konturatu nintzen nire etxea ez zela leku segurua izango, pertsona gehiago bizi ziren han.* (E3PJ)

Mehatxatuta bizitzeaz jabetzeak berarekin dakar eguneroko ohiturak aldatzea eta segurtasuna sartzea, eta horrek erabat baldintzatzen du pertsona baten bizitza. Gainera, ordura arte ezagutzen ez diren trebetasunak eta ezagutzak ikasten dira, eta haiekin bizi izan dira elkarrizketatuak azken bi hamarkadetan. Prozedurak eta autobabeserako inertziak, segurtasun-indarrek jakinarazi zituzten unetik bertatik, deserosotasunaren iturri izan dira beti, eta, geroago, luzaro errepikatzearen poderioz, egunez egun antsietatea sortzen zuten. Babes eta prozedura horietara ez ziren inoiz guztiz ohitu, inondik inola ere ez, eta babestutako pertsonen bizi-kalitatearen hondamena azpimarratu baino ez zuten egiten. Jarraian, kontrazaintzako neurriak behar

izan zituen pertsona baten testigantzak emango ditugu, eta eskolta-operazio oso bat behar izan zuen beste pertsona batenak.

> *Ezkondu nintzenean, beste udalerri batera joan nintzen bizitzera. Espetxeetako funtzionario gisa lan egiten nuen, eta, heldu bezain laster egin nuen lehenengo gauza Ertzaintzara jotzea izan zen. Nire izena, lanbidea, helbidea, matrikula eta ibilgailu mota eman nituen, nire egoeraren berri izan zezaten. Ez nuen babes-neurri berezirik eskatu, eta ez zizkidaten eskaini. Jakin zezaten bakarrik. (…) Lantzean behin, eta Ertzaintzaren polizia etxean nagusiz aldatzen ziren guztietan, deitu egiten zidaten (profesionaltasun-maila handia erakutsi zuten). Egun batean, autobabeserako neurriei buruzko bideo bat erakutsi zidaten, oso bideo gogorra, baina horixe zen errealitatea. (…)1999an Ertzaintzak jakinarazi zidan nire egoerari buruzko ebaluazio bat egin zutela eta bazitekeela nire aurkako atentaturen bat gertatzea. Segurtasun-protokolo bat jarri zidaten. Astelehenetan edo ostiraletan, nik deitzen ez banien, beraiek deitzen zidaten hurrengo astearen plangintza egiteko. Zenbaki-kode bat eman zidaten. 7:30ean etxetik irteten nintzenean, poliziaren auto bat egoten zen, batzuetan ikusten ez banuen ere.* (E4FP)

> *Hasieran kontrazaintzari buruz hitz egiten da, are gehiago, bik edo hiruk eskolta bera edukitzea aipatzen da, eremu bereko hiru kide, ziur aski arrazoi ekonomikoengatik, dena delakoagatik... Hasieran enpresaren ekimena izan zen, baina gero Eusko Jaurlaritzaren ekimena heldu zitzaigun; zenbait pertsonari eskolta jarri behar zitzaiela eta oso modu zorrotz eta ofizialean egin behar zela. Hobe zen beti eskolta zenuela ikustea, komandoei begira eta informazioa biltzen ari zirenei begira (…). Gogoratzen dut lehenengo ikastaroa egin genuela eta Ertzaintzaren espezialistak etorri zirela. Zenbait datu jakiteko nola jokatu behar den atentatua gertatzen denean, nolakoak izan behar diren eguneroko ohiturak: leku beretara ez joan, ordu berean ez joan, zentro publiko batean zaudenean ateari begira eseri eta horrelako gauzak... Ertzaintzak esaten dizu etxera nola joan eta nola itzuli behar duzun. Nik, orain, etxera joaten naizenean, heldu baino askoz ere lehenago kentzen dut segurtasun-uhala. Azaltzen ziguten arauetako bat zen segurtasun-uhala ez dugula lotu behar, behar izanez gero, salto egin ahal izateko. Etxez aldatu nintzen, herriaren erdialdean bizi nintzelako eta zaila zen segurtasuna bermatzea. Nik autoa garaje publiko batean uzten nuen auto gehiagorekin, alde horretan ezker abertzalea oso bizirik zegoen; are gehiago, nire auzokide bat ETAren komando bateko kidea zen. Inguruabar batzuk zirela eta, zaila zen segurtasun-neurriak hartzea. Beste herri batera joatea erabaki nuen, leku seguruago batera. Familia osoaren erabakia izan zen.* (E11MC)

Unibertsitateko campusa espazio irekia, dinamikoa eta komunikatiboa izateko sortu den arren, zaila da espazio hori kontrolatzea bertako kideak jazarri eta beldurtzen dituztenean. Horrela kontatu zigun aldi batez zuzendaritza-lana egin zuen unibertsitateko irakasle batek. Testigantza horrek oso argi erakusten du mehatxuak pertsonen arteko truke intelektual, profesional eta emozionaleko harreman naturalen dimentsio kolektiboa eta murriztailea hartu zuela.

> *Badakit nire izena ETAren komando baten zerrendetan agertu zela. Baina nik banekien, nire karguagatik, beste irakasle batzuei buruzko informazioa, hasieran komando bati aurkitutakoa, geroago beste komando batzuei aurkitutako informazioan datu gehiagorekin osatuta agertu zela. Agerian zegoen irakasle batzuei jarraipen sistematikoa egiten zitzaiela, hurrengo komandoen fitxetan informazio hobea zegoelako. Argi ikusten da komandoak lanean zeudela informazio bila, atentatua zehaztasun gehiagorekin egiteko. Horrek segurtasun eza sorrarazten zuen unibertsitatean, berez, unibertsitatea erakunde irekia delako. Unibertsitatea ez da ikasle eta irakasleei babesa emateko prest dagoen erakunde bat. Hori bereziki zaila zen guretzat, unibertsitatetik milaka pertsona pasatzen direlako. Gainera, irakasleen aurkako atentatu krudelak gertatu ziren Madrilen, esaterako, 1996ko Tomás y Valienteren aurkako atentatua (...). Unibertsitatean inoiz ezagutu ez ziren segurtasun-elementuak jarri behar izan ziren. Adibidez, segurtasun-kamerak unibertsitate barruan, eskanerrak errektoretzan posta-zerbitzua kontrolatzeko, autoak aparkatzeko zaintzako zerbitzu osagarrien bidez mugatutako segurtasun-zerbitzuak, kontrazaintza unibertsitateko sarreran. Inoiz pentsatuko ez genituzkeen elementuak unibertsitatea bezalako erakunde publiko batean.* (E12PU)

## 4.2.3. Bidegabeko egoeraren ondorioak

### *4.2.3.1. Askatasuna eta intimitatea galtzeagatik ordaindu beharrekoa*

Gizakiarentzat funtsezko balore maitatuak dira askatasuna (borondatearen autonomia inolako baldintzarik gabe) eta intimitatea (lehentasun pertsonalen esparrua, besteen begiradatik kanpo dagoena), eta gure elkarrizketatu gehienentzat balore horien galera izan da barneratu behar izan duten

gauzarik mingarriena, beren bizitza babestuta egotearen truke eta bidegabeki mehatxatuak izateko arrazoi bihurtutako lana egiten jarraitzearen truke. Pertsona guztiek baieztatu dute sufrimenduak zentzua zeukala lehentasunezko printzipio batzuk babesteko, esaterako, adierazpen askatasuna, nortasunaren garapen askea edo, azken finean, askatasunaren gorengo balioa (sakrifikatu zen esparru indibidualetik haratago, esparru kolektiboari lotutakoa eta gizarte demokratiko batean pertsonaren oinarrizko eskubideen erabilera askeari lotutakoa).

> *Eskolta eduki beharra zerbait berria zen nire bizitza pertsonalaren eta nire familiaren intimitatearen ikuspuntutik. Klandestinitatera itzultzea edo zen. Nik frankismoaren aurka borrokatu eta klandestinitatea nozitu nuen, eta, demokrazia nahiko aurreratuta zegoela, hara non klandestinitatera itzuli behar izan nuen. Nire mugimenduak kontrolatu behar ditut. (…) Funtsean, horrelako segurtasun-sistema bat jartzen dizutenean, zure bizitza pertsonala eta intimoa bortxatuta ikusten duzu, zure bizitza soziala mugatuta eta, azken finean, konturatzen zara askatasuna murriztuta duzula demokrazia batean. Hori nahiko ulergaitza da, hitz bigun bat erabilita. Ez nuke esango bizitza soziala hilda neukanik, ez zelako hori gertatu, baina, pertsona gisa, oso zauri sakona zen duintasunean, eta sistema demokratiko batean mantentzera behartuta zaude, zure bizitza ez ezik, zure familiarena ere arriskuan dagoelako.* (E12PU)

> *Niretzat garrantzitsuena askatasuna galtzea izan zen, intimitatea baino gehiago (…). Nahi nuenean irten eta sartzera ohituta nengoen, nire lanbidearen eta aisialdiaren arabera, baina hori guztia murriztuta geratu zen, babeserako protokoloek ez dutelako ahalbidetzen. Protokoloek ahalbidetzen dute egunaren hasierako diseinu bat egitea, goizean galdetzen dizute zein plan daukazun egun horretarako. Orduan, nahiz eta plana eduki, askotan plan horrek aldaketak eduki ditzake. Askotan honela egiten nuen: goizean lana planifikatu eta arratsaldean etxean geratzen nintzen. Baina ni erretzailea naiz eta bat-batean tabakoa amaitzen bazaizu eta uste duzu momentu ona dela supermerkatura joateko... Hori ezinezkoa zen, ordubete edo ordu eta erdi lehenago ohartarazi behar duzulako. Batzuetan denbora eskoltaren bizitokiaren araberakoa izaten zen, lehenago eraikina txekeatu behar zutelako. Horrek izugarrizko eragina izan nuen nigan eta nire bizimodua erabat aldatu zuen.* (E3PJ)

Gainera, elkarrizketatuek eskuzabaltasun handiz azaldu digute nola gauzatu zen bizitza pertsonalean askatasunaren eta intimitatearen galera hori. Hitz bakar batean laburbildu ahal da: ukoa Bizimodu arrunt bati uko egitea eta babes-sistemak eguneroko dinamikak aldaraziko dituela onartzea. Bizitzaren esparru asko baldintzatuta geratu ziren, sozializazioa (batez ere, harreman pertsonalen sarea osatzen ari diren pertsona gazteak direnean) eta familiaren aisialdia, bai eta lana aurkitzea eta lanean aritzea ere, aurrerago beste atal batean azalduko dugun bezala. Askotan, horren ondorioz, pertsona horrek etxean geratzea erabakitzen zuen, etxetik irteteari uko egiten zion eta betebeharrak edo eguneroko aisialdia etxe barruko esparrura egokitzen zituen[9].

> *Ez dakizu zein zaila den bikote-harreman bat izatea inguruan lau pertsona daukazunean. Nik ez dut benetako bikote-harremanik. Bikotea edukitzeko, Errioxatik beherago joan behar izaten nuen. Nafarroara joaten nintzen eta Nafarroan eskolta neukan, Gipuzkoa ondoan zegoelako. Kantabriara joaten nintzen eta denbora luzean eskolta neukan Kantabrian. Nora joango nintzen? Frantziara? (…) Berez zaila da, esaten den moduan, baina pentsa ezazu zein zaila den esaten baduzu“nirekin zaude eta beste bi hauekin ere bai, edo beste hiru hauekin, batzuetan hiru eskolta eduki nituelako” (…). Ezin duzu eztabaidatu hiru pertsona entzuten ari direlako zer esaten duzun, nola esaten duzun eta nori esaten diozun.* (E7CEM)

> *Apurka-apurka konturatzen zara eta esaten duzu: “Nola aldatu den nire bizitza urte hauetan!” Jendez aldatu, berriro hasi… garai hartan Sevillako bikotekide bat neukan eta niretzat hori askapena izan zen, haraino jotea; penintsula osoa zeharkatzen nuen ia-ia... baina han oso babestuta sentitzen nintzen.* (E1CEM)

> *Nire bizitzaren beste oinarrizko gorabehera bat izan zen gero eta gutxiago irteten nintzela etxetik. Goizez lan egin eta arratsaldean etxera. Irteteko eta nahiko bizimodu normala izateko ilusioa galtzen duzu. Orain kafe bat hartzera irten nahi badut arazorik gabe egin dezaket, baina lehen eskoltekin ez zen horrela. Horrelakoetan, deitu behar zenuen “itxaron apur bat, oraintxe bertan ez gaude hemen, joan gara ez dakit nora”. Deserosotasun txikiak direla ematen du, baina nigan efektu hori izan zuten:*

9 Elkarrizketatutako hainbatek eskoltaren giza faktorean arreta jartzeko eskatu digute, eskoltek eta babestutakoek ez baitute hasieran elkar ezagutzen, eta elkarrekin pasatu behar dute ia egun osoa, normalean ibilgailu baten espazio murriztuan. Bat-batean eta nahitaez elkarrekin egon behar horrek ezin hautsizko leialtasunak sorrarazi zituen (gaur egun arte ere iraun dutenak), baina baita elkarrezintasun nabarmenak ere, bi aldeentzat esperientzia desatseginak bilakatu zirenak. Jasota gera bedi egoera hori, terrorismoaren mehatxuaren fenomenoak berekin dakarren beste zailtasun baten adibide gisa.

*etxetik ez irtetea. Niri betidanik gustatu zait mendira joatea eta kirola egitea, eta hasi nintzen etxean kirola egiten.* (E3PJ)

Uko egitea bereziki zaila da familia-bizitzari eragiten dionean, eta seme-alabekiko harremanei eragiten dienean ere, seme-alabak baldin badaude. Alderdi hori indar bereziz azpimarratu dute elkarrizketatuek.

*Linterna izugarri handi bat eman zidaten autoaren behealdea begiratzeko nire alabekin irteten nintzen bakoitzean, eta hori kontuan hartuta inoiz ez zela gurekin etortzen. Mehatxatuta eta eskoltekin zaudenean hori gertatzen da, ez zarela familiarekin irteten. Nire senarra bakarrik irteten zen beti. Gu ez ginen inoiz berarekin joaten, eta are gutxiago autoan. Familia-bizitza nahiko tristea da inguruabar horiengatik.* (E5F)

*Nire alaba ikastetxera eramateari utzi behar diot, lehen nik eramaten nuen eta... Aisialdian ere ohiturak aldatzen dira, herrian geratu beharrean, beste leku batzuetara joan behar duzu. Eta batez ere, erne egon behar duzu beti, inguruan gertatzen denari adi, paranoiaz edo, norbait zuri begira badago edo beti leku berean ikusten baduzu, ohiko mesfidantza hori, "ea hemengo norbait nigan pentsatzen ari den".* (E11MC)

*Okerrena da eskoltarekin familian eta gizarte-mailan nola bizi kudeatzea. Adibidez, nire seme-alabak harrituta geratzen ziren etxetik irtetetan eskoltak ez bazeuden. Ume txikiak ziren, ez zuten ondo ulertzen zer egiten zuten han, eta, gainera, ez zuten azalpen gehiegirik eskatu; bakarrik zekiten han zeudela, baina errealitatea da hamar urtez ordu guztietan egon direla beste bi pertsona gehiagorekin, asteburuetan kanpora joaten ginenean izan ezik (eta halaxe egitea erabaki genuen), zenbat eta asteburu gehiagotan hobeto, Euskaditik kanpo turismoa behartuta egiteko.* (E8PJ)

*4.2.3.2. Mehatxatutako pertsona laneratzeko zailtasunak*

No hace falta explicar por qué se ha optado por dedicar un apartado especial a las dificultades y renuncias Azaldu beharrik ez dago zergatik utzi ditugun atal berezi baterako, informatzaileek, bizitza mehatxatuta eta eskolta edukitzegatik, beren lanbidean izan zituzten zailtasunak eta galerak. Jarraian ematen diren testigantzetan, bi pertsonak lan egonkorra izateari uko egin behar izan ziotela azaltzen dute, ez eskoltek ez enplegatzaileek ezin zutelako haien segurtasuna bermatu. Lehenengo kasuan, lanpostuaren izaera bereziagatik, eta bigarrenean, lanpostuaren kokalekuagatik.

*Lana aurkitu nuen TAOren kontrolatzaile gisa. Abenduan utzi behar izan nuen, finkoa nintzela esan eta hamabost egunera. Udan hasi nintzen baja bat estaltzeko, eta pertsona horri desgaitasuna eman ziotenez, ni haren ordez sartuko nintzen. Abenduaren 10ean edo15ean esan zidaten desgaitasuna lortzeko zorian zegoela, eta urtarrilerako ni finko gisa hasiko nintzela. Hori gertatu eta bost egunera alderditik deitu zidaten (bilera bat izan nuen alderdiko eta Guardia Zibileko kideekin) ETAren zerrenda batean nengoela esateko. Lehenago ere agertu nintzen lauzpabost zerrendatan, eta haietan nire izena, abizenak, helbidea eta telefonoa agertu ziren, besterik ez. Baina zerrenda horretan segimendua oso sakona zen. Beraz, ez zaituzte behartzen, aholkatu egiten dizute... Guztiz bateraezinak dira lana eta segurtasuna. Honela esan zidaten: "Kontua da muturra daukazula beti auto baten aurrean sartuta". Eta horregatik, lana utzi behar izan nuen. Lan finkoa edukitzeko aukera galdu nuen.* (E7CEM)

*Lan egiteari utzi zion, ez zen bere lantokira itzuli, esan ziotelako ez zirela gai bere segurtasuna bermatzeko. Etxera bidali zuten. Bonba-mehatxu bat egon zen nire senarraren lantokian (itsas portuko kontrol-dorrean). Lanean ari ziren han. Nire senarraz gain, ondoko herri bateko zinegotzi baten senarra zegoen. Haiengatik, tokia hustu zuten. Garai hartan portuan obrak egiten ari ziren eta edonor sar zitekeen txalupa batean. (…) Aurrerago jakin zen ETAko komando bateko kide batek bazekiela atearen kodea zein zen (…). Ezin duzu segurtasuna mantendu, ezinezkoa da. Etxera bidali zuten txostenak egitera.* (E14F)

Hurrengo testigantzan aipagarriena da unibertsitateko irakasleak babesteko zailtasuna; haien mugimenduak aurrez ikus daitezke eta gainera, publikoak dira.

*Ordezko irakasleak kontratatu behar izan ziren, haien eskolak osatzeko edo eskolak haien ordez emateko. Eta praktikan horrela gertatu zen. Unibertsitateko irakasle bat baino helburu seguruagorik ez dago; denek dakite non ematen dituen eskolak, zein gelatan, zein ordutan eta zein egunetan. Hori saihesteko modua ordezko irakasle bat jartzea zen, eta hori kontu handiz egin behar zen, erdi ezkutuan, inork ez jakiteko zein irakasle ordeztuko ziren.... Egia da askatasuna eman zitzaiela beren burua babesteko eta beren segurtasun pertsonala zuzenean kudeatzeko.* (E12PU)

Gure laguntzaile guztiek ez zioten lanpostuari uko egin behar izan. Haietako batzuek, zailtasunak gorabehera, beren lan-jarduerarekin jarraitu ahal izan zuten, eskolta bidezko babes-sistemak ezartzen dituen baldintza berezietara egokituta. Garrantzitsua iruditzen zaigu hemen aipatzea terrorismoaren mehatxuaren pean zeuden kolektibo bi: enpresaburuak eta hedabideak. Elkarrizketatuek azaldu dute konpromisoak eta sinesmenak bultzatu zituztela lan-jarduerarekin jarraitzera, oztopoak egon baziren ere.

> *Arazo handia izan zen nire lan ordutegietan eragina eduki zuela. Normalean zazpietan sartzen nintzen. Esan zidaten "Amaitu dira ordutegi finkoak". Lehenengo arazoa da ordutegiak hankaz gora daudela eta, beraz, ezin duzula plangintzarik egin. Bigarren arazoa da ertzainak etortzen zitzaizkidala eta esaten zidatela "Zein da datorren asterako plana?" Eta nik esaten nuen guztia idazten zuten, baina ohartarazten nien: "eta orain ezabatu nahi duzun guztia, beste gauza batzuk egongo direlako eta hau guztia aldatu behar izango da". Gauzak sortzen zirelako etengabe: "Aizu, premiazko bilera bat dago, Bilbora joan behar dugu lehenbailehen Confebasken istilu bat dagoelako, kontseilariak deitu digu eta…". Horrelako istorioak.* (E2EMP)

> *Kazetaritza demokrazia baten oinarrietako bat da, askatasuna, giza eskubideak eta hauteskundeak bezala. Adierazpen askatasuna oso garrantzitsua da, horretan sinesten dugu, eta horregatik jarraitzen dut hainbeste urtez kazetaritzan. ETAri ez zitzaion besteon iritzia gustatzen eta talde terrorista bezala, adierazpen-askatasunaren burua ebaki nahi zuen (…). Adierazpen-askatasuna onartzen ez dutenak pertsona arriskutsuak dira, eta horregatik, su eta gar defendatu behar dugu transmisio-uhal hori… guk ez dugulako albiste izan behar (sarritan albistea izan gara baina ez gure erruagatik, terroristen erruagatik baizik); aitzitik, transmisio-uhala baino ez gara, boterearen, alderdi politikoen eta iritzi publikoaren artean.* (E15P)

#### *4.2.3.3. Aurrera egiten laguntzen duten elementuak, familia eta lagunak (irabazitakoak nahiz galdutakoak)*

ETAren mehatxuaren ondoriozko jazarpenari eta intimidazioari aurre egiteko, gure elkarrizketatuek beren harreman pertsonal guztiak jarri behar izan zituzten jokoan (familia, lagunak, lan-ingurua...), egoera arbitrarioa, eta, noiz edo noiz kronifikatua jasaten lagunduko zuten erresilientzia-elementu gisa. Denek ez zuten lortu, ordea; izan ere, hemen deskribatzen diren muturreko egoeretan, pertsonen erantzunak, hainbat arrazoi eta baldintza direla eta, desberdinak izaten dira.

> *Gertuko familiaren erreakzioa positiboa izan zen. Zaila da horrelako bizimodu bat zure familiak ulertzen edo laguntzen ez badizu, azken finean, babesten ez bazaitu. Nik, zorionez, familiaren laguntza izan nuen beti. Badakit haiek ere nire jarraibide eta jokamolde berdinak bete behar zituztela eta, beraz, jatorrian nirea zen zerbait hartu behar izan zuten beren gain. Nik, alde horretatik, gauza positiboak baino ezin ditut esan. Ezagutzen ditudan beste pertsona batzuek ez dute zorte onik izan, txarto pasatu dute eta arazo handiak izan dituzte familia harremanetan, bikotekidearekin edo seme-alabekin. Familia apur bat zabalagoan (zenbat eta zabalagoa, gero eta konplexuagoa) hurbiltasuna galtzen da eta ulermen-maila eta kidetasun politikoa ere aldatzen dira. Konturatzen zara jendea urrundu egiten dela, isiltasunak daudela eta elkarrizketa batzuk amaitzeko presa ere bai, beno, hori horrela izan da.* (E12PU)

> *Neurri batean, nire egoera barneratu dut, konpromiso pertsonala neukalako... Zoritxarrez, badakit jende askori mehatxuek eta atentatuek bizitza hondatu zietela. Nire kasuan, horrek guztiak nire idealak berretsi zituen, nire aitaren idealak, berak erbesteratu behar izan zuen... Familiak, neba-arrebek, aitak... eman didate indarra, familia konprometitua izan da, gauza batean edo bestean, baina beti egon da konpromisoren bat, herri hau maite dugulako. Ez nuen uste nire aurkako atentaturen bat egingo zutenik, baina barneratuta neukan, atentatuaren aurretik eta ondoren, gertatu ahal zitzaidala.* (E15P)

Interesgarria iruditzen zaigu ikerketa-lan honetarako egin genuen elkarrizketa batean gertatu zen gorabehera hau jasotzea. Une zehatz batean, elkarrizketatu baten alaba etxera heldu eta naturaltasunez sartu zen elkarrizketan, eta gure informatzaileak emandako datu bati beste zerbait erantsi zion.

> *Batez ere, eguneroko bizimoduari eragiten dio. Asko. Neba-arreben artean ere tirabirak egoten ziren. Ni, adibidez, inoiz ez nintzen izan nire amaren alderdiaren aldekoa, baina bakoitzak nahi duen moduan pentsatzeko eskubidea defendatu dut beti. Nire neba-arreba batzuen iritziz, utzi behar zuen. "Utz ezazu, familian arazo asko sortzen ari da eta". Bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea defendatzen dut. Tirabirak zeuden, gehiago ez.* (E9CEM)

Lehenago azpimarratu da gure elkarrizketatu batek erabiltzen zuen erresilientzia-estrategia: egoera eta baldintza berriak zerbait arrunt gisa mantentzea, edo, behintzat, ETAren mehatxua agertu aurretik zegoen egoeraren antzera jarraitzea, ahalik eta antzekoen behintzat. Horrela, familia mehatxu-egoeraren ondoriozko

antsietatetik urrun mantentzeko, pertsona batzuek familiako kideekin gezurretan aritu behar izan zuten, haiek babesteko.

> *Zure bizitza ez aldatzea nahi duzu. Badakizu zerbait alda daitekeela. Itxurak egiten saiatzen zara, ezer gertatu ez balitz bezala. Etxean ere bai. Ni amarekin bizi nintzen, biok bakarrik, eta lehenengoa zen bera babestea, inork ez molestatzea, inork ezer ez egitea, ez probokatzea... zure bizitza da, eta pertsona horren bizitza ere bai, hori denok dugu seme-alabekin, gurasoekin, amarekin, neba-arrebekin, bikotekidearekin edo dena delakoarekin (…). Arazoak hasten dira, adibidez, kuadrillan –“zu bai, baina bera ez”* (eskoltagatik)*–. “Jainko maitea! Baina nola joango naiz edozein lekutara, esaten badidate berarekin ezin dudala !”. Ba, azkenean edozer asmatu eta ez zara joaten. Hau esaten duzu: “Aizu, ez daukat gogorik” edo “Amarekin geratuko naiz”. Dena gezurra. Amari beste gezur bat esaten diozu. Beti zaude gezurretan, batzuei eta besteei. Ez duzu nahi zure bizitzan hausturak egotea. Nahi duzu dena lehen bezala izatea, baina konturatzen zara ez dela horrela. Babesteko, gezurretan aritzen zara. Amari –“Ez zoaz kalera?” – “Ez, ez daukat gogorik”. Nola joango naiz ez badute nahi honekin joatea?* (eskolta). (E1CEM).

Jaso ditugun testigantza batzuek senideen erreakzioa ekartzen dute gogora, senide maiteei eskolta jarri zitzaiela jakitean. Hasieran lasaitasun-sentsazioa zegoen mehatxatutako pertsona babestuta zegoela jakiteagatik, baina epe luzera edo ertainera larritasuna eta kezka senideen bizitzetan ere sartzen dira.

> *Ea nire gurasoek sufritu zuen? Bai, esan diezazuket nahiko sufritu dutela. Nire ama hil egin zen, izututa ez, baina beldurrez bai. Etxetik irtetean beldur nintzen. Eta nire aitak arnasa hartu zuela uste dut, beno, biek hartu zuten arnasa eskolta jarri zidatenean. Eskolta jarri aurretik nik hiru eraso jaso nituen (…) Etxetik irteten nintzen bakoitzean, nahiz eta goizaldeko hiruretan itzuli, amari esan behar nion etxean nengoela eta hori hogeita hamar urte baino gehiago neuzkala kontuan hartuta. Bestela, ezin zuen lorik egin; zain egoten zen. Niri eskolta jartzea askapena izan zen berarentzat . Niretzat eskolta zerbait murriztailea izan zen. Nire bizitza, berez, bazegoen murriztuta, eta eskoltak mugatzen ditu askatasunez egingo zenituzkeen gauza asko. Baina nire gurasoentzat lasaigarria izan zen.* (E7CEM)

> *Gainera, eskolta jarri ziotenean kostatu egin zitzaion esatea “begira, eskolta jarriko didate”, ea nik zer esaten nuen. Eta horrek… bihotzondoko bat edo eman zidan, eta esan nuen “hau oso serioa da”. Baina neurri batean, eskertu egin nuen, azkenean lagungarria da eskolta berarekin ibiltzea.* (E5F)

> *Etxea utzi behar izan ez banu, ez nion ezer esango familiari. Hori ezkutatu egingo nuen. Garai hartan nire ama ez zen Bilbon bizi, baina eragin handia eduki zuen berarengan. Kosta ahala kosta eskatzen zidan lehiatzeko eta Madrilera joateko. Eta nik ez nuen nahi, Madril ez zaidalako gustatzen. Bilbotar sentitzen naiz. (…) Aldi batez behintzat ezkutatuko nuen, badakidalako berak oso txarto pasatu nuela. Familian gauza horiek kezka handia sortzen dute, baina ez nien zehaztasunik eman ETAren komandoek niri buruz zeukaten informazioaren inguruan.* (E3PJ)

> *Manifestazioa zegoenean, nire etxe ondoan amaitzen zen. Paskinak irakurri dituzte, harriak bota dituzte gure leihoen aurka, eskailerako hormak paperez eta dianaz bete dituzte, etxebizitzan sartzeko hormak ere margotu dituzte (…). Ni saiatzen nintzen hori guztia estaltzen. Behin, nire alaba nagusiaren laguntzarekin, eskaileratik gure ateraino zeuden paper guztiak kendu genituen. Atzetik alaba txikia zetorren eta dena kentzeko denborarik ez geneukanez (kafe bat hartzen egon ginen) zabor-poltsa batean sartu genuen dena. Baina bera ez da inozoa, eta ateetan zeloen aztarnak ikusi zituen eta esan zuen “hemen zerbait dago”. Zakarrontzira joan eta hau esan zuen “zerbait ezkutatzen didazue”. Bere sentsibilitatea oso kaltetuta zegoen. Ni ere hasieran nahiko indartsua nintzen baina azkenean beldur handia izaten duzu.* (E5F)

Jaso ditugun beste lekukotasun batzuetan, sostengu esplizituaren balioa nabarmentzen da, eta mehatxatutako pertsonei sostengu horrek eman zien indarra.

> *Hasieran, gizartea ez nuen oso sentsibilizatuta ikusten geure egoerarekin; gero bai, geroz eta gehiago (...) Baina hasierako urteak oso latzak izan ziren, eta bakardadea oso handia. Are gehiago, askotan ematen zuen traban geundela, ez pentsa. Zeren, jakina, zure arazoa planteatzen zenien eta erantzuna zaila zen...; primeran, BAK-Gesto por la Paz eta horrelako ekimenak sortu zirenetik aurrera... batez ere gazteen aldetik, zeren gero eta konpromiso handiagoa hartzen hasi baitziren; esate baterako, Aldaiaren aferarekin oso argia izan zen, gazte-olde ikaragarri bat eta ekimen mordo bat han eta hemen...* (E2EMP)

*Egia esanda, zorte handia izan dut lagunekin, oso lagun handiak izan ditut eta. Bila etortzen zitzaizkidan etxera, jaso egiten ninduten..., asko kezkatzen ziren ni han egoteaz. Nitaz gogoratzen ziren; zeren, nik esan ohi dudanez, askotan kontua ez baitzen ez zenuela atera nahi, baizik eta inguruko jendearengatik izaten zen, deserosoa delako. Eta, orduan, urrundu egiten dira zugandik. Bizkartzainekin kontua zailagoa da, konplexuagoa. Baina zortea izan dut, lagun artean-eta ulertu egin baitute egoera.* (E7CEM)

*4.2.3.4. Jazarpenak gizartean duen ondorioa: eskolta duen pertsonaren estigmatizazioa*

Erasoen ondorio pertsonal eta familiakoez gain, eta eskoltaren bitartez babesa bilatzeaz gain, ezin dugu aipatu gabe utzi fenomeno honen alderdi soziala. Jazarpenaren beste ondorio bat da pertsona bat seinalatzea (hori agerian geratzen da mehatxuzko pintada eta pankartetan), hau da, mehatxua pertsona bakar bati egitea, eta, horren ondorioz, pertsona horren estigmatizazioa bere auzoan bertan. Beste azterlan batzuetan adierazi den bezala, bazterkeria moralaren prozesu bat gertatzen da[10]. Ezezagunek seinalatutako pertsona gainerakoengandik bereizita geratzen da, bere izenarekin eta salaketa zehatz batekin. Eskolta jartzeak (horrek eduki zituen abantailak alde batera utzita) ez zuen askorik lagundu; aitzitik, auzokideen aurrean gero eta nabarmenagoa zen pertsona mehatxatu gisa bizi zuen egoera, eta horrek agerian uzten zuen ETAren jomugan zegoela.

*Fenomeno hau guztia 11 urtez ageri-agerikoa da, eta gainera psikologikoki prestatuta egon behar duzu, honek guztiak psikologian ere eragina duelako, arraro sentitzen zarelako. Eta ez zu arraroa zarelako, baizik eta estigma baten modukoa da, egotzi dizuten zerbait, besteon aurrean arraro sentiarazten zaituena. Horrek deserosotasun handia sortzen dizu beti joan-etorrietan, kalean, erosketak egiten, ekitaldi sozialetan... Beti-beti egoten zara beste bi pertsonarekin eta bidea errazten dizute, lekuetara heldu aurretik ohartarazten dizute, etxetik noiz irten behar duzun esaten dizute, zure auzokideak ez ezik, zure senideak ere ezagutzen dituzte, zure kaletik pasatzen direnak ezagutzen dituzte eta haiek ere ezagunak dira. Hau da, helburu ezin hobeto seinalatua eta ezaguna zara. Pregoilariak bezala, "honakoa edo halakoa dator" esaten zutenean . Hori oso deserosoa da. Pertsona bitxia zara (…) eta egiaztatzen duzu ez zarela aske, pertsona seinalatua zarela, ez diot pertsona kutsatua, baina bai pertsona berezia, zentzu txarrean, noski.* (E12PU)

Gure elkarrizketatuek askotan adierazi dute, beren iritziz, elkartasun-gabezia egon zela kide, auzokide edo lankide batzuen artean. Nolanahi ere, gertaera kezkagarrienak jarduerei uko egiteari lotutakoak dira, hain zuzen ere, mehatxatuta egon aurretik normaltasunez egiten zituzten eta gero, eskolta izanda, ingurukoek ez ulertzeagatik egin ezin izan zituzten gauzei. Kasuren batean, "hutsunea" enfrentamendu ideologikoak sortu zuen (eta beraz, jokabide horiek borondatez sendotu egiten dute jazarpena), eta, beste batzuetan, ulertezintasuna, gure informatzaileen iritziz, beldurragatik eta mehatxatutako pertsonen errealitate estresagarriaren barruan egon nahi ez izateagatik etorri zen. Bigarren erreakzio horiek mingarriagoak izan ziren, ezustekoak izan zirelako.

*Pertsona batzuek ez dute gehiago hitz egin nirekin. Auzokideen artean, bik utzi zioten nirekin hitz egiteari. Seme-alabekin gauza pila bat egin ditugu pertsona horiekin. Etxe horiek eraiki zirenetik bizi izan garelako hor. Orduan gazteak ginen eta umeak elkarrekin hasiz joan ziren. Elkarrekin irteten ginen denok, jaietan, mozorrotuta... eta elkarrekin bazkaltzera joaten ginen txokora, lasterketetan ... eta bat-batean ez zaituzte agurtzen berriro. A zer gauzak, ezta? Nik neuk ez dut ulertzen. Baina agurtzen ez zaituen bigarren edo hirugarren aldian, begiratu ere ez dizula egiten ikusten duzunean, ez zaituela agurtzen eta atea ixten dizula ikusten duzunean... Horrelakoetan esaten duzu, "tira, horrela ez". Oraindik ere ulertezina iruditzen zait.* (E5F)

*Eskolta eduki beharrak daukan ondoriorik txarrena da zure askatasuna mugatuta dagoela. Pertsona batzuk ez zaizkit hurbildu beldur zirelako. Gogorrena zen katekista nintzela eliza batean. Adinekoentzako katekesi bat geneukan eta urteak ziren katekesira joaten ginela, diapositibak jarri eta askariak egiten genituen... Auzoko adinekoak biltzen genituen. Ni beste aretoa batean egoten nintzen eta eskoltak eliza barruan, azken lerroan. Ez ziren sartzen. Egun batean katekesiaren arduraduna etorri zitzaidan eta hau esan zidan: "Begira, kontua da adineko pertsona hauek beldurra eduki dezaketela. Eta nik hau esan nion:"Ba al dakite ba zein diren?" Zuk ez badiezu esaten zein diren atzean eserita dauden bi horiek, haiek ez dute jakingo. Ez dute zertan jakin arma daukatela, ez delako ikusten". Eta erantzun zidan:"bai, baina…". Eta orduan nik esan nion: "ondo da, ez nator berriro eta kito". Hori izan zen gogorrena.* (E9CEM)

10 Susan Opotowk sortu duen bazterkeria moralaren teoriak azaltzen du kolektibo batek nola uzten duen herritarren talde bat "justizia-eremutik" kanpo. Bazterketa horrek ekar dezake baztertutako pertsonak indarkeria-erasoen helburu potentzialak izatea. Teoria hori ETAren indarkeriaren biktimen kasuari aplikatu zitzaion lan honetan: Marín-Peña, J., Opotow, S. eta Rodríguez-Carballeira, A. "Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral", *Revista de psicología social,* 26:2, 2011.

*Reiki egiten hasi nintzen. Oso gustura nengoen Reiki egiten, txangoak egiten genituen. Egun batean txango bat egin genuen eta oso-oso ondo. Eskoltek bateraino eraman ninduten. Txangoa egin genuen eta gero argazkia egin genuen arduradunarekin, txangoaren antolatzailearekin, eta hau esan zidan: - "Aizu, begira, hizketan egon gara eta beste pertsona batzuek ere esan didate: hurrengoan zu bai, baina haiek ez". – "Baina ezin dut!" (…) Ba pikutara! Ez zait normala iruditzen (horrela gertatu zitzaidan) herrikoan lan egiten duenak (ahizpa bat eduki du espetxean) ni bere tabernatik botatzea. Baina askoz ere desberdinagoa eta ezohikoagoa da bakearekin eta askatasunarekin eredua eman nahi duen pertsona batek, eta bere kideek, gero praktikan ez onartzea egoera kritikoan dagoen norbait. Eta hori guztia herrian bertan. Berehala utzi nion joateari.* (E1CEM)

*Jabekideen erkidegoan ez zeuden gustura nirekin. Egunero bi pertsonak txekeatzen dutelako; han daude eta jendea irteten da, bakoitza bere orduan, eta zuk ordutegiak aldatu behar dituzu eta ikusten dute eskolta bi daudela, eta... zergatik daude bi eskolta? Berehala, gizakiaren jakin-minagatik, jendeak galdetzen du "Nor bizi da hemen? Politikari bat?". Pertsona hori nor den jakin arte. Auzokide batek ere ez zidan zuzenean esan, baina nolabaiteko mesfidantza sortzen da eta ihes egiten dizutela nabaritzen duzu… Igogailuan ez dute esaten ezetz, ez dutela zurekin igo nahi, baina esaten dute "nik bestea hartuko dut". Hori bai gertatzen dela behin baino gehiagotan. Nik ulertzen nuen. Neurri batean, pertsona kutsatu gisa ikusten zaituzte. ETAk akabatu nahi du eta horrek ukitu ahal gaitu.* (E3PJ)

*4.2.3.5. Eskolta nahikoa ez denean. Mehatxua gauzatzea, hala eta guztiz ere*

Eskolta-operatiboek disuasio lan handia egin zuten, ETAk atentatua egin nahi zuenean hori ekiditea zaila zen arren, ikerketa-lan honetarako elkarrizketatuek adierazi duten bezala. Eta horren froga da informatzaile batzuek atentatua izan zutela, eta gehienak gertatu ziren eskolta zeukatenean. Hemen jasotzen ditugun lehenengo bi testigantzetan ohiko bizitokiaren aurkako atentatuaren berri ematen da. Ekintza horien helburua etxeari ahalik eta kalte gehien eragitea izan zen, une hartan etxean zeuden pertsonak zauritu edo hiltzea baztertu gabe.

*Lau kiloko lehergailu bat jarri zidaten, eta etxea suntsitu zidaten. Hori ikaragarria izan zen, ikaragarria. Ni ez nengoen etxean egun hartan, Madrilen nengoen, baina bazeuden nire seme-alabetako bi. Zorionez, desagertu zen logelan (logela hartan horrelako zatitxoak geratu ziren) nire semeetako batek, Valentzian bizi denak, lo egiten zuen, eta bost egun lehenago joan zen Aste Santuko oporrak zirelako; joan berria zen. Zorionez ez zegoen bertan. Baina beno, gertaera hori ikaragarria izan zen, denbora luzean egon zirelako pisua konpontzen , apiriletik abendura, lehergailua jarri zutenetik etxea berriro eman zidaten arte. Alokatutako pisu batera joan behar izan nuen. Eusko Jaurlaritzak ordaindu zidan alokairua.* (E9CEM)

*2001ean etxean eraso egin ziguten. 22:15ak aldera, nire semea afaltzen ari zen. Sukaldera sartu nintzen eta harraskara nindoala, lehertu egin zen, leherketa bat izan zen eta dena sutan zegoen. Begira, berogailua izan zela pentsatu nuen, noski, berogailua leiho ondoan dagoelako. Bururatu ere ez zitzaidan egin... Molotov koktelak ziren, bost bota zizkiguten eta hiru sukaldera sartu ziren. Nire semeari oinak erre zitzaizkion. Ura botatzen hasi nintzen aurkitu nuen lehenengo gauzarekin, lanbasaren ontziarekin. Zenbat eta ur gehiago bota, gero eta su gehiago, azaldu zidan Ertzaintzak, gelagatik, azido klorhidrikoagatik... Egin behar dena da estali, oxigenoa kendu (...). Geroago, 2005ean, berriro gertatu zen. Ni ohean nengoen eta senarra logelan sartu zenean, bat-batean leherketa bat entzun zen eta logela guztia argitu egin zen. Nire senarrak esan zidan "joan kalera". Korrika joan ginen. Ez genekien sua non zegoen, ezta nondik zetorren ere. Orduan, kalean denak su hartu zuen. Guk sukaldeko horman zulo bat daukagu butano botilak gordetzeko. Koktelak butano-bonbonen aurka bota zituzten. Gero Ertzaintzak esan zidan oso zaila dela butano-bonbona batek su hartzea Molotov koktelengatik. Baina, beno, haiek oso asmo txarrez bota zituzten. (…) Eraso gehiago egon ziren gure aurka, 2009an, baina orduan atxilotu egin zituzten. Molotov koktelekin zetozen eta atxilotu egin zituzten. Saiakuntza bakarrik izan zen. Atestatua egin zen eta baita epaiketa ere, Auzitegi Nazionalean. Talde horretako bik espetxe zigorra jaso zuten.* (E14F)

Beste testigantza batzuetan hitz egiten da hiltzeko helburua duten lehergailuei buruz. Atentatu horien helburuak eskoltek babestuta zeuden; hala ere, ETAk hiltzeko asmoarekin jarraitzen zuen. ETAk hiltzeko helburua bete ez bazuen ere, zoritxarrez, biktimek zauri larriak eta iraunkorrak jasan zituzten.

*Aurreko egunean emaztea eta biok atzerrira joan ginen enpresaren nazioarteko biltzar batera. Nirekin lan egiten zuen lehengusu bati hau esan nion: "ez badizu axola, begiratu nire autoaren olioa nola dagoen, bi egunez kanpoan egongo naiz eta". Egun horretan, behera jaitsi eta nire autoa martxan jarri*

*zuen, atzera egin eta orduan eztanda egin zuen nire eta emaztearen aurka jarritako lehergailuak. Orain hanka bi moztuta dauzka.* (E2EMP)

*Atentatuaren ondoren ebakuntza egin zidaten eta esnatu nintzenean, nire ohe ondoan bi pertsona ikusi nituen, ETAk hildako kideen alargunak ziren, Maixabel Lasa eta Mari Paz Artolazabal. Biak negarrez zeuden. Nik esan nien "Zergatik egiten duzue negar? Bizirik nago eta. Ez duzue niregatik zertan negar egin; zuek bai, ordea, galdu duzue norbait". Irudi hori grabatuta geratu zitzaidan. Nik txarto dagoen jende asko ezagutu dut, lagun asko hil dizkietenak … Geroago ETAri esan nion: "Okertu egin zarete. Zauriak eragin dizkidazue baina ez didazue mihia moztu, eta ni kazetaria naiz". Horrela, neure burua berretsi nuen.* (E15P)

Amaierarako utzi dugu testigantzarik zirraragarriena. Hiru urtez bera eta bere familia mehatxatuta eta jazarrita egon ondoren, elkarrizketatuaren senarra hil egin zuten. Eskoltarekin bizi izan zen denboraldi batez. Gero eskolta edukitzeari uko egin zion, herrian askatasunez ibili eta auzokideekin hitz egin ahal izateko.

*Ez zuen eskoltarik eduki nahi. Intimitatea kentzen diotela esan zuen... Eta uste dut, helburu gisa bazuten, bestela ere hilko zutela nola edo hala. Horrela errazagoa izan zen haientzat. Nire senarrak, eskoltak zeuzkanean, herri barruan ibilbideak aldatzen zituen, baina gero ibilbide berdina egiten zuen beti. Etxerako bidean hil zuten (...). Herriko jendeak izugarri maite zuen nire senarra (beno, egia esan hiltzaileak ere herrikoak ziren). Nire senarrarentzat udaletxea bere bigarren etxea zen, eta gainera, asko laguntzen zion jendeari. Bere izaeragatik, oso xaloa zen, herriko pertsona bat zen, herriaren alde lan egiten zutenetakoa. Eta horrexegatik nengoen ni horrela, ez nintzen behin eta berriz eskatzera ausartzen. Berak ez zuen utzi nahi. Azkenean auzokideak honela esan zidan: "Orain hil dute, baina orain arte ez diote bizitzen utzi". Egia da.* (E5F)

### *4.2.3.6. Jasandako antsietatearen kostu saihestezina. Trauma osteko estresa*

Jazarpen-estrategien helburua zen pertsonak seinalatzea, jazartzea eta isolatzea, pertsona horien ideologiagatik, herritarren ordezkariak izateagatik edo beren lanbidean askatasunez jarduteagatik[11]. Egoera horiek kroniko bihurtzen ziren askotan eta eraso horiek hilketaren aurreko pausoa izateko aukerak areagotzen zuen ETAk mehatxatutako pertsonen beldurra, fenomeno horren analisi psikosozialek azaleratu duten moduan[12]. Kasu batzuetan, interesduna bera ez zen ohartzen antsietate-maila handia jasaten ari zela, baina denborak aurrera egin ahala, luzaroan estresaren menpe egoteak jokabide-aldaketak ekarri zituen, osasun-arloko profesionalentzat oso agerikoak, gainera.

*Nik beti pentsatu izan dut oso ondo eraman dudala. Eskoltekin hiruzpalau urte neramatzala, nire alderdiaren fundazioak esperimentu bat abiarazi zuen, uste dut. Nire ustez, esperimentu bat baino zerbait gehiago izan zen, baina zoritxarrez, finantzazio nahikorik ez zuen izan. Orain oso modan dagoen gauza bat izan zen, coach izenekoa. Bederatzi hilabetez, hilean behin, jardunaldiak egiten ziren; bagenuen psikologoa, eta coach bat ere bai, batez ere, etengabe estres eta depresio egoeran bizitzen ikasteko, askatzeko eta erlaxatzeko gure tresnak bilatzen ikasteko… Zoritxarrez, ez zen amaitu, dirua amaitu zen lehenago eta dena erdizka geratu zen (…). Bitxiena da nik beti pentsatu izan dudala nahiko ondo eutsi niola egoerari. Biktimaren edo mehatxatuaren estatusa eskatzearen gaia eta hori guztia hasi arte, noski; orduan gogoratzen duzu eta esaten duzu: "Ba, hau, zera, nik ez daukat oso garbi…". Gainera, aholkatu zidaten: - Arrastoren bat jokabidean? - Ba ez.- Zergatik ez zoaz psikiatra batengana zure egoera aztertzeko? Eta Gizarte Segurantzako batengana joan nintzen. Diagnostikoa trauma osteko estresa izan zen. Bi urte baino gehiago daramat herrira joan gabe, handik urrun, eta hala ere… Gurasoak han dauzkat lurperatuta, eta udala utzi nuenetik, hilobia bisitatzeko ere ez dut indarrik izan.* (E7CEM)

*2006an, senarrari trauma osteko estresa diagnostikatu zioten, oraindik zinegotzia zela. Biktimen elkarte batean geunden eta psikologoak esan zidan senarrari azterketa bat egin behar zitzaiola. Nabaritzen zen arazo bat zeukala, agerikoa zen. Diagnostikoa egin eta tratamenduan hasi zen. Berak ez zuen nahi baina psikologoak, ezkutuan edo, txostenak egiten zituen (gero ondo etorri zaigu hori, biktima-izaera administrazioan egiaztatzeko). Hiperaktibitatea, jokaera konpultsiboak (gauzak lekuz mugitzen ditu, ia-ia konturatu gabe), oroimen hutsarteak (ahaztu egiten zitzaion osoko bilkuretara edo batzordeetara joatea), hanka geldiezinaren sindromea zuen (lotan daudenean ez dute atsedenik hartzen, ematen du hankak zartako bat ematen duela. Hori dela eta, ez dute atseden nahikorik hartzen, etengabe mugitzen ari direlako), urduri zegoen beti, antsietateaz... Ohikoa izaten da, antza. Ezagutzen*

11 Gesto por la Paz, "Violencia de persecución". Hemen argitaratuta: *Palabras de Paz*, 40 zk., 2000ko iraila, 13. or.

12 Martín-Peña, Javier; *El acoso y la violencia psicológica aplicada por el entramado terrorista en Euskadi: Análisis psicosocial de sus componentes y efectos*, Bartzelonako Unibertsitatean defendatutako doktorego-tesia, 2011ko urtarrila, 44. or.

*dugun psikologo militar batek, Bosniatik itzultzean trauma osteko estresa eduki zuen, eta gaia sakon aztertu du. Behin esan zidan nire senarrarena dela ezagutzen duen kasu paradigmatikoenetako bat. Liburuetan jasotakoen antzekoa dela.* (E14F)

Mehatxatutako pertsonek ez ezik, seme-alabek ere kostu emozionala ordaindu behar izan zuten batzuetan; antsietatea izan dute eta kanpoko laguntza behar izan dute estualdi hori gainditzeko.

> *Nire alaba txikiak bi urte zeraman tratamendu psikiatrikoan, oso txarto zegoelako. Bera zen txartoen zegoena; noski, kalera irten eta leku horietan gauzak esaten zizkioten, eta aitaren aurkako mehatxuak ikusten zituen. Berak asko bizi izan zuen… ez dakit… txarto zegoen. Jazarpen hori ikaragarria izan zen eta, gainera, hori guztia familia barruan nola bizi izan genuen; familia-giroa hondatzen joan zen.* (E5F)

> *Gure etxera hirugarren erasoan etorri zirenetako bat (eraso hori saihestu genuen) nire seme gazteenaren laguna zen. Eskolaurretik elkarrekin. Gainera, gure etxetik oso hurbil bizi zen, nire semearen lagun handia zen. Eta txikitan oso mutiko barregarria zen, ni asko gogoratzen naiz berarekin, baina beno... Eta bera gure etxera zetozenen artean zegoen, orduan atxilotu zuten. Nire semeak oso txarto eraman zuen hori. Negarrez hasi zen, egunak eman zituen negarrez. Inoiz ez dut semea horrela ikusi, oso mutil ausarta da... ba ez dakizu zein txarto zegoen. Unibertsitateko eskoletara joateari utzi zion. Dekanoarekin hitz egin nuen eta tutore bat jarri behar izan zioten.* (E14F)

### 4.2.4. Jasandako bidegabekeriaren kontzientzia eta memoria partekatzeko beharra

Denborak ematen duen ikuspegitik, informatzaileei galdetu diegu eskolta izan duten pertsonek bizi izandako egoeraren inguruan gizarteak, oro har, eduki duen pertzepzioari buruz. Halaber, gogoeta egiteko eskatu diegu, beraien memoria herritarren artean hedatu eta partekatzeko moduari buruz. Hauek dira helarazitako gogoeta batzuk:

> *Nire ustez, herritarrek, oro har, badakite ETA zegoela, terrorismoa dagoela, baina hitz hori ez da asko esaten, eta orain gutxiago. Lehen gehiago, baina asko ez (…). Ni oso eszeptikoa naiz erreparazio-egoera horien aurrean; uste dut ezin dela konpondu. Egon litekeen erreparazio bakarra, nolabait esateko, memoria mantentzea litzateke, hau benetan gertatu zela eta euskal gizartean eragina izan zuela gogoan hartzea, eta gogorarazi behar dela, berriro ez gertatzeko. Gainera, bere garaian fenomeno hau justifikatu edo lagundu zuten edo aurre egin ez zioten gizarte-taldeek, erakunde politikoek edo zibikoek eta pertsonek adierazpen publikoa egin beharko lukete, gertatu zena onartu ez izana oker bat izan zela onartzeko. Hori baino ez diot, barkamena eskatzea ez, baizik eta aitortzea estrategia hari laguntzea eta onartzea akats bat ez ezik, izugarrikeria bat ere izan zela. Hau ez da gertatu eta denbora aurrera doan heinean, zailagoa da gertatzea. Kontuan hartu beharko litzateke eskolako liburuen bidez memoria mantentzeko aukera, baita etorkizunean egingo diren agiri edo akordio politikoen bidez ere; adibidez, Estatutua aldatzen bada edo herrialdearen egoera instituzionala aldatzen duen agiriren bat aldatzen bada, hitzetan jasota gera dadila guztia, hori benetan gertatu zela eta ezin daitekeela berriro gertatu gogorarazteko.* (E12PU)

> *Bizitza autoa gidatzea bezalakoa da, aurrera begira ez bazoaz esku biak bolantean ipinita, inoiz ez duzu ondo gidatuko. Hori bai, atzerako ispilu handi bat ez badaukazu, ezin duzu ondo gidatu (...). Nik eskatzen dudan gauza bakarra da ez ahaztea. Historialariei eskatzen diet, haiei testigantzak emanda, jendeari gertatu zena kontatzeko; hori baino ez, mendeku hartzeko asmorik gabe. Hori ikasgeletan, unibertsitatean, lagunartean... egin behar dugu, gertaera batzuk noizbehinka gogora ekarri. Kontua ez da gurutzeaz joatea eta nork bere burua zigortzea, ez zait hitz hori ez jarrera hori gustatzen, baizik eta guk geuk badaukagula zer esan. Ezin dugu onartu gertaera haiek justifikatzea, hori akats larria litzateke eta. Horretan oso zorrotzak izan behar dugu, gaitzespenean. Gaitzespenei buruz hitz egiten dugunean, esan nahi dut hauek gaitzestea: ETA, indarkeria, oro har, tortura, GAL… Nik hori guztia gaitzetsi dut. Aldizkari batzuetan egin ditudan portadak direla eta nahigabeak izan ditut. Baina ezin dugu dena berdindu. Urte askotan zama handia eduki dugu hemen, ETA zen zama hori eta hainbeste denbora iraun du babes soziala eta politikoa zuelako. Gogora dezagun, konta dezagun telebistan, eskoletan, unibertsitatean... helburu bakar batekin: berriro ez gertatzea. Inork ez ditzala berriro pistolak har bere ideiak defendatzeko demokrazian, nahiz eta demokrazia perfektua ez izan. Justizia, erreparazioa eta memoria behar dira. Herrialde bat, memoriarik ez badu, galdu egiten da.* (E15P)

> *Nire iritziz, gizartearen zati handi bat ez da batere sentikorra izan fenomeno honekin. Gertaera horiek normalak balira bezala ikusi dira eta, nire ustez, ez dira bat ere normalak izan. Guztiz anormala zen egoera bat normalizatu behar izan dugu. Zerbait anormala barneratu. Pertsona batzuek pentsatzen*

*dutena honela adierazten dute:"begira, hor doa hori eskoltarekin eta auto ofizialean". Eta noski, arinkeriaz ikusten dute. VIP bat da. "Barkatu, ez dakizu honek guztiak zer dakarren berekin". Ematen du arazoa zurea baino ez dela, eta, egia esan, komunitate berean gaude, gizarte berean, elkarrekin bizi gara, hiriko arazoak eta auzokideen arteko arazoak partekatzen ditugu, denetarik... Eta, hala ere, nire pertzepzioa zera da, zure arazoa dela uste dute eta "niri ez zait tokatzen"... Horixe da nire pertzepzioa; ez dakit erreala den, baina horrela da.* (E3PJ)

Gure elkarrizketatu baten iritziz, ezin dugu ahaztu, ETAren indarkeriari buruz ari garenean, indarkeriaren sorburua (eta legitimotasunik eza) bakarra dela, nahiz eta jazarpen-indarkeria, enpresaburuen estortsioa edo indarkeriaren beste modu batzuk noizbehinka aztertu.

*Zerbait espezifikoa bezala ikusten dudanez, uste dut indarkeria ez dugula zatitu behar, indarkeria bakarra delako. Indarkeria terminoari izena jartzean, fenomenoa bera txikiagotzen ari gara; jazarpen-indarkeria da, lehergailuen indarkeria edo iraultza-zergaren indarkeria da... Ematen du gauza txikiak direla eta ikuspen globala galtzen da. Indarkeria erabiltzen dutenek horrela ikusten dute eta helburuak oso argi dituzte. Horregatik erabiltzen dituzte tresna, jarduketa edo bide espezifikoak egoera bakoitzerako, eta badakite min egiten dutela, eta egin egiten dute. Guk horrela ezin dugu jarraitu, egoerari mesede egiten, indarkeria zerbait orokor bezala tratatu behar dugu (ez dut esan nahi analisi espezifikorik egin behar ez dugunik), baina argi eduki behar dugu indarkeria bakarra dela, forma desberdinak hartzen baditu ere (…). Renaulten aurkako leherketak izan zirenean interes frantsesei buruz hitz egiten zenean bezala. Nola ba interes frantsesak? Renault Espainiako sozietate anonimoa da eta hemengo langileak dauzka. Eta gainera, beste batzuen aurkako atentatuak direla ematen du, interes frantsesak direlako. Ezetz, gure aurkako atentatuak dira. Gertatzen dena da oso joko arriskutsua dela eta gizartean barruraino sartzen dela.* (E2EMP)

Beste elkarrizketatu batek adiskidetzearen datua gaineratu zuen, memoria partekatzeko fasearen ondorengo fase gisa, eta bertatik bertara ikusi zuen bi pertsonaren arteko topaketaren adibide hau eman zuen. Pertsona horiek, beste egoera desberdin batean, nekez egongo ziren elkarrekin beren esperientziak trukatzen.

*Kontakizun didaktiko bat behar da. Urte askotan eskolta eduki behar izan zuten pertsonak, behe-solairuan bizi zirelako pertsianak jarri behar izan zituztenak (Molotov koktelak botatzen zizkietelako), etab. Horri buruz hitz egin behar da, gizarteak ezagutu behar du hori (...). Duela gutxi, erakunde-mailako biktimen arteko topaketa batean egon nintzen eta elkarrizketarako hogeitaka talde eratu ziren; talde bakoitzean koordinatzaile bat zegoen eta haietako baten koordinatzaile izateko eskatu zidaten. Talde horretan zazpi kide zeuden, lau galdera egiten zizkiguten eta gure gogoetak jaso behar genituen. Han zeuden EHUko irakasle bat, 70eko hamarkadan ETAk hildako polizia nazional baten alarguna, senar-emazte batzuk (senarra polizia nazionala zen eta lesio iraunkorrak izan zituen ETAren aurkako enfrentamendu armatu batean), bake-elkarte bateko ordezkari bat eta azkenik, ETAk hildako ETAko kide baten alarguna. Bilerak ordu eta erdi iraun zuen. Bileraren amaieran, une magikoa bizi izan nuen agur esaterakoan, polizia nazionala eta ETAko kidearen alarguna besarkatu eta elkarri musu eman ziotenean. Handik astebetera polizia nazionalari deitu nion (Galizian bizi da eta hona etorri zen, beldurraren eszenatokira) eta galdetu nion ea zer iruditu zitzaion bilera. Berak hau esan zidan: "besteekin (hitz hori erabili zuen) egon behar nuela jakin izan banu, ez nintzen joango, baina orain ez naiz damutzen". Hemen, hogeita hamar urtez polarizazioa eta lubakia elikatu ditugu. Gero, pertsona horiek elkar ezagutzen dutenean, beldurra, mamuak eta aurreiritziak desagertzen dira edo desagertuz doaz.* (E4FP)

# 5. Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa

ETAren mehatxuaren menpe bizi eta eskolta edukitzera behartuta egon ziren pertsonen egoera ez dagokio gizarte demokratiko bati, eta, gainera, anomalia maltzurra izan zen, pertsonen oinarrizko eskubide ugari urratu zituelako, estatu- nahiz nazioarte-mailako antolamendu juridiko demokratiko guztietan eskubide ukaezinak eta besterezinak direnak. Jarraian, antzemandako urraketak aztertuko ditugu, eta zehazki urratutako eskubidea izendatuko dugu.

Soil-soilik ideologia jakin batzuk jendaurrean defendatzeagatik, lanbide baten jarduera askeagatik edo herritarren ordezkari izateko hautatua izateagatik mota desberdinetako mehatxu eta erasoen bidez intimidazioaren helburu izateak ordenamendu juridikoko gorengo baloreak urratzen ditu, hala nola, **nortasunaren garapen askea**[13]**,** eta zehazki**, ideologia-, kontzientzia- edo pentsamendu-askatasuna eta**[14] **adierazpen-askatasuna**[15].

Lehenago eman ditugun testigantzetan ikus daitekeenez, batzuetan jazarpenarekin batera erasoak egoten ziren, eta, nolanahi ere, praktika horiek luzaro irauteak (kronifikazioa) kalte emozionala eragin zuen, hau da, estres iraunkorra edo trauma osteko estresa. Mehatxuak atentatu bihurtu zirenean, zauri konponezinak gertatu ziren, eta, batzuetan, heriotza ere bai. Ildo horretatik, **pertsonen integritate fisiko eta moralerako eskubidea**[16] urratu zen eta, kasu larrienetan, **bizitzarako eskubidea**[17] ere bai.

Eskolta eduki beharraren ondoriozko muga eta galerei dagokienez, eman diren testigantzetan argi eta garbi ikusten da **askatasun eta segurtasunerako eskubideari**[18] eragiten diola, gizarte demokratiko batean inori ezin zaiolako askatasuna kendu, legeak ezarritako kasuetan izan ezik. Hau da, Estatuak baino ezin du askatasuna murriztu, eta legeak ezarritako kasuetan. Hemen aztertzen ari garen kasuetan murriztapen hori legez kanpo eta modu arbitrarioan ezarri zen. Bizitza babesteko eskolta operatibo baten menpe egoteak berekin dakartzan murriztapenen artean dago **joan-etorrietarako askatasunaren** murriztapena. Beste kasu batzuetan, egiaztatu dugun moduan, babestutako pertsonaren integritatea bermatzeko, helbidez aldatzeko aholkatu zitzaion eta beraz, **bizilekua askatasunez aukeratzeko eskubidea**[19] urratu zen.

Eskolta eduki behar izan zuten mehatxatutako pertsonak lan-merkatuan sartzeko izan zituzten zailtasunak (testigantzetan jaso ditugunak) oinarrizko eskubide baten urraketa dira: **lanerako eskubidea**[20] eta **lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubidea**. Ikusi dugu zenbait pertsonari lanbide zehatz batean aritzeagatik bakarrik eraso egin zietela, eta, beraz, lanerako eskubidearen bigarren alde hori (**lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubidea**) bereziki urratu zen.

13 Espainiako Konstituzioaren (EK)10. artikuluak jasotzen du. Aipatzeko modukoa da Nazio Batuen Asanblada Orokorraren 1981eko azaroaren 25eko Adierazpenean egiten den printzipio horren aintzatespena, erlijio eta sinesmenak direla eta sortzen diren bazterkeria- eta intolerantzia-mota guztien desagerpenari buruzkoa. 1.2 artikuluan hau ezartzen da: "Ezin izango da inor behartu, bere aukerako erlijio edo sinesmena edukitzeko askatasuna murrizteraino".

14 Aipatu beharrik ez dago printzipio hori oinarrizkoa edo funtsezkoa dela edozein estatu demokratikotan. Printzipio hori honako hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 9. artikulua, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (Nizako Gutuna) eta 1976ko martxoaren 23ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 18. artikulua.

15 Aurreko eskubidearekin bezalaxe, hainbat testuk jasotzen dute eta ezinbestekoa da zaintzea. Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, GEEHren 10. artikulua, Nizako Gutunaren 11. artikulua, EZPNIren 19 . artikulua.

16 Egonkortasun emozionalari edo osasun psikologikoari eragitea integritate moralerako eskubidea oztopatzea da. Izan ere, pertsonen bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea da Espainiako Konstituzioaren II. kapituluko lehenengo atalean (*Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak*) jasotzen den lehenengoa, 15. artikuluan. Nizako Gutunaren 3. artikuluan ere jasota dago.

17 Espainiako Konstituzio Auzitegiak zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hierarkia bat ezartzeari uko egin diote Giza Eskubideen aitortzari dagokionez; izan ere, horiek guztiek maila bera dute askatasun publikoen ohiko egikaritzean eta, ordenamendu juridikoaren balio gorena diren aldetik, estu lotuta daude pertsonaren duintasun-printzipioarekin (EKren 10. artikulua). Hala ere, aurrekoa horrela den arren, bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubideak betekizun ontologikoa dira eta hori gabe gainerako eskubideak ezin dira existitu. Bizitzarako eskubidea GEEHren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 2. artikuluan, eta EZPNIren 6. artikuluan jasotzen da.

18 Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (GEDU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua eta EZPNIren 9. artikulua.

19 Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (GEDU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua eta EZPNIren 9. artikulua.

20 Bizilekua askatasunez aukeratzeko eta joan-etorrietarako eskubidea honako hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua, GEEHren 4 zenbakiko protokoloaren 2. artikulua, Nizako Gutunaren 45. artikulua eta EZPNIren 12. artikulua. Berriz esan behar da: pertsonen oinarrizko eskubide hau Estatuak besterik ezin du mugatu, eta legeak ezarritako arrazoiengatik.

Euskadin pertsona asko hautetsiak izateagatik (udaleko, foruetako, EAEko edo estatuko kargu hautetsia) egon ziren mehatxatuta. Herritarrek sufragio unibertsal eta zuzenez hautatu dituzten pertsonak mehatxatzea eta jazartzea, zuzenean edo ordezkarien bidez, legez kontrako oztopoa jartzea da **arazo publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubideari**[21]. Horrela, mehatxatutako pertsonen sufragio pasiborako eskubidea ez ezik (bozkatua izateko eskubidea), hautetsi horiek legez ordezkari gisa zituzten herritarren sufragio aktiborako eskubidea ere urratu nahi zen[22].

Azkenik, agerikoa bada ere, nabarmendu beharra dago atal honetan aipatutako eskubideen aurkako erasoa Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan jasotako ordenamendu juridikoko gorengo balio guztiei kalte egitea dela, batez ere hauei: **aniztasun politikoa, askatasuna, justizia eta berdintasuna**.

# **6**. Ondorioak eta gomendioak

Amaitzeko esan dezakegu, txosten honek hartzen dituen bi hamarkadetan, pertsonen oinarrizko eskubide jakin batzuk gero eta gehiago urratu zirela eta horrek luze iraun zuela. Eskubideen urraketa hori arbitrarioa eta bidegabea izan zen, eta biktimak ez ziren gai izan defendatzeko edo egoera aldatzeko. Zehaztu gabe dago ETAren indarkeria jasan zuten pertsonen kopurua. Ikerketa-lan honetan irizpide bat erabili dugu kaltetuen kolektibo bat definitzeko, eta mehatxu justifikaezin horrek haien bizitzan eta eskubideetan izan zituen eraginak zehazteko; irizpide hori izan da eskolta-operatibo bat jartzea bizitza eta integritate fisikoa babesteko. Irizpide horrekin, Segurtasun Sailak lan honetan eskuragarri jarritako datu kuantitatiboek adierazten dute 1.619 pertsona babestu direla Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura. Halaber, kalkulatzen da gutxienez beste hainbeste pertsona babestu zirela EAEn Barne Ministerioaren ardurapean. Dena den, oraindik zehazteke ditugu ETAren mehatxuaren ondoriozko beste sufrimendu-mota batzuk, beste modu desberdin batzuetan azaleratu zirenak edo beste konponbide bat izan zutenak.

Atal honetan proposamenak egin behar dira euskal iritzi publikoan eztabaida dinamiko bat sortzen laguntzeko, gertaera horien memoriaren eta biktimek merezi duten kalte-ordainaren inguruan. Ba al dago, beraz, gertaerei buruzko kontakizun artikulatuaren bidez egia ezagutzeko eskubide bat, eta biktimei eragindako kaltea aintzatetsi eta horren ordaina jasotzeko eskubide bat? Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidetik, zenbait egile eta erakunde saiatu dira giza eskubideen urraketen biktimen *erreparaziorako eskubidea* garatzen, eta horretarako, bi oinarri izan dituzte: batetik, arlo horretako nazioarteko itunak errespetatu eta betearazteko estatuek duten betebeharra (estatu bakoitzak bere ordenamendu juridikoan sartzen du), eta, bestetik, eskubide horiek urratuta, *konponbide* eraginkor baterako biktimek duten eskubidea[23]. Nazio Batuen Erakundeak *memoriarako eskubidea*ren prozesua hiru arlotan laburbildu du: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea[24]. Hiru arlo elkarri lotuta dituen formula horrekin bat, gure azken gogoetak neurriak proposatuko ditu arlo horietako bakoitzean.

**A) Memoria eta egia**

Felipe Gómezek[25] azpimarratzen duen moduan, memoriarako betebeharrak bi urrats eskatzen ditu: *ezagutza* eta *aintzatespena*. Egiaren eta gertaeren ezagutza, eta biktimen sufrimenduaren

21 Lan-eskatzaileak ez dira lan bila aritzen beharrizan ekonomikoagatik bakarrik; aitzitik, lan-merkatuan sartzeak garrantzi handia dauka pertsonek gizartean parte hartzeko eta gizarteratzeko. Hori dela eta, oinarrizko eskubidea denez, ordenamendu juridikoko gorengo balioekin lotuta dago, hala nola, nortasunaren garapen askea, pertsonaren duintasuna eta bere integritate morala. Kasu honetan elementu bereziki lazgarri bat dago: lanaren galera ez da gertatzen lan-merkatuaren egoera txarragatik edo Estatuaren arduragabekeriagatik, baizik eta faktore bi horietatik kanpoko hertsapen batengatik. Espainiako Konstituzioaren 35. artikulua, GEDUren 23. artikulua, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 6. artikulua eta Nizako Gutunaren 31. artikulua.

22 Bizitza publikoan parte hartzea da, beharbada, demokrazien elementu agerikoena eta adierazgarriena. Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua, GEDUren 21. artikulua eta EZPNIren 25. artikulua.

23 Asmo hori lortu nahi zuten mehatxatuta zeuden eta beren lana egiten jarraitu zuten pertsonekin, baina beste kasu askotan eskubide hori urratzeko asmoa lortu zuten, pertsona horiek hauteskundeetan aurkezteari uko egitea erabaki baitzuten, beraien aurkako edo beren ingurunearen aurkako mehatxua zela eta.

24 Gure proposamenak lan hauek hartuko ditu kontuan: Gómez Isa, Felipe (zuz.). *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006; eta Múgica Munárriz, Guillermo; “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”, hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.). *Con las víctimas del terrorismo*, Vitoria-Gasteiz: Gakoa, 2009, 119.-137. or.

25 Joinet, Louis. *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengoen bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri: http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html

aintzatespena. Fase honek eragiten die (eta mesede egiten die) oinarrizko eskubideak urratu zaizkienei eta gizarte osoari ere bai. Guillermo Múgicak[26] zentzu handiz adierazten duen moduan, egiak "*gure baitan dagoen gizagabetasun beldurgarri eta lazgarria jarri ahal du agerian*". Horrexegatik, gertaeren azalpena ez da ariketa abstraktu bat; aitzitik, helburu zehatzek sustatutakoa izan behar da:

- Indarkeriaren bidegabekeria, eta beraz, biktimen errugabetasuna aintzatestea erraztea.
- Giza eskubide urraketa guztiak onartezinak direla onartzea, bai eta azaldu diren gertaerak ere.
- Bizi izandako egoeretan zenbait elementu patologikok (tolerantziarik eza, aniztasunaren bazterketa, norberaren iritziak indarrez inposatzea, gizabanakoa ukatzea...) izan duten eginkizuna ulertzea.
- Memoriak orainaldiarekin lotuta egon behar du, eta are gehiago, orainaldia azaltzen lagundu behar du. Iragan kaltegarriari begiratzen diogu eta aztertu egiten dugu, oraingo balio irmoetatik abiatuta. Saihestu behar da Martinez de Bringasen[27] *memoriaren fetitxismoa* deritzona*;* orainaldia menperatzen eta gaitasunik gabe uzten duten iraganeko dinamikak ulertzeko eta zentzua emateko. Ariketa politiko horrek harremana dauka Hannah Arendt-ek *gaizkiaren banalizazioa*[28] deituriko prozesuarekin.

Hori bai, memoria egitea, abstraktuan, alferreko ariketa izan daiteke, aipatu ditugun hurrengo bi faseei begira ez badago. Alde batetik, memoria justiziari zuzendutakoa izan behar da, gero ikusiko dugun bezala. Horrek aurresuposatzen du azaldutako gertaerak ezin direla berriro gertatu. Bestetik, memoria erabat egoera anomaloa konpontzeko helburua izan behar du. Horregatik, memoria ezin da sumindura edo gorrototik abiatu; aitzitik, gertatutako ulertzera eraman behar gaitu (ulertzea, iraganaz kontzienteak izan), etorkizunerantz adiskidetuta urratsak ematen dituen gizarte dinamiko batera iristeko aldez aurreko hausnarketa gisa.

**B) Justizia eta ordaina ematea**

Justiziaz ari garenean, ez dugu bakarrik aipatzen epaile eta magistratuek inpunitatea ekiditeko egiten duten lana. Batez ere, gizarteak, oro har, iritzi publikoak biktimei laguntzeko zer egin dezakeen pentsatzen ari gara, biktimei eta bizikidetza demokratikoari kendutakoa itzuli, sendatu eta konpontzen laguntzeko egin dezakeena. Gure iritziz, justizia eskuratzeko ekintzek helburu objektibo hauek izan behar dituzte:

- Biktimen sufrimenduarekiko enpatia, hau da, laguntza ematea eta elkartasuna adieraztea. Aurreko fasean esan dugun bezala, jasandako sufrimenduaren inguruan kontakizuna eraiki duen gizarte batek aitortu behar du bidegabekeria hori, eta eskubideak urratuta eduki zituzten pertsona horiekin sentibera izan behar du. Komeni da azpimarratzea, lehen esan bezala, horrek ez duela esan nahi biktimen ideologiarekin ados egotea[29]. Desadostasun politikoa zilegi da gizarte guztietan eta beharrezkoa da, hain zuzen ere, justiziaren prozesua eta eztabaida ideologikoa bereiztea. Hortxe dago, baita ere, eskuzabaltasun demokratiko eta desberdinen arteko bizikidetzaren ariketa garrantzitsu bat.
- Datu kualitatiboen analisian nabarmendu dugu mehatxatutako pertsonak gizarte-estigmatizazioko prozesu baten menpe egon zirela. Beharrezkoa da pertsona horiei errehabilitazio soziala eta morala eskaintzea. Kendutako edo zalantzan jarritako balioa eta duintasuna berriro itzultzea.
- Gainera, gure ikerketaren helburuko pertsonak adierazpen-askatasuna erabiltzeagatik, lanbidean askatasunez jarduteagatik edo aldarrikapenak egin eta herriaren alde lan egiteko hautatuak izategatik mehatxatu eta hertsatu zituztela kontuan hartuta, beharrezkoa da erresilientziaren balioa nabarmentzea, bai eta prezio pertsonal handia ordainduta beren eskubideak baliatzen jarraitzeak duen balioa ere.
- Biktimen galera konponezina da. Ezinezkoa da sortutako kaltea erabat ordaintzea. Inork ezin dizkie biktimei itzuli kendutako denbora, galdutako aukerak, kendutako integritate fisiko eta morala eta, are gutxiago, senideren bat hil zietenean. Gizarteak biktimei eskaini ahal dien modu bakarra da etorkizun desberdina eraikitzea, hainbeste sufrimendu sortu zen iraganeko garai horretatik urrun. Horrek beste fase bati ekitera garamatza: ulertze eta adiskidetzea.

26 Gómez, F. "El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos". Hemen: Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria, op. cit. 37.-40. or.*

27 Múgica Munárriz, G. "Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA" *op.cit.* 127.-128. or.

28 Múgica Munárriz, G. "Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA" *op.cit.* 127.-128. or.

29 Martínez de Bringas, A. "De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria". Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria, op. cit. 270.-275. or.*

- Orain arte esandako guztiagatik, justiziak kalte-ordaina ekarri behar du. Europar Batasuneko legeriak ematen duen definizioaren arabera, justizia leheneratzailea hau da: *"biktimek eta arau-hausleek, horretarako baimena askatasunez ematen badute, zigor arloko arau-haustearen ondoriozko arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen duen prozesua, hirugarren inpartzial baten laguntzaz"*[30].

**C) Ulertzea eta gizarte-adiskidetzea**

Gizarte-adiskidetzea, komunitate-politika den aldetik, memoria, justizia eta leheneratzeko prozesu guztien azken helburua da. Adiskidetzerik gabe, bakea su-eten bat izango litzateke, luzeagoa edo laburragoa, eta gizarte-haustura gailenduko litzateke. Fase honetan, beharbada, barkamena egon daiteke, baina baldintza hori ez dugu hemen sartu, oso ekintza pertsonala eta borondatezkoa baita, eta ezin da inoiz halakorik eskatu. Barkamenaren ordez, ulertzeko baldintza sartu dugu. Hannah Arendt-ek ulertzeari eta adiskidetzeari buruz hitz egin zuen:

> *Adiskidetzea ulertzearekin batera doa, ezinbestez, eta horrek* tout comprendre c´est tout pardonner *ohiko gaizki-ulertzea ekarri du. Hala ere, barkamenak ia-ia ez dauka zerikusirik ulertzearekin, ez baita horren baldintza, ezta ondorioa ere. Barkamena (zalantzarik gabe, gizakiaren gaitasun handienetako bat, eta, beharbada, ekintzarik ausartena, itxuraz ezinezkoa dena –egindakoa desegitea– egiten saiatzen delako, eta dena amaituta zegoela zirudienean, hasiera berria ezartzea lortzen duelako) ekintza bakarra da eta ekintza bakar batean amaitzen da. Ulertzeak, ordea, ez dauka amaierarik, eta beraz, ez du egiazko emaitzarik sorrarazten; gizakien bizimodu espezifikoa da, gizabanakoak arrotz bezala jaio den munduarekin adiskidetu beharra daukalako, eta mundu horretan arrotz bezala jarraituko du beti, bere bakartasun espezifikoa dela-eta… Totalitarismoa ulertzeak ez dakar barkamena berekin, aitzitik, halakorik gerta daitekeen munduarekin adiskidetu ahal garela esan nahi du*[31].

Egile alemaniarraren definizioaren arabera, ulertzeak adiskidetzeko prozesu politikoaren giza alderdiak eta gizartearenak aintzatestera bultzatzen gaitu. Ondorioz, adiskidetzea honela definitu daiteke: topaketa publikoaren prozesua, non tarteko pertsonek, komunitate politiko gisa, jasandako oinarrizko eskubideen urraketa eta bidegabekeriak onartezinak direla aitortzen duten. Prozesu hori harremanen esparru berria eraikitzeko oinarria da, eta esparru berri horretan giza harremanen etikarekiko eta arau demokratikoekiko begirunea bide bakarrak dira etorkizunean sor litezkeen auziak konpontzeko, betiere gertaera horiek berriro ez gertatzeko helburuari begira[32].

ETAren eta bere ingurunearen erasoen kasu honetan, biktimarioek beraiek irmotasunez adierazi behar dute adiskidetzeko konpromisoa, eman dugun definizioarekin bat etorrita. Adiskidetzeko prozesu baterako ezinbesteko urratsak dira, batetik, bidegabekeria eta kaltea egin dela berariaz eta zintzotasunez adieraztea, eta bestetik, iraganeko akats berdinak ez errepikatzeko konpromisoa adieraztea. Adiskidetzeko prozesua berez luzea izango da eta oztopoz beteta egongo da, irain, susmo, gaitzespen, aurreiritzi, gaizki-ulertze… ugari gainditu beharko dituelako. Sentimendu negatibo asko daude metatuta eta horrek esan nahi du erakunde pribatu eta publikoek topaketa-foroak antolatzeko lan handia egin beharko dutela, erakunde horiek baitira hausnarketa-prozesuen gidariak edozein gizartetan. Biktimek eta biktimarioek komunikazio-espazioak izan beharko lituzkete adiskidetutako gizarte baterako konpromisoa adierazteko, bizi izandako trauma hutsaltzeko edo ahazteko, jasandako kolpeak biktimarioei itzultzeko tentazioak ezabatuta.

Prozesu hau ezartzeko iradokizunak:

- ETAk mehatxatutako pertsonen sufrimendu bidegabea iritzi publikoari aurkeztea eta ezagutaraztea, biktimen ikuspuntuarekin, gertaeren kontakizuna eragindako kaltearen uste sendotik abiatzeko. "*Biktimen ikuspuntua bereganatzea beharrezko baldintza da benetako diskurtso etiko baterako, bereziki, indarkeriaren gaiari heldu nahi bazaio. Are gehiago, ziur aski biktimen ikuspegia gehitzeak benetako iraultza etiko bat ekarriko du*"[33].
- Biktimek jasandako erasoak, hertsapenak eta jazarpena ez erlatibizatzea ekidin ezinezko zerbait izan balitz bezala. Biktimarioen gertaeren erantzukizuna ulertzea.
- Metodologia desberdinen bitartez, ETAk mehatxatutako pertsonei buruzko ikerketan sakontzea, mehatxatuta egon ziren baina intimidazioari aurre egiteko beste irtenbide batzuk

30 Arendt, Hannah. *Eichmann en Jerusalén*, Bartzelona: DeBols!illo, 2009.

31 Múgica, G. op. cit. 131. or.

32 2.1. artikulua. Europar Batasunaren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren inguruko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordezten du.

33 Arendt, H. "Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)". Heme: *Daimon, Revista de filosofía*, 26 zk., 2002, 17.-18. or.

erabili zituzten pertsonen egoera ikertzeko (beharbada arrazoi horregatik ez dira estatistiketan agertzen).

- Biktimen ikuspuntua azaltzen duten eta herritarrengan enpatia sortzen laguntzen duten fikzio-lanak eta arte-sorkuntzakoak sustatzea.
- Estigmatizatutako eta moralki komunitate politikotik kanpo geratutako pertsonen aintzatespen publikoa sustatzea. Denok hartu behar dugu parte gizarte zuzen bat eraikitzen laguntzeko, baina, bereziki, isilaraziak izateko saiakerari aurre egin zioten pertsonak ezinbestekoak dira eraikuntza horretan.
- Erakunde publikoek bizikidetza zibikorako kultura leheneratzeko lanean jarraitzea, eta kultura horri kalte egin eta txosten honetan salatu diren praktikak gaitzesten jarraitzea.
- Txosten honen edukia hedatzea, bertan jasotzen diren testigantzei eta jazarpen praktiken bidez urratutako giza eskubideen salaketari ahotsa eman nahian. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institututak ekarpen baliotsua egin dezake topaketak, bizipenen trukaketa eta eztabaidak dinamizatzeko, terrorismoaren erasoa jasan eta eskolta eduki behar izan zuten pertsonen errealitatea gizarte osoari ezagutarazteko.
- Beste autonomia erkidego batzuekin edo Gobernuarekin ekintzak koordinatzea, ikerketa honen antzeko lanak egin daitezen, eta, horrela, beste ikuspegi geografiko batzuetatik, mehatxatutako pertsonen errealitatean sakontzeko.
- Ikerketa-lan honen helburu berdinak dituzten elkarteen arteko topaketak sustatzea, memoria, justizia eta gizarte-adiskidetze faseei edukia eman behar dien iritzi-aniztasun sortzaileari ahotsa emateko.
- ETAko kideak edo mehatxatzen zuen inguruneko kideak izan ziren eta orain autokritika egiten duten pertsonen testigantzak iritzi publikoari eskaintzea. Biktimei eta gizartearen bizikidetza demokratikoari eragindako kaltea aintzatesteko prozesuan komenigarria da hausnarketa-guneak izatea, giza eskubideen urraketan parte hartu zutenek publikoki egin dezaten itzultzeko bidea.

# **7**. Bibliografia

Arartekoa, *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeen emandako arreta. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia*, Vitoria-Gasteiz: Herriaren defendatzailea-Defensoría del pueblo, 2009ko ekaina.

ARCO – Euskadin terrorismoaren biktimen kolektiboa, *Declaración sobre la dignificación y derechos de las víctimas del terrorismo.* Lehenengo lan-jardunaldiak, Elkartasun berria eraikitzen: terrorismoaren biktimen eskubideak. 2007ko otsaila

Arendt, Hannah “Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)”. Hemen: *Daimon, Revista de filosofía*, 26 zk., 2002, 17-18. or.

Arendt, Hannah. *Eichmann en Jerusalén*, Bartzelona: DeBols!illo, 2009.

Azurmendi, José Félix*, ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: ttarttalo, 2014.

Bilbao, Galo eta Etxeberria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005.

Etxebarria, Xabier. *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilbo: Bakeaz, 2007.

Gesto por la Paz, “Violencia de persecución”. Hemen: *Palabras de Paz*, 40 zk., 2000ko iraila.

Gesto por la Paz eta Elkarri, *Manifiesto conjunto sobre la violencia de persecución*, 2004ko ekaina.

Gómez, Felipe. “El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos”. Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria,* Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75. or.

Joinet, Louis. *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengoen bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri:http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html

Martín-Peña, Javier. *El acoso y la violencia psicológica aplicada por el entramado terrorista en Euskadi: Análisis psicosocial de sus componentes y efectos*, Bartzelonako Unibertsitatean defendatutako doktorego-tesia, 2011.

Marín-Peña, Javier; Opotow, Susan y Rodríguez-Carballeira, Álvaro. “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral”. Hemen: *Revista de psicología social,* 26:2, 2011.

Martínez de Bringas, Asier. “De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria”. Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria,* Bilbao: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 267.-294. or.

Múgica Munárriz, Guillermo. “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”. Hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.). Parrilla, 2009, 119.-137. or.

Nordquist, Kjell Åke. “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”. Hemen: *Estudios de filosofía*, 2008, 491.-497. or.

Pérez, Kepa. *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005.

# 8. Eranskinak

Eranskin hauetako informazioa ikerketa-taldearen esku jarri zuen Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak. Zalantzarik ez dago eranskin horiek oso interesgarriak direla gure ikerketarako. Duten luzera eta xehetasun mailagatik, eranskin moduan eman ditugu. Oso argi erakusten dute atentatu edo erasoen helburu izan zitezkeen pertsona eta erakundeei buruz ETAk bildu zuen informazioaren kalitatea.

## 1. ERANSKINA

### ETAren dokumentazioan agertu diren datuei dagozkien pertsonen kopurua

Ertzaintzak 36.000 pertsonari buruzko informazioen kopuru zehatza ezagutzen du. Informazio hori ETAri aurkitu zaio Ertzaintzaren polizia operatiboetan edo beste segurtasun-indar batzuek egindako operatiboetan, atxilotuek egindako polizia deklarazioetan edo komunikatuetan[34].

Hurrengo taulak egitean kontuan hartu dira, batetik, ETAk helburu baten inguruan denboran zehar lortu zituen informazioen kopurua, eta, bestetik, aurkitutako informazioen tipologia. Hona hemen informazio horien parametroak[35]:

**Oinarrizko informazioa**: iturri ofizial eta irekien bitartez helburuei buruz lortzen den informazioa. Izen-abizenei buruzko informazioak dira, erkatu gabe eta datuak erantsi gabe.

**Informazio erdi elaboratua**: informazio horietan pertsona baten identitate, kidetasun, helbide eta ondasunei buruko datuak agertzen dira, baina datu horiek erkatu eta zabaldu gabe daude.

**Informazio elaboratua**: identitate, helbide, ibilgailu, errutina, jarraipen, argazki eta abarri buruzko informazio erkatua, alderatua eta zabaldua, helburuaren identifikazio zabala egiteko.

34 Definizio hori lan honetan dago oinarrituta: Nordquist, Kjell Åke “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”. Hemen: *Estudios de filosofía*, 2008, 491.-497. or.

35 Bilbao, Galo eta Etxeberria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005, 34. or.

## Taulak[36] [37]

| ALDERDI POLITIKOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 1 | 2.080+71* | 199+4* | 33+1* |
| 2 | 303+1* | 64 | 23 |
| 3 | 116 | 73 | 14 |
| 4 | 39 | 74 | 14 |
| 5 | 15 | 33 | 22 |
| 6 | 10 | 23 | 14 |
| 7 | 9 | 21 | 12 |
| 8 | 2 | 16 | 10 |
| 9 | 2 | 5 | 5 |
| 10 | 0 | 3 | 3 |
| 11 | 1 | 2 | 4 |
| 12 | 0 | 1 | 1 |
| 13 | 0 | 0 | 3 |
| 14 | 0 | 0 | 1 |
| 15 | 0 | 1 | 0 |
| 16 | 0 | 0 | 3 |
| 17 | 0 | 0 | 0 |
| 18 | 0 | 0 | 0 |
| 19 | 0 | 0 | 3 |
| **GUZTIRA** | **2.577+72*** | **515+4*** | **165+1*** |

36 Gure azterlanean 1990-2011 epealdiko gertaerak aztertzen badira ere, 1. eranskinaren informazioa 1990etik 2015era arte jasotako informazioarekin eginda dago; izan ere, 2011tik 2015era arte lortutako informazio guztia ETAk aurreko urteetan egindakoa zen, eta, beraz, aztertzen ari garen epealdiaren barruan dago.

37 ETAk bere atentatuen helburu izan zitezkeen pertsonei buruz zeukan informazio-kopurua jasotzen du taulak. Ildo horretan, adibidez, talde terroristak 15 pertsonari buruzko oinarrizkotzat jotako bost txosten zituen edo bost informazio konfiskatu zitzaizkion. Informazio edo dokumentu kopuru bera, baina erdi elaboratutzat jotakoak, 33 pertsonari buruzkoak ziren. Azkenik, 22 pertsonari jarraipen elaboratuak egin zitzaizkien bost aldiz.

| JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 45 | 16 | 0 |
| 3 | 10 | 8 | 6 |
| 4 | 4 | 9 | 1 |
| 5 | 1 | 6 | 1 |
| 6 | 2 | 1 | 4 |
| 7 | 0 | 1 | 2 |
| 8 | 0 | 0 | 0 |
| 9 | 0 | 0 | 1 |
| 10 | 0 | 0 | 0 |
| 11 | 0 | 0 | 0 |
| 12 | 0 | 0 | 0 |
| 13 | 0 | 0 | 0 |
| 14 | 0 | 1 | 0 |
| **GUZTIRA** | **282+11*** | **69+2*** | **19** |

| ENPRESABURUAK/ENPRESAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 108+57* | 60+19* | 6+2* |
| 3 | 18+9* | 19+7* | 1+1* |
| 4 | 9+2* | 11+2* | 993 |
| 5 | 6 | 6 | 2 |
| 6 | 2+1* | 2+1* | 1 |
| 7 | 2 | 2 | 0 |
| 8 | 0 | 1* | 0 |
| 9 | 0 | 1* | 3 |
| 18 | 0 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **1.688+1.458*** | **559+138*** | **1019+14*** |

| HEDABIDEAK: | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 50 | 18 | 1 |
| 3 | 4 | 14 | 2 |
| 4 | 1 | 8 | 1 |
| 5 | 2 | 4 | 2 |
| 6 | 1 | 1 | 1 |
| 11 | 0 | 1 | 0 |
| **GUZTIRA** | **274+2*** | **90** | **11** |

| ERAIKIN OFIZIALAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 8* | 0 | 0 |
| 3 | 1* | 1* | 0 |
| 4 | 0 | 0 | 0 |
| 5 | 0 | 0 | 1* |
| **GUZTIRA** | **3+80*** | **14*** | **13*** |

| ELKARTEAK/FUNDAZIOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 7 | 2 | 2 |
| 3 | 0 | 1 | 0 |
| 4 | 1 | 2 | 1 |
| 5 | 0 | 2 | 0 |
| **GUZTIRA** | **142+29*** | **28+3*** | **3** |

| DROGA-TRAFIKOA | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 4+1* | 1 | 1 |
| 3 | 0 | 0 | 0 |
| 4 | 0 | 1 | 0 |
| **GUZTIRA** | **142+29*** | **28+3*** | **3** |

| IRAKASKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 8 | 0 | 0 |
| 3 | 5 | 0 | 0 |
| 4 | 2 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **63** | **7** | **1** |

| ETAk ISIL-MANDATARITZAT HARTUTAKO PERTSONAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 0 | 1 | 1 |
| 3 | 0 | 0 | 0 |
| 4 | 0 | 1 | 0 |
| **GUZTIRA** | **7+1*** | **7+27*** | **3** |

| ERREGE-ETXEA | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 0 | 2 | 0 |
| 3 | 0 | 0 | 3 |
| **GUZTIRA** | **12** | **3** | **3** |

| EUSKO JAURLARITZA | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 4 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **15+1*** | **0** | **0** |

| DIPLOMATIKOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 2 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **31+1*** | **0** | **0** |

| SINDIKATUAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 2+6*(CCOO) | 1*(CCOO) | 0 |
| **GUZTIRA** | **3+9*** | **1+1*** | **0** |

| KODETU GABEKOAK | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsona bati buruz lortutako informazio-kopurua | Pertsona-kopurua | | |
| | Oinarrizko informazioa (izen-abizenak) | Informazio erdi elaboratua (datu pertsonal osagarriak) | Informazio elaboratua (helburuaren identifikazio zabala egiteko) |
| 2 | 64 | 2 | 0 |
| 3 | 8 | 0 | 0 |
| 4 | 1 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **3.705+76*** | **167+4*** | **17+1*** |

# 2. ERANSKINA

## Mehatxatutako kolektiboei emandako arrisku-mailen zerrenda

*Arrisku txostena* Ertzaintzak egiten zuen polizia-txosten bat zen, eta bere helburua zen pertsona fisiko batek ETAren atentatu bat edukitzeko zuen arriskua irizpide murriztaile batekin zehaztea, pertsona horri, bere egoera zehatza kontuan hartuta, babes zerbitzurik egokiena eskaintzeko. Arrisku-mailak ematen ziren ETAk helburu bakoitzari buruz zeukan informazio-motaren, kopuruaren eta kalitatearen arabera.

Pertsona bati buruzko arrisku-mailaren txostena egiteko, beharrezkoa zen pertsona horren inguruan ETAri aurkitutako eta/edo bere barne komunikatu edo idazkietan zabaldutako informazioa aztertu eta baloratzea. Kontuan hartzen zen, halaber, pertsona hori ETAk eraso egin edo eraso egin nahi zion kolektiboan zegoen ala ez. Azkenik, beste iturri batzuetatik lortutako datuak hartzen ziren kontuan, betiere, Ertzaintzak erkatuta.

Arrisku-maila zehatz bat ematean, ez ziren kale borroka edo gizarte-presioaren ekintzak kontuan hartu; hala ere, informazio hori bildu eta azken agiriari erantsi zitzaion, elementu baliagarria izan zitekeelako zein arrisku-maila ezarri behar zen erabaki behar zutenentzat.

Txostenetako arrisku-mailen (arrisku-mailaren larritasunaren arabera ordenatuta, handitik txikira) ezaugarriak hauek dira:

**4. arrisku-maila:** ETAren mehatxu globalaren menpean zegoen kolektibo batean egotea . Atentatu terrorista bat jasan duten kideen kolektiboa da (kontuan hartu gabe biktimek kolektibo horretan zeukaten eginkizuna edo karguaren garrantzia) edo, bestela, ETAk bere agiri edo komunikatuetan identifikatuta zeukan kolektiboa.

Pertsona bati buruzko informazio “gordina” harrapatzea. Elaboratu edo erkatu gabea. Iturri ireki eta/edo publikoetatik lortutakoa (EHAA, BOE, errolda…). Arrisku-kolektibo bateko pertsonak barne hartzen dituen zerrendetan agertzea. Prentsa-ebakinak (argazkiekin edo argazkirik gabe), eskuz idatzitako oharrik gabe eta bestelako datuak gehitu gabe. Hauteskundeetarako propaganda, talde politiko bakoitzeko kideak jasotzen dituena.

**3. arrisku maila:** Pertsonei buruzko informazio desberdinak dituen dokumentazioa harrapatzea, iturri ofizial eta irekietatik lortutakoa. Fitxak egitea (eskuz idatzita edo informatizatuta). Informazio horiek euren artean erkatuta eta/edo zuzenduta egon behar dute, baina inoiz ere ez in situ egiaztatuta edo gehituta.

**2. arrisku-maila:** Norbanakoari buruzko informazio “erdi elaboratua” harrapatzea. Pertsona baten identitateari, helbideari eta ondasunei buruzko datuak. Iturri ireki eta publikoetatik pertsona bati buruz lortutako datuen elkartrukea. Lekuan bertan helbide edo lantokiaren egiaztapen edo krokisak egon gabe, eta jarraipen edo errutinen egiaztapenik gabe, horrek 1. arrisku-mailara eramango gintuzkeelako. Arrisku-maila horrek helburuari buruzko datu pertsonalak daudela esan nahi du, ETAk egiaztapenik egin ez badu ere.

**1. arrisku-maila:** Informazio elaboratua. Lekuan bertan erkatu, egiaztatu eta gehitzen den informazioa da. Helbidearen eta/edo lantokiaren krokisa eta jarraipenak (errutinak eta joan-etorriak, ohiturak...).

| KOLEKTIBOA | ARRISKU-MAILA | KOPURUA |
|---|---|---|
| ALDERDI POLITIKOAK | 1 | 101 |
| | 2 | 95 |
| | 3 | 57 |
| | 4 | 907 |
| JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA | 1 | 12 |
| | 2 | 7 |
| | 3 | 10 |
| | 4 | 318 |
| ENPRESABURUAK | 1 | 492 |
| | 2 | 621 |
| | 3 | 4 |
| | 4 | 30 |
| HEDABIDEAK | 1 | 12 |
| | 2 | 9 |
| | 3 | 10 |
| | 4 | 63 |
| ERAIKIN OFIZIALAK/AZPIEGITURAK | 1 | 3 |
| | 2 | 5 |
| | 3 | 21 |
| | 4 | 144 |
| IRAKASKUNTZA | 1 | 2 |
| | 2 | 2 |
| | 3 | 5 |
| | 4 | 16 |
| ESPETXEETAKO FUNTZIONARIOAK | 1 | 1 |
| | 3 | 1 |
| | 4 | 8 |
| ELKARTEAK/FUNDAZIOAK | 3 | 2 |
| | 4 | 2 |
| UDALTZAINGOA | 2 | 1 |
| | 4 | 1 |
| DIPLOMATIKOAK | 4 | 5 |
| KODETU GABEKOAK | 1 | 1 |
| | 3 | 2 |
| | 4 | 25 |

# **4.** dokumentua

## Ertzainek eta haien familiek ETAren mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena
(1990-2011)

# Ertzainek eta haien familiek ETAren mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena
(1990-2011)

José Ramón Intxaurbe Vitorica
Eduardo J. Ruiz Vieytez
Gorka Urrutia Asua

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
Deustuko Unibertsitatea

**2016ko maiatzaren 25a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
**enkarguz egina**

Deusto
Instituto de Derechos Humanos
Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

**1.** Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua.

1.1. Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa.

1.2. Txostenaren helburuak eta egitura.

1.3. Metodologia.

**2.** Mehatxua objektibatzen laguntzen duten adierazleak.

**3.** Azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra.

**4.** Datuen aurkezpena.

4.1. Datu kuantitatiboen azterketa.

4.2. Datu kualitatiboen azterketa.

4.2.1. Ertzain izateagatik mehatxatuta. Ezkutatu ezinezko ezaugarria.

4.2.2. Autobabesaren diziplina mehatxuaren konponbide gisa.

4.2.3. Bidegabeko egoera baten ondorioak.

4.2.3.1. Herstura ugaritua. Familiari egindako mehatxua.

4.2.3.2. Erasoa, isolamendua eta bazterketa. Jazarritako gizarte talde baten hiru kondenak.

4.2.3.3. Aurre egitea, mehatxuak mehatxu. Bakartasuna eta uko egitea.

4.2.3.4. Jasandako herstura eta osasunean duen eragina.

4.2.3.5. Mehatxua egia bihurtuta. Erasotakoak eta erailak.

4.2.4. Gertatutakoaren kontakizuna eratzeko beharra.

**5.** Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa.

**6.** Ondorioak eta gomendioak.

**7.** Bibliografia.

# **1**. Sarrera. Txostenaren helburua, edukia eta denbora-esparrua

## 1.1. Txostenaren edukia eta enkarguaren justifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak txosten bat enkargatu zion 2015eko udaberrian Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe* Giza Eskubideen Institutuari. Txosten horrek ETAk Ertzaintzako kideei jasanarazi zien mehatxua jaso eta aztertu behar zuen. Zehazki, fenomeno horrek ertzainengan eta beren familiengan izandako eragina landu behar zuen azterketak, bereziki nabarmenduz zer kalte jasan zuten beren eskubideetan, talde terroristak eragindako beldurraren ondorioz[1].

Datu kuantitatiboak (inolako informazio pertsonalik gabe) Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eman ditu; azterketa honetako ikertzaile taldeak diligentzia eta konfidentzialtasun osoz erabili ditu datu horiek. Azpimarratu behar da ASERFAVITEk (Ertzain eta Terrorismo Biktimen Senideen Elkartea) txosten honen egileei emandako laguntza, ezinbestekoa izan baita ikerketa orientatzeko, aztergai dugun fenomenoak Ertzaintzari lotuta dituen berezitasunak ulertzeko eta lan hau elikatzeko datuak eta testigantzak aurkitzeko. Era berean, ZAITUk ere (ETAk mehatxatutako pertsonen elkartea) lagundu digu azterlan hau egiten, gogotsu eta erabat eskuzabal, eta testu honek asko zor dio laguntza horri.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak egindako enkarguan zehaztuta zetorren azterketak barne hartu behar zuen denbora-esparrua: 1990etik 2011ra. 90eko hamarkadaren lehen bosturtekoan ekin zitzaion Ertzaintzaren hedapenaren azken faseari; hala, 1995ean EAE osoa hartu zuen bere ardurapean. Aurrerago azalduko dugun kronologian ikus daitekeen moduan, Ertzaintzak gero eta presio handiagoa jaso zuen ETAren eskutik aztergai dugun denboraldi honetan. Azkenean, kidego osoari zuzendutako mehatxu esplizitu bihurtu zen. 2011ko urriaren 10ean ETAk bere jarduera terroristaren behin betiko amaiera jakinarazi zuen.

## 1.2. Txostenaren helburuak eta egitura

Txostenak jasotzen duen informazioa lan honetarako ezarri diren helburuen arabera egituratu da. Hauek dira helburuak:

- ETAk mehatxatu zituen pertsona horiei eragin zitzaien sufrimendu bidegabearen deskripzio kuantitatibo eta kualitatibo bat eskaintzea.
- Bi gai hauetan ondorio batzuetara iristea: mehatxuz urratutako giza eskubideen argiketa; eta halako biktimen erreparazioa.

Helburu horiek betetzeko, ikerketa-taldeak edukien egitura hau garatu:

a) Erabilitako terminologia. Mehatxua eta hori kuantifikatzen laguntzen duten adierazleak.

b) Txostenak barne hartzen duen denbora-esparruaren testuinguru laburra.

c) Erabilgarri ditugun datuen azterketa

- Alderdi kuantitatiboa. ETAk Ertzaintzako kideei jasanarazitako mehatxuaren balantze kuantitatiboa egingo dugu, erabilgarri ditugun adierazleetatik abiatuta, aurreko epigrafeetan aipatutako agente mehatxatuaren kontzeptura gerturatzeko.
- Alderdi kualitatiboa. ETAren mehatxuen ondorioz jasandako bidegabeko sufrimendua aztertu dugu, kasu esanguratsu batzuen kontaketaren bidez (lehenengo pertsonan). Haien

1 Txosten honekin batera, beste bat ere enkargatu zen, ETAren mehatxupean egon ziren pertsonek, gizarteko sektore desberdinetakoek, jasan zuten bidegabekeria jaso eta aztertuko zuena. Bidegabekeria horren alderdi nagusia izan zen eskolta eduki behar izan zutela, erasotik babesteko. Bi azterlanak modu paraleloan egin dira; ikuspegi metodologikoa partekatzen dute eta, hein batean, elkarren osagarri dira.

lekukotzetan, agerian geratzen da zer eragin izan duen jazarpenak eta beldurrak mehatxatutako agenteen eta haien senideen laneko eta familiako bizitzan.

d) Antzemandako giza eskubideen urraketen kalifikazioa. Aurreko ataletan aztertutako datu kuantitatibo eta kualitatiboen interpretaziotik abiatuta, gertakarien kalifikazio juridiko bat proposatuko dugu, kontuan izanda giza eskubide jakin batzuk urratu zituztela, kaltetuek defentsarako edo ordainerako bitarteko juridikorik izan gabe.

e) Azken gomendioak. Aztertutako datuak eta esperientziak ikusita, mehatxuaren biktima izan ziren ertzainek jasandako bidegabeko kaltea aitortzen eta iritzi publikoaren artean zabaltzen lagunduko luketen zenbait iradokizun egingo ditugu. Nahitaezkoa da egoera horien kontzientzia hartzea, enpatia izatea eta deliberatzea, kontakizun kolektibo bateratu bat lortzeko, indarkeria terrorista jasan dutenentzat bidezkoa eta ordaingarria izango dena.

f) Erabilitako bibliografia.

## 1.3. Metodologia

Txosten honekin batera beste bat egin da, eskolten babesa behar izan zuten gizarte-taldeek jasandako ETAren mehatxuaren bidegabekeria aztertzeko. Bi ikerketak egiteko enkargua aldi berean egin zen eta, hein handi batean, helburu berak dituzte. Hori dela eta, antzeko metodologia erabili da bi azterketetan. Azterlana egiteko bildutako datuak aztertzeko eta aurkezteko, bi alderdi erabili ditugu: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Ikuspegi kuantitatiboari esker, ikusgai geratzen da aztergaiaren zenbakizko dimentsioa, baita ea zer eragin izan zuen indarkeria terroristaren mehatxu berezia jasan zuten edo ETAren ekintzaren jomuga izateko aukera bereziko baldintzetan zeuden agenteen portaera- eta segurtasun-jarraibideen gain ere. Datu kuantitatibo batzuk urte naturalen arabera banakatuta daude. Denboraren aldagaiak mehatxuaren bilakaera eta hedapena ikusteko aukera ematen digu.

Bestalde, ikuspegi kualitatiboak bizi-historiak ezagutzeko aukera ematen digu, eta zenbakizko datuekin ezin dugun moduan, indarkeria terrorista zein modutara gauzatu zen eta tartean ziren agenteei eta horien osasunari nola eragin zien ulertzekoa. Aukera ematen digu, halaber, jakiteko nola zabaldu zen indarkeria hori pixkanaka agenteon familietara, horien egonkortasuna kolokan jarriz. Aurrez aurreko elkarrizketak egin ziren, erdi-egituratutako galdeketa bat erabiliz, haren bidez elkarrizketa ireki bat sortzeko eta, hala, elkarrizketatuek beren testigantzen berezitasunak zehazten joateko. Elkarrizketatu guztiek beren borondatez hartu dute parte eta, noski, kasu askotan bereziki mingarriak zaizkien oroitzapenak ekarri behar izan dituzte gogora. Eskerrak eman nahi dizkiegu hemendik beren ahalegin eta eskaintza eskuzabalarengatik. Beren istorioei esker, sakonagotik ikus dezakegu bizi izan duten bidegabeko egoera, lanbide jakin bat aukeratzeagatik besterik ez, zerbitzu publikorako bokazio bizia sentitzen zutelako. Uniformea janzteak edo horren nabarmena den lanbide bat izateak gizartean dakarren esanahiaren ondorioz, kasu batzuetan erasoak ez ziren esparru profesionalera bakarrik mugatu, familia-nukleoko beste kide batzuenganaino ere zabaldu ziren. Horrek nabarmen areagotu zuen jasandako estresa eta, zenbaitetan, osasunari ere eragin zion. Oraindik ere agerikoak dira horren arrastoak agente batzuengan. Lan honetarako jasotako bizi-historien xedea da iritzi publikoari hausnarketarako elementu bat helaraztea, fenomeno horren memoria kolektiboa eratzen laguntzeko (istorioen zati batzuk azterketa kualitatiboaren atalean jaso dira). Halaber, helburua da aitorpen publikoa egitea, segurtasun publikoa zaintzeko funtsezko lana bete, eta erasoak jaso zituzten (beraiek eta ingurukoek) Ertzaintzako emakume eta gizon haiei.

Jasotako datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertuta, hobe ikusiko dugu zer eragin eta ondorio izan zituzten mehatxuok pertsonengan, giza eskubideek ezarritako parametro etiko-juridikoaren bidez. ETAren indarkeriaren eta erasoen ondorioz Ertzaintzako agenteei ukatu zitzaizkien printzipio eta askatasunak aztertuko ditugu, indarreko araudietan ere jasotakoak (Konstituziotik hasi eta erreferentziako nazioarteko itunetara).

# **2**. Mehatxua objektibatzen laguntzen duten adierazleak

Hasteko, ETAren mehatxuaren fenomenoa aztertzeko, kontuan izan behar dugu ertzain guzti-guztiek jasan zutela. Segurtasun publikoa zaintzeaz arduratzen zen erakundea zenez, Ertzaintzaren helburuek oztopatu egiten zituzten talde terroristarenak. Hainbat une historikotan, ETA konfrontazio hori azpimarratzeaz eta polizia-kidegoko agenteei eragiten zien mehatxu orokor hori esplizitu egiteaz arduratu zen[2]. Hain zuzen ere, ertzainak ziren haren helburuetako bat.

Ondorioz, aztergai dugun hogeita bat urteko aldian Ertzaintzako kide izan diren pertsona guztiak egon dira ETAren mehatxupean. Alabaina, normala den moduan, denek ez dute maila berean jasan arriskuaren intentsitatea eta eragina. Jarraian aurkeztuko dugun azterketan zenbait aldagai zehaztu behar izan ditugu, mehatxu hori gauzatu zen modua eta martxan jarri ziren konponbideak modu objektiboan aztertzeko. Aztergai dugun fenomenoaren dimentsioa kuantifikatzea ahalbidetuko diguten adierazleak izan daitezke.

Aldagaiak aukeratzeko eta informazioa erabilgarri jartzeko, ikertzaileen taldeak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren laguntza izan du. Nabarmendu behar dugu sail horren lankidetza eta gogoa; haien esku-hartzerik gabe ezin izango genukeen azterlan hau egin. Sail horretako erregistroetan jasotako informazioa erabili dugu irizpide gisa, besteak beste, txostenaren alderdi kuantitaboa diseinatzeko eta ondoren kualitatiboki sakontzeko. Aldagai horietako batzuk objektiboak dira, honako hauek kasu:

- ETAren dokumentuetan agertu diren Ertzaintzako agenteak.
- Kidegoak berak agenteei esleitutako arrisku-maila.
- ETAk egindako atentatuak eta hildako biktimak.
- Ertzaintzaren aurkako kale borrokako erasoak.
- Zenbaki profesionala aldatzea eta ibilgailuak birmatrikulatzea, segurtasunagatik. Adierazle honek, gure informatzaileen esperientziaren arabera, mehatxu terroristaren menpe zeudela adierazten du, zeharka bazen ere (eta tartean ziren agenteek hala hautematen zutela).

Irizpide horiek aukeratu ditugu, eskuragarri genituen datuetatik abiatuta fenomenoaren deskribapen fidagarria eskaintzen zutelako. Datu horiek erregistratuta zeudenak dira eta, horiek oinarri hartuta, taulak eta neurketa-irizpideak egin ahal izan ditugu. Dena den, aurreragoko ikerketetan beste adierazle batzuk ere aztertu beharko dira, ETAk Ertzaintzari egindako mehatxua nola azaleratu zen eta horri aurka egiteko zer neurri hartu ziren ulertzeko.

# **3**. Azterlanaren esparru kronologikoaren erreferentzia laburra (1990-2011)

Txosten honen denbora-aldia 1990etik 2011ra bitartekoa da. Alde batera utzita II. Errepublikako *Ertzaña* erakundea[3], egungo Ertzaintzaren jatorri instituzionala Gernikako Estatutuaren 17. artikuluan dago jasota. Erakundea Eusko Legebiltzarraren lehen legealdian jarri zen martxan, 1980ko hauteskundeen ondoren. Hastapenetako *Berrozi Berezi Taldea*ren ondoren, kidegoaren lehenengo promozioa 1982an atera zen. Beraz, gure kidegoaren historiaren zenbait urte gure esparru kronologikotik kanpo geratzen dira. Urte horietan ere gure aztergaiarekin lotura duten gertakari esanguratsuak izan ziren[4]; beharrezkoa litzateke horiek ere aztertzea, honen antzeko etorkizuneko proiektuetan. Dena den, aukeratutako denbora-esparrua oso esanguratsua da Ertzaintzako agenteek eta haien familiek ETAren eskutik jasandako mehatxuaren errealitatea aztertzeko.

2 ETAk Joseba Goikoetxea hil zeneko atentatua bere gain hartzeko egindako komunikatuan jakinarazi zuen ez zuela "*bereizketarik egingo torturatzaile espainiarren eta euskaldunen artean*". 1996ko martxoan, ETAk Ramón Doral eta Francisco Tomás y Valienteren erailketak bere gain hartu zituenean, Ertzaintzari eraso egin zion eta mehatxu egin zion: "*Zuen jarduketak ez dira jada erantzunik gabe geratuko*". Azurmendi, José Félix: *ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*, Ttarttalo, Donostia, 2014.

3 Dávila, Cirilo: *Historia de la policía autónoma vasca (1936-2006)*, Elea Argitaletxea, Bilbo, 2006.

4 Aipatu behar da gure denbora-esparruaren aurreko urteetan Ertzaintzako lau kide erail zituztela: 1985ean Carlos Díaz Arcocha, 1986an Genaro García de Andoain, 1988an José Juan Pacheco Cano eta 1989an Luis Hortelano García.

Hain zuzen ere, barne hartzen ditu kidegoa EAE osoan zabaldu aurreko urteak, baita XX. mendeko azken hamarkadako eta XXI.aren hasierako urte kritikoak eta ETAren jardueraren amaieraren albistea ere.

Urte horietako gertakari nagusiak aztertuko ditugu, denbora-aldi bakoitzeko dinamikak hobeto ulertzeko eta datu kuantitatiboak joera jakin batzuen barruan kokatu ahal izateko. Asmo horrekin, lau multzotan banatu dugu aztergai dugun aldi kronologikoa, horietako bakoitzaren ezaugarri bereziak oinarri hartuta.

**1990-1995.** Aurreko hamarkadaren amaieran Espainiako Gobernuak eta ETAk Aljerren izandako elkarrizketek porrot egin ostean, laurogeita hamarreko hamarkadan talde terroristak areagotu egin zuen Estatuaren aurkako erasoaldia. Dirudienez, 1992rako aurreikusitako nazioarteko ekitaldi esanguratsuak oztopatzea zen jarduera terrorista areagotzearen helburua (esaterako, 1991. urtea oso gogorra izan zen, 46 erailketa eta indarkeriazko 149 ekintza egon baitziren; 1990ean baino %19,25 gehiago). 1991ko abuztuan, enfrentamendu armatu bat egon zen Begoñan, Ertzaintzako agenteen eta ETAren komando baten artean. Bertan jasotako zaurien ondorioz, Alfonso Mentxaka Lejona ertzaina hil zen. Tiroketan Juan María Ormazabal *Tturko* hil zen. 1993ko abuztuaren 20an, Ander Susaeta ertzainak izugarrizko jipoia jaso zuen: une hartan zerbitzuz kanpo bazegoen ere, agentea zela jakinik, hainbat pertsonaren artean inguratu eta jo zuten. Segurtasun-kamera batek erasoa grabatu zuen. 1992ko martxoaren 29an, ETAk kolpe handia jaso zuen: kupulako kideak atxilotu zituzten Bidarten. 1993ko azaroan, Joseba Goikoetxea sarjentua erail zuten bere etxetik ateratzean, semea eskolara zeramanean. ETAren ahultasuna HB barruan piztutako eztabaidekin batera iritsi zen; horien bidez, Ajuria Eneako Itunak sorrarazitako isolamendua gainditzeko estrategia bat zehaztu nahi zen. 1994ko azaroan, José Luis Martín Carmona atxilotu zuten (Bizkaia komandoaren burua), Ertzaintzarekin izandako tiroketa baten ostean, non Ángel Irazabalbeitia hil, eta Lourdes Txurruka zauritu baitzuten. KASek berehala atera zuen komunikatua: *"Ertzaintzak berriro ere erail du".* Zenbait dokumentu esanguratsuk adierazten dute etapa honen amaiera. HBren *Oldartzen*, ETAren *Zuzen 79* eta KASen *Karramarro* dokumentuek agerian utzi zuten erakunde horiek estrategia berriak zituztela. 1995ean, HBk *Oldartzen* txostena onartu zuen; honela zioen: *"gure esku-hartzearen ildoa egokitzera behartuta gaude"*. Ez zen sufrimenduaren sozializazioaren kontzeptua aipatzen, baina, ustez, garai horretan hasi ziren oro har, jazarpen-indarkeriaren estrategiak martxan jartzen. ETAren *Zuzen 79* barne-argitalpenetik ondoriozta daiteke talde terroristak PP eta PSOE alderdietako politikarien kontra atentatzeko erabakia hartu zuela. KASen *Karramarro* txostenak honela definitu zuen kale-borroka: *"ezker abertzaleak lortutako kapital nagusia".* 1995eko martxoaren 20an, publikoki jakinarazi zen José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabalaren gorpuak agertu zirela; gertakari horrek protesta ugari sorrarazi zituen. Errenterian lehergailuak bota zizkioten Ertzaintzaren furgoneta bati, eta, ondorioz, Jon Ruiz Sagarnak hirugarren mailako erredurak izan zituen.

**1995-1998.** Ardanza lehendakariak Eusko Legebiltzarrean aitortu zuen kale-borrokaren fenomenoak gainditu egin zuela, neurri batean, prebentzio- eta defentsa-mekanismoen erantzuteko ahalmena (1995ean, urteko 365 egunetatik 136tan egin ziren kale-borrokako ekintzak[5]). 1995eko abenduaren 10ean, Mikel Otegik Iñaki Mendiluce Etxebarria eta José Luis González Villanueva ertzainei tiro egin zien bere eskopetarekin, bere baserriko atarian. Hantxe hil ziren. 1996ko martxoaren 4an, ETAk Ramón Doral Trabadelo ofizialordea erail zuen, bere ibilgailuan lapa-bonba bat jarrita. Urte bereko martxoaren 25ean, Ertzaintzak Valentín Lasarte atxilotu zuen Oiartzunen. Atxilotuak 713 pertsonari buruzko informazioa zuen, Donostia komandoarentzat. Horietako 22 jarraituak izan ziren. ETAk hainbat talde indarrez estigmatizatu zituen, sufrimenduaren sozializazioaren estrategiaren bidez, eta taldeok, aldi horretan, iritzi publikoan eragin handia izandako hainbat atentatu aipagarri jasan zituzten. Enpresariena da talde horietako bat. Horien artean, nabarmentzekoak dira Julio Iglesias Zamora eta José María Aldaiaren bahiketak. Bi kasuetan, ADEGIk zeregin aktiboa izan zuen gertakarien salaketan, eta, ondorioz, mehatxu esplizituak jaso zituen. Kaltetutako beste talde bat espetxeetako funtzionarioena izan zen. Profesional horietako batzuek atentatu hilgarriak jasan zituzten. Talde horretan aipatu behar da, halaber, José Antonio Ortega Lararen bahiketa. Era berean udal-kargu hautetsien taldea ere; Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta erailketaren ondoren, garai hartan Espainiako gobernuan buru zen Alderdi Popularreko beste zenbait zinegotziren aurkako atentatuak egon ziren, Euskadiko hainbat udalerritan. Zinegotzi horietako batzuek uko egin zioten eskolta edukitzeari, beren eguneroko jarduerak gauzatzea oztopatzen zielako. Miguel Ángel Blancoren erailketaren ondoren egindako manifestazioetan eta kontramanifestazioetan nabarmen areagotu zen tirabira. Kalkulatzen denez, 1997ko uztailaren 29ko egunsentian Ertzaintzaren patruila batek 80 molotov koktel jaso zituen. 1997ko urriaren 13an, José María Aguirre Larraona ertzainak tiro hilgarri bat jaso zuen bat-batean, Guggenheim Museoaren zabaldegiko loreontzi-euskarrietan granada kamuflatuak jartzear zeuden zenbait terrorista identifikatzera zihoanean. 1998ko irailaren 14an, ETAk su-eten "aldebakarrekoa, erabatekoa eta mugagabea" iragarri zuen.

5 Azurmendi, José Félix: ETA de principio a fin. *Crónica documentada de un relato,* Ttarttalo, Donostia, 2014, 246. or.

**1999-2005.** Su-etena 438 egunekoa izan zen; aldi horretan elkarrizketak izan ziren Espainiako gobernuaren eta ETAren artean. PSE eta PP alderdietako kargu hautetsien eta buruen aurkako atentatuak egiten jarraitu zuten Horrez gain, ETAk berriz ekin zien mehatxatutako jarduera-sektoreetako pertsona nabarmenen aurkako atentatu hilgarriei (hedabideak: José Luis López de Lacalle, Santiago Oleaga; enpresariak: José Luis Korta; botere judiziala: José María Lidón). 2000ko otsailaren 22an auto-bonba batek Fernando Buesa Blanco lider sozialista eta haren eskolta Jorge Díez Elorza ertzaina hil zituen. 2000ko abenduaren 8an, Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Ituna sinatu zen, eta, ondoren, Alderdi Politikoei buruzko Lege Organikoa (6/2002) atera zen. ETAri beste kolpe bat iritsi zitzaion, Mikel Antza eta Soledad Iparragirre atxilotu baitzituzten. Diputatuen Kongresuak gobernuaren eta ETAren arteko elkarrizketa proposatzen zuen mozio bat onartu zuen, zenbait baldintzarekin. 2001. urtea bereziki gogorra izan zen Ertzaintzarentzat. Martxoaren 9an, lehergailuz beteriko auto bat jarri zuten zeharka Hernaniko kale batean, tranpa gisa. Bi ertzaina bertatik kentzen saiatzen ari zirela, lehertu egin zen. Ondorioz, Iñaki Totorika Vega agentea hil zen, eta haren lankidea zauritu. Uztailaren 14an, Gipuzkoako Ikuskapen Unitateko buru Mikel Uribe Aurkia erail zuten tiroka, Leaburun. Azaroaren 23an, Ana Isabel Lejarreta eta Javier Mijangos Martínez agenteak zirkulazioa erregulatzen ari ziren Beasainen; atzetik tiro egin zieten, distantzia gutxira. Han bertan hil ziren, beren buruak defendatzeko aukerarik gabe. 2005eko ekainean ETAk su-etena iragarri zuen, hautetsitako kargu publikoentzat. Euskadin 956 pertsonak zuten eskolta motaren bat. Segurtasun Sailak kontu-sail horretarako bideratutako aurrekontua, 2006an, 62 milioi eurokoa zen[6].

**2006-2011.** Espainiako Gobernuko ordezkariak eta ETA harremanetan egon ziren berriz ere. 2006ko martxoaren 22an ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuen, baina abenduaren 30ean hautsi zuen, Barajasko aireportuko T4 terminaleko aparkalekuan egindako atentatu hilgarri baten bidez. 2007ko ekainaren 6an, ETAk su-eten iraunkorraren amaiera iragarri zuen. Hainbat pertsonari eskolta jartzeko beharra sortu zen berriz ere. Talde terrorista AHT proiektuaren aurka agertu zen eta horrekin zerikusia zuten hainbat pertsonaren aurkako atentatuak egin zituen, baita proiektuaren enpresa kontratisten aurkakoak ere. 2007an eta 2009an ETAk hainbat tranpa-lehergailu jarri zituen, Ertzaintzako agenteak erailtzeko asmoz. Datu kuantitatiboen eranskinean zehaztuta daude ekintza horiek. 2010eko martxoaren 29an, Brian Currinek Bruselako Adierazpenaren aurkezpen publikoa egin zuen. 2011ko urtarrilaren 10ean, ETAk su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria iragarri zuen, eta urte horretan bertan osatu zuen, indarkeria terroristaren amaiera iragarri zuenean.

# **4**. Datuen aurkezpena

## 4.1. Datu kuantitatiboen azterketa

Hurrengo orrialdeetan 1990 eta 2011 artean ETAren mehatxupean egon ziren Ertzaintzako kideen errealitateari buruzko datu eta informazio kuantitatiboak daude jasota. Datuak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzak emandako informaziotik atera ditugu, eta horien helburua da fenomeno honek hainbat urtez izan zuen eragina argi eta erraz adieraztea.

Datu horiek baliatuz, ikertzaileen taldeak zenbait taula eta grafiko egin ditu, ETAren mehatxuak denboraldi horretan ertzainen eta haien familien bizitzan, askatasunean eta eskubideetan izan zuen eraginari buruzko informazioa jasotzeko[7]. Informazioa lau ataletan banatu da. Lehenengo biek ETAk Ertzaintzako agenteei buruz zituen dokumentuetan jasotako datuei eta agente horiei esleitutako arrisku-mailei buruzko informazioa hartzen dute barne. Ondoren, Ertzaintzako kideek jasandako atentatuei eta erasoei buruzko informazioa eta ertzainen segurtasunari lotutako beste adierazle batzuei lotutako datuak jaso ditugu.

### 4.1.1. ETAren dokumentuetan agertu diren Ertzaintzako agenteei buruzko informazioa

Ertzaintzak ETAren jomugan izan diren pertsonei (36.000tik gora) buruzko informazio ugari du. Hortik abiatuta, pertsona horien arrisku-mailei buruzko zenbait azterketa egin dira. Informazio horren zati handi bat Ertzaintzak berak egindako polizia-operatiboetan eskuratutakoa da; gainerakoa, berriz, atxilotutako pertsonen polizia-deklarazioetatik, komunikatuetatik eta gai honen inguruan beste polizia-kidego batzuek emandako informazioetatik eskuratu dugu.

6 Hemendik hartua: Pérez, Kepa: *La violencia de persecución en Euskadi*, ADDH eta Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2005, 13. or.

7 Azterlan honetan ez dira zenbait aldagai jaso (esaterako, sexua, jaiotza-urtea, jaioterria edo probintzia), datu horiek ez baitira aztertu ikuspegi metodologiko eta polizialetik. Etorkizuneko azterlanetan erabil daitezke.

Ertzainei buruzko konfiskatutako datuei dagokienez, 1. taulan erreferentzia horiek sailkatu egin dira, agenteei buruz lortutako informazioaren kopuruaren eta kalitatearen arabera. Bi elementu horiek oinarritzat hartuta (ETAk jomugan duen norbaiti buruz jasotako informazio kopurua eta informazio horren tipologia), honako parametro hauek ezarri dira:

- **Oinarrizko informazioak** iturri ireki eta ofizialetatik jasotako helburuei buruzko informazioak hartzen ditu barne. Hemen sartzen dira, esaterako, izen-abizenak, datuak alderatu gabe edo gehiago sakondu gabe.
- **Informazio erdi-landuak** pertsona baten nortasunari, filiazioari, helbideari eta ondasunei buruzko datuak hartzen ditu barne, baina oraindik alderatu gabe edo sakondu gabe.
- **Informazio landuak** honako datu hauek hartzen ditu barne: nortasuna, helbidea, ibilgailuak, ohiturak, jarraipenak, argazkiak, etab. Informazioa alderatuta eta sakonduta dago, jomugan den pertsona erabat identifikatzeko moduan.

**1. taula. Ertzain kopurua eta informazio kopurua (1990-2015)[8]**

| Pertsona bati buruz bildutako informazio kopurua | Ertzain kopurua | | |
|---|---|---|---|
| | **Oinarrizko informazioa** (izen-abizenak) | **Informazio erdi-landua** (datu pertsonal gehigarriak) | **Informazio landua** (helburua ondo identifikatzea xede duena) |
| 1 | 3.146 + 28* | 23+9* | 4+5* |
| 2 | 2.541 | 12+1* | 2+3* |
| 3 | 1.864+1* | 20+1* | 4+1* |
| 4 | 130 | 26 | 6+1* |
| 5 | 24 | 7 | 3 |
| 6 | 7 | 6 | 5 |
| 7 | 2 | 1 | 1 |
| 8 | 1 | 0 | 1 |
| 9 | 1 | 0 | 2 |
| 10 | 0 | 0 | 1 |
| 11 | 0 | 1 | 2 |
| 12 | 0 | 0 | 1 |
| 13 | 0 | 0 | 1 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

*Taulan jasotako guztizko zifretatik, banakatu egin dira informazioaren eragina jasan duten pertsonen kopurua zehaztea ezinezko egiten duten erregistroak.

Ikus daitekeen moduan, kidego osoa zegoen mehatxatuta. Taula honek agerian uzten du ETAk ertzainei buruz bildutako informazioaren irismena. Pertsona asko dira; adierazi dugun moduan, ia kidego osoa. Hain zuzen ere, guztira 7.895 ertzaini buruzko informazio bildu zuen ETAk; horietatik 7.745 oinarrizko informazioaren atalean daude sailkatuta. ETAk 43 ertzaini buruzko informazio landua zuen, eta 107 pertsonari buruzko informazio erdi-landua.

### 4.1.2. Ertzaintzako agenteei esleitutako arrisku-mailei buruzko informazioa

ETAren mehatxupeko pertsonei eta, horien artean, Ertzaintzako agente guztiei esleitutako arrisku-mailek adierazle bat eratzen dute. *Arrisku-txostena* izeneko polizia-txostenaren esparruan prestatu zen. Txostena Ertzaintzak egiten du, irizpide murriztaileak erabiliz, pertsona fisiko batek ETAren atentatu bat jasateko duen arriskua zehaztu eta bakoitzaren egoerara ondoen egokitzen den babes-zerbitzua eman ahal izateko. ETAren informazioaren kopuruak eta kalitateak erabakitzen du zer arrisku-maila ezartzen zaion pertsona bakoitzari.

8 Aztergai dugun aldia 1990-2011 artekoa bada ere, emandako informazioak 1990-2015 artean konfiskatutako datuak jasotzen ditu; izan ere, baliteke 2011tik 2015eko abuztura bildutako informazioa aurreko urteetan bildu izana ETAk, eta, ondorioz, aztergai dugun aldikoa izan liteke.

Txostena egiteko hainbat elementu hartzen dira kontuan. Hasteko, ETAri konfiskatu zaion informazioa aztertzen eta baloratzen da, bai pertsonari buruzkoa bai komunikatuetan edo barneko idatzietan emandakoa. Bigarrenik, aztertzen da ea pertsona hori ETAren jomugan dagoen talde espezifiko bateko partaide al den. Azkenik, beste iturri batzuetako informazioa ere jasotzen da, Ertzaintzak berak alderatuta.

Elementu horietatik abiatuta, arriskuen sailkapen bat ezartzen da (guztira lau[9]). Ertzaintzaren kasuan, hau da sailkapena:

*4. arrisku-maila*: hasteko, ETAk orokorrean mehatxatutako kidego bat da; beraz, kide guztiak leudeke maila honetan, edozein dela ere kidegoaren egituran betetzen duten zeregina edo lanpostua. Besteak beste, erakundeko kideek, edo horietako batzuek, atentatuak jasan dituzte. Pertsonei buruz jasotako informazioa "gordina" da, alegia, landu edo alderatu gabea, eta iturri "ireki eta/edo publikoetatik" eskuratu da (aldizkari ofizialak, erroldak, etab.). Informazio horietan sartzen dira, halaber, landu gabeko prentsako zatiak (eskuz idatzitako oharrik gabe edo informazioa beste datu batzuekin osatu gabe). Agente guztiak sartzen dira arrisku-maila honetan.

*3. arrisku-maila*: dokumentazioa konfiskatzean, maila honetan sartzen diren pertsonei buruzko informazioetan iturri irekiak eta ofizialak aurkitu dira nahastuta. Fitxak egin dira, eskuz edo ordenagailuz. Informazioak elkarrekin alderatu eta/edo zuzendu dira, baina inoiz ez lekuan bertan egiaztatu edo sakondu. Maila honetan 20 agente daude sartuta.

*2. arrisku-maila*: maila hau norbaiti buruzko informazio erdi-landua eta banakotua aurkitzen zenean esleitzen zen. Pertsona horren nortasunari, filiazioari, helbideari eta ondasunei buruzko datuak dira. Maila honetan 16 agente daude sartuta.

*1. arrisku-maila*: talde honetan sartzen direnei jarraipen zehatza egin zaie, haiei buruzko informazioa oso landuta baitago. Lekuan bertan alderatutako, egiaztatutako eta sakondutako datuak dira; esaterako, etxearen eta/edo lantokiaren krokis bat edo eguneroko errutinen jarraipena (joan-etorriak, ohiturak eta bestelakoak). Maila honetan 12 agente daude.

| | |
|---|---|
| 1. maila | 12 |
| 2. maila | 16 |
| 3. maila | 20 |
| 4. maila | Ertzaintzako gainerako agenteak |

### 4.1.3. ETAren atentatuei eta hildako Ertzaintzako biktimei buruzko informazioa

Aurreko atal batean labur aipatzen da azterlanaren esparru kronologikoa, gai orokor esanguratsuenak jasota. Informazio hori osatzeko eta Ertzaintzaren errealitate espezifikora gerturatzeko, taula honetan jaso dira (2) Ertzaintzak aztergai dugun aldian jasan dituen atentatuei[10] buruzko alderdi zehatzago batzuk. Aztergai dugun aldia baino lehenagokoak badira ere, ez dira taula honetatik kanpo utzi nahi izan Ertzaintzan 1990 urtea baino lehenago izandako hildako biktimak.

**2. taula. ETAren atentatuei eta hildako Ertzaintzako biktimei buruzko informazioa**

| Urtea | Atentatuak | Hildakoak |
|---|---|---|
| 1985 | Ibilgailuan jarritako bonba bidezko erailketa. | Carlos Díaz de Arcocha |
| 1986 | Lucio Aguinagalde bahitua erreskatatzeko operazioa | Genaro García de Andoain |
| 1988 | Trenbidean jarritako bonba baten leherketa | José Juan Pacheco |
| 1989 | Auto-bonba bat desaktibatzeko lanak | Luis Hortelano García |

9 Mailak larritasun txikienekotik handienekora ordenatu dira, ETAren jomugan edo mehatxupean izateko arriskuaren arabera.

10 Ondorengo taulako atentatuen zerrendak ETAren ekintzak hartzen ditu barruan, ez ordea kale-borrokari dagozkionak; horiek aurrerago ikusiko ditugu. Hildakoei dagokienez, eraildako agente guztien izenak sartu dira, horien erailketa nolakoa izan zen kontuan hartu gabe: espezifikoki Ertzaintzaren kontra egindako atentatuak, enfrentamendu armatuak edo beste pertsona nahiz erakunde batzuk helburu zituzten atentatuak.

| Urtea | Atentatuak | Hildakoak |
|---|---|---|
| 1991 | Enfrentamendua Bizkaia komandoko kideekin, Bilbon | Alfonso Mentxaka Lejona |
| 1993 | Ertzain baten erailketa Bilbon, tiro bidez | Joseba Goikoetxea Asla |
| 1995 | Bi agenteren erailketa Itsasondoko baserri batean | Iñaki Mendiluce Etxebarria<br>José Luis González Villanueva |
| 1996 | Ertzain baten erailketa bere ibilgailuaren azpialdean itsatsitako bonba baten bidez, Irunen | Ramón Doral Trabadelo |
| | Arkauteko Ertzaintzaren Akademiaren aurka botatako hiru granada | |
| | Bonba baten leherketa Gasteizko Ertzain-etxeko obretan | |
| 1997 | Ertzain baten erailketa Guggenheim Bilbao museoa zaintzen zuen bitartean, inaugurazio ofizialaren aurretik | José María Aguirre Larraona |
| | Hiru granada aurkitu zituzten Iurretako Ertzaintzaren basearen inguruan | |
| 2000 | Atentatu hilgarria Fernando Buesaren aurka; haren eskolta-lanak egiten zituen ertzaina ere erail zuten | Jorge Díez Elorza |
| 2001 | Ertzaintzaren patruilaren aurka jarritako auto-bonba, Hernanin | Iñaki Totorika Vega |
| | Ertzain baten erailketa Leaburun, tiro bidez | Mikel Uribe Aurkia |
| | Ertzaintzaren patruilaren aurkako pankarta-tranpa baten leherketa, Bilbon | |
| | Bi ertzainen erailketa Beasainen, tiro bidez | Ana Isabel Arostegi Lejarreta<br>F. Javier Mijangos Martínez de Bujón |
| 2002 | Auto-bonba bat, Ertzaintzaren furgoneta igarotzean eragiteko | |
| | Auto-bonba bat Zierbenan, polizia-patruilak igarotzean eragiteko | |
| 2003 | Lehergailu-tranpa bat ertzain baten etxe inguruan, Muruetan | |
| | Gailu tranpaduna zuen auto bat, Ertzaintzako lehergailu-teknikarien aurka | |
| | Segada tiroekin Ertzaintzaren patruila baten kontra, Herrera gainean, Lagranen | |
| 2007 | Leherketa Zarauzko Ertzain-etxearen kanpoaldean | |
| | Ertzaintzaren aurkako lehergailu-tranpa bat Getxoko Justizia Jauregian | |
| 2008 | Lehergailu-tranpa bat Bilboko komunikazio-hedagailu batean | |
| | Bonba-auto baten leherketa Ondarroako Ertzain-etxearen aurrean | |
| 2009 | Bi lehergailu-tranpa Hernaniko komunikazio-hedagailu batean | |
| **Total** | **27** | **15** |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Informazio horren osagarri gisa, baditugu Ertzaintzak oro har eta agenteek zehazki urte horietako kale-borrokan jasandako erasoei buruzko datuak ere. Datu horiek mehatxuen testuinguruko egoera zehatzago ikusteko aukera ematen digute.

Lehenengo grafikoak (1) Ertzaintzako agenteei zuzenean edo horien ondasun pertsonalei eta senideei eginiko erasoen bilakaera jasotzen du. Ikus daitekeen moduan, 1995 eta 1996 urteak bereziki bortitzak eta gogorrak izan ziren; hori islatuta geratu da, halaber, aurreko orrialdeetan zehaztutako testuinguru kronologikoan. 1997tik aurrera, gutxitzen hasi zen kale-indarkeriako erasoen kopurua. Dena den, pare bat gorakada ikus daitezke 2001ean (bereziki gogorra izan zen, aurrerago ikusiko dugun moduan) eta 2008an.

**1. grafikoa. Ertzaintzako kideek edo haien senideek jasandako kale-indarkeriako erasoen kopurua (1991-2011)**




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Kale-indarkeriako erasoen egoeraren irudia osatzeko, Ertzaintzak bere zereginak gauzatzean jasandako erasoei buruzko informazioa jaso dugu hurrengo grafikoan. Bi grafikoak behatuz gero, eredu berari jarraitzen diotela ikusiko dugu; alegia, gorakada berak dituzte, urte berberetan. Dena den, egia da Ertzaintzaren aurkako erasoetan (2. grafikoa), beste gorakada batzuk ere badaudela, 1998. eta 2004. urteetan.

**2. grafikoa. Ertzaintzako agenteek beren zereginak gauzatzean jasandako kale-indarkeriako erasoak (1991-2011)**




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, 3. grafikoak eraso guztiak jasotzen ditu. Eredu oso antzekoari jarraitzen dio banakako erasoen grafikoaren aldean; 1995-1996, 2001 eta 2008 urteak nabarmentzen dira, horietan gertatu baitziren eraso gehien denbora tarte honetan. Datu horiek 2. taulakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu Ertzaintzaren (edo erakundeko kideen) aurkako atentaturik egon ez den urteetan areagotu egin dela kale-indarkeriako erasoen kopurua. Beraz, biak bateratzen baditugu (atentatuak eta erasoak), ohartuko gara Ertzaintzak jasandako presioa etengabea izan zela denbora guztian.

**3. grafikoa. Ertzaintzaren aurkako kale-indarkeriako erasoen kopurua, guztira (1991-2011)**




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Aurreko grafikoak egiteko erabili den informazioa 3. grafikoan dago jasota: urte eta eraso-esparru bakoitzaren araberako datu zehatzak ematen ditu. Kontuan hartu behar da zifrak ekintzei dagozkiela; hori dela eta, ez dute aintzat hartzen zenbat pertsona kaltetu diren; izan ere, oso datu konplexua eta zehaztugabea da. Beraz, ekintza bakoitzean pertsona bat baino gehiago sar zitekeen.

**3. taula. Ertzaintzaren aurkako kaleko indarkeria-erasoen kopurua (1991-2011)[11]**

| Urtea | Agente edo senideen aurkako ekintzak | Beren eginkizunak betetzean jasandako ekintzak | Guztira |
|---|---|---|---|
| 1991 | 0 | 5 | 5 |
| 1992 | 1 | 11 | 12 |
| 1993 | 1 | 16 | 17 |
| 1994 | 31 | 34 | 65 |
| 1995 | 79 | 50 | 129 |
| 1996 | 89 | 75 | 164 |
| 1997 | 111 | 75 | 186 |

11 Bereizi eta banatu egin dira, eta zutabe desberdinetan jarri dira, batetik, Ertzaintzako agenteen edo haien ondasun pertsonalen aurkako eraso zuzenak eta ertzain izateagatik haien senideei egindako erasoak (agente edo senideen aurkako ekintzak), eta, bestetik, ertzain-eginkizunak betetzean jasandako erasoak (beren eginkizunak betetzean jasandako ekintzak).

| Urtea | Agente edo senideen aurkako ekintzak | Beren eginkizunak betetzean jasandako ekintzak | Guztira |
|---|---|---|---|
| 1998 | 68 | 31 | 99 |
| 1999 | 15 | 42 | 57 |
| 2000 | 35 | 36 | 71 |
| 2001 | 71 | 49 | 120 |
| 2002 | 31 | 40 | 71 |
| 2003 | 30 | 26 | 56 |
| 2004 | 4 | 39 | 43 |
| 2005 | 3 | 35 | 38 |
| 2006 | 4 | 30 | 34 |
| 2007 | 10 | 34 | 44 |
| 2008 | 13 | 43 | 56 |
| 2009 | 6 | 28 | 34 |
| 2010 | 4 | 14 | 18 |
| 2011 | 1 | 15 | 16 |
| **GUZTIRA** | **607** | **728** | **1.335** |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

### 4.1.4. Beren segurtasuna areagotzeko egin diren kanpo-ekintzei buruzko informazioa

Azkenik, azterlan honetarako bildu ditugun datu batzuk Ertzaintzako agenteen segurtasuna zerbitzuz kanpo (haien egunerokotasunean) areagotzeko eskaerekin eta neurriekin lotutako alderdiei buruzko informazioak dira. Bereziki, ertzainak babesteko neurri zehatzak, haiei buruzko informazioa murriztekoak, baita jendaurreko agerraldiak ere (zenbaki profesionalak eta ibilgailu pribatuen matrikulak aldatzea).

Datuek informazio osagarria ematen digute Ertzaintzako agenteek bizi izandako tentsio- eta mehatxu-egoerari buruz; izan ere, agerian uzten dute zenbatetan aldatu den zenbaki profesionalez eta zenbatetan birmatrikulatu diren ibilgailu partikularrak. Bi elementu horiek arriskuan jartzen dituzte agenteak, neurri handiagoan edo txikiagoan eta, hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, elkarrizketatutako pertsonek beren lekukotzetan aipatzen dituzte, beren segurtasun eta osotasun fisikoa bermatzeko elementu esanguratsu gisa.

Eskuragarri jarri dugun informazioa 2001 urteko datuekin hasten da; urte hori bereziki gogorra izan zen, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Aurreko grafiko eta tauletan ikusi ahal izan dugun moduan, urte horretan areagotu ziren kale-indarkeriako erasoak, baita hildakoak ere. Urte horretan eta hurrengo bietan egin ziren birmatrikulatze gehien (4. grafikoa); zehazki, 3.106 guztira.

Bestalde, birmatrikulatzeei buruzko datuekin gertatzen den bezala, 2001 urtetik aurrera hasi ziren Ertzaintzako agenteen zenbaki profesionalak aldatzeko eskaerei buruzko datuak jasotzen (5. grafikoa). Ordutik, 650ekoa izan da zenbaki profesionalen aldaketa kopurua.

Azkenik, atal honen amaieran taula osoa dago jasota (4.a); bertan, birmatrikulatzeen eta aldatutako zenbaki profesionalen informazio zehatza ikus daiteke, urtez urte. 4. eta 5. grafikoak egiteko 5. taulako datuak erabili dira. Taula hori hemen jaso dugu, informazioa zehatzago ikusi ahal izateko.

**4. grafikoa. Birmatrikulatzeen kopurua (2001-2012)**




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

**5. grafikoa. Zenbaki profesionalen aldaketak (2001-2012)**




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

**4. taula. Segurtasuna dela-eta aldatutako zenbaki profesionalak eta birmatrikulatutako ibilgailuak (2001-2012)**

| Urtea | Zenbaki profesionalaren aldaketak[12] | Birmatrikulatzeak |
|---|---|---|
| 2001 | | 1.666 |
| 2002 | | 674 |
| 2003 | 195 | 252 |
| 2004 | 115 | 126 |
| 2005 | 130 | 69 |
| 2006 | 59 | 72 |
| 2007 | 52 | 62 |
| 2008 | 46 | 43 |
| 2009 | 39 | 51 |
| 2010 | 8 | 54 |
| 2011 | 6 | 29 |
| 2012 | 0 | 8 |
| Total | 650 | 3.106 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

## 4.2. Datu kualitatiboen azterketa

Testu honek lotura du ETAk mehatxatutako pertsonek jasan duten bidegabekeriari buruzko txostenarekin (1990-2011), eta hartan egin bezala, hemen ere, datu kuantitatiboak aztertu ondoren, ikerketa kualitatibo bati ekin zaio, azterlan hau bideratzeko erabili den metodologia mistoaren zati gisa. Elkarrizketak egin zaizkie ETAren mehatxua jasan zuten hainbat agenteri; batzuek zerbitzua ematen jarraitzen dute eta beste batzuk dagoeneko erretiratuta daude. Enkarguaren aginduz, ikertu egin behar zen Ertzaintzako kideen familiek erasoon ondorioz jasan behar izan zuten kaltea ere; hori dela eta, talde hori ordezkatuko duten pertsonak ere sartu dira elkarrizketatuen artean. Alderdi kualitatiboaren bidez, sakonago aztertu nahi izan dira bizi izan duten esperientzia eta sufrimenduaren alderdi subjektiboak, datu kuantitatiboek erakusten ez duten modu batean. Datu kualitatiboei esker, aldi horretan mehatxu terroristaren ondorioz jasandako erasoaren bidez urratutako eskubideen benetako egoera azter dezakegu.

Hamabost pertsona elkarrizketatu genituen, 14 elkarrizketetan; horretarako, erdi-egituratutako galdeketa bat erabili genuen. Horri esker, elkarrizketa gai komun batzuen inguruan antolatu zen, baina elkarrizketatuen erantzunak mugatu gabe, beren lekukotza nahi bezala eman ahal izan zezaten. Ikerketa honetan parte hartu duten pertsona batzuek adierazi dute ez dutela beren izen-abizenak aipatzea nahi, eta ikerketa honen egileok zorrotz bete dugu hori, anonimotasuna gordetzeko. Horregatik, lan honetan ematen diren testigantzak elkarrizketatuaren profil generikoarekin identifikatzea erabaki da, eta, irizpide bakar bati eusteko, horrela jokatuko da pertsona guztiekin, identitatea emateko arazorik ez zutela adierazi zein ez. Gure iritziz, horrela gehiago nabarmenduko dugu testigantzaren edukia, egilearen identitatea baino. Zenbaitetan, apur bat aldatu behar izan dugu hitzez hitzeko testigantzaren bat, anonimotasunean egon nahi zuten pertsonen identitatea agerian utzi ahal zuten aipamen geografikoak edo pertsonalak ezabatzeko.

Ikerketa honetan borondatez eta eskuzabaltasunez parte hartu duten pertsonei beren bizipenak gogoratu eta sentitzen dituzten moduan kontatzeko eskatu zaie. Beraz, haien ikuspuntutik, guri ariketa subjektiboa helarazten zaigu, guk gogoeta egin dezagun. “Gogoratzen saiatzeko” prozesu honetan “historia egiten”

12 2005ean eman zen lehenengo ebazpena, horren bitartez 310 ertzainen zenbaki profesionala aldatu zen, beraiek eskatuta 2003 eta 2005aren erdialdera bitartean. 2005ean bertan beste 130 eskari tramitatu ziren.

laguntzen dugu, hau da, kontakizun kolektibo bat egiten. Xabier Etxebarriak laburbildu zuen moduan, *testigantza espazio publikoan adierazitako memoria gisa ikusi behar da, herritarrek entzuteko egindakoa, edo erabilera desberdinetarako agiri-artxibo ireki bihurtzeko, edo prozesu judizial baterako frogagiri bihurtzeko, edo bake-hezkuntzako prozesuetan erabiltzeko*.[13] Lan honen helburua izan da gure laguntzaileek kontatutako prozesuan gertatu diren eskubide-urraketak hautematea, hurrengo kapituluan aztertzeko.

Bildutako informazioa gaikako zenbait bloketan sistematizatu da, eta horietan jaso dira elkarrizketetan transmitititutako ideia eta bizipen nagusiak.

- 4.2.1. Ertzain izateagatik mehatxatuta. Ezkutatu ezinezko ezaugarria.
- 4.2.2. Autobabesaren diziplina mehatxuaren konponbide gisa.
- 4.2.3. Bidegabeko egoera baten ondorioak.
  - 4.2.3.1. Herstura ugarituta. Familiari egindako mehatxua.
  - 4.2.3.2. Erasoa, isolamendua eta bazterketa. Jazarritako gizarteko talde baten hiru kondenak.
  - 4.2.3.3. Aurre egitea, mehatxuak mehatxu. Bakartasuna eta uko egitea.
  - 4.2.3.4. Jasandako herstura eta osasunean duen eragina.
  - 4.2.3.5. Mehatxua egia bihurtuta. Erasotakoak eta erailak.
- 4.2.4. Gertatutakoaren kontakizuna eratzeko beharra.

Jarraian ikus daitekeen taulan azterketa kualitatibo honetarako beren testigantza eman zuten pertsonak zerrendatu eta identifikatu dira.

| Laguntzailea | Jarduera-arloa | Sexua | Identifikatzailea |
|---|---|---|---|
| 1. elkarrizketatua | Ertzain erretiratua | Gizona | E1 |
| 2. elkarrizketatua | Ertzain erretiratua | Gizona | E2 |
| 3. elkarrizketatua | Lanean ari den ertzaina | Gizona | E3 |
| 4. elkarrizketatua | Ertzain erretiratua | Gizona | E4 |
| 5. elkarrizketatua | Gaixotasunagatik bajan dagoen ertzaina | Emakumea | E5 |
| 6. elkarrizketatua | Ertzain erretiratua | Gizona | E6 |
| 7. elkarrizketatua | Ertzain baten senidea | Emakumea | E7 |
| 8. elkarrizketatua | Gaixotasunagatiko bajaren ondoren erretiratutako ertzaina | Gizona | E8 |
| 9. elkarrizketatua | Gaixotasunagatiko bajaren ondoren erretiratutako ertzaina | Gizona | E9 |
| 10. elkarrizketatua | Ertzain baten senidea | Emakumea | E10 |
| 11. elkarrizketatua | Eszedentzian dagoen ertzaina | Gizona | E11 |
| 12. elkarrizketatua | Ertzain baten senidea | Emakumea | E12 |

13 Etxebarria, Xabier: *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Parrilla, Bilbo, 60.-61. or.

| Laguntzailea | Jarduera-arloa | Sexua | Identifikatzailea |
|---|---|---|---|
| 13. elkarrizketatua | Gaixotasunagatiko bajaren ondoren erretiratutako ertzaina | Gizona | E13 |
| 14. elkarrizketatua | Lanean ari den ertzaina | Gizona | E14 |
| 15. elkarrizketatua | Gaixotasunagatiko bajaren ondoren erretiratutako ertzaina | Gizona | E15 |

### 4.2.1. Ertzain izateagatik mehatxatuta. Ezkutatu ezinezko ezaugarria

Elkarrizketatutako pertsonek beren esperientziak, lehen pertsonan bizitakoak, erabili dituzte testigantza emateko. Elkarrizketatu guztiek komunean dute une jakin batean norbaitek (beraiek edo zuzeneko senideren batek) Ertzaintzan sartzea aukeratu zuela, askatasun osoz. Jasotako testigantzetan adierazi den moduan, funtsezko erabaki hori hainbat arrazoirengatik hartu zuten; batzuek lan-irteera gisa ikusten zuten, beste batzuek, aldiz, zerbitzu publikorako bokazioa zutela adierazi dute.

> *Ni Ertzaintzan sartu nintzenean, erabat ziur nekien sartu nahi nuela. Ez nuen lan-irteera gisa ikusten. Harro nengoen nire lanaz. Oso gustura nengoen jendeari lagundu ahal izateagatik; errealizatuta sentitzen nintzen.* E11

> *Bigarren promozioan sartu nintzen Ertzaintzan. Ertzainak gauza jakin batera gentozen, hala bizitzen eta sentitzen zen Arkauteko akademian: ETAren kontuarekin amaitzera. ETA desagertu egingo zen, elementu gakoetako bat, estatuko indarren errepresioa, desagertu egingo zelako Ertzaintza sortzean. Beraz, polizia gisa prestatzeko genuen gogoak ez zeukan zerikusi handirik polizia-bokazioarekin. Laurogeiko hamarkadako krisitik gentozen; beraz, gehienentzat lanerako aukera bat zen. Eta, gainera, ETAren kontua ere hor zegoen, eta guk konpondu behar genuen.* E9

> *Berriro jaioz gero, lanbide bera hautatuko nuke; sentitu eta maitatu dudalako. Oroitzapen asko ditut. Une jakin batzuekin amestu ere egiten dut. Abertzaletasun-esperientzia bat bizi izan dut, izugarrizko sentimenduz betea; kontuan izan behar da ni klandestinoa izan nintzela. Ez zegoen ez Ertzaintzarik ez Eusko Legebiltzarrik ni Berrozin nengoenean. Une hartan… lehenengoak izan ginen eta, bueno, oroitzapen oso onak ditut.* E1

> *Ertzaintzara igaro nintzenean, Ertzaintzaren kontzeptuan sinesten nuelako igaro nintzen, euskal polizia autonomoaren kontzeptuan; alegia, bizi eta jasan nuenaren desberdina izango zen polizia baten kontzeptuan. Nerabezaroan jasan behar izan nuen; istilu bat edo beste izan nuen (…), nire sinesmenengatik, iritzi jakin bat izateagatik… Pentsamoldeen kontua. Uste nuen Ertzaintzako kide izatean bestelako gizarte berri batean parte hartuko nuela, diktaduraren ondorengo aldi hartan; uste nuen nire seme-alabak etorkizunean zoriontsu izatea ahalbidetuko nuela. Asmo hori bete egingo zela uste nuen (…). Nire aitona zenak eta gerran borroka egin zuten haiek Ertzaintzaren kontzeptua egia bihurtuta ikusiko zutela, baita Errepublika eta gobernu berria ere; eta, gaur egun (…). Nik horren zati izan nahi nuen, historia horren zati.* E2

Lehen ere aipatu dugunez, segurtasun-kidegoek jarrera proaktiboa, abangoardiakoa, hartzen dute terrorismoaren borrokaren logikan. Horrek esan nahi du kidegoko kide guztiek beren gain hartzen dutela arriskua, egiten ari diren ahaleginari dagokion elementu gisa[14]. Alabaina, Ertzaintzaren moduko polizia-kidego batean, kontuan hartuta lurralde jakin batean gauzatzen duela bere zeregina eta lurralde horretako pertsonek osatzen dutela kidegoa, gertaera esanguratsu bat dago: pertsona horiek kidegoko parte direla gizartearen aurrean ere eta, beraz, erraz identifika daitezkeela terrorismoaren aurkako elementu aktibo gisa. Adierazi digutenaren arabera, denborarekin, areagotu egin zen hertsapen-jardueraren intentsitatea.

> *Pixkanaka begiradak ikusten hasten zara, baita irainak eta herri osoan dauden pintadak ere. Ni herriko kale nagusian bizi nintzen, eta egun batean herriko frontoia nire argazkiz beteta agertu zen, eta itu bat*

14 Arartekoaren Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia dokumentuak adierazten duen moduan (Herriaren defendatzailea-Defensoría del pueblo, Gasteiz, 2009ko ekaina), ETAren atentatuetan hildako biktimen erdiak baino gehiago Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetakoak ziren: 205 guardia zibil, 146 polizia nazional, 24 udaltzain eta aipatutako 15 ertzainak.

*zegoen margotuta. Nire autoan marrak egin zituzten, zenbait itu marrazki, gurpilak zulatu zizkidaten, pintadak egin zituzten, eta koktelak bota zituzten (nire bizilagunei).* E8

*Kidegoan sartu nintzenean, nahiko ezbehar izan nuen zerbitzuan hasi nintzen lehen egunetik. Gogoratzen dut lehen egunean norbaiti zitazio bat entregatzera gindoazela, eta molotov koktel bat edo bi bota zizkiguten patruila-autora, Errenterian. Hasiera ez zen oso arrunta izan, ezta batere atsegina ere.* E9

*Mehatxuak telefono-deiekin hasi ziren; telefono-zenbakia aldatu eta telefono-aurkibidetik kendu behar izan genuen. Nire alaba kalean iraintzen ere hasi ziren: "zipaioaren alaba", hura eta bestea… Etxera etortzen zenean esaten genion berarekin ligatu nahi zuten gaztetxoak zirela, garrantzi handirik eman ez ziezaion. Ondoren, autoa erre zidaten. Gero pintada batzuk ere agertu ziren atarian; nik neuk kendu nituen. Azkenean, Herrizaingo Sailak baieztatu zidan kale-borrokako komando bat atxilotu zutela eta nire etxera sartzeko moduei eta erosi nuen auto berriaren matrikulari buruzko informazioa zeukan diskete bat agertu zela (bazitekeen Frantzian egotea).* E3

*Bizkaia komandoa niri buruzko informazioa biltzen ari zen, tiro bat botatzeko. Oso gaizki nengoen garai hartan. Irteera bakarra zegoen. Guk ezin genuen Zamorara, Sevillara edo beste edonora joan. Irteera bakarra zen "guk haiek harrapatzea, haiek gu harrapatu baino lehen". Beraiek baino azkarrago ibili behar genuen, gure bizia salbatzeko. Lan-kontua baino gehiago zen. Egunean 24 orduz lan egiten genuen, eta konponbide bakarra zen komandoak desegitea, haiek zu harrapatu aurretik.* E14

Ertzaintza, ingurune jakin batean lan egin behar zuen segurtasun-kidego gisa, lurraldean bertan jaio eta bizi ziren pertsonek osatzen zuten (kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoa). Egoera horren ondorioz, kidegoa herritarrentzat agerikoa eta eskuragarria zen hurbileko eredu batean oinarrituta sortu eta eratu zen[15]. Alabaina, faktore hori zaila izan zen beren egoera pertsonalarengatik erasoak jasan zitzaketen pertsonentzat (adibidez, bizilagunen artean ertzaina zela zekitenentzat, kidegoaren barneko beste pertsona batzuk ere familian zituztenentzat…). Eguneroko bizitzarako eta aisialdiko jardueretarako oztopo horiek argi ikus daitezke ondorengo testigantzetan.

*Ezin genuen kalean ibili ere egin. Egun bat gogoratzen dut; euria goian behean ari zuen. Ni aterkiarekin nindoan, honaino estalita eta xala jarrita. Etxetik gertu dagoen taberna bat "borrokaz" betea egoten da eta, handik igaro nintzenean, atetik irten ziren: "zipaio, akabatuko zaitugu". Eta nik pentsatzen nuen: "ezin dut ezer egin, ezta kalera irten ere...".* E5

*2004an, irailean, pintada batzuk agertu ziren. Gauez lan egin nuen eta aspaldidanik operazioen buru gisa nengoen, alegia, ofizial kargua nuen (…). Hurrengo goizean, goizeko txandan, eguerdia baino lehen, nire patruilak ohartarazi zidan kontuz ibiltzeko, pintada batzuk agertu zirela: nire izena eta "zipaio" hitza behin baino gehiagotan, "zipaio hilda zaude", nire izena eta zipaio itu batean, eta halako beste batzuk.* E9

*Maite dut uda igarotzen dudan herria, oso ondo sentitu izan naiz eta zoragarria izan da, baina bertako festetara agertu eta begiradak ikusten hasi nintzen, taldetxoetan; pertsona batzuk… Ez zen erosoa, eta, gainera, nire alabak... Aita nintzen eta oso desatsegina zen. Batez ere pentsatzen nuelako liskarra sor zitekeela, beste batzuei gertatu zitzaien moduan; esaterako, jai batzuetan ertzaina bakarrik uztea, biolentoek inguratzea eta eraso egitea, zure herrian bertan. Kontua ez da batzuek inguratzea bakarrik, baizik eta zure lagunek bakarrik uztea. Zure lagun eta senideek utzi egiten zaituzte. Nire burua ikusten nuen Lekeition, urtebeteko alabarekin, hau esanez: "geratzen banaiz elkarri muturra txikituko diogu, eta orduan ikusiko dugu". Baina alabaren haur-kotxearekin nengoenez, zer egin behar nuen? Alabaren kotxe eta guzti korrika hasi? Azkenean herrira joateari utzi behar izan nion. (…) Tentsioa ikus zitekeen; maila fisikora igaro zela ikusi nuen, erasora bete-betean.* E11

*Hasieran pintadak agertu ziren. Betikoa: "zipaioa, putakumea, txakurra…". Ez bizi nintzen lekuan bertan, baina bai inguruko hormetan. Ez nion garrantzi handiegirik eman. Ondoren, autoa erre zidaten. Ondo gogoratzen naiz, izan ere, nire aita apirilean hil zen eta nik bere autoa hartu nuen oinordetzan. Maiatzaren 1ean erre zidaten. Suhiltzaileak etorri ziren, itzali egin zuten eta hor geratu zen. Inortxok ere ez zidan elkartasuna adierazi. Ezta hitzik ere. Oso gaizki hartu nuen, nire aitaren autoa zelako eta hilabete lehenago hil zelako.* E15

15 Balio horiek indarrean jarraitzen dute Ertzaintzaren 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoan: Ertzaintzak harro sentiarazten gaituen tradizioarekin aurrera jarraitzen du. Herri honen zati garenez, gure gizartetik datorren eredu bat hartu dugu, bat datorrena bertako idiosinkrasiarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin, izaerarekin eta jokabidearekin, gure lurraldearen txoko bakoitzean (…). Profesional bakoitzak herritarren konfiantza bereganatu beharko du, haien beharretara gerturatuz, ikusgai jarriz, eskuragarritasuna ahalbidetuz eta beharrei erantzuteko prest agertuz. Horrez gain, herritarren arazoak konpontzeko beharrezko malgutasuna erakutsi beharko dute.

### 4.2.2. Autobabesaren diziplina mehatxuaren konponbide gisa

Azterlan honetarako elkarrizketatutako pertsonek, beste askok bezalaxe, aukeratutako lanbidean jarraitzea erabaki zuten, mehatxuak jaso eta sentitzen zuten beldurra gero eta handiagoa bazen ere. Horrek, noski, haien eguneroko jarduerak baldintzatzen zituen. Kasu batzuetan, komentario edo mezu anonimo gisa hasi ziren, baina mehatxuak berretsi egin ziren ETAko komandoei informazioa konfiskatzeko eginiko polizia-ekintzen bidez. Horietan, atentatuak prestatzeko informazio landua agertzen zen. Horrek beren segurtasuna indartzeko neurriak hartzera bultzatu zituen gure laguntzaileak, baldin eta lehenagotik hala egin ez bazuten. Ondorioz, beren eguneroko ohiturak errotik aldatu behar izan zituzten. Kasu gehienetan, estrategia nagusia zen beren lanbidea ezkutatzea beste pertsona batzuen aurrean, beren pausoei jarraitzea zaila izan zedin.

Autobabeserako hartutako neurriei buruz hitz egiten badugu zehazki, zera azpimarra daiteke jarraian jasotako testigantzetan: neurri horiek modu metodiko eta iraunkorrean gauzatu zirela; hain zuzen ere, gure informatzaileen egunerokotasuneko elementu nagusi bilakatu ziren, beren eguneroko pausoak eta ohiturak baldintzatuz.

> *Nire estrategia gizon gris bihurtzea izan zen, existituko ez banintz bezala (…). Ez nion ezer esaten inori, ez nora nindoan, ez nondik nentorren, ez non nengoen… Etengabe aldatzen nituen autoa, plakak eta telefono-zenbakia. Horrez gain, nik babes-bizitoki esaten diodana neukan. Inguruabar batzuk tartean, halako leku bat lortzeko aukera izan nuen, eta hala egin nuen.* E6

> *Dena kontrolpean eduki behar nuen, eta ezinezkoa da dena kontrolpean edukitzea uneoro. Horri gehitu behar zitzaion jendearen gorroto-aurpegiak ikustea, hori ikaragarria da… Eta, noski, nola ibili behar duzu? Bakarrik edo beste norbaitekin? Jende gehiagorekin ibiltzen bazara haiek ere arriskuan jartzen dituzu. Azkenean ezin duzu bizitza sozialik egin. Zuk bakarrik joan behar duzu autora. Gurasoak edo beste norbait autoan eraman behar baduzu, lehenengo autoa zuk zeuk bakarrik atera behar duzu, zuk bakarrik abiarazi badaezpada, eta 24 aldiz begiratu. Gauez eta goizaldean jaisten zara, ateak egiaztatzera. Eguneroko ohiturak aldatu egiten dituzu. Etxetik goizeko 5etan irten behar banuen ere, batzuetan 4etan irteten nintzen. Errutina guztiak hausten dituzu.* E8

> *Neurriak hartzen hasi nintzen. Oraindik ere autoa begiratzen dut; ez naiz batere fio. Autoaren azpialdea begiratzen jarraitzen dut; izan ere, hau… hau giza arazo bat da. (…) Dena,, eguneroko ohitura guztiak. Esan bezala, autoaren azpialdea begiratzen nuen; ordu erdi lehenago jaikitzen nintzen. Ordu erdi lehenago auto osoa begiratzen nuen, goitik behera. Seme-alabekin edo emaztearekin atera behar banuen, kaleaz harago edo garajetik kanpo itxaroteko esaten nien. Autoarekin irteten nintzen eta bat-batean gelditzen nintzen, zerbait egon eta lehertu behar bazuen, ni bakarrik nengoela leher zedin.* E4

> *Ez zigun inoiz uzten garajera jaisten. Normalean bera jaisten zen, autoa begiratzen zuen, azpialdea eta beste guztia. Autoa garajetik ateratzen zuen eta, kanpoan zegoenean, autora igo gintezkeen. Baina ez zigun uzten garajera berarekin jaisten, batez ere haurrengatik, haiekin ezin zuelako nahi bezala makurtu. Azpialdeak eta halakoak ondo begiratzea gustatzen zitzaion. Gauza horiek ondo ikasi zituen Ertzaintzan, eta praktikan jartzen zituen.* E 7

> *Garai hartan ez neukan errutinarik. Ez nekien nondik nindoan, ezta nora ere. Autodefentsarik onena zen nik ere ez jakitea. Nik ez nekiena ezin zuen beste inork ere jakin. Planak unean-unean sortzen ziren, eta baita ibilbideak ere. Beti armatuta nenbilen. Pistola eskuan irteten nintzen etxetik. Autoan pistola eserlekuan utzita eta eskua atean jarrita ibiltzen nintzen, badaezpada ere irten behar banuen. Pixkanaka hartutako ohitura dira, eta mentalki entrenatzen dituzu, eraildako beste kide batzuek bizi izan dituzten antzeko egoeretatik onik irten ahal izateko. E14*

> *Jendaurrean zaudeneko betikoak… Autoan ibili behar duzunean azpialdea begiratu behar duzu, baita zure ohiko lekutik kanpo bazaude ere. Norabaitera sartzean, puntu hilak bilatzen dituzu, sarreraren parean jartzen saiatzen zara, ateari bizkarra ez ematen, lekuz aldatzen… Jatetxe batera joaten bazara, leku babestu bat bilatzen duzu, baina lokal osoa ikusteko aukera ematen dizuna. Tarteka, ia inor konturatu gabe, atzera begiratzen duzu… Halako gauzak.* E13

Laguntzaileetako batzuek adierazi digute beraiek ere autobabeserako neurriak hartu zituztela; alegia, bigarren arma bat edukitzeko baimena eskatzea, kidegoaren barneko identifikazio-zenbakia aldatzea, etab. Alabaina, elkarrizketatuetako batek azpimarratu duen moduan, poliziak zirenez, oso ondo zekiten terroristek beraien aurkako atentaturen bat egin nahi izanez gero, nahiko erraz egin zezaketela. Horrek are gehiago larritzen zien herstura. Beste ertzain batek aipatu zigun zalantza sortu ziola bigarren arma bat eramateko aukerak.

> *Esan zidaten ibilbideak aldatzeko, autobabeserako neurri gisa. Arazoa zen ertzain-etxetik metro gutxira bizi nintzela, eta ez neukan ibilbidea aldatzeko aukerarik. Zubi batetik igaro behar nuen nahitaez. Herri*

*txiki batean bizi nintzen. Txandak aldatuta ere, herri osoak ikusten ninduen sartzen eta irteten; beraz, edozeinek berehala jakin zezakeen zer txanda nuen. Ez nion horrenbesteko beldurrik ETAren atentatu bati (nahiz eta gero halako bat jasan behar izan nuen), bai ordea kale-borrokaren bat-bateko eraso bati. Gizarte-presio horrek bizitza izorratu dit. Niri eta nire seme-alabei.* E15

*Hori guztia egin nuen. Zenbaki profesionala aldatu, bigarren arma bat eduki eta autoaren matrikula aldatu. Baina, hala ere… Begira, nik dakidanagatik, ni terrorista banintz eta beraien aginduak jasoko banitu, uste dut zaila izango litzatekeela helburu gisa dudan norbaitek ihes egitea. Eta ni ertzaina naiz. Hain zuzen ere, beldur gehien frankotiratzaileei edo lehergailuei nien, une jakin batean defentsarik gabe harrapa nintzaketelako. Ez, ordea, auto azpiko lehergailuei, autoa egunero begiratzen bainuen. Ez, beldurra ematen zidana zen espaloiko auto batean lehergailu bat jartzea; hortik igarotzean aktibatuko zuten, 100 kilorekin, eta nire barrenak beste puntaraino bidaliko zituzten.* E1

*Noski, Itsasondokoaren eta senide baten aurkako atentatu baten ondoren erosi nuen bigarren arma, eta bizitza pribatuan ere gainean eramaten hasi nintzen. Horrek esanahi bakarra du: nire bila etorriko ziren beldur nintzela.* E9

*Autoaren matrikula aldatu nuen, baina ez nuen bigarren armarik erosi. Sailaren baimena lortu nuen, arma Erkidegotik kanpo atera ahal izateko; baina azkenean ez nuen erosi, okerragoa izango litzateke eta. Une jakin batean pentsatu nuen: "ez dut alboan eramango, bestela egunen batean zerbait gertatuko zait", eta horregatik ez nuen hartu.* E3

## 4.2.3. Bidegabeko egoera baten ondorioak

### *4.2.3.1. Herstura ugarituta. Familiari egindako mehatxua*

Autobabeserako jarraibideak ezartzearen zailtasuna argi geratzen da interesdunak ohartzen direnean zer zaila den maite dituztenak (bereziki familia-nukleoa) mehatxutik urrun mantentzea. Segurtasun hori haustea eta familiaren eguneroko bizitza betirako alda daitekeela ikustea estres izugarriko faktoreak dira. Jarraian jasotako adierazpenetan agerian geratzen da zer-nolako herstura eragiten zuten gertakari horiek. Mehatxatuta egon ondoren ETAk eraildako ertzain baten senide batek azaltzen digu zein zaila izan zen egoera kudeatzea.

*Bere datuak agertu ziren agiri dezentetan. 80-85 urteetan hasi ziren agertzen. Eta uste dut azken datuak Frantzian atzemandakoetan agertu zirela. Horietan haren izena, helbidea, telefonoa eta abizenak agertzen ziren, ertzainen zerrenda baten hasieran. Dena den, lehengo bizitzarekin jarraitu genuen. Egoerak arazorik sorraraz ez zezala saiatu ginen. Bai, gure bizitza baldintzatu genuen nolabait, erraztasunik ere ez emateko, baina tira… Aldi berean familia normal bat izaten jarraitu genuen, eta ordura arte egiten genituen gauzak egiten (…). Baina bera beti saiatzen zen laneko kontuak familia-bizitzatik bereizten; horretan saiatzen ginen. Batez ere haurrengatik. Haurrek bizitza normala izan zezatela saiatzen ginen. Baina haurrak ere jabetzen dira gauzetaz (…). Lehenengo, egoera ezkutatzen saiatzen ginen, haurrengatik. Eta gero, biok saiatzen ginen pentsatzen ez zela gertatuko, beragatik eta niregatik… Ondo sentitzen saiatzen ginen. Baina bueno, berak bazituen bere gauzak eta nik ere bai. Begiratu izan gara… Atentatua baino pixka bat lehenago gertatu zitzaigun: semaforo batean geundela, bat-batean elkarri begiratu genion eta biok gauza bera egiten ari ginen. Bera atzerako ispilutik begira zegoen, eta ni autoaren inguruari begira; elkarri begiratu genion arte ez ginen ohartu zertan ari ginen. Eta ez genuen ezer esan; esperientzia horiek… Gero gauza horietaz gogoratzen zara.* E7

*Horrek guztiak maila pertsonalean eragiten dizu, mugatu egiten zaitu. Noizbait esan izan dut: "tira, mus partida bat jolastuko dut, afaltzera joango naiz…". Hala ere, urduri zaude, urduri zaude. Baina horixe da egokitu zaizuna. Gai horri aurre egitea erabaki baduzu, horixe egin behar duzu... Ondorio batzuk ditu maila pertsonalean: urduri zaude, aldartea eta loa aldatzen dizkizu, urduri jartzen zara zarata bat entzuten duzunean, edozer gauza; ez zaude ondo, ez zaude lasai. Urduri zaude, larri zaude, beldur zara eta. Beldur zara, kontziente zarelako ETA prest dagoela; izan ere, lagun asko eta arma ezberdinak ditu. Are gehiago, askotan, norbait erail izan dutenean, Estatuko Segurtasun Indarrak ez dira egileak atxilotzeko gai izan. Zer egiteko gai diren jakinda, zera pentsatzen duzu: kontuz, kontuz, kontuz! Horixe gerta dakizuke.* E1

*Poliziek euren burua defendatu behar dute. Ez daukate bizkarra zainduko dien norbait edukitzeko aukerarik. Autobabesa sortzetikoa da, zeure burua babestu egiten duzu, mekanikoa da. Baina zeure bere burua babesteko mekanika hori, hots, bizitza babestea, matematikoa den arren, barruan sartzen*

*zaizu azkenean. Izugarria da konturatzea zeu zarela arma bat daraman pertsona bakarra, eta horixe dela, hain zuzen, zeure burua defendatzeko eta babesteko duzun gauza bakarra. Zure bizia babesten duzu, eta suposatzen da horixe dela gehien maite duzuna. Baina ez da horrela; seme-alaben bizia, emaztearena, gurasoena da gehien maite duzuna. Haiek zeure burua baino gehiago maite dituzu. Zure bizia babestu behar duzu, zu zeu zarelako gero besteen bizia babestu behar duena. Izugarria da (…). Neure burua defendatzen dut, baina nire familia ere defendatu behar dut. Haiek babestea, jakitea zuri zerbait gertatzen bazaizu zu gabe geldituko direla, babesik gabe geldituko direla eta zure hiletara joan beharko dutela… Ez da harritzekoa azkenean depresioak jota egotea edo zera sentitzea…* E2

Kasu batzuetan, ez zen posible izan ertzainek eta haien familiek jasandako hertsapenari eta jazarpenari aurre egitea. Ertzainek autobabeserako neurriekin kontu handiz jokatu zuten arren, eraso benetan gogorrak jasan zituzten beraien aisialdian, horrelako momentuetan errazagoa baitzen haiei eraso egitea. Hauxe esan digu erasotua izan zen ertzain baten senide batek:

*Ateratzen zirenean, gertu zegoen herri batera joan ohi zen lagunekin, larunbata pasatzera. Uste dut behin bakarrik joan zela, hango neska batekin baitzebilen. Herrikora sartu zen, ordura arte bezala. Zergatik ez zuen ba jarraituko hara joaten? Lagun talde bat zegoen barruan, musika itzali zuten eta begira gelditu zitzaizkion, alde egiteko eskatuz. Ezagutzen zituen tabernan zeudenak, bertakoak ziren. Hura izan zen lehenengo aldia. Beste batean, hemengo alde zaharreko taberna batera joan zen lagun batekin. Denak joan ohi ziren; alegia, ezagutzen zuten han. Inguratu egin zuten. Uste dut gazte asko zeudela, jotzen hasi zitzaizkion... Bera ere ez zen atzean geldituko, baina, noski, hainbaten artean inguratuta eta bera bakarrik egonda, jo egin zioten. Ezagutzen ez zuen batek bere alde egin zuen. Hurrengo goizean, begia ubela eta aurpegia puztuta ikustean, zer geratu zitzaion galdetu nion. Hauxe erantzun zidan: "ezer ez, gimnasioan egon naiz kickboxing egiten eta ukabilkada bat eman didate". Handik gutxira ilobak esan zidan larrialdietara joan zirela berarekin.* E 10

Ertzainek aisialdian jasandako erasoez gain, gertuko senideei egindako mehatxuen kontua bereziki korapilatsua da. Ertzain batek min handiz eman zigun senide batzuek hainbat urtez jasotako mehatxuen berri.

*Ni Arkauten sartu eta hilabetera, aitak erradikalen inguruko pertsona batekin (haren anaia kartzelan zegoen) liskarra izan zuen auzoan, hain zuzen ere, pertsona hark tabernan eta nire aitaren aurrean ertzainei buruz esan zuen zerbaitegatik. Liskarra hitzezkoa izan zen; hitzezkoa bakarrik, ez zen beste ezer gertatu, baina nire aitak mehatxatu egin zutela sentitu zuen. Esan zion ondorioak jasan beharko zituela, bere semea zipaio bat zela eta halakoak. Une hartan aitak ez zidan hori esan, beretzat gorde zuen. Handik hilabetera, hilabete pasata edo bi hilabetera, asteburu batean Arkautetik etxera joan nintzenean, gauean deitu eta esan zidan: "Jaitsi zaitez, bidegurutze batean jo egin naute eta". Jaitsi nintzenean ikusi nuen eraso egin ziotela. Eraso egin zioten, ni Ertzaintzan egoteagatik taberna batean eztabaida izan zuelako. Esan zioten hiltzaile bat nintzela, frankista eta falangista bat.* E2

Urte batzuk geroago, elkarrizketatu honek berak ikusi zuen bere seme-alabak ere arrazoi beragatik, hau da, bere lanbideagatik, baztertu zituztela. Oraingoan ingurune akademikoan. Arazoa konpontzeko, aitarentzat zein semearentzat traumatikoa izan zen erabaki bat hartu behar izan zuten; izan ere, semea berak aukeratutako ikastetxetik atera eta beste batean matrikulatu zuten.

*Bi seme-alaba ditut. Ikastolan hasi ziren ikasten, eta, hamabi urte bete zituzten arte, ez zuten inolako arazorik izan: "Non dago zure aita? Zure aita da hau eta bestea da… Zertan egiten du lan zure aitak?" Orduan betiko arazoa izan genuen, besterik gabe; semea etorri eta hauxe esaten zidan: "aita, zipaio esaten digute". Edo alabak: "aita, zergatik deitzen didate zipaio?" Eta zergatik naiz ez dakit zer? Eta zergatik bestea?" Komentario horiek entzunda, konturatzen zara umeak ondorio batzuk jasaten ari direla aita ertzaina izateagatik (…). Baina, denborak aurrera egin eta institutura joaten dira. Ikastetxe horretan hasi ziren biak arazoekin. Lehenengo nire alabak; izan ere, bera izan zen institutura joan zen lehenengoa, eta han zirikatzen hasi ziren. Ohiko kontuak ziren: "zipaio" edo "kontuz, zipaioaren alaba dator eta", "kontuz zure aitarekin, ea buruan tiro bat ematen dioten", "begiratu dezala kotxearen azpialdea egunero, bonba bat jartzen badiote ere". Horrelako komentarioak. Atentatu bat dagoen bakoitzean… 13, 14, 15 eta 16 urteko gazte horiek nerabeak dira, baina nerabezaroan aurrera doaz. 16 urterekin gazte horiek nagusiak dira benetan. Adin horretan, benetan kezkatzen dira aitaren aurkako atentatu bat egon daitekeelako. Noizean behin esaten zidaten, eta beraiekin hitz egiten saiatzen nintzen. Nire alaba izan zen sentsazio horiek adierazi zizkidan lehenengoa. Poliki-poliki joan zen, apurka-apurka gainditzen. Bere antzeko izaera zuten ikaskideen laguntza zuen; egoera jakin batzuk bizi behar izan zituzten eta ondo egiten zieten aurre, bazekiten egoera horiek nola konpondu. Aurrera jarraitu zuen, nahiz eta hori, zure aita hil egingo dutela entzutea, ez den batere erraza (…) Nire semea, berriz, ez zen egoera hori gainditzeko gai. Gaizki pasatzen zuen eta ikasketetan okerrera egin zuen. Okerrera egin zuen, okerrera,*

*okerrera. Are gehiago, liskar fisiko bat ere izan zuen, eta erabaki nuen ikastetxean idatzi bat aurkeztea eta esatea talde antolatu batek eraso egin ziola. Horrez gain, ikastetxeak presio hori saihesteko neurriak hartu behar zituela ere idatzi nuen. Baina ez zen amaitu. Ikastetxeak bertatik hilabete batzuetara bertatik atera zedila proposatu zuen (…), esanez ez zela amaitzeko gai izango eta abar, putzu batean sartu zelako eta ez zelako handik ateratzeko gai izango.* E2

Beste informatzaile batzuek ere esaten dute ertzainek ez ezik haien seme-alabek ere jazarpena jasan behar izan dutela.

*Nire semea ikastetxetik atera behar izan genuen. Bere kontrako giroa zegoen, etsai-giroa. Ikastetxe hartatik atera eta beste batera eraman nuen. Uste dut nire semeak ikasketetan porrot egitearen arrazoia… Uste dut inoiz ez dela egon zentratuta. Baina, egia esan, uste dut honexegatik ere izan dela, familiaren egoeragatik. Kantabriako barnetegi batean sartu genuen; izan ere, pentsatu nuen onena bere ingurunetik ateratzea eta barnetegian sartzea izango zela (…). Badirudi lehengo ingurunetik urrun hobeto egon zela. (…) Familian ertzain bat izan dutenek badakite, e? Nire seme-alabek badakite. Nire alabak, esaterako, uste dut oraindik ere ikusten duela denari adi nagoela. Nire semeak ez horrenbeste, baina pixka bat bai. Uste dut konturatzen direla, gauza batzuk ikusi egiten dira. Uste dut pixkanaka konturatzen direla beraien bizitzetan zerbait berria sartu dela eta zerbait hori ez dela ona. Familian ertzain bat izan dutenek badakite. "Zipaio" deitu badizute ere badakizu, baita honelako zerbait esan badizute ere: "zure aita hil egingo dugu". Edo, nire semearen kasuan bezala, ikastolan hau esaten badizute: "lehenengo hiru guardia zibil hiltzen badituzte eta gero beste batzuk, nola geratuko da hau…?". Basakeria hori ohikoa zen garai hartan, ohikoa benetan. Ohikoa zen norbait hil ondoren honelakoak entzutea: "zerbaitegatik hilko zuten".* E4

*Alabaren kasuan, ikastolan baztertzen hasi ziren. Hasieran pixka bat, baina zortzi edo bederatzi urte zituenean, nabarmena zen. Etxera heltzen zenean, "aita, zer da zipaio?" galdetzen zidan. Eta nik "ez dakit, zergatik galdetzen duzu?", erantzuten nion. - "Zipaina deitzen didatelako" – "Beno, ez eman garrantzirik. Hori esaten dizutenek ez dakite zer esan nahi duen". Eta hor geratu zen guztia. Baina, egun batean, ikastolan jai bat egin zuten. Gazte talde bat mugitu zenean, horman klarionaz zerbait idatzita zegoela ikusi nuen: bere izena eta atzetik "zipaina". Andereño bati dei egin eta "orain ezabatuko dugu", esan zidan. "Ezabatuta ez dugu ezer lortuko, nire alabak eta biok ikusi dugu", erantzun nion nik. Nire alaba zirikatu egiten zuten… Denborak aurrera egin ahala bere baitan itxi zen eta hitzak atera egin behar genizkion. Akademikoki ere okerrera egin zuen ikastolan. Oso gaizki eraman zuen.* E15

Ertzain asko eta beraien familiak gero eta presio nahiz hertsapen gehiago ari ziren jasaten eta, ondorioz, berebiziko garrantzia zuten erabakiak hartu behar izan zituzten, esate baterako, familia Euskaditik kanpo eta segurutzat jotako herrietara bizitzera joatea. Fenomeno hori ohikoa da, ezaguna dugu, eta honako aipu honek ondo islatzen du, lekualdatzeak ekarritako ondorio guztiak adierazten baitira bertan: bikotekideak lana galtzea, seme-alabak beste ikastetxe batera eramatea (hango hezkuntza-eredua eta EAEkoa ezberdinak dira), berriro sozializatu beharra…

*Hasieran, zuri geratzen zara; batetik, ETA arka duzulako, eta, bestetik, kosta ahala kosta ezabatu egin nahi zaituztelako. Zuri geratzen zara, ez duzu onartzen, eta ematen dizkizuten aholkuei kasu egiten diezu. Baina ematen dizkizuten aholku guztiak kontuan izatea benetan zaila da, maila guztietan. Ez dago irtenbiderik, norbaitek tiro egin nahi badizu, ba berdin dio... Egin dezakezun gauza bakarra esaten dizutenari kasu egitea da. Irtenbide bat eman zidaten, eta esandakoa bete nuen, besterik gabe. Gure etxea uztea gomendatu ziguten, gure bizitza uztea eta, besterik gabe, desagertzea. Hori edo atentatu bat izateko arriskua hartu. Nik oso argi neukan (…). Ez dut nire familia autoan doanean (nirekin edo ni gabe) autoa lehertzeko arriskua hartuko.* E13

*Gero eta gauza gehiago ari ziren gertatzen. Hori zela eta, azkenean alde egitea erabaki genuen. Eta horrek ondorio batzuk ditu; nire bikotekideak lanpostu bat zuen eta utzi egin behar izan zuen. Eta hori guztia utzi. Uda batean, umeak ikastetxetik atera genituen… Baina, jakina, ikastetxe batetik atera eta beste batera eraman behar genituen… Hasiera batean, urrutirago joan nahi genuen, baina gure egoera ekonomikoarekin (nire bikotekideak lana utzi zuen), ezin ginen hain urruti joan. Santanderren begira ibili ginen. Baita (…) San Vicente de la Barqueran ere. Kontua da urrutiegi geratzen zitzaigula eta, azkenean, Castron geratzea eta han bertan pisu bat erostea erabaki genuen. Gure pisua saldu genuen, nahiz eta oraindik 15 urte geratzen zitzaizkigun ordaintzeko, Castroko pisua erosteko (…). Semea (9 urte zituen) futbol talde batean sartu genuen lagunak egin zitzan. Ikastolan ere arazoak zituen, andereñoei euskaraz deitzen baitzien, "andereño". Eta hemen ez zuten hori ulertzen, nola ulertuko zuten ba hori, Castron? Hemen ez geneukan lagunik… Beno, arazoa ez zen gurea, baizik eta seme-alabena; izan ere, azken finean, ni lanera joaten nintzen, baina beraiek ez zeukaten lagunik, ez zeukaten ezer. A zer urteak…. Lehenengo urteak izugarriak izan ziren...* E3

*Mehatxuen garaian, Eusko Jaurlaritzak nire etxea uztea proposatu zidan. 5 orduren buruan atera nintzen etxetik. Nire auzoa, nire bizitza, nire gaztaroa bost orduren buruan utzi nituen. Etxe-aldaketa familiaren eta lagunen laguntzarekin egin nuen. Alokatzeko pisu batera eraman ninduten. Han ez ninduen inork ezagutzen. Bizilagunaz inor arduratzen ez den leku bat aukeratu eta handik ospa egin nuen. Gero jakin nuenez, nire auzoan esaten zuten txalet batera joan nintzela bizitzera, eta aitak zurrumurrua berresten zuen, esanez: "honek diru asko dauka eta". Arerioa despistatzeko egiten zuen.* E14

*Nire alaba, euskalduna izateagatik, institutuko eskaileretan behera bota zuten Castron… euskalduna izateagatik. Horrelako jendea badago, ezta? Alaba imajinatzen dut, pentsatuz: "han, zipaio baten alaba naizela; hemen, euskalduna". Inoiz ez zen kexatu. Oso neska alaia da eta inoiz ez da kexatu. Eta semeak ere ez du ezer esaten, hango bizimodura ohitu da. Uste dut gaur egun ez dela ez hangoa ezta hemengoa ere; lehengo batean bere lagunekin joan zen, betiko koadrilarekin, eta "jo, ama, ez da berdina" esan zidan. Horixe gertatzen zait niri ere nire lagun guztiekin: ez da berdina.* E12

Beste informatzaile batek kontatu digu familia osoak une batetik bestera utzi behar izan zuela etxea, hain zuzen ere, aitak, ertzaina izanik, bere aurka jasotako mehatxuaren ondorioz; izan ere, mehatxua aurki egia bihurtu zitekeen.

*Eta goiz batean, eguerdian, esan zidan: "goazen etxetik, oraintxe bertan" (…). Eta arratsaldean bertan, bera, nire ama, Eusko Jaurlaritzako neska bat eta ni pisu bat begiratzera joan ginen, alde egiteko. Honela esan zigun neskak: "ezin duzue luzaroan pentsatu. Hiru ikusiko ditugu eta horietatik bat, gaur ez baitzarete etxera itzuliko". Hauxe erantzun genion guk: "Ez garela etxera itzuliko? Jantzita daukagunarekin geratu behar dugu ala?". "Jaitsi gauzak pixkanaka, inor ez dadila ohartu ez zaudetela han". Baina guk etxera joan nahi genuen, jakina. Nire aita hotel batera eraman zuten. Hotel batean egon zen, ez dakit non. Beste aste bat. Guk bitartean poltsak pixkanaka jaitsi genituen, inor ez zedin konturatu bagindoazela. Honela jaitsi behar genituen: gaur gauean hiru poltsa, beste egun batean beste hiru... Gainera, batzuk… Bazegoen emakume bat, bizilaguna; kartzelan egon zen eta fitxatuta zegoen (…). Nire amari, Eroskira joan eta berarekin topo egiten zuenean, "putakume" deitzen zion, edozer deitzen zion, eta amak poltsa utzi eta ospa egin behar izaten zuen.. Amak arropa esekitzen zuenean, etxe azpitik pasatzen bazen, "zipaioak", "hil egin behar dira" esaten zion, denetarik.* E5

Beste kasu batzuetan, batzuk ziur zeuden mehatxuari aurre egiten saiatu behar zirela, betiere mehatxua jaso zuen pertsonak hori egiteko aukera baldin bazuen, eta jakinik erabaki hori hartzea garesti aterako zitzaiola eta ezinezkoa zela zenbat denbora iraungo zuen zehaztea.

*Nik neuk zera pentsatu nuen: "ez dut amore emango eta ez naiz joango, ez dut nire herrialdetik alde egingo, ez naiz nire familiaren albotik joango, benetan adi egongo naiz, gudarako prest egongo naiz egunero". Hori lortzea oso zaila da inguruko giroa ez bada kontrakoa, eguneroko guda pertsonalak asko ahultzen zaitu. Asmoa denbora irabaztea zen; izan ere, nik beti pentsatu izan nuen egoera alda zitekeela.* E1

*4.2.3.2. Hertsapena, isolamendua eta bazterketa. Jazarritako gizarteko talde baten hiru kondenak.*

Hertsapenak eta mehatxuak arlo pertsonalaz eta familiaz haratago doaz, arlo sozialean ere badute eraginik eta. ETAk mehatxatutako pertsonen egoera aztertzeko egin diren ikerketa akademikoek agerian utzi dute jazarleek moralki baztertzen dituztela pertsona horiek[16]. Guk elkarrizketatutako pertsonen arabera ere nabarmena da bazterketa-prozesu hori, eta horrek, nahitaez, estigmatizatu egiten zaitu gainontzeko gizarte-eragileen aurrean.

*Zaila da egoera hori onartzea, eta azkenean pentsatzen duzu: "alde guztietatik ematen ari dira!". Batzuek hemendik egin nahi didate eraso, eta nire etxean bertan ez naute ulertzen, ez dute gertatzen ari dena ulertzen. Eta horrelakoa da mehatxuak jasotzen dituen pertsonaren irudia. Gainera, talde terrorista batek hertsatu egiten du, nahiz eta agertokian ez dagoen etsai-girorik. Beraz, jendeak, gizarteak, bizilagunek… Ez dute ulertzen zer gerta dakizukeen. Hau azaldu egin behar da; enpatia nahikoa ez duenak ezin du ulertu. Demagun mehatxatua lorategi batean dagoela, ikusiz ama pozik dagoela semearekin jolasean. Baina benetan hauxe pentsatzen ari da: "bi begi daude nonbait, niri begira, nola bizi naizen ikusi eta gero plana nola gauzatu daitekeen prestatzeko". Zaila da (…). Gudan zaudenean eta guda hori bizi duzunean, agertokia belikoa da. Orduan askoz errazagoa da hau ulertzea. Baina hori da biktimei egokitu zaiena.* E1

16 Susan Opotow-k formulatutako bazterketa moralaren teoriak azaltzen du kolektibo batek herritarren zati bat beraien "justizia-eremutik" baztertu dezakeela . Bazterketa horren ondorioa izan daiteke baztertutako pertsonak eraso bortitzen xede izatea. Teoria hau ETAren indarkeriaren biktimen kasuari aplikatu zitzaion *Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral* azterlanean (Martín-Peña, J., Opotow, S. eta Rodríguez Carvalleira, A, *Revista de psicología social*, 26:2, 2011).

*Gainera, egoera gero eta okerragoa zen. Iraintzen hasi ziren, baina irainen atzetik telefono-dei bat egon zen: "hil egingo zaitugu…". Eta deiaren ondoren pintada bat; gainetik margotu behar izan nuen, ez zitezen konturatu (…). Hor ere hanka sartu nuen, ez zitezen konturatu. Gero kotxea erre zidaten (…). Ekintzak gero eta larriagoak ziren. Une jakin batean, "hau izan da guztia" pentsatu genuen. Seme-alabengatik, batez ere. Ezkongabea izan banintz, ez nukeen hemendik alde egingo.* E3

*ETAri buruz hitz egiten dutenean, ETAk norbait hil duela esaten dute beti, ez dakit zenbat zauritu egon direla... Baina mehatxatuak zenbatu ezin diren zaurituak dira. Beti esan izan dut nahiago izango nukeela jipoi bat jasotzea. Hartara, hilabetez, bi, hiru, lau edo bost hilabetez, ez du axola zenbat denbora, gaizki egongo nintzatekeen. Nahiago izango nuen hori, egunero tanta bat jasotzea baino; tantatxo hori, tortura hori (psikologikoa, edo zuk nahi duzun moduan deitu), 17 urte iraun dituen tortura.* E5

*Baina, noski, horrek guztiak aldarazi egiten zaitu eta, gehiago ezin duzunean, eztanda egiten duzu. Ahuldu egiten zaitu. Zertan eragiten dizu? Bada, ez duzu bizitza sozialik inorekin, isolatuta zaude. Lehen futbolean jolasten nuen, kirol-jarduerak egiten nituen. Aterpearen kontua zegoenean, mendian zegoen jendea eramaten nuen. Halako izatetik etsai izatera pasatu nintzen. Horixe iruditu zitzaidan. Gainera, batzuk soldatagatik sartzen dira. Ni, aldiz, bokazioagatik sartu nintzen. Are gehiago, lehen neukan lanpostuan gehiago irabazten nuen. Pentsatzen duzu jendeak baloratu egingo zaituela, gertukoa izateagatik. Herriko ertzain bakarra naiz, eta pentsatzen duzu jendeak onartu egingo zaituela. Ez dauka zentzurik. Ez dio axola hemengoa edo Nairobikoa zaren. Beraientzat etsaia zara eta kito. Eta hori ikusi egiten duzu, egunero sentitzen duzu kalean. Ikusten duzunean ez zaituztela onartzen, bakartu egiten zara, eta zure postuan behar baino lan gehiago egiten hasten zara. Norberak nahi ez badu ere, azkenean horrek ondorio batzuk ditu eta gauza arraroak egiten hasten zara.* E8

*Nire semea, erasoaren ondoren, kontu handiagoz jokatzen hasi zen eta, arazoak saihesteko, leku askotara joateari utzi zion (…). Baina, behin edo behin, ertzainek hartzen zituzten arriskuei buruz hitz egiten ari ginela, honako hau esan zidan: "nahi dutenean hilko gaituzte, labera noa (sic)". E10*

*Izugarria da nik zuzenean hori nire gain hartu behar izatea eta onartu behar izatea zure ingurukoak, zure aita edo zu zarela zure familia sufriarazten duena… Izugarria da zure emaztea denda batera sartzea eta barruan daudenek alde egitea, ertzain baten emaztea izateagatik ez dutelako ikusi ere egin nahi, arropa etxe barruan eseki behar izatea kanpoan ezin delako eseki… Sekula ez genuen arropa kanpoan esekitzen, gure atikoak sabai-leihoak zituen... Horrela, ez duzu kanpoko jendea kontrolatzen ibili beharrik, kalean pasatzen denean uniformeak ikusi eta "hor ertzain bat bizi da" pentsatu dezaketelako. Baliteke horrek pertsona jakin bati kontatu nahi izatea… E2*

*Denborak aurrera egin ahala tentsioa sumatzen zenuen, ikusten zenuen erasoa fisikoa zela, erabateko hertsapena… Eta egoerak okerrera egiten zuela. Beste lankide batzuk esandakoa entzuten duzunean eta haiekin hitz egiten duzunean, egoera ia-ia berdina da. Harreman gehiago edo gutxiago izanik ere, jendeak leku jakin batzuetatik alde egiten du. Ni neu 84an hiriguneko pisu batean bizi nintzen, udaletxetik 50 metrora. 92an ezin zen horrelakorik pentsatu ere egin. Egia esan, ez zen denbora gehiegi pasatu. 5, 6, 7 urteren buruan egoerak okerrera egin zuen. E11*

ETAk mehatxatutako pertsonek jasandako bidegabekeriaren inguruan egindako txostenak nabarmendu bezala, pertsona horiek autobabesteko estrategia errazena beraien lanbidea zein zen ezkutatu behar izatea izan zen. Errazena baina gauzatzeko zailena, aldi berean. Erabaki horren ondorioz, Ertzaintzako kideak urrundu egin ziren euren eremu sozialetatik eta lagunengandik. Estrategia horrek, batetik, balizko erasoen aurrean euren segurtasun-eremua indartzen lagundu zuen, baina, bestetik, konfinamendu soziala lortzeko prozesuari lagundu zion, eta horixe zen, hain zuzen, talde terroristak nahi zuena. Denborarekin, gure informatzaileen eta euren ingurukoen artean jarri beharreko distantzia bakardade bilakatu zen, eta, gaur egun ere, distantzia horren ondorioak ikus daitezke.

*Familiak zuk baino gehiago sufritzen du. Hori argi daukat. Ezjakintasunaren ondorioz. Zuk badakizu zeri egiten diozun aurre. Ez jakiteak gehiago sufriarazten dizu jakiteak baino. Argi dago familiak ez diola zure telefono-zenbakia inori ematen, ez diola zutaz inori hitz egiten… Familiak zure segurtasunaren alde egiten du. Ez du non bizi zaren esaten... Apurka-apurka konturatzen dira horixe egin behar dela. Gehien sufritzen duena zure bikotekidea da; izan ere, konpromiso edo lagun batzuk izan arren, eta norbaitekin geratu nahi duzun arren, azkenean ez zara geratzen. Kontua ez da zure harremanetarako eremua murrizten duzula; zabaldu ere ezin duzu egin. Ez zaizu interesatzen. Eta hainbat biktimari ematen diozu aholku hori. Azken finean, zure lagunak arazo bat dira, eta jende asko erori da lagunen erruz. Ez dakizu zure lagunek norekin hitz egiten duten; zuk zeuk norekin hitz egiten duzun, ordea, bai. Zuk egoera kontrola dezakezu. Baina hau sekretu bat bezala da. Beste pertsona bati zerbaiten berri ematen diozunean, informazio hori beste batzuengana hel daiteke. Azken finean hobe da ezer ez esatea, segurtasuna kolokan ez jartzeko.* E14

*Joan egin behar duzu, baina nora? Nire bikotekideak lanpostua utzi behar izan zuen, eta horrek ondorio batzuk dakartza berekin. Eta zoazen lekura zoazela, hilabete batzuk egongo zara bertan, eta daukagun adinarekin, zer kontatuko duzu han? Ezin duzu lanean zaudela esan, ezta oporretan zaudela ere, hilabete asko dira eta. Ezin duzu erretiroduna zarela esan, gazteegia zara eta. Gezurra esan behar duzu, etengabe gezurretan aritu. Beste era batera esanda, ezin duzu lagun berririk egin; izan ere, gezurra esan behar diezu eta horrek izugarri amorratzen zaitu. Ezin dezakezu hizketaldi normal bat izan, hizketaldi normal batean beti ateratzen baita nor zaren, zure lanbidea zein den, non lan egiten duzun... Eta beti egiten dizu ihes zerbaitek. Beti ari zara gezurrari bueltak ematen. Oso nekagarria eta itogarria da. Funtsean, bizitza bikotekidearekin egiten duzu, familiari bakarrik deitzen diozu eta beste guztia albo batera utzi behar duzu. Ez dago besterik.* E13

*Seme-alabekin gogorra izan zen, zuk ezin baitituzu egin guraso arrunt batek egin ohi dituen gauzak, esate baterako, autobus-geltokira eraman edo herriko plazara joan beste umeekin jolastu daitezen. Zuk ezin dituzu gauza horiek egin. Ezin zara jende asko dagoen leku batean egon. Garai hartan, ziur jakin behar zenuen begien bistan zeneukan jendea han egotea normala zela; ohiz kanpoko norbait bazegoen, neurriren bat hartu behar zenuen. Etxetik ateratzen zinenean, begiratu egiten zenuen eta norbait logikoa ez den zerbait egiten ari bazen, nora joan erabaki behar zenuen: ezkerrera, eskuinera… Baina ezin zenuen arriskatu. Horrexegatik bizi gara isolatutako eremuetan, mota horretako analisia egitea erraza den lekuetan hain zuzen.* E15

*4.2.3.3. Aurre egitea, mehatxuak mehatxu. Bakartasuna eta uko egitea.*

Elkarrizketatuei galde egin zitzaien ea zer motibazio izan zuten mehatxuari aurre egiteko, baita ea zer ukapen eragin zituen erabaki horrek ere. Jasota geratu da elkarrizketatu askok erabilitako estrategia: hain zuzen, norbere baitara eta ingurune hurbilenera biltzea, norberaren eta familiaren segurtasuna bermatze aldera. Modu subjektiboan, jokabide horrek ordura arteko bizimoduari jarraitzeari uko egitea ere ekarri zuen berekin, ez soilik jokabide-eredu ezagunak bertan behera utzi zirelako, baizik eta, zenbaitetan, bizi-proiektu erabakigarriak ekiteari ere uko egin zitzaiolako.

*Eta jendeak askoren inguruan esan du: “bai, baina hemengo hau joan egin da!” Joan, diot, ni Gasteizera joan nintzelako, eta oso gogorra izan zen, paria sentitzen zarelako. Ni ez nintzen joan; ni bota ninduten (...) Ni Gasteizera joan nintzen, baina niretzat agonia izan zen. Ni lapurtu izan banu bezala joan nintzen, hala... Oso gutxitan noa gurasoen etxera. Gurasoek bi sarrera dituen etxe bat dute, ez diet inoiz abisatzen joatekotan naizela. Noizbait auto bat alokatzera ere iritsi naiz gurasoak egun batez ikusteko. Auto bat alokatu dut, niri inongo autorekin ez lotzeko.* E 8

*Seme-alabak izateko adinean harrapatu zidan. Ni familia ugari batetik nator eta seme-alabak izan nahi nituen. Azkenean, seme-alabarik ez izateko erabakia hartzen duzu. Esaten duzu: zertarako ekarri seme-alabak, aita gabe geratuko badira? Ziur zaudelako lehenago edo geroago harrapatu zaitzaketela. Urteak eman nituen uste horrekin. Azkenean berriz pentsatu, eta biologikoki izateko berandu bazen ere, adoptatu egin nituen. E14*

*Gure bizitza soziala gutxienekoa zen. Jendea kalean dago, lagunartean, koadrilarekin. Gu ez, inork ere ez zigun afaltzera gonbidatu. Nire emaztearen familiak esaten zigun “bazenekien non zinen”. Harremana hoztu zen. Ez nuen haien babesa sumatu, inondik ere. E13*

Agerian geratzen da zenbateraino erdiratu zituen beraiek nahi zuten lekuan eta moduan bizitzeari uko egin beharrak, seme-alabak hasieran aukeratutakoak ez ziren beste eskola batzuetan hezi izan beharrak, familiako kide hurkoenak mehatxupeko zoria partekatzen ikusi izanak eta ukapena lanbideko jardunari, lagunei eta aisialdiari zabaldu behar izanak.

*Niri ezin didate ezer itzuli. Eta argi eta garbi diot: den-dena kendu didate! Neukan guztia kendu didate. Nire identitatea kendu didate. Oraintxe bertan ni ez naiz inongoa sentitzen. Eta oso argi diot, eta hemengo hau sutan jartzen da* (emaztea seinalatzen du)*... Ezingo didate inoiz ordainik eman urte horietan guztietan izan dudan hutsuneagatik. E 3*

*Normalean ez nituen nire seme-alabak autobus-geltokira eramaten, baina batzuetan hala egin behar duzu, nahitaez, nire emazteak ere bazituelako beste konpromiso eta betebehar batzuk, zirela lanekoak, zirela bestelakoak. Halakoetan, nire seme-alabek sei urte zituztela, geltokian «botatzen» nituen, edo hogeita hamar metro lehenago esaten nien: «hemendik eta iritsi arte zoaz zu». Han egoten ziren guraso guztiak, umeei ikastolara joatean agur esaten, geltokitik agurtzen, eta zu, zuhur-zuhur, pertsona guztiei erreparatzen, beste kotxeei...*E14

Galdutako aukerak eta familiara hedatutako ukapenak, zerbitzu publikoko lanbide batean jarduten jarraitzeko erabakia hartu zutelako: lekukotza askotan laguntza-eske batekin irudikatzen dute ideia hori; ez hainbeste norberari dagokionez, baizik eta seme-alabei, nolabait beren belaunalditik at geratu baitziren gurasoen lanbidearen ondorioz. Honela zioen seme-alabak euskal hezkuntza-sistematik kanpo eskolatu behar izan zituen ertzain batek.

*Nire alabak ezin hobeki hitz egiten du euskaraz, semeak gutxiago. Baina Euskadin bilatu behar badute lana, desabantailak izango dituzte beste batzuen aldean. E3*

*Ertzainen edo beste sektore batzuetako langileen seme-alaba horiek gurasoen eta familien eraginpean parte hartu dute gizarteratzean, eta bilakaera ona izan dute, gizarteratze ona; gizartearen demokratizazioan parte hartu dute, mundu horretan non sektore batek bazter utzi nahi baitzituen, eta azkenean integratu dira, nire alaba kasu, integratu dira, besteekin hitz egin ondoren, azkenean entzun diotenean. Gizartean –edo Administrazioan–, nik uste, denboraren joanarekin, elkarrizketan, auzi hori konponduko dela. Baina gatazken konponbidetik at uzten den sektore hori, eta haiek ere biktima dira, formula bat bilatu behar da haiek egindako gizarteratze-lana aitortzeko. Eta beti eutsi diot ideia horri, zeren eta edozein biktimaren semea edo alaba, bera ere biktima baita. Biktima ez da hildakoa edo zauritutakoa soilik. Bera biktima da. Baina, ez al da biktima haren semea? Bai, biktima da. „Baina zuk ordain ekonomikoa bilatzen duzu". „Nik nolabaiteko ordaina bilatzen dut, ez dut esaten ordain ekonomikoa". Ordainak askotarikoak izan daitezke, aitorpenarekin. Izan liteke aitorpen bat: egin duzun lana, pairatu duzun oinazea. E2*

*Garai hartan lagunak ziren kontu arriskutsuenetakoa. Ez horrenbeste zure etsaiak, baizik eta lagunak. Lagunak, zeren eta, xaloki, zuri buruzko informazioa eman zezaketen. Orduan, egiten duzun lehenengo gauzetako bat munduarengandik eta zure ezagun eta lagunengandik isolatzea da. Dena alboratzen duzu: koadrilarekin harremanak, lagunekin, baita beste ertzainekin ere. Isolamendura jotzen duzu... Ez zoaz jendea biltzen den guneetara, albo batera uzten dituzu bertsolari-txapelketak, euskararen aldeko kontzentrazioak. Arian-arian, guztiz baztertzen duzu zure mundu naturala.* E14

Orain arte ekarri diren lekukotzek argi islatzen dute gure informatzaileen esperientzia oso sakona izan zela eta estres eta herstura maila handiko bizipenak adierazten dituela; zalantzarik gabe, lekukoek *Ertzaintzan* betetzen zuten zereginarekin eta kidegoaren eginkizunarekin berarekin zuten konpromiso itzelaren fruitu. Galdetu zitzaienean ea zer erresilientzia-elementuk lagundu zien jasandako egoera eramaten, eta, bereziki, azkenean gizartean eta erakunde publikoetan aurkitu ahal izan zuten babesaren inguruan, nahitaez kontuan hartu beharreko etsipena islatu zen haien hitzetan. Gera dadila idatziz jasota ezen, lekukotza horiek, gogorrak irudituko bazaizkigu ere, etorkizuneko bizikidetza hobetzen laguntzeko berariazko nahiarekin jakinarazi zizkigutela gure laguntzaileek, eta jasota gera dadin, aldi honi buruzko kontakizunean, zer sufrimendu bizi zuten. Beraz, irakur bitez lasai eta autokritikaz, beharrezkoak direnez lekukotzek islatzen dituzten gabeziak ulertzeko eta jasandako sufrimenduari eta bidegabekeriari ordaina emateko gizarte gisa taxutu behar dugun kontakizunean txertatzeko.

*Ertzain-etxearen aurrean zaborrerako edukiontzi batzuk jarri zituzten, eta orduan estoldak etab. zigilatu ziren, ertzain-etxeko segurtasun-kontuengatik. 2001etik*[17] *aurrera eta hori guztia. Udalak esan zuen ez zituela edukiontziak kenduko, eta patruila-auto guztiak pasatzen ginen edukiontzion ondotik. Udalak esan zuen ez zituela edukiontziak kenduko! Ertzainen biziari baino lehentasun handiagoa eman zioten edukiontziei, eta hori ere aintzat hartzen zen, gogoan izaten zen, eta egoera psikologiko jakin bat sortzen zuen: "guk geuk bakarrik zaindu behar dugu gure burua. Hemen, ez Udalan ez elizan, ez daude gure alde". Horrek ez zuen esan nahi aurka zirenik. Leku batzuetan aurka ziren. Are okerragoa zen.* E11

*Sarri, ez dakit enpatia-falta, beldurra edo zer den, baina askok pentsatuko luke "niretzat ez dut horrelakorik nahi. Pena handia ematen dit, baina ni ez naiz gerturatuko". Horrela, isolamendua sufritzen duzu, nahi ez baduzu ere. Bai, borondatez isolatzen zara, badirelako egiten ez dituzun gauzak, baina gero jendeak alboratzen bazaitu... horrek benetan ematen dizu mina. Nik ez dut nirekin hitz egiteari utzi dion lagunik, baina nire emazteak bai. Esan nion, "Jakin izan banu, ez nituzke zure lagun erdiak gonbidatuko ezkontzara, zurekin hitz egiteari utzi diotelako, zuri agur esateari... zuk zer egin diezu ba?"* E15

ETAk Ertzaintzaren kolektiboaren gain ezarritako presioa eta kidegoko kideen izaera partikularra zirela-eta (Euskadiko udaletako biztanleak eta lanbide nabarmen batekin), babes gehigarria jasotzeko eskaera ugari agertu ziren. Gure elkarrizketatu batzuek ohartarazi dute beren eskaerak ezin izan zirela aintzat hartu.

17 Gure elkarrizketatuak kidegoan 2011 urtean izandako erreakzioari egiten dio erreferentzia; urte hura bereziki latza izan zen Ertzaintzarentzat, kronologiari eskainitako atalean aipatu dugun moduan.

*Niri buruzko informazio xehea komando baten esku azaldu zenean, nire buruzagiari idatzi nion eta auto desberdinak eskatu nizkion –garai hartan burutzako guztiek genituen–, aldatu ahal izateko. Eskatu nion, bigarren kontu moduan, laneko ordutegi malgua izateko aukera. Eskatu nion, hirugarren kontu moduan, Eusko Jaurlaritzak zituen etxebizitzetan (Ertzain-etxeetarako gordetakoetan) noizean behin lankideren batekin bertako gela batean gaua igarotzeko aukera, errutinaz aldatzeko. Eta laugarren, eta azken, kontu moduan, ni etxetik sartu-irteteko orduetan patruila bat bertara zedila inguruetara, prebentzio- nahiz ekintza-neurri moduan, zerbait gertatuko balitz. Hogei egunen buruan erantzun zidaten, eta honela hasten zen erantzuna (betiko geratu zait gainera gogoan): neurriotatik, edo andanatik –andana, begira, ezin dut ahaztu–, egin dezakedan bakarra da Arkauteko Akademiara edo Durangora, Brigada Mugikorra den lekura, joateko aukera eskaintzea. Orduan nik esan nuen: "Jaungoiko maitea! Zer da hau?".* E1

Beste zenbaitetan bai, agenteen eskura jarritako baliabideek lortu zuten eraso terrorista baten ondorio dramatikoak ez izatea erremediorik gabekoak.

*Nik enpresak nire burua babesteko eman zizkidan baliabide guztiak erabili nituen. Kasu honetan, balen aurkako txalekoa, ez hornidurakoa, baizik eta ordainduta eta hala eman zigutena, bakoitzak bere aldetik eramateko. Bakoitzak bere aldetik eramateko txalekoak ziren, oso desatseginak, uda hartan bero handia egin zuen, oso deserosoa izan zen, baina azkenean bizirik ateratzeko balio izan zuten. Nik erabiltzen nuen (bakarra nintzen ertzain-etxe osoan); izan ere, hilabete batzuk lehenago albiste izan zen Madrilen agintaritzako agente batek ibilgailu bat geldiarazi zuela, identifikatzeko, baina leihatila jaitsi eta bertan metrailatu zutela, ibilgailua drogaz beteta zihoalako. Batik bat halakoetarako nerabilen, delitu arruntetarako, ez ETArenak.* E13

### *4.2.3.4. Jasandako herstura eta osasunean duen eragina*

Aurreko ataletako lekukotzek agerian utzi dute identifikatutako ertzainenganako jazarpena hainbat urtez luzatu zela; hainbeste, fenomeno kroniko baten ezaugarriak izatera heldu zela. Egoera hori hainbeste urtez eraman beharrak eragina izan zuen haien osasunean. Gure kolaboratzaile batzuk ez ziren denbora luze batean jabetu zer-nolako zama ari ziren jartzen bizipen horiek beren gain. Senitarteko, lagun nahiz osasun-langileek esan zietelako heldu ziren diagnostiko bat izatera. Gaur egun, borrokan jarraitzen dute haietako askok, urteetan indarpean eta mehatxupean bizi izanak eragin dizkien ondorio kaltegarriak gainditzeko.

*Denbora luzez izan nuen tratamendu psikiatrikoa, egin behar ez zenizkiokeen galdera asko egiten dizkiozulako zure buruari. Medikuak esaten dizu ez zenituzkeela egin behar, baina egiten dituzu. Hori da trauma osteko estres sindrome esaten zaiona. Diagnostikatu didate. Adibidez, pentsatzen duzu, nire kasuan, zergatik zauden zu bizirik, eta beste kide batzuk ez. Ez duzu pentsatu behar halakorik, baina pentsatzen duzu. Zer eskubide dut nik, haiek ez dutena? Burua apurtzen duzu, eta gaizki daramazu. Pastilla batzuk eman zizkidan, hersturarengatik estresa dudanean lasaitzeko, baita nire bikotekideari ere, berdin baitzegoen.* E13

*Ni aldi batez bajan egon nintzen. Gaizki nengoen, familiako medikura joan nintzen, baja eman zidaten. Baina horrek guztiak prozesu bat dakar, bat-batean... bajan nengoela. Gogoan dut mutuatik deitu zidatela eta alta eman zidatela. Eta sendagile batengana joateko deitu zidaten, nire egoera aztertzeko norbait neutroa zen. Hara joan nintzen; nik ez nekien nora nindoan. Behin baino gehiagotan joan nintzen eta hark esan zidan (...) "trauma osteko estresa ondorio txarrekin-eta". Eta zuk ez duzu tutik ulertzen. Zuk uste duzu kontu txikiak direla eta denborarekin-eta konponduko direla. Edo beharbada ez duzu pentsatzen, une batean pentsatu ezinik geratzen zarelako, guztiz (...) zaude, ez duzula ezer jakin nahi ezertaz. Denbora igarota, medikatzen hasi nintzen eta hor (...) gora egin nuen apur bat. Eta orduan konturatzen zara zer kostu izan duen zuretzat istorio honek. Nik erretiroa hartuta daukat, gaixotasuna dela-eta. Nire inguruan askok uste dute jardunean jarraitzen dudala. Ez bazidaten ulertzen sufritzen ari nintzenean, nola ulertuko didate orain ba. Horregatik diot ulermen faltarena.* E8

*Oporretan nengoela berriz gaixotu nintzen; nirekin zegoen jendea ohartu zen, medikura eraman zidaten eta han nabaritu zuten, beno, banuela larritasuna, nolabaiteko egoera bat, ez dakit zer.. Eta Gurutzetako Ospitaleko larrialdietatik, hara joan bainintzen, psikiatrarengana bidali zidaten, Ertzaintzan zegokidan psikologoarengana. Diagnostikoa hasita… Bajan izan nintzen. Jada baja hartu nuen. Eta artean terrorismo-biktimen legerik ez zegoela, Auzitegian, niri terrorismo-biktima izaera aitortu zidaten. Artean legerik ez zegoela.* E1

Jaso ditugun lekukotzek aditzera ematen dute ez dela erraza mehatxupeko pertsonentzat, urteetako indarkeriaren ondorioz osasun emozionalean kalteak izan dituztenentzat, kidegoan beren arazoak azaltzea

eta beren sentimenduak adieraztea. Batetik, bat ere atseginak ez diren oroitzapenak gogoratzea saihestu nahi dute; horrez gain, kidegoko agintariek kasu horiek gaizki ikusten dituztelako susmoa dute. Zenbaitetan, arazo emozionalak daudela jakinaraztea kidegoko partaideak gidatzen dituen zerbitzu publikoko bokazioa gutxitzearekin lotu zitekeen.

> *Bada uste bat, kontzeptu bat kolektiboaren beraren barruan, ez dutelako bizi izan...bai, bizi bai, bizi izan dute, baina beharbada jakin dute bestela eramaten... (eta, nire ustez, ni emozionalki indartsua naiz, edozer gauzari aurre egiteko moduan...) baina sektore horren, sektore zabalenaren, ikuspegian, laguntza psikologikoa behar duena bizizale bat da, lotsagabe bat, edo berak nahi duelako dago bajan... Badirudi psikologikoki gaixotu den norbait, depresio batekin edo lurra jota, kolektiboaren beraren barruan hirugarren mailakotzat hartuko dutela (...). Ni, adibidez, jada lanean nengoenean ez nintzen joaten psikologora, hain zuzen, pertzepzio horrexegatik.* E2

> *Jakina, Ertzaintzaren barruan jazarpen terroristaren sindromea gertatu zen, iparraldeko sindromearen antzeko sintomatologia eta patologiarekin, salbu eta joatearen egoera, lekualdatze posibleak eta halako kontuak. Baina izan ziren joateko erabakia hartu zuten ertzain batzuk; plaka eman, eta alde egin zuten. Beste batzuk ere, narriadura jakin batzuk direla-eta, baja luzeak... hala aitortu zaie eta beste leku batzuetan daude jadanik, erretiratuta eta horrela (...). Zu pertsona moduan etsita zaudenean, hori oso gogorra da. Etsituta sentitu diren lankideak badaude, orduan jada eragin handiko elementuak dituzu abiapuntuan, ez soilik psikologikoki edo are psikosomatikoki; hortik aurrera, baita moralki eta emozionalki ere. Eta hori ez zen zaindu. Adimen emozionala eta hori guztiori, ezertarako. Erreferentzia hertsiki sanitarioa zen kasu horretan, eta ukoarekin batera zihoan. Ukatu egiten zen gertatzen zena.* E11

> *Adibidez, iparraldeko sindromea. Badirudi Ertzaintzak ezin zuela izan iparraldeko sindromerik. Polizia Nazionalak bai, Guardia Zibilak bai, baina Ertzaintzak ez. Zer demontre, mina berbera da, urdinez, berdez nahiz gorriz joan.* E5

Osasun emozionalaren esparrua kontuzkoa da oso, eta elkarrizketatu askoren lekukotzetan lehen mailako erreklamazio bat da. Administrazio Publikoarentzat ez da erraza eskaera horiek bideratzea, egoerari kasuan-kasu heldu behar zaio eta. Jarraian bi lekukotza ekarri ditugu: lehenak ohartarazten duenez, askorentzat oso zaila da biktima-izaera egiaztatzeko orduan oinazea berpizteko prozesu psikologikoari aurre egitea; bigarrenak, aldiz, ohartarazten du aurkez litezkeela (noizean behin) iruzur kasuak ere, eta hori bidegabekeria litzatekeela benetan terroristen mehatxupean izan direnentzat.

> *Eta gehien penatzen nauena zera da: badirela hainbat lankide, mehatxupeko edo biktima moduan aitortuak izateko espedientea abiarazi ere ez dutenak, igaro genuen horren guztiaren samina ez berpiztearren. Oso interesgarria da. Ba, galde dezala Eusko Jaurlaritzak, edo egin dezala inkesta bat, egin dezala zerbait. Modu anonimoan edo nolanahi, saia dadila informazioa biltzen.* E6

> *Estres eta adrenalina handiko egoera latza bizi izan dut. Baina ez dut laguntza psikologikorik behar izan. Pertsona bakoitza desberdina da. Ulertzen dut badirela eragina sumatzen dutenak eta horiei lagundu behar zaie. Baina izan dira, halaber, samina desegoki eta iruzur egiteko asmoz erabili dutenak ere, mailaz igotzeko edo interes ekonomiko nahiz politikoak direla-eta... Batzuetan azken hori ez da kontuan hartzen. E14*

Ertzaintzako kideek bizitako herstura- eta estres-egoerak, hainbatetan, bikotekidearekin eta zuzeneko senideekin zeramaten bizikidetzara hedatu ziren. Ezegonkortasun eta ondoez emozional horixe azpimarratu dute elkarrizketatu batzuek; esaten dutenez, gaur egun ere ondorioak ditu beren nortasunean.

> *Fisikoki baino gehiago –nahiz eta nire bikotekideak menopausia goiztiarra izan zuen–, nagusiki buru kontu bat izan da, biak ala biak amaitu dugu lur jota. Besterik gabe, beharbada inongo zerikusirik gabe umore txarrez jarri, eta bikotekidea da pagaburua. Inora ez daramaten eztabaidak, lekuz kanpoko hitzak, purrustadak... bion artean. Besterik gabe. Ihes-balbula bat bezala da. Gauza asko dituzu buruan, burua hausten duzu gauza askorekin, eta azkenean lehertu. Zure ihes-balbula oihu egitea da, garrasi egitea...* E13

> *Eusko Jaurlaritzako psikologo batek deitu zidan. —“Zer moduz zaude? Badakigu bitan erre dizutela lonja, baita autoa ere” —“Zainak mozteko moduan nago”. Nire emaztea negarrez, nire alaba zaharrenak ez zuen ezer esaten, bere logelan sartu zen. Giro txarra etxean emaztearekin, giro txarra etxean (...) Emazteak esan zidan “Aldatu lanez.” Esan nuen “nik aldatu behar al dut lana? Zergatik? Hobe herriz aldatzen bagara eta herri lasaiago batera bagoaz”. Eztabaida ugari kontu berberagatik.* E15

> *Izateko modu bat sortzen zaizu, eta horrekin geratzen zara. Orain itzuli nahi duzu, baina ez duzu koadrila, erreferentziak galdu dituzu. Orain jada ezin dituzu berreskuratu iraganeko gauzak.* E14

*4.2.3.5. Mehatxua egia bihurtuta. Erasotuak eta erailak.*

Elkarrizketatuen artean ertzain batzuen senideek kolaboratu dute: zehazki, askotariko hertsapenak jasan ostean mehatxuak egi bihurtuta eta erailketa benetan gauzatuta ikusi zuten ertzain batzuek. Trauma ostean, desberdin irakurtzen dira ETAren jazarpenaren pean bizitako esperientziaren gako batzuk. Hala adierazi zigun eraildako baten senideak; bere ustez, senarraren erailketaren ondoren, hark bizitzan bere zereginak betetzen jarraitzeko erakutsitako ausardia, nahiz zerbitzu publikoarekin hartua zuen konpromisoa, iraganean hartutako erabakiak interpretatzeko aukera ematen dioten oroitzapenak dira.

> *Nik ikusten nituen gauza batzuk, baina ez dituzu interpretatu nahi. Gerora, gertatzen denean, interpretatzen dituzu eta gero esaten duzu: "Ez, arrazoi zenuen gauza horiek pentsatzen jarri eta esan zenuenean, ez dut pentsatuko". Baina egia da gerora jabetzen zarela hilabete horietan gauza asko gertatu direla, nabaritu dituzula, baina ez diezula garrantzirik eman nahi izan, pasa dituzu, eta hor zegoela, mehatxua hor zegoela. Ordura arte, horretan pentsatu gabe bizi zara, edo saiatzen zara. Gogoan dut, halaber, nire senarra erail ostean beste kide bat erail zutela, haren emazteak besotik heldu eta gela batera eraman ninduen, eta esan zidan: „zure senarraren erailketaren ondoren, banekien hurrengoa nirea izango zela". Bagenuen kontu hori, baina ez genuen kanpora atera nahi. Barrutik, niri gertatzen zitzaidana nabarmendu zidan berriro. Ez genuen horretan pentsatu nahi, baina bagenekien gerta zitekeela. Baina, beno, bizitza guztian kontu horiekin bizitako emakumeak ginen, eta halaxe onartzen dugu alboan duguna, bagenekien nondik zetozen, zer ziren. Ez genituen harakin zirela hartu eta bat-batean polizia sartu ziren. Bizitza osoa eman zuten hor (...) Jakina, zuk aukeratu duzun pertsona badakizu nondik doan, badakizu haren historia, haren bizitza, haren kontuak eta, noski, hala onartzen duzu eta hainbat konturi garrantzirik eman gabe hasten zara bizitzen. Ez ginen etxetik aterako bestela, gotorleku batean egongo ginen, ez genuen bizitzarik egingo.* E7

ETAren biktima baten senideak oso gogoeta pertsonala eskaini zigun, erailketak berekin ekarritako aukera galdu guztien inguruan. Ez soilik eraildakoak hutsune konponezina uzten duelako, baita hark, eta familiak haren faltan, gauzatu ezingo duten guztiari begira. Indarrez kendutako bizitza horrekin batera, badira bizi-proiektu ugari, erailketak ekarritako trauma emozionalaren ondorioz errotik aldatzen edo eteten direnak.

> *Munduko itxaropen guztiak zituen... Nire semea oso bizia zen, familia-proiektu bat zuen. Etxe bat erosi zuen... Nire urtebetetzean, haren erailketa baino zortzi egun lehenago, ospatzera joan ginen eta gero esan zidan "goazen nire etxera, zer entxufe jarri nahi ditudan esan behar diot elektrikariari". Itxaropen batekin guztia... Txantxetan ibiltzen ginen. Hark esaten zuen "bizitzera hona etorrita ere, tupperwareekin zure etxera joaten jarraituko dut" eta nik erantzuten nion "Ez, ez, zu ondorio guztiekin emantzipatzen zara" (...) nik ez dut barkatzen, semearen oroimenak kementzen nau. Nire familiak asko sufritu du erailketaren ondoren. Nire alabak ezin izan zuen jarraitu egiten zuenarekin, okerreko erabaki batzuk hartu zituen, gogoa lasai izan balu hartuko ez zituenak. Nik neuk lan egiteari utzi behar izan nion, eta nire gustuko lana zen, zoriontsu egiten zidana... eta ezin izan nuen, ez dakit zer nuen hemen* (bere bularraldea seinalatzen du)*, ezin izan nuela... Den-dena semearen erailketaren ondorioz.* E10

Atentatu bat jasan zuen ertzain batek, ondoren bizirik atera zelarik, azaldu zigun bazegoela indarkeriako gertakari bat jasateko prest, baina ez azkenean gertatu zen bezalakoa.

> *Nik istripu esaten diot (baina atentatu bat izan zen), eta ez zen nire aurka izan, baizik eta handik zebilen edozeinen aurka. Gerora, jakin nuen handik Guardia Zibilak pasatzea espero zutela. Inor ere ez bizirik ez ateratzeko pentsatutako enboskada bat izan zen. Tiroz josten dizute eta azken tiroa buruan da, bizirik aterako ez zarela ziurtatzeko. Normalean ez dituzu buruan izaten halako erasoak. Oro har, bonba baterako prestatzen zara. Leherketa bat dago, eta konortedun bazaude egiten duzun lehenengo gauza da begiratzea ea ondo zauden, edo gorputz-adarren bat falta duzun. Norbait lagundu badezakezu, laguntzen duzu; bestela zain geratzen zara, zerbitzu medikuak zu noiz artatuko. Baina, nire ustez, horrelako enboskada baterako ez zaude inoiz guztiz prest. Niri balen aurkako txalekoak salbatu zidan.* E13

Bi elkarrizketatuk lankideen aurkako erasoek agenteengan sortzen zuten eragin emozionala zerabilten gogoan; horietako batzuk ezagunak edo lagunak ziren.

> *Herstura eragiten dizu, bai horixe, kezka, oreka galarazten dizu, begiratzen duzu nola izan den, ikertzen duzu, ohartzen zara uneren batean zuri ere gerta zekizula. Eta esateko erraza den hau, zaila da onartzeko, eta beno...* E1

> *Lankide baten kasuak hunkitu ninduen: ibilgailuko leihatila jaitsi zuenean, Molotov koktel bat bota zioten. Su-betean atera zen furgonetatik. Kidea sugarrak itzaltzera joan zitzaion, eta ez zioten utzi. Ostikoka galarazi zioten. Azkenean lankideek lortu zuten egoera salbatzea. Zauritutako agentea ospitalera*

*eraman zuten. Sendagileek, oso onak direnez, bizitza salbatu ahal izan zioten, baina kaskoa kirurgia bidez kendu behar izan zioten burutik, buruan urtuta zuelako, itsatsita. Bizirik atera, miraríz ateratzen zaren horietakoa. Pentsa ba, nola geratu zen mutila. Pentsatzea, pertsona horiek lagundu ez eta gainera laguntzera joandakoei ostikoka eraso zietela, lazgarria iruditu zitzaidan.* E13

## 4.2.4. Gertatutakoaren kontakizuna eratzeko beharra

Ertzainek eta haien familiek jasandako bortxa terroristaren fenomenoa kualitatiboki aztertzera eskainitako atal honen hasieran, aipatu dugu horietako hainbat nagusiki zerbitzu publikoaren bokazioa zela-eta sartu zirela kidegoan. Gizartea eraikitzeko bokazio horixe nabaritu daiteke gure elkarrizketatuek ateratako ondorioetan; izan ere, galdetzen zaienean ea zer kontakizun helarazi behar zaion iritzi publikoari, bizitako bidegabekeriari buruz gogoeta egin dezan, eraildakoen eta jazarritakoen oroimena bizirik irauteko eskaerak hartzen du erantzunaren ardatzgunea, bizikidetzaren eta gizartearen erakunde komunen alde egin duten sakrifizioaren erakusgarri izan daitezen. Helburu horri eman zizkioten beren ahaleginak eta, batzuetan, baita beren bizitzak ere.

*Kontua ez da maukak edo pribilegioak izatea, baizik eta legez kanpoko indarkeria jasan dutenekin zuzen jokatzea. Terroristen presioa gainean dutela eta horrek arazo jakin batzuk dakarzkiela ikusten dutenekin. Haiei, seme-alabentzako, baita beraientzako ere, ordain sorta batzuk bilatzea... hori zilegi da erabat. Zentzuzkoa da. Eta baita burutsua ere, etorkizunean sor litezkeen egoerei begira. Hau da, esatea "erakunde hauen alde sakrifikatzen zareten horiek, erakunde hauek zuekin daude, eta gero ere zuekin egongo gara, zuen arazoak aztertzen jarraituko dugu".* E11

Besteren artean, alderdi jakin baten inguruan ohartarazi digute; hain zuzen, jasandako indarkeriaren kontakizun kolektibo horretan, galarazi behar dela bai Ertzaintza bai erakundeko kideak ahanzturan erortzea, kidegoaren gain isuri diren kalumniak iraunarazteko edo babesteko modu bat bailitzateke.

*Hori zera da: gatazka honen konponbideari hainbeste ekarri dion gizarte-sektore bat baztertzea; hainbeste, ezen egundoko akatsa dela orain esatea "zuek honen guztiaren kanpo zaudete, eta ez dizuet aitortuko gatazkaren konponbidean parte hartu duzuenik sikiera". Nire ustez, egundoko akatsa da. Nik nire seme-alaben bitartez adierazi dezaket. Nik gorrototsu ikusten ditut nire seme-alabak, eta horrenbesteko mina ematen dit haiek halako gorrotoa izatea... Ni ziur naiz, nolabait aitortu eta esaten badiete: "gazteak, zuen aitari zuzenean ez, baina zuen aititari eta zuei, gizarteak honela aitortzen dizue jasandako sufrimendua. Nik ez dut esaten dirua eman behar zaienik, nik diot: nolabait. Nik ez dakit zein den modua.* E2

ETAren mehatxua eta ekintza –askotariko modutan– pairatu dutenen sufrimendua islatuko duen kontakizun egiazkoa eratzea: kezka hori azterlan honetarako elkarrizketatu dugun hainbatek agertu du. Bere lekukotza hainbat forotan ematera ohituta dagoen biktima batek bere hitzek zer-nolako harrera izaten duten argitu zigun.

*Betidanik izan ditut gauzak argi, argi izan ditudalako senarraren ideiak. Hor, biok genuen dena oso argi. Gaur egun, zure lekukotza ematera zoazenean, eta udalak asko ari dira egiten horren alde, jendea harbera da oso, eta hitz egiten dizu. Batez ere, gerra bizi izan duen jende nagusiak, gerran edo gerraostean izan zenak. Une horiei buruz hitz egiten dizute, haiek pairatutakoei buruz, eta eskertzen dizute zu ere gertatzen ari zaizuna kontatzera joatea. Haientzat ere kontakizun bat da... guk sufritu izan duguna ikus dadila, eta benetan aintzat har dadila, ez dadila ahaztu. Haientzat garrantzitsua da ez dadila inoiz ahaztu (...) Hain zuzen, eta horregatik egiten duzu sakrifizio handiagoa, eta normal egiten duzu, betiere saiatzen zarelako zure bilobei, zure seme-alabei hoberena ematen, eta zer da hobeto, bada, haiei bakean den mundu bat ematea baino, erailketarik, heriotza bidegaberik gabekoa, halakoak baitira heriotza horiek. Hala da, entzun egin behar dituzue mendekuari, gorrotoari, gorrotoari baino gehiagori buruz hitz egiten duten biktimak. Eta, beno, ari gara lortzen, baina oso gutxika.* E7

*Aitor ditzagun gaizki egindakoak, ondo egindakoak, dena delakoak, eta jar dezagun kronologiaren barruan guztia. Ez da gauza bera atentatu bat diktadura garaian edo demokrazia betean. Nik ez dut nahi inork pentsatzea hori justifikatzeko saiotan nabilela, inondik ere, baina nire ustez ez da gauza bera. Kontakizuna, izan dena. Baina ez soilik Ertzaintzan izan dena: kazetariak, epaileak, irakasleak, zinegotziak. Den-denak. Zeren eta, nire ustez, gu egon garen esparruko gure kontakizun txikiekin, horrela jakingo dugu zehazki, oso zehazki, zer izan den. Eta dagokion Gobernuak, Jaurlaritzak edo dena delakoak –berdin dio erabat–, ez badu egoki jardun, motel ibili bada erantzuteko, bere unean ez bazuen den-dena eman, bada, onar dezala. Zeren eta nik uste osoa baitut Eusko Jaurlaritza errealitatetik at egon dela, eta ez duela jardun Eusko Jaurlaritzan ETAren moduko arazo bat duzunean, guztiari eragiten diona, jardun behar den bezain azkar eta bizi.* E6

ETAk eraildako biktima baten beste senide batek ohartarazten zuen ezinbestekoa dela, gertatutakoaren kontakizuna eratu aurretiko urrats gisa, biktimei jarrera ulerkorra eta enpatikoa agertzea, horrenbestez, azaleratu dadin pairatutako bidegabekeriaren eta eragindako minaren eta sufrimenduaren egia. Horiek horrela, hedabideek zeregin horretan duten rolari buruz gogoetatzen zuen, eta duela gutxiko albiste batzuk jartzen zituen adibidetzat: zehazki, gerratik eta jazarpen politikotik ihesi Europako mugetara iristen diren pertsonei buruzkoak.

*Egunak eta egunak eman ditut bihotza uzkurtuta, itotako haur siriarraren irudia ikusi eta gero. Batzuk irudia argitara ateratzearen alde zeuden, beste batzuk ez. Nik uste dut irudi hori atera ezean jende askok ez lukeela gertatzen ari denaren inguruko kontzientziarik hartuko. Noski, gehiago hunkitzen zara, haur txiki bat delako (berdin dio, hala beharko luke adindua izan balitz ere), baina haurrarena lazgarria izan zen... Oso mingarria da, baina normalean jendeak ez du mingarri dena ikusi nahi. Ez dugu ikusi nahi, lasaiago bizi garelako. Gure kontzientziari minik egin gabe... Niretzat lazgarria da nire semearen irudiak agertzen direnean eta atentatuaz hitz egiten dutenean. Ezin dut ikusi, begirada kentzen dut. Baina, barru-barruan, uste dut jendeari hori existitu dela, gertatu dela, ikusarazteko modu bat dela. Horrek gogoetara garamatza, niri ere haurraren irudiak gogoeta eragin didan bezala, bestela burutik pasako ere ez zitzaidan modu batean.* E10

Lekukotzetan gehien azaldu den kezketako bat Ertzainen kidegoari bere jatorriko bokazioa itzultzearena izan da; alegia, gertuko polizia izatearena. Ezinbesteko urrastzat jotzen dute, baina ez da erraza; izan ere, hainbeste jazarpen-urtetan hartutako ohituretan autobabesa izan da nagusi, gertutasuna baino.

*Ertzaintza, erakunde gisa, honen guztiaren biktima oso handia izan da. Behin, idatzi batean, esan nuen bunker batean sartu ginela, hala fisikoki nola psikologikoki. Gero eta prozedura hurbilagoak izan behar ditugu, eta horretara goaz. Ertzaintzak ahal bezala eutsi dio bereari eta irabazia du bere txokoa. Ezarri diren zenbait jardunbide aldatzeko gai bagara, orduan, ematen dugun zerbitzua hobetuko dugu, baita jendearen segurtasun-sentsazioa eta gureganako estimua, eta handia da jada.* E14

*Hainbat urtez ez dugu izan gertutasun hori praktikaratzeko modurik. Zein aterako zen ba kotxetik! Nire lehen destinoan bai, oinez patruilatzen genuen, baina 90eko hamarkadatik aurrera ez zen modurik. Gai izango gara gertutasunaren ideiara itzultzeko, baina udalerri bakoitza desberdina da.* E15

*Oso polizia erreaktiboa izan ginen. Etortzen zenaren zain beti, bat ere proaktiboa. Eutsi bai, dezente, baina bultzatu gutxi. Segurtasuneko aukera politiko bat izan zen, eta hori hala izan zen. Eta horrek nor bere baitan ixtera eraman gintuen. Zu euspen-lerro baten barruan bazaude zure baitan sartuta bukatzen duzu eta hori, batik bat, lankide batzuengan ikusten nuen.* E11

Azterlan honen idazleengana eskuzabalki eta onginahiez gerturatu den pertsona bakoitzak bere lekukotza ekarri du, orokortzeko gogorik gabe, guztiz sinetsita norberaren esperientziak, oinaze, samin edo bidegabekeria bera sufritu duten beste pertsonenekin batera, kontakizun kolektibo bat eratzen lagunduko duela, eta euskal gizarteak berori mamitu beharko duela ulertu eta ikasteko. Hala pentsatzen zuen anonimotasunari eutsi nahi zion gure informatzaile batek.

*Ni borondatez nator hona, nahiago dut anonimotasunari eutsi, eta hein batean ez ahazteko nator hona. Eta, erratuta egongo ahal naiz, baina etorkizuneko belaunaldiei igortzen ari garen mezu hau... Ni, eta ni bezalako jendea, aldatzeko zailak diren kutsu eta kontu batzuekin hilko gara. Baina horrexegatik nator, alaba bat dudalako, eta ni ez naiz nire alabari gorrotoa irakasten ari. Oso zaila da niretzako alderdi horretaz gaizki ez hitz egitea (...). Niretzat ez da erraza hona etortzea, eta askotan urduri hitz egiten dut, niretzat ez delako erraza. Baina banator... denbora asko pasa da kontu horrez geroztik eta medikazioari esker hobeto nago, baina etortzeko betebehar morala dudalako nator, nolabait, eta ez dakit ezertarako balio duen, baina niretzat balio du. Eta nire egia kontatzeko da; nire ustez, gizarte honen zati handi baten egia da, baina ez da ikusi. Zenbat enpresaburu txiki egon da saminduta, lur jota, beldurrez bizitzen, familiari konta ezinik, bizitza normala egin izan ezinik (...) hor ETA dago. Ez soilik banda armatu moduan. Hor ETA dago, bizimodu jakin bat sortu duen legatu sozial gisa.* E8

Azkenik, aurreko lekukotzan eta arestian ekarritako beste batzuetan nabarmentzen den moduan, gure elkarrizketatu ugariri gizartea eraikitzeko nahiak inspiratzen die: etorkizunera begirako gizarte bat, iragana zer izan den argi jakinik, zer bidegabekeria egin diren, biktimen sufrimenduarekiko enpatiaz eta, ezin du bestela izan elkarrizketatzen ari garen kolektiboaren barruan, Ertzaintzaren zereginaren aitorpen irmoaz, agenteetako askok jazarpena jasan behar izan baitzuten beren lanbidearen esparruan eta beren bizitza pribatuan, beren zeregina betetze hutsagatik.

*Oso tristea da hori, egin ez duzun zerbaitegatik errudun sentitzea. Nik hori oso argi utzi nahi dut. Eta ondoko jendearekin gezurretan ibili behar duzula, esaten: "joan beharra dut"... gorde nahian bezala.*

*Sentsazio horixe da nik desagerrarazi nahi dudana. Horrek oso argi geratu behar du. Sentsazio horixe eduki dugu, ihes egiten duzuenean beldurtuta zaudelako dela –gure kasuan zerbaiti beldur diozula–, baina ez zuk zerbait egin duzulako, oso desberdina da. Nik hori nahi dut helarazi.* E12

# **5**. Antzeman diren giza eskubideen urraketen kalifikazioa

Behin ikerkuntza honetan izan ditugun datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertuta, ezinbestekoa da azpimarratzea ezen, Ertzaintza osatzen duten kideak, terrorismoaren aurkako borrokan hartutako konpromiso profesionalaz harago (kidegoaren helburuotako bat zen), jazarpen-indarkeria baten mende egon zirela ere, eta horrek berekin ekarri zituela bortxazko praktikak, ETAren mehatxu argia eta, hainbatetan, beren bizitza pribatuaren eta beren familien jazarpen kronikoa. Inguruabar horiek guztiek egoera jakin bat taxutu zuten, gizarte demokratiko batean lekurik ez duena; izan ere, sistematikoki urratu ziren, Espainiako ordenamendu juridikoan ez ezik, nazioarteko zuzenbideko testu nagusietan ere aitortutako oinarrizko eskubideak. Jarraian, antzemandako urraketak aztertuko ditugu, eta zehazki urratutako eskubidea izendatuko dugu.

Lehenago eman ditugun testigantzetan ikusten denez, batzuetan jazarpenarekin batera erasoak egoten ziren, eta, zenbaitengan, praktika horiek luzaro irauteak (kronifikazioa) kalte emozionala eragin zuen, hau da, estres iraunkorra edo trauma osteko estresa. Mehatxuok atentatu bihurtu zirenean, zauri konponezinak ekarri zituzten, baita batzuetan heriotza ere. Ildo horretan, pertsonen **osotasun fisiko eta moralerako eskubidea**[18] urratu zen eta, kasu larrienetan, baita **bizitzarako eskubidea**[19] ere.

Ertzaintzaren agenteek mehatxu terrorista zela-eta beren lanbideko zereginetan eta beren bizitza pribatuan praktikan jarri behar izandako muga eta gabeziei bagagozkie, eman dituzten lekukotzetan argi geratzen da **askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**ren[20] gain eragin dela: bai agenteena, bai haien familia osatzen duten senideena. Gure elkarrizketatuek jakinarazi dute zenbaitetan eguneroko errutinak aldatu behar izan zituztela eta, beste kasu larriago batzuetan, etxez ere aldatu behar izan zirela. Begien bistan da, kasu horietan, **joan-etortzeko askatasuna**ri eta **bizileku-askatasuna**[21]ri eragin zaiela.

Aztergai dugun fenomenoak lanbide batean askatasunez jarduteko aukera du iturburuan. **Lanerako eskubidea**[22] eta **lanbide edo ogibide bat askatasunez aukeratzekoa** funtsezkotzat hartzen dira; izan ere, lan-merkatura sartzeak eraginak ditu pertsona ororentzat, ez soilik bizibidea ateratzeko orduan. Elementu bereziki nabarmengarri bati ere eragiten dio: gizabanakoen parte-hartze eta inklusio sozialari, hain zuzen. Hori dela eta, oinarrizko eskubidea denez, ordenamendu juridikoko gorengo balioekin lotuta dago, hala nola, **nortasunaren garapen askea**[23] eta **pertsonaren duintasuna**[24].

18 Egonkortasun emozionalari edo osasun psikologikoari eragitea osotasun moralerako eskubidea oztopatzea da. Hain zuzen, pertsonen bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea da Espainiako Konstituzioaren II. kapituluko lehenengo atalean (*Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak*) jasotzen den lehena, 15. artikuluan. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (Nizako Gutuna) 3. artikuluan ere jasota daude.

19 Espainiako Konstituzio Auzitegiak zein Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hierarkia bat ezartzeari uko egin diote Giza Eskubideen aitortzari dagokionez; izan ere, horiek guztiek maila bera dute askatasun publikoen ohiko egikaritzean eta, ordenamendu juridikoaren balio gorena diren aldetik, estu lotuta daude pertsonaren duintasun-printzipioarekin (EKren 10. artikulua). Hala ere, aurrekoa horrela den arren, bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubideak betekizun ontologikoa dira eta hori gabe gainerako eskubideak ezin dira existitu. Bizitzarako eskubidea honako hauek jasotzen dute: Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 2. artikuluak, Nizako Gutunaren 2. artikuluak, eta 1976ko martxoaren 23ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 6. artikuluak.

20 Konstituzioaren 17. artikulua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (GEAU) 3. artikulua, GEEHren 5. artikulua, Nizako Gutunaren 6. artikulua eta EZPNIren 9. artikulua.

21 Bizilekua askatasunez aukeratzeko eta zirkulatzeko eskubidea honako hauetan jasotzen da: Espainiako Konstituzioaren 19. artikulua, GEEHren 4 zenbakiko protokoloaren 2. artikulua, Nizako Gutunaren 45. artikulua eta EZPNIren 12. artikulua. Pertsonen oinarrizko eskubidea izanik, Estatuak besterik ezin du mugatu, eta legeak ezarritako arrazoiengatik soilik.

22 Lanerako eskubidea eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen barruan sartzen da. Berau baliatzeko moduak direla-eta, eskubide subjektibo bat da, Estatuaren, gainerako botere publikoen eta hirugarren batzuen aurrean eska daitekeena. Eskuartean dugun kasuan, bereziki larria da eskubidearen gaineko eragina indarkeria terroristak ekarri zuela, lan-merkatuaren egiturazko inguruabarren edo Estatuaren arduragabekeriaren gisako faktoreez kanpo. Espainiako Konstituzioaren II. kapituluko 2. atalean, 35. artikuluan, aitortua. Halaber, nazioarteko testuetan ere aitorpen zabala du: GEAUaren 23. artikuluan, Nizako Gutunaren 31. artikuluan eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EESKNI) 6. artikuluan.

23 Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluan aipatua, pertsonaren duintasunarekin, legearekiko begirunearekin eta hirugarrenen eskubide batzuekin batera, esaterako, ordena politikoaren eta bake sozialaren funtsa.

24 Giza Eskubideen nazioarteko zuzenbidean usteen askatasunari aitortutako garrantzia –tolerantziarik ezaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko modu den heinean– Nazio Batuen Batzar Nagusien Adierazpenean (1921eko azaroaren 25ekoa) adierazi zen, erlijioan eta usteetan oinarritutako intolerantzia eta diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzkoan. 1.2 artikuluan hau ezartzen da: “Ezin

Bereziki kezkagarria da hainbat elkarrizketatuk jakinarazi dutela beren seme-alabak eskolatik atera behar izan zituztela, hasieran aukeratutakoak ez ziren beste zentro batzuetan matrikulatzeko; zenbaitetan, baita euskal hezkuntza-sistematik at ere. Kasu horietan agerikoa da **hezkuntzarako eskubidea** urratu dela, bereziki gurasoei beren seme-alabei **beren balio eta sinesmenekin bat datorren hezkuntza mota bat eskaintzeko aukera**[25] bermatzen dien alderdian.

Azkenik, agerikoa bada ere, nabarmendu behar da atal honetan aipatutako giza eskubideen eta askatasun publikoen aurkako erasoak Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan jasotako ordenamendu juridikoko gorengo balio guztiei kalte egitea dela, batez ere hauei: **askatasuna, berdintasuna, aniztasuna eta justizia**[26].

# **6**. Ondorio eta gomendioak

Gure ondorioa zera da: argi eta garbi, gizarte demokratiko batean itundutako bizikidetzarekin bateraezina dela ETAk, ikerlan honetan aztertutako denboraldian, Ertzaintzaren kolektiboaren gainean esplizituki adierazitako mehatxu orokorraren ondorioz agente batzuengan eta haien familiengan eragindako jazarpen eta indarkeria maila; izan ere, oinarrizko eskubideak eta askatasun publiko funtsezkoenak urratzen ditu. Jazarpen-indarkeriak askotariko agerpenak izan zituen, baina ezaugarri komunak agertzen ditu: norbanakoaren jazarpena (nabaria baitzen biktima ertzaina edo ertzain baten senidea zela), denboran zehar iraunarazia, gizartearen estigmatizazioa eta bazterketa morala. Prozesu horiek larriki hondatu dute bizikidetza demokratikoa eta kalteak eragin ditu eraginpeko pertsonen osotasun fisiko eta moralean. Ezinbestekoa da bi mutur horiek konpontzea (norbanakoarena eta kolektiboa), fase desberdinak eta elementu komunak dituen prozesu baten bitartez. Gertatutakoaren kontakizuna bidezkoa izan dadila lortu behar da; biktimek pairatutako sufrimendua lehen mailan jar dezala, haiekiko enpatia-prozesu bat lortzeko bide gisa. Elkarrizketatutako zenbait agenteengan zauri emozional jakin batzuk antzeman daitezke (sendagileak diagnostikatuak) eta, trauma osteko estres izendapenean bilduta, fenomeno horren berezko arrasto psikologikoak daudela ematen dute aditzera.

Zehaztu gabe dago zenbatek jasan zuen ETAren eta haren ingurunearen indarkeria. Txosten honen datu kuantitatiboetan behin betiko zifra bat kalkulatzen lagundu dezaketen zenbait irizpide dakartzagu. Lehen hurbilketa moduan balio dute, eta iritzi publikoari fenomeno honen inguruko judizio-elementuak helarazteko. Nolanahi ere, beste jarduera-esparruetan ez bezala, non eskoltako operazio bat esleitzeak nolabaiteko irizpide objektibo bat baitakar (nahiz eta egon daitekeen ETAren mehatxurako bestelako erremediorik), eskuarteko kasuan, adierazleak anitzagoak izan dira eta urteetan sakabanatuagoa egon da horien katalogazioa. Horiek horrela, komenigarria da lehendik ere dauden artxiboak miatzea, hertsapen terroristari jarri nahi izan zitzaion konponbidearen beste adierazle posible batzuk identifikatzeko.

Atal honetan proposamenak egin behar dira euskal iritzi publikoan eztabaida dinamiko bat sortzen laguntzeko, gertaera horien memoriaren eta biktimek merezi duten kalte-ordainaren inguruan. ETAk mehatxatutako pertsonek jasandako bidegabekeriari buruzko txostenean bezala –azterlan honek haren metodologia eta, hein batean, helburu berak ditu–, ondorioak eta gomendioak formulatzeko, Nazio Batuek sustatutako esparru bat hartu da erreferentzia gisa; hain zuzen, oroimen-eskubiderako prozesua ezartzera daramana. Hiru arlotan ardazten da: egiarako eskubidea, justiziarako eskubidea eta ordaina jasotzeko eskubidea[27]. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen diziplinan hainbat autore eta erakunde saiatu da, batetik, giza eskubideen urraketen biktimek *ordaina jasotzeko* duten *eskubidea* formulatzen (horien oinarrian Estatuek hartutako betebeharra dago; hau da, estatuko ordenamendu juridikora ekarri diren arlo horretako nazioarteko tratatuak betearazi eta aplikatzekoa), eta, bestetik eskubideok urratu zaizkien

izango da inor behartu, bere aukerako sinesmenak (…) edukitzeko askatasuna murrizteraino".

25 Beste behin ere, hezkuntzarako eskubidea herritarrek botere publikoei eska diezaioketen eskubide bat da, nahiz eta, oraingoan, horiez kanpoko eragile batek galarazten duen eskubidea guztiz baliatzeko aukera. Gurasoek beren sinesmenen araberako ikastetxea aukeratzeko bermea Espainiako Konstituzioaren 27.3 artikuluan dago jasota. Halaber, aitortuta dago GEEHaren protokolo gehigarriaren 2. artikuluan, Nizako Gutunaren 14. artikuluan, GEAUren 26. artikuluan, EZPNIren 18. artikuluan, EESKNIren 13. artikuluan.

26 Zerrenda horretara gehitu daitezke, orobat, justizia eta bakearen gisako balioak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren hitzaurrean askatasun publikoaren oinarritzat aipatuak, eta askatasuna, justizia, bakea eta berdintasuna, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko hitzaurrean aipatuak.

27 Joinet, Louis. *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos)*. Amaierako txostena, gutxiengoen bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri: http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html

ostean, biktimek *konponbide* eraginkor bat jasotzeko duten *eskubidea* formulatzen[28]. Hiru arlo elkarri lotuta dituen formula horrekin bat, gure azken gogoetak zenbait neurri proposatuko ditu arlo horietako bakoitzean. Puntu honetan, ETAk mehatxatutako pertsonek jasandako bidegabekeriei buruzko txostenean garatutako analisi-eredu bera darabilgu.

### A) Memoria eta egia

Felipe Gómezek azpimarratzen duen moduan,[29] memoriarako betebeharrak bi urrats eskatzen ditu: *ezagutza* eta *aintzatespena*. Egiaren eta gertaeren ezagutza, eta biktimen sufrimenduaren aintzatespena. Fase honek eragiten die (eta mesede egiten die) oinarrizko eskubideak urratu zaizkienei eta gizarte osoari ere bai. Guillermo Múgicak[30] zentzu handiz adierazten duen moduan, egiak "*gure baitan dagoen gizagabetasun beldurgarri eta lazgarria jarri ahal du agerian*". Horrexegatik, gertaeren azalpena ez da ariketa abstraktu bat; aitzitik, helburu zehatzek sustatutakoa izan behar da:

- Indarkeriaren bidegabekeria, eta beraz, biktimen errugabetasuna aintzatestea erraztea.
- Giza eskubide urraketa guztiak onartezinak direla onartzea, bai eta azaldu diren gertaerak ere.
- Bizi izandako egoeretan zenbait elementu patologikok (tolerantziarik eza, aniztasunaren bazterketa, norberaren iritziak indarrez inposatzea, gizabanakoa ukatzea...) izan duten eginkizuna ulertzea.
- Memoriak orainaldiarekin lotuta egon behar du, eta are gehiago, orainaldia azaltzen lagundu behar du. Iragan kaltegarriari begiratzen diogu eta aztertu egiten dugu, oraingo balio irmoetatik abiatuta. Saihestu behar da Martinez de Bringasen[31] memoriaren fetitxismoa deritzona; orainaldia menperatzen duten iraganeko dinamikak. Ariketa politiko horrek sorrarazi zuen Hannah Arendt-ek gaizkiaren banalizazioa deiturikoa.

Hori bai, memoria egitea, abstraktuan, alferreko ariketa izan daiteke, aipatu ditugun hurrengo bi faseei begira ez badago. Alde batetik, memoria justiziari zuzendutakoa izan behar da, gero ikusiko dugun bezala. Horrek aurresuposatzen du azaldutako gertaerak ezin direla berriro gertatu. Bestetik, memoria erabat egoera anomaloa konpontzeko helburua izan behar du. Horregatik, memoria ezin da sumindura edo gorrototik abiatu; aitzitik, gertatutako ulertzera eraman behar gaitu (ulertzea, iraganaz kontzienteak izan), etorkizunerantz adiskidetuta urratsak ematen dituen gizarte dinamiko batera iristeko aldez aurreko hausnarketa gisa.

### B) Justizia eta ordaina ematea:

Justiziaz ari garenean, ez dugu bakarrik aipatzen epaile eta magistratuek inpunitatea ekiditeko egiten duten lana. Batez ere, gizarteak, oro har, iritzi publikoak biktimei laguntzeko zer egin dezakeen pentsatzen ari gara, biktimei eta bizikidetza demokratikoari kendutakoa itzuli, sendatu eta konpontzen laguntzeko egin dezakeena. Gure iritziz, justizia eskuratzeko ekintzek helburu objektibo hauek izan behar dituzte:

- Biktimen sufrimenduarekiko enpatia, hau da, laguntza ematea eta elkartasuna adieraztea. Aurreko fasean esan dugun bezala, jasandako sufrimenduaren inguruan kontakizuna eraiki duen gizarte batek aitortu behar du bidegabekeria hori, eta eskubideak urratuta eduki zituzten pertsona horiekin sentibera izan behar du. Komeni da azpimarratzea, lehen esan bezala, horrek ez duela esan nahi biktimen ideologiarekin ados egotea[32]. Desadostasun politikoa zilegi da gizarte guztietan eta beharrezkoa da, hain zuzen ere, justiziaren prozesua eta eztabaida ideologikoa bereiztea. Hortxe dago, baita ere, eskuzabaltasun demokratiko eta desberdinen arteko bizikidetzaren ariketa garrantzitsu bat.

---

28 Gure proposamenak lan hauek hartuko ditu kontuan: Gómez Isa, Felipe (zuz.). *El derecho a la memoria*, Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006; eta Múgica Munárriz, Guillermo; "Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA", hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.). *Con las víctimas del terrorismo*, Vitoria-Gasteiz: Gakoa, 2009, 119.-137. or.

29 Joinet, Louis. La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos). Amaierako txostena, gutxiengoen bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri: http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html

30 Gómez, F. "El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos". Hemen: Gómez, F. (dir) *El derecho a la memoria, op. cit. 37.-40. or.*

31 Múgica Munárriz, G. "Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA" *op.cit.* 127.-128. or.

32 Martínez de Bringas, A. "De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria". Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria, op. cit. 270.-275. or.*

- Datu kualitatiboen analisian nabarmendu dugu mehatxatutako pertsonak gizarte-estigmatizazioko prozesu baten menpe egon zirela. Beharrezkoa da pertsona horiei errehabilitazio soziala eta morala eskaintzea. Kendutako edo zalantzan jarritako balioa eta duintasuna berriro itzultzea.
- Aztergai izan genituen pertsonak hertsatuak eta jazarriak izan ziren, hain zuzen, libreki lanbide bat aukeratu zutelako, zerbitzu publiko bat betetzera daramana. Iritzi publikoaren aurrean balioa ekarri behar zaio haiek, norberarentzat kostu handiarekin, beren zereginetan irauteko jarri zuten indar eta ahaleginari.
- Biktimen galera konponezina da. Ezinezkoa da sortutako kaltea erabat ordaintzea. Inork ezin dizkie biktimei itzuli kendutako denbora, galdutako aukerak, kendutako integritate fisiko eta morala eta, are gutxiago, senideren bat hil zietenean. Gizarteak biktimei eskaini ahal dien modu bakarra da etorkizun desberdina eraikitzea, hainbeste sufrimendu sortu zen iraganeko garai horretatik urrun. Horrek beste fase bati ekitera garamatza: ulertze eta adiskidetzea.
- Orain arte esandako guztiagatik, justiziak kalte-ordaina ekarri behar du. Europar Batasuneko legeriak ematen duen definizioaren arabera, justizia leheneratzailea hau da: “biktimek eta arau-hausleek, horretarako baimena askatasunez ematen badute, zigor arloko arau-haustearen ondoriozko arazoei irtenbidea ematea ahalbidetzen duen prozesua, hirugarren inpartzial baten laguntzaz”[33].

**C) Ulertzea eta gizarte-adiskidetzea**

Gizarte-adiskidetzea, komunitate-politika den aldetik, memoria, justizia eta leheneratzeko prozesu guztien azken helburua da. Adiskidetzerik gabe, bakea su-eten bat izango litzateke, luzeagoa edo laburragoa, eta gizarte-haustura gailenduko litzateke. Fase honetan, beharbada, barkamena egon daiteke, baina baldintza hori ez dugu hemen sartu, oso ekintza pertsonala eta borondatezkoa baita, eta ezin da inoiz halakorik eskatu. Barkamenaren ordez, ulertzeko baldintza sartu dugu. Hannah Arendt-ek ulertzeari eta adiskidetzeari buruz hitz egin zuen:

> *Adiskidetzea ulertzearekin batera doa, ezinbestez, eta horrek* tout comprendre c´est tout pardonner *ohiko gaizki-ulertzea ekarri du. Hala ere, barkamenak ia-ia ez dauka zerikusirik ulertzearekin, ez baita horren baldintza, ezta ondorioa ere. Barkamena (zalantzarik gabe, gizakiaren gaitasun handienetako bat, eta, beharbada, ekintzarik ausartena, itxuraz ezinezkoa dena -egindakoa desegitea- egiten saiatzen delako, eta dena amaituta zegoela zirudienean, hasiera berria ezartzea lortzen duelako) ekintza bakarra da eta ekintza bakar batean amaitzen da. Ulertzeak, ordea, ez dauka amaierarik, eta beraz, ez du egiazko emaitzarik sorrarazten; gizakien bizimodu espezifikoa da, gizabanakoak arrotz bezala jaio den munduarekin adiskidetu beharra daukalako, eta mundu horretan arrotz bezala jarraituko du beti, bere bakartasun espezifikoa dela-eta… Totalitarismoa ulertzeak ez dakar barkamena berekin, aitzitik, halakorik gerta daitekeen munduarekin adiskidetu ahal garela esan nahi du.* [34]

Egile alemaniarraren definizioaren arabera, ulertzeak adiskidetzeko prozesu politikoaren giza alderdiak eta gizartearenak aintzatestera bultzatzen gaitu. Ondorioz, adiskidetzea honela definitu daiteke: topaketa publikoaren prozesua, non tarteko pertsonek, komunitate politiko gisa, jasandako oinarrizko eskubideen urraketa eta bidegabekeriak onartezinak direla aitortzen duten. Prozesu hori harremanen esparru berria eraikitzeko oinarria da, eta esparru berri horretan giza harremanen etikarekiko eta arau demokratikoekiko begirunea bide bakarrak dira etorkizunean sor litezkeen auziak konpontzeko, betiere gertaera horiek berriro ez gertatzeko helburuari begira [35].

ETAren eta bere ingurunearen erasoen kasu honetan ertzainen kolektiboarenganako, biktimarioek beraiek irmotasunez adierazi behar dute adiskidetzeko konpromisoa, eman dugun definizioarekin bat etorrita. Adiskidetzeko prozesu baterako ezinbesteko urratsak dira, batetik, bidegabekeria eta kaltea egin dela berariaz eta zintzotasunez adieraztea, eta bestetik, iraganeko akats berdinak ez errepikatzeko konpromisoa adieraztea. Adiskidetzeko prozesua berez luzea izango da eta oztopoz beteta egongo da, irain, susmo, gaitzespen, aurreiritzi, gaizki-ulertze… ugari gainditu beharko dituelako. Sentimendu negatibo asko daude metatuta eta horrek esan nahi du erakunde pribatu eta publikoek topaketa-foroak

33 Múgica, G. op. cit. p. 131.

34 Múgica, G. op. cit. 131. or.

35 2.1. artikulua. Europar Batasunaren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideen, laguntzaren eta babesaren inguruko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordezten du.

antolatzeko lan handia egin beharko dutela, erakunde horiek baitira hausnarketa-prozesuen gidariak edozein gizartetan. Biktimek eta biktimarioek komunikazio-espazioak izan beharko lituzkete adiskidetutako gizarte baterako konpromisoa adierazteko, bizi izandako trauma hutsaltzeko edo ahazteko, jasandako kolpeak biktimarioei itzultzeko tentazioak ezabatuta.

## Prozesu hau ezartzeko iradokizunak

- ETAk mehatxatutako pertsonen sufrimendu bidegabea iritzi publikoari aurkeztea eta ezagutaraztea, biktimen ikuspuntuarekin, gertaeren kontakizuna eragindako kaltearen uste sendotik abiatzeko. “Biktimen ikuspuntua bereganatzea beharrezko baldintza da benetako diskurtso etiko baterako, bereziki, indarkeriaren gaiari heldu nahi bazaio. Are gehiago, ziur aski biktimen ikuspegia gehitzeak benetako iraultza etiko bat ekarriko du”[36].
- Dagoeneko hasita dauden laguntza psikiatriko-psikologikoak emateko lanekin jarraitu, jazarpen terroristaren eta etengabeko mehatxuaren ondorioz osasun arazoak izan dituen Ertzaintzaren kolektiboko pertsonei laguntza emateko. Luzaroan jasandako larritasun egoera horrek utzi ahal izan ditu, eman dizkiguten testigantza batzuen esanetan, indarkeria horren ondorioz eragindako pertsonen jokaeran hainbat gorabehera.
- Sustatu behar da gizarteak ertzainen senideek jasandako sufrimendua aitor dezala, baita haiek egin behar izan zituzten ukoak ere, haiei ere hedatu zitzaizkienez hasieran, ertzain izateagatik, beraien senideen aurka abian jarritako jazarpena eta erasoa. Aitorpen hori izan da egin ditugun elkarrizketetan gehien adierazitako eskaera, edozein dela ere azkenean aitorpena egiteko aukeratzen den modua. Jakinarazi digutenez, ondo ikusiko lukete kidegoaren gobernu-erakundeak izatea aitortzeko prozesu horren buru.
- Biktimek jasandako erasoak, hertsapenak eta jazarpena ez erlatibizatzea ekidin ezinezko zerbait izan balitz bezala. Biktimarioen gertaeren erantzukizuna ulertzea.
- Jarraitu behar da Ertzaintza eta ertzainak gertuko polizia gisa sustatzeko lanean. Bereziki garrantzitsua da Ertzaintzako emakume eta gizonen aitorpen publikoa sustatzen jarraitzea, estigmatizatuak eta gizartearen esparru askotatik moralki baztertuak izan diren zerbitzari publikoak diren heinean. Polizia-kidegoak gizarte zuzenago baten eraikitzaile moduan ulertu behar dira. Indarkeria terrorista jasan zuten pertsona eta kolektiboak aldarrikatuak izan behar dira, eta, hain zuzen, indarkeria terroristaren biktimen esperientziaren argitan nabarmendu behar da Ertzaintzaren balioa, bere helburuen artean dituenez, eta hala lagundu izan duenez, terrorismoaren aurkako borrokan eta askatasun publikoen babesean.
- Aztertu behar da beste autonomia-erkidego batzuetako gobernuekin erakundearteko ekintzak egiteko aukera, edo Gobernu zentralarekin, Ertzaintzak terrorismoaren aurkako borrokan izandako zeregina aldarrikatu dadin. Gure elkarrizketatu batzuek agerian jarri dutenez, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kanpoan ez dute ondo ezagutzen kidegoak egiten duen lana eta zer esanahi duen ETAren aurkako borrokan.
- Gure elkarrizketatu batzuek (hala jardunean diren ertzainak nola bajan edo erretiratuta daudenak), maila desberdinetan, jakinarazi dute erakundeengandik nolabaiteko babesgabetasun-sentsazioa jaso zutela eraso terroristaren urte latzenetan beren lana betetzen ari zirenean, eta laguntzan gabeziak izan direla ondorengo laguntza psikoterapeutikoan. Gure gomendioa zera da: ertzainen kolektiboarekin (jardunean egon nahiz ez) harremanak izateko tresnak ezartzea, atsekabe hori hautemateko eta, egokitzat jotzen bada, berori arintzeko neurriak abiarazteko.
- Ertzaintzaren biktimen ikuspuntua azaltzen duten eta herritarrengan enpatia sortzen laguntzen duten fikzio-lanak eta arte-sorkuntzakoak sustatzea.
- Erakunde publikoek bizikidetza zibikorako kultura leheneratzeko lanean jarraitzea, eta kultura horri kalte egin eta txosten honetan salatu diren praktikak gaitzesten jarraitzea.
- Txosten honen edukia hedatzea, bertan jasotzen diren testigantzei eta jazarpen praktiken bidez

36 Bilbao, Galo eta Etxeberria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005, 34. or.

urratutako giza eskubideen salaketari ahotsa eman nahian. Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak ekarpen baliotsua egin dezake topaketak, bizipenen trukaketa eta eztabaidak dinamizatzeko, terrorismoaren erasoa jasan eta eskolta eduki behar izan zuten pertsonen errealitatea gizarte osoari ezagutarazteko.

- Ikerketa-lan honen helburu berdinak dituzten elkarteen arteko topaketak sustatzea, memoria, justizia eta gizarte-adiskidetze faseei edukia eman behar dien iritzi-aniztasun sortzaileari ahotsa emateko.
- ETAko kideak edo mehatxatzen zuen inguruneko kideak izan ziren eta orain autokritika egiten duten pertsonen testigantzak iritzi publikoari eskaintzea. Biktimei eta gizartearen bizikidetza demokratikoari eragindako kaltea aintzatesteko prozesuan komenigarria da hausnarketa-guneak izatea, giza eskubideen urraketan parte hartu zutenek publikoki egin dezaten itzultzeko bidea.

# **7.** Bibliografia


Arartekoa, *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeen emandako arreta. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia*, Vitoria-Gasteiz: Herriaren defendatzailea-Defensoría del pueblo, 2009ko ekaina.

Arendt, Hannah “Comprensión y política (Las dificultades de la comprensión)”. Hemen: *Daimon, Revista de filosofía*, 26 zk., 2002, 17-18. or.

Arendt, Hannah. *Eichmann en Jerusalén*, Bartzelona: DeBols!illo, 2009.

Azurmendi, José Félix*, ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato*. Donostia: ttarttalo, 2014.

Bilbao, Galo eta Etxeberria, Xabier. *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo: Bakeaz, 2005.

Dávila, Cirilo. *Historia de la policía autónoma vasca (1936-2006).* Bilbo: Elea Argitaletxea, 2006.

Etxeberria Mauleón, Xabier; *Dinámicas de la memoria y víctimas del terrorismo*, Bilbo: Bakeaz, 2007.

Gómez Isa, Felipe. “El derecho de las víctimas a la reparación por violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos”. Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria,* Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 23-75. or.

Joinet, Louis. *La cuestión de la impunidad de los autores de violaciones de los derechos humanos (civiles y políticos).* Amaierako txostena, gutxiengoen bereizkeriaren eta babesaren prebentziorako azpibatzordearen 1996/119 erabakiaren aplikazioan, 1997. Hemen eskuragarri:http://www.derechos.org/nizkor/doc/joinete.html

Martín-Peña, Javier. *El acoso y la violencia psicológica aplicada por el entramado terrorista en Euskadi: Análisis psicosocial de sus componentes y efectos*, Bartzelonako Unibertsitatean defendatutako doktorego-tesia, 2011.

Martín-Peña, Javier; Opotow, Susan y Rodríguez-Carballeira, Álvaro. “Amenazados y víctimas del entramado de ETA en Euskadi: un estudio desde la teoría de la exclusión moral”. Hemen: *Revista de psicología social,* 26:2, 2011.

Martínez de Bringas, Asier. “De la ausencia de recuerdos y otros olvidos intencionados. Una lectura política de los secuestros de la memoria”. Hemen: Gómez, F. (zuz.). *El derecho a la memoria,* Bilbao: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2006, 267.-294. or.

Múgica Munárriz, Guillermo. “Algunos retos y tareas de un futuro post-ETA”. Hemen: Duplá, A. eta Villanueva, J. (koord.). Parrilla, 2009, 119.-137. or.

Nordquist, Kjell Åke. “¿La verdad de quién? ¿Cuál reconciliación? Sobre la reconciliación como concepto político”. Hemen: *Estudios de filosofía*, 2008, 491.-497. or.

Pérez, Kepa. *La violencia de persecución en Euskadi*, Bilbo: ADDH eta Eusko Jaurlaritza, 2005.

# **5.** dokumentua

**Euskadin gertatutako**
**tortura-kasuak**
ikertzeko proiektua
(1960-2013)

# **Euskadin gertatutako tortura-kasuak** ikertzeko proiektua (1960-2013)

Jardueraren memoria/laburpena

Francisco Etxeberria
Carlos Martín Beristain
Laura Pego

Kriminologiaren Euskal Institutua
Instituto Vasco de Criminología

**2016ko ekainaren 27a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
**enkarguz egina**

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaria General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Victimas y Derechos Humanos

## **1**. Ikerketa-taldearen antolaera.

## **2.** Sarrera.

2.1. Torturaren erabilerari buruzko kezka.

2.2. Beharrezko ikerketa.

## **3.** Definizioak eta kontzeptu-esparrua.

## **4.** Egindako jarduerak.

4.1. Iturri nagusiei buruzko informazio-bilaketa.

4.2. Bigarren mailako iturriei buruzko informazio-bilaketa.

4.3. Ikerketari buruz egindako kongresua.

## **5.** Emaitzak.

5.1. Estatistika-datuak.

5.2. Auzitegi nazionalen eta nazioarteko erakundeen zein auzitegien ebazpenak.

5.3. Peritu-frogaren elementuak.

## **6.** 202 tortura-kasuen alegazioen analisi egituratua Istanbulgo Protokoloaren bidez.

6.1. Sarrera eta oinarria.

6.2. Materiala eta metodoak.

6.3. Koherentzia aztertzeko adierazleak peritu-txosten psikologikoaren irizpide klinikoetan oinarrituta.

6.4. Istanbulgo Protokoloaren azterketaren emaitzak.

6.5. Istanbulgo Protokoloaren azken ondorioak.

## **7.** Behin-behineko emaitzak.

## Eranskina.

Kongresuaren programa (EHUko udako ikastaroak).

**Aurretiko oharra**:

Dokumentu hau gauzatutako ikerketaren sintesi laburtu bat da. Ikerketa hori 2016. urtearen amaiera aldera amaituko dela aurreikusi da.

# **1.** Ikerketa-taldearen antolaera

**Zuzendaritza:**

- Francisco Etxeberria (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra Euskal Herriko Unibertsitatean)
- Carlos Martín Beristain (Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian mediku espezialista)
- Laura Pego (Zuzenbidean lizentziatua. Kriminologian masterra. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)

**Nazioarteko behatzaileak:**

- Elisabeth Lira (psikologoa, Comisión Valech batzordeko kidea, Txile)
- Helena Solà (jurista, Torturaren Aurkako Munduko Erakundea, Suitza)
- Nuno Viera (auzitegi-medikua, Legezko Medikuntzaren Europako Kontseiluaren presidentea)

**Administrazio-kudeaketa:**

- Eva García (teknikari administraria)

**Dokumentazioa eta informatizazioa:**

- Rakel Perez (Kriminologian graduatua)
- Leire Padilla (Kriminologian graduatua)
- Maider Urretabizkaia (Kriminologian graduatua)
- Maite Alvarez (Kriminologian graduatua)
- Cristina Martín (Aranzadi Zientzia Elkartea)
- Anais González (Aranzadi Zientzia Elkartea)

## **A)** Errolda egiteko informazio orokorra eta espezifikoa jaso eta tratatuko duten pertsonak

**Iturri nagusiak, biktimen lekukotasunak eta salaketak:**

- Zuzendaritza: Francisco Etxeberria (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Eztizen Miranda (Informazio Zientzietan lizentziatua)
- Iñaki Rebolledo (ingeniaria)
- Igone Etxeberria (Medikuntzan lizentziatua)
- Javier Buces (Historian lizentziatua)
- Maider Urretabizkaia (Kriminologian graduatua)
- Maite Alvarez (Kriminologian graduatua)

**Bigarren mailako iturriak jasotzea, berrikustea eta aztertzea:**

- Zuzendaritza: Laura Pego (Zuzenbidean lizentziatua, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Rakel Perez (Kriminologian graduatua)

- Leire Padilla (Kriminologian graduatua)

### Analisi juridikoa:

- Zuzendaritza: Laura Pego (Zuzenbidean lizentziatua, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Aholkularitza: Ignacio Muñagorri (Zigor Zuzenbidean katedraduna, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Aholkularitza: Ana Pérez Machio (Zigor Zuzenbidean doktorea, Kriminologiaren Euskal Institutua)

## **B)** B) Tratu txarren eta torturen salaketen fidagarritasuna ikertzeko peritu-protokoloa

- Zuzendaritza: Benito Morentin (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitatea)

### Taldeen koordinatzaileak:

- Benito Morentin (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Olatz Barrenetxea (Psikologian lizentziatua)
- Miguel Angel Navarro Benito (Psikologian lizentziatua)

### Psikologoen talde teknikoa:

- Iñaki Markez Alonso (psikologoa)
- Itziar Caballero (psikologoa)
- Julene Zuazua Alvarez (psikologoa)
- Sofia Abaitua Zarza (psikologoa)
- Ainara Zuazo Corral (psikologoa)
- Haizea De la Llosa de Dios (psikologoa)
- Myriam Ruiz Gonzalez (psikologoa)
- Urko Zalbidea Carbajal (psikologoa)
- Teresa Gómez Higuero (psikologoa)
- Anik Zubizarreta (psikologoa)
- Iñigo Ibaizabal (psikologoa)
- Irune Korres (psikologoa)
- Jon Ibañez de Opakua (psikologoa)
- Ixone Legorburu (psikologoa)
- Maribi Armendariz (psikologoa)
- Maritxu Jimenez (psikologoa)
- Nagore López de Luzuriaga (psikologoa)
- Ainara Iraizoz Lizarra (psikologoa)
- Ana Gil (psikologoa)
- Jeannete Ruiz (psikologoa)

- María Beloki Tere (psikologoa)
- Marian Mendiola (psikologoa)
- Yolanda Resano Arredondo (psikologoa)
- Eider Zuaitz (psikologoa)
- Maddi López López (psikologoa)
- Iraitz Ortega Sunsundegui (psikologoa)
- Mayi Sarasketa Bengoa (psikologoa)
- Haizea de la Llosa (psikologoa)
- Iñaki Marzkez (psikologoa)
- Leire Zelaia Viguera (psikologoa)
- Irune Korres (psikologoa)

**Kanpoko psikiatraren ikuskapena:**

- Pau Pérez Sales (Psikiatrian doktorea)

**Istanbulgo Protokoloaren amaierako txostena egitea:**

- Benito Morentin (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitatea)

## **C)** C) Kasu adierazgarrien azterketa kualitatiboa, jakiteko zein den biktimen giza esperientzia, zein izan diren ondorioak, zein jasotako erantzun sozialak eta instituzionalak, eta zein izan den biktimen bizitzan izandako eragina

- Carlos Martín Beristain (Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian mediku espezialista)

## **D)** Informe final de la investigación.

- Francisco Etxeberria (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra)
- Carlos Martín Beristain (Medikuntzan doktorea. Osasunaren Psikologian mediku espezialista)
- Laura Pego (Zuzenbidean lizentziatua. Kriminologian masterra. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)

# 2. Sarrera

Azken bost hamarkadetan, tortura eta tratu txarrak Euskadiko egoeraren eta eztabaida politikoan egon dira. Salaketa ugari izan dira aztertutako 1960/2013 aldian, hainbat arlotan, bereziki terrorismoaren aurkako inkomunikazio-erregimenean, bai eta, azken hamarkadan, polizia-egoitzetan egondako etorkinenak ere.

Torturen eta tratu txarren salaketak aztertutako aldi guztian ematen dira, noiz gehiago noiz gutxiago, diktadura frankistaren urteetatik trantsizio politikora arte; are ikertutako aldiaren amaierara arte ere. Hala ere, fenomenoaren luze-zabala desberdina izan da, eta borroka politikoak hura giza eskubideen arloko arazo gisa ikustea eragotzi du, gehiago interesatu baitzaio Estatua auzitan jartzen zen gaia edo gertatutakoak ukatzea, hau da, legitimitatearen aldeko borroka; bitartean, salaketa ugari pilatu dira eta biktimek ez dute errekonozimendurik jaso.

## 2.1. Torturaren erabilerari buruzko kezka

Diktaduraren garaian, tortura sistematikoa eta orokortua zen oposizio politiko eta sindikaleko pertsonak atxilotzen zirenean; gainera, zaintzapean zeuden pertsonak hil ziren. Tortura-delitua ez zegoen tipifikatuta, eta ez zegoen lege-testuingururik hura ikertu edo prebenitu ahal izateko. Ikerketa honen hasieran elkarrizketatutako biktima batzuen ustez, diktaduraren aurkako edonork bazekien torturak pairatuko zituela atxilotzen bazuten.

Egoera hori trantsizio politikoaren lehen urteetan luzatu zen, haren lehen arau-garapena gertatu arte, 31/1978 Legearekin, Konstituzioa onartu arte behintzat, nahiz eta polizia-jokabidea legeak baino askoz motelago aldatu ziren. 90eko urteetara arte, inkomunikatuta zeuden pertsona askoren salaketek ohikoak izaten jarraitu zuten terrorismoaren aurkako legea baliatuta atxilotutakoen artean, eta garai berean zaintzapean zeuden zenbait pertsona hil ziren. Tortura jasota zegoen Zigor Kodean, baina lesioengatiko delitutzat jotzen zen, eta ez giza eskubideen urraketa larritzat. Eta ikerketa judizialaren ikuspuntutik, nahiz eta 80ko urteen erdialdetik aurrera auzitegi-medikuek esku hartzeko aukera eduki eta zenbait berme judizial izan, tortura-salaketa ugariek nekez egin zuten bidea, eta horietako batzuek bakarrik izan zituzten epai judizial irmoak, zenbait urte igarota eman arren. Hala ere, kasu asko ez ziren behar adina ikertu, edo, besterik gabe, atariko eginbideetan geratu ziren.

1978an terrorismoaren aurka onartutako legearen xedapen (judizialek) aukera ematen zuten atxilotuak abokatu-laguntzarik eta benetako kontrol judizialik gabe inkomunikatuta mantentzeko, hamar egunez 1987 bitartean atxilotutakoen kasuan, eta bost egunez geroago, eta Espainiako Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak hura «askotan torturaren gune bihurtzen den gunea» zela esan zuen (Mohedano, 1986). Azken hamarkadetan egindako zenbait bisitatan, Europar Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostenek[1] esan dute tortura kasuak daudela, aldaketak sustatu behar direla terrorismoaren aurkako legedian, eta zaindu eta berrikusi egin behar direla poliziak presoak atxilotu, galdekatu eta garraiatzean erabiltzen dituen metodoak. Amnistia Internazionalak ere 70eko urteen amaieratik gaur egun arte izandako tortura-salaketak edo tortura-kasuei emandako tratua jaso ditu, batzuetan txosten espezifikoen bidez, beste batzuetan urteroko txostenetan, eta proposamenak egin ditu atxilotuei ematen zaien tratua hobetzeko, eta, Gobernuak sistematikoki dioen bezala, salaketa batzuk faltsuak izateko arriskua saihesteko. Beste kasu batzuk ere ezagutu eta salatu dira, batez ere etorkinek izandakoak.

Giza eskubideak kontrolatzeko nazioarteko erakundeen txostenek, ikerketa-erakundeek eta -taldeek egindako azterketa enpirikoek eta Espainiako goi-mailako auzitegiek ez ezik, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak ere emandako ebazpenetan gai honetan kezka-iturriak diren hainbat arazo jaso dituzte eta ikerketa hau egiteko beharraren oinarria ezartzen dute; besteak beste hauek dira kezka horiek:

- Inkomunikatutako atxilotuen eskubideen bermea eta babesa.
- Zer neurritan betetzen dituen Estatuak nazioarteko eta tokiko kontrol-organoek torturari aurrea hartzeko egindako gomendioak.

1 Torturaren Prebentziorako Batzordearen txostenak isilpekoak dira, eta ezin dira argitaratu eragiten dion gobernuak baimenik eman gabe.

- Barne-ikerketa edo ikerketan laguntzea.
- Auzitegiek tortura-salaketak ikertzea.
- Auzitegi-medikuen esku-hartzea.
- Fenomenoa aitortzeko politikak, edo epaiei eta indultuei ematen zaien erantzuna.

Aldi guztietan, torturaren biktimek ez dute izan benetako errekonozimendu sozialik edo juridikorik, eta ez da politika egokirik egin errekonozimenduaren nahiz kalte-ordainen esparruan. Bestalde, oro har alarmistatzat, are kaltegarritzat ere eta sasiko interes politiko batzuetan oinarritutako gehiegikeriatzat hartu dira, edo besterik gabe kontuan hartu gabe utzi, giza eskubideen aldeko erakunde askok (Amnistia Internazionalak, adibidez) eta nazioarteko beste erakunde batzuek (besteak beste, Europar Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak eta Torturaren aurkako Nazio Batuetako Batzordeak) proposatutako prebentzio-neurriak eta kontalariek Espainiako torturari buruz egindako txostenak. Bitartean, zenbait kasu iritsi dira hurrenez hurren Giza Eskubideen Europako Auzitegira, eta haietan Espainiaren aurkako kondena-epaiak eman dira kasu horiek ez ikertzeagatik.

## 2.2. Beharrezko ikerketa

Azken hamarkadetako tortura fenomenoa iker dezan lantalde honi egindako eskaera ***2013-16rako Bake eta Bizikidetza Plana***ren baitako ekimenetako bat da***.***

Planean esaten den bezala *«Tortura giza eskubideen urraketen artean gaitzesgarriena da. Fenomeno hori gerta daiteke, zeren atxilotuekiko tratuak gertatzen diren tokiak eta atxilotze-aldia kontrolpetik at gera baitaitezke. Opakutasunak zigorgabetasun-egoerak sortzen ditu eta zigorgabetasunak, aldi berean, horrelako praktiketarako egoera ezin hobeak. Tortura gertatzen den susmo zentzuduna izate hutsak zalantza hori argitzera bultzatu beharko luke giza eskubideekin eta demokraziaren balioekin konprometitua dagoen pertsona edo erakunde oro, baita fenomeno hori ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzera ere. Tortura gertatzeko aukera dagoela detektatzeak eta horri erantzuteak ez ditu sistema demokratikoa eta polizia-kidegoak ahultzen; aitzitik, haien legitimitatea eta sistema demokratikoarekiko konpromisoa areagotzen du». Geroago, hau dio: «Administrazioaren betebehar etiko, politiko eta legezkoa da herritarrei segurtasunez bermatzea atxilotuei ematen zaien tratuan giza eskubideak errespetatzen direla eta, nolanahi ere, fenomeno hori ez gertatzeko eta, gertatuz gero, detektatu eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen direla».*

Torturaren fenomenoaren benetako eraginari buruz irizpide zientifikoetan oinarrituta egindako ikerketa zorrotz eta independente horren bidez, fenomenoaren benetako eragina zein den jakin nahi da, eta errekonozimendu- eta prebentzio-neurri egokiak bideratu.

Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan Mª Uriarteren **Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)** lana Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta egin zen 2013ko ekainean, gure herrialdean asmo politikoekin egindako indarkeriaren testuinguruan 1960. urteaz geroztik egiaztatutako giza eskubideen urraketak sailkatzeko eta kuantifikatzeko, eta hartan esaten da tortura ikertu beharreko errealitateetako bat dela, salaketa-kopuruari buruzko datu batzuk emateaz gain: *Ez dago behar adina datu egiaztaturik. Jarrerak desberdinak dira: batzuek ukatu egiten dute; beste batzuek, aldiz, 10.000 kasu daudela aipatzen dute. 5.500 salaketa publiko egiaztatuta daude (bi aldietako salaketa judizialak eta estrajudizialak batuta). Giza eskubideen arloko nazioarteko erakundeen arabera, haren erabilera, ohikoa zena laurogeiko urteetara arte, oraindik «noizbehinkakoa baino handiagoa» da. Horrek guztiak argi uzten du gehiago ikertu behar dela*.

Hori guztia ikusita, lantaldeak ikerketa bat egiteko eskatu zuen; haren bidez, ebidentzia zientifikoetan eta kasuen azterketan oinarrituta, arazoaren benetako irudia emateko.

Proposamen horiek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak «**Euskadin izandako tortura ikertzeko proiektua (1960-2010)**» ikerketa-lan hau eskatu zion Kriminologiaren Euskal Erakundeari. Proiektua bost ikerketa osagarriren bidez egituratuko da:

- Dokumentu bidezko azterketa-txostena, torturaren zigorgabetasuna justifikatzen duten balizko elementuak eta torturak irauten duela adierazten duten zentzuzko aztarnak izateari buruzkoa.
- Arazoaren muntara globalki hurbiltzea errolda bat eginez.
- Salaketen sinesgarritasuna balioestea, bi alderdi hauek baliatuz:
  - Ikuspegi estatistiko transbertsala, salaketen sinesgarritasun globala aztertzeko.
  - Aditu-ikuspegia Istanbulgo Protokoloaren bidez, salaketen banakako sinesgarritasuna aztertzeko.

- Kasu adierazgarrien azterketa kualitatiboa, jakiteko zein den biktimen giza esperientzia, zein izan diren ondorioak, zein jasotako erantzun sozialak eta instituzionalak, eta zein izan den biktimen bizitzan izandako eragina.

Azken txostena idaztea. Ondorioak eta gomendioak, torturaren eta tratu txarren ikerketa, errekonozimendu, ordain eta prebentzioaren esparruan nazioartean izandako esperientzia konparatuan oinarrituta.

Lantaldeak aurreneko hiletan egindako lanean jasotako oinarrizko informazioa ematea da txosten honen xedea.

# **3.** Definizioak eta kontzeptu-markoa

Ikerketaren kontzeptu-esparruak bi oinarri hauek ditu: giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea, berariaz torturari bezala atxilotuei ematen zaien tratuari ere lotuta; eta Espainiako barne-zuzenbidea.

Nazioarteko itunetan, torturari buruz adostutako lehen definizioa hemen jaso zen: **Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Konbentzioa, 1984ko abenduaren 10ekoa[2].**

Hona hemen edukia:

> «*1. Konbentzio honen ondorioetarako, «tortura» hau izango da: pertsona bati nahita min edo sufrimendu –fisiko edo mental– larria eragiteko ekintza oro, harengandik edo hirugarrengo batengandik informazioa edo aitorpena lortzeko egina, bai eta egin duen ekintzagatik edo egin duelako susmoa dagoen ekintzagatik zigortzeko, pertsona hori edo beste batzuk beldurtzeko edo hertsatzeko, edo diskriminazio mota orotan oinarritutako edozein arrazoirengatik egina ere, min edo sufrimendu horiek funtzionario publiko batek eginez gero, edo funtzio publikoak betetzen dituen beste norbaitek, hark bultzatuta edo haren adostasun edo baimenarekin. Ez dira torturatzat hartuko legezko zigorren ondoriozkoak edo haiek atxikitakoak edo intzidentalak diren minak edo sufrimenduak.*
>
> *2. Artikulu honek ez du baztertuko irismen handiagoko xedapenak jasotzen dituen edo jaso ditzakeen nazioarteko edozein tresna edo lege nazional.*».

Beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Umilagarrien debekua, tortura baino larritasun gutxiagoko jokabideak diren neurrian baina era berean zigorgarriak, 16.artikuluan jasotzen dira

> «*1. Alderdi den Estatu orok konpromisoa hartuko du bere jurisdikzioko edozein lurraldetan 1. artikuluan definitzen den tortura izatera iritsi gabe krudel, anker edo umiliagarriak diren tratu zein zigorrak debekatzeko, ekintza horiek funtzionario publiko batek edo funtzio ofizialak betetzen ari den beste pertsona batek egitean, edota funtzionario edo pertsona horrek bultzatuta, edota beren onespenarekin. Bereziki, 10, 11, 12 eta 13. artikuluetan jasotzen diren betebeharrak aplikatuko dira, "tortura" aipatzen den kasuetan "tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarriak" ipiniz.*».

Espainiako ordenamendu juridikoan, torturen eta tratu txarren zigorra Zigor Kodearen 174. eta 175. artikuluetan jasota dago; beraz, 1984ko Konbentzioan jasotako baldintzei hertsiki ez erantzun arren, ezin dugu esan arazoa erregulazio eza denik.[3]

174. artikuluaren edukia hau da:

> *Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik, edo edozein arrazoi dela eta, era bateko edo besteko bereizkerian oinarrituta, zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren*

2 Haren aurrekaria Pertsona guztiak Torturatik eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrietatik Babesteko Adierazpena da, NBEk 1975ean emana. Hartan, tortura tratu gizagabe eta iraingarrien adierazpide «larriagotua» dela esaten da.

3 Zigor Kodearen 174. artikuluan jasotako definizioak ez du kontuan hartzen funtzionario ez den pertsona batek, funtzio publikoa betetzen ari dela, jokabide hori izateko aukera. Ez eta torturaren xedea pertsona hori edo beste batzuk beldurraraztea edo hertsatzea izan daitekeela ere.

*ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkiotenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkiotenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaikuntza-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa.*

*2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, espetxeetako edo adingabeen babes-etxe nahiz zentzategietako agintari edo funtzionarioari, aurreko paragrafoan azaldutako egitateak gauzatzen baditu atxilotu, barneko adingabeekin edo presoekin.*

Beste jokabide batzuk, torturatzat hartzen ez direnak, biktimari eragiten dioten sufrimenduaren intentsitatearengatik, baina pertsonei modu iraingarrian eta euren borondatea laidotu eta makurrarazi asmoz egindako legez kontrako pairamen fisikoak eta psikikoak eragiten dizkietenak halaber Kode Penalaren 175. artikuluaren edukiaren arabera, zigortuak dira:

*"Agintari edo funtzionarioak, bere karguaz abusatuz eta aurreko artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo, pertsona baten osotasun moralaren aurka atentatu egiten badu, orduan, horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, atentatua larria bada, eta ez bada sei hilabetetik bi urte artekoa ezarriko zaio. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, egileari enplegu edo kargu publikoan antzeko desgaikuntza berezia ezrriko zaio, bi urtetik lau artekoa.".*

# **4.** Egindako jarduerak

2014. eta 2016. urtean honako jarduera hauek egin dira:

## 4.1. Iturri nagusiei buruzko informazio-bilaketa

- Hainbat iturritako material landugabea jaso dugu; dokumentuen lehen analisi bat egiten dugu proiekturako dokumentazio erabilgarria hautatzeko, sailkatzeko eta digitalizatzeko helburuarekin. Jasotzen den bibliografia eta hemerotekatik estraktu digital indibidualizatuak egiten ditugu eta horiek espediente pertsonalizatuetan sartzen ditugu. PDF formatura bihurtzen ditugu bestelako programa informatikoetan dauden dokumentuak datu-basean sartzeko eta, guztira, 16.500 dokumentu baino gehiago daude.
- Datuak lortzeko prozesu oso zorrotz bati ekiten diogu tratu txarren edo torturen biktimak izan direla esaten duten pertsonak lokalizatu ahal izateko. Horrekin guztiarekin interesdunekin harremanetan jar gaitezke eta gertaeren berrespena, gertaeren informazioa eskuratzeko beharrezko baimenak eta gertaeren kontakizuna osatzen duten zehaztasunak lor ditzakegu. Lokalizazio horiek hirugarren pertsonen bidez, Internet, prentsa eta antzerakoen bidez lortutako informazioaren bidez egiten dira. Kontaktuak telefonoaren, posta arruntaren edo posta elektronikoaren bidez egiten dira.

2015ean egindako lanaren emaitza gisa, era mailakatuan 1.652 gutun bidali dizkiegu bigarren mailako iturrien bidez identifikatutako pertsonei.

Gutun horietako dokumentazioak helburu hauek ditu:

- KREI gauzatzen ari den proiektuaren berri ematea.
- Proiektuko fitxategian beraiei eta beren kasuari buruz dagoen informazioa jakinaraztea.
- Gertaera horiei buruzko idatzizko berrespena jasotzea, baita haien baimen informatua ere, haien kasua datu-basean sartzeko, eta, besteak beste, anonimoa izateko edo ez izateko duen borondatea adieraziko da bertan.
- Proiektuan era aktiboagoan elkarlanean aritzeko duen prestasuna jakitea Istanbulgo

Protokoloan parte hartzea onartuz, hautatuak izanez gero, edo bere lekukotza eskainiz elkarrizketa grabatu batean.

- Lortutako informazioa jasotzen eta tratatzen jarraitu dugu, 4.009 karpeta//pertsona lortuz. Uste dugu kasu egiaztatuak gehiago izan daitezkeela 2016ko ekitaldian zehar.
- Datu-basean (File Maker programa) informazioa iraultzen jarraitu dugu, salaketa judizialen edo sozialen errolda bat egiteko eta, gaur arte, 3.577 kasu erregistratu ditugu.
- Orain arte 915 lekukotza berreskuratu ditugu audioan eta/edo bideoan. Horiak guztiak funtsezko materialak dira ikerketa honetan; izan ere, horietan biktimen erabateko askatasuna adierazten da. Elkarrizketa eta lekukotza horiek benetako protagonistekiko hurbilpenak dira eta egiaztatu dugu garrantzitsuak direla biktimei adierazteko proiektua sendoa dela. Material grafiko hau editatu ondoren, material horren bina kopia egiten ditugu DVD formatuan, horietako bat elkarrizketatutako pertsonari bidaltzeko, bere espedienteko dokumentazioarekin batera. Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetza Idazkaritzak bidaltzen ditu.
- Istanbulgo Protokoloaren lehenengo fasea gauzatu da eta, guztira, 200 kasu daude ausazko lagin batean.
- Kasu adierazgarri batzuk era espezifikoan aztertzen hasi gara; hala, 30 kasu hautatu ditugu alderdi hauek guztiak kontuan izanda: aldiak, pairatutako torturaren ezaugarriak, generoa, lege-esparrua, ikerketa judizialaren maila edo epaia, atxiloketa motak.

## 4.2. BBigarren mailako buruzko informazio-bilaketa

Helburu horrekin, zenbait erakunde eta profesionalekin bilerak egin ditugu; horrez gain, artxiboetara, bulego profesionaletara, etxebizitza partikularretara eta informazioa dagoen beste leku batzuetara joan gara. Nabarmentzekoak dira Eva Foresten familiarekin egindako kudeaketak, Pablo Iglesias Artxibora (Madril) egindako bisita edo Legebiltzarreko (Gasteiz) presidentearekin izandako bilera. Era berean, artxibo publiko eta pribatu askotako informazioa eskuratu dugu:

Hona hemen ekimenean parte hartu duten erakundeak:

- Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundea.
- Amnistia Internazionala.
- Torturaren Aurkako Taldea – TAT.
- Euskal Memoria.
- Argituz.
- Behatokia.
- Goldatu.
- Salhaketa.
- OPE.
- SOS Arrazakeria.
- Presondegiko pastorala.
- Haritza Kultur Elkartea.
- Euskal Memoria Oñati.

Kontsultatu ditugun artxiboak hauek izan dira:

- Kriminologiaren Euskal Erakundea.
- Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundea.
- Amnistia Internazionala.
- Torturaren Aurkako Taldea – TAT.
- Euskal Memoria.
- Argituz.
- Behatokia.
- Goldatu.
- Salhaketa.
- OPE.
- Euskadiko Artxibo Historikoa.

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa.
- Koldo Mitxelena Artxiboa.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Pablo Iglesias Fundazioaren Artxiboa.
- Eusko Legebiltzarraren Artxiboa.
- Sabino Arana Fundazioaren Artxiboa.
- Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.
- EITBren artxiboa.

Bestalde, gutun bat bidali diegu Euskal Autonomia Erkidegoko Udal, Aldundi eta Batzar Orokor guztiei. Gutun horren bidez, erakunde bakoitzak, ikertzen ari garen aldian, torturari dagokionez, eman ahal izan dituen ebazpen instituzionalei buruzko informazioa eskatu diegu. Guztira, 257 gutun bidali ditugu eta 27 erakundek erantzun digute.

Halaber, erakunde instituzionaletan kudeaketak egin ditugu, bai zuzenean bai zeharka. Auzitegi Nazionalari (Madril) eskatutako informazioa eta bertara egindako bisita nabarmentzen ditugu.

## 4.3. Ikerketari buruz egindako kongresua

Ikerketan egindako aurrerapenei esker, EHU-REN XXXV. UDAKO IKASTAROETAN kongresu bat planifikatu ahal izan da. Ekainaren 27, 28 eta 29an izango da kongresu hori eta helburua ikerketa-taldeko kide guztiak elkartzea da, baita denbora honetan guztian elkarlanean aritu diren aholkulariak ere. Hartara, proiektuaren amaierako memoriari dagokionez, kontuan izango diren hainbat alderdi eztabaidatu ahal izango dira (ikusi programa eranskinean).

# **5.** Emaitzak

Sortutako informazioa datu-base batean tratatu da, funtsezko hiru irizpideren arabera:

a) Lekuko-frogaren elementuak.

b) Dokumentu-frogaren elementuak.

c) Peritu-frogaren elementuak.

## 5.1. Datos estadísticos

Reiterando que los resultados son provisionales y que la base de datos no está completa, debemos advertir sobre la siguiente cuestión:

- 4.009 lagun dira torturak edo tratu txarrak jasan dituztela salatzen dutenak, haietako bakoitzarentzat carpeta bat dago dokumentazioarekin. Hauetako pertsona batzuk tortura eta/edo tratu txarrak behin baino gehiagotan pairatu izana salatzen dute. Datu-basean kasu bakoitza erregistratzen da pertsona batek erregistro bat baino gehiago izan dezake, beraz. Kasuen kopurua 4.810etik gorakoa izan daitekeela balioztatzen dugu.
- Datu-basean erregistratutako datuak, txosten hau argitaratzen den datan, 3.577 dira.
- 3.577 kasu hauetatik, lehenengo 2.000ak sakonago aztertu dira.

Aurretik adierazitako ondorengo taulan adierazten da modu grafikoan:

| | |
|---|---|
| TORTURA EDO TRATU TXARRAK SALATZEN DITUZTEN IDENTIFIKATUTAKO PERTSONAK. (karpeta irekia dutenak) | 4.009 |
| DATU-BASEAN TXERTATUTAKO KASUAK OINARRIZKO DATUEKIN | 3.577 |
| SAKONEAN AZTERTUTAKO KASUAK | 2.000 |

Datu orokorren (3.577 kasu) eta datu espezifikoen (2.000 kasu) azterketatik lortutako emaitzetan oinarrituta, zenbait gogoeta egin ditzakegu alderdi juridikoei dagokienez:

**Informazio orokorraren laburpen-taula**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Nº personas / Pertsona kopurua: | | | 4.009 | Aztertze-fasean |
| Nº de documentos que integran los casos<br>Kasoetan maneiatzen dugun dokumentu kopurua | | | 22.782 | |
| Froga-elementuak | Documentales / Dokumentalak | | + 4.009 | Aztertze-fasean |
| | Perituenak (Istanbulgo Protokoloa) | | 200 | |
| | Lekukoenak | Testimonios video<br>Bideo testigantzak | 602 | Grabatzen jarraitzen da |
| | | Testimonios audio<br>Testigantzak | 119 E. Forest<br>277 TAT | |
| | | Testimonios escritos (en BD) Testigantza idatziak D. Basen | 382 | Gehiago jasotzen ari gara |
| Sortutako korrespondentzia | Nº de cartas enviadas para ratificación<br>Berrespena sinatzeko bidalitako gutunak | | 1.662 | Amaitu gabeko lana |
| | Nº de respuestas recibidas / Jasotako erantzunak | | 686 | % 41 |
| | Favorables a grabación testimonio<br>Bideo grabaziorako prest agertutakoak | | 560 | % 81 |
| | Nº Ayuntamientos que han contestado<br>Udalen erantzun kopurua | | 507 | %74 |
| Datu-basea | Nº de casos ya analizados e insertados en la base de datos / Datu basean sartutakoak | | 3.577 | Amaitu gabeko lana |
| | Nº de personas a las que corresponden esos casos Kasuok zenbat pertsonari dagozkion | | 2.966 | Guztizkoaren % 18 errepikatuak dira |
| Epaiak | Nº Sentencias condenatorias Supremo<br>Supremoak ratifikatutako kondenak | | 20 | Lehenengo kasua:<br>1979. urtekoa<br>Azken kasua:<br>2003. urtekoa |
| | Nº de personas afectadas / Dagokien pertsona kop. | | 31 | |
| | Nº de Personas condenadas / Kondenatu kopurua | | 49 | |

5.1.1. Salaketa egiten duen pertsonan profila (3.577 kasuren arabera)






## 5.1.2. Kasuak urteko (3.577 kasuren arabera)

| Urtea | Pertsona kopurua | Urtea | Pertsona kopurua | Urtea | Pertsona kopurua | Urtea | Pertsona kopurua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1960 | 7 | 1974 | 52 | 1988 | 56 | 2002 | 113 |
| 1961 | 15 | 1975 | 265 | 1989 | 70 | 2003 | 59 |
| 1962 | 2 | 1976 | 111 | 1990 | 22 | 2004 | 28 |
| 1963 | 11 | 1977 | 23 | 1991 | 51 | 2005 | 40 |
| 1964 | 11 | 1978 | 67 | 1992 | 139 | 2006 | 6 |
| 1965 | 13 | 1979 | 113 | 1993 | 108 | 2007 | 30 |
| 1966 | 20 | 1980 | 168 | 1994 | 89 | 2008 | 27 |
| 1967 | 31 | 1981 | 162 | 1995 | 77 | 2009 | 44 |
| 1968 | 103 | 1982 | 131 | 1996 | 72 | 2010 | 42 |
| 1969 | 58 | 1983 | 130 | 1997 | 92 | 2011 | 8 |
| 1970 | 22 | 1984 | 148 | 1998 | 94 | 2012 | 2 |
| 1971 | 19 | 1985 | 102 | 1999 | 33 | 2013 | 1 |
| 1972 | 60 | 1986 | 104 | 2000 | 73 | 2014 | 3 |
| 1973 | 48 | 1987 | 113 | 2001 | 75 | Sin datos | 10 |



Datu-basean erregistratutako torturen eta tratu txarren salaketak hamarkaden arabera banatu ditugu, era honetara:




1978ko Espainiako Konstituzioa lerro banatzailetzat hartuta, erregistratutako kasu gehiago azaltzen dira Konstituzioaren aldian:



### 5.1.3. Kasuak polizia-kidegoaren eta besteen arabera (3.577 kasuren arabera)

Salatutako gertaeren, torturen eta tratu txarren adierazpenen ustezko autoretzak polizia-kidegoen arabera bereiziz gero, polizia nazionalak eta guardia zibilak antzeko datuak dituzte:

| Polizia-kidegoa eta besteak | Kasu-kopurua |
|---|---|
| Polizia Nazionala | 1.561 |
| Guardia Zibila | 1.589 |
| Ertzaintza | 310 |
| Udaltzaingoa | 4 |
| Espetxeetako funtzionarioak | 19 |
| Beste batzuk | 39 |
| Ez dago daturik | 64 |



### 5.1.4. Salatutako tortura-metodoak, polizia-kidegoaren arabera (lehendabiziko 2.000 kasuak)

Zehaztasun handiagoarekin aztertutako biktimen lekukotzek hainbat tortura-metodori eta polizia-kidegori buruzko datu nabarmenak eskaini dituzte. Poltsaren erabilera nabarmentzen da, guardia zibilak atxilotu zituen pertsonek esandakoaren arabera. Luzaro tente egonaraztea eta akitze fisikoa hiru polizia-kidegoek erabilitako teknika dela adierazten dute atxilotutako pertsonek. Aldiz, elektrodoak eta bainuontzia, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak atxilotutako pertsona kopuru handi batek pairatu dituztenak, ez zaizkio kasu bakar batean ere Ertzaintzari leporatzen.

**Tortura-metodoak polizia-kidegoaren arabera**

| Polizia-kidegoa | Poltsa | Elektrodoak | Bainuontzia | Luzaro tente egonaraztea | Akitze fisikoa eta flexioak |
|---|---|---|---|---|---|
| GZ | 204 | 89 | 87 | 139 | 147 |
| PN | 32 | 22 | 31 | 76 | 92 |
| ERTZ | 1 | 0 | 0 | 30 | 18 |
| BESTE BATZUK | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 |



Polizia-kidegoen arabera, aipatutako tortura-teknikak hauek dira:









### 5.1.5. Salatutako polizia-kidegoa eta salaketa egiten duen pertsonaren lurraldea

**Polizia-kidegoa lurraldeka**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Besteak |
|---|---|---|---|---|
| Guardia Zibila | 108 | 440 | 850 | 191 |
| Polizia Nazionala | 129 | 582 | 635 | 215 |
| Ertzaintza | 28 | 166 | 104 | 12 |



## 5.1.6. Polizia-kidegoa salatuta hamarkaden arabera

**Polizia-kidegoa hamarkaden arabera**

| Hamarkada | Guardia Zibila | Polizia Nazionala | Ertzaintza |
|---|---|---|---|
| 60 | 123 | 139 | 0 |
| 70 | 407 | 355 | 0 |
| 80 | 522 | 616 | 7 |
| 90 | 355 | 219 | 168 |
| 00 | 149 | 219 | 118 |
| 10 | 27 | 10 | 16 |





Guardia Zibila hamarkadaren arabera
8%
26%
33%
22%
9%
2%
60ko hamarkada
70eko hamarkada
80ko hamarkada
90eko hamarkada
2000ko hamarkada
2010ko hamarkada




Polizia Nazionala hamarkadaren arabera
9%
23%
39%
14%
14%
1%
60ko hamarkada
70eko hamarkada
80ko hamarkada
90eko hamarkada
2000ko hamarkada
2010ko hamarkada




Ertzaintza hamarkadaren arabera
2%
55%
38%
5%
80ko hamarkada
90eko hamarkada
2000ko hamarkada
2010eko hamarkada

# Kasuen eboluzioa polizia-kidegoaren eta urtearen arabera



## 5.2. Auzitegi nazionalen eta nazioarteko erakundeen zein auzitegien ebazpenak

Ikerketa honetan egiaztatutako barne-auzitegien kondena-epai irmoak, ikerketan erregistratutako kasuei dagokienez, 21 dira. Testu hauetako azterketatik datu hauek lor daitezke:

- POLIZIA-KIDEGOA: 9 kasu Polizia Nazionalari dagozkio eta 12 Guardia Zibilari.
- BIKTIMAK: 32 pertsona (4 emakume eta 28 gizon).
- KONDENATUAK: 50 pertsona (1 emakume eta 49 gizon).
- LEHEN KONDENA: 1985eko ekainaren 19an, 1979an izandako gertaera batzuei buruz.
- AZKEN KONDENA: 2003ko azaroaren 19an, 1980an izandako gertaera batzuei buruz.

| 1.EPAIA | BIKTIMA KOPURUA | POLIZIA-KIDEGOA | KONDENATU KOPURUA | AG-REN EPAIA | KONDENA-KOP. | GERTAEREN DATA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1983 | 1 | PN | 2 | 1985 | BERRESPENA AG E | 1979 |
| 1984 | 1 | GZ | 1 | 1987 | BERRESPENA AG E | 1980 |
| 1985 | 1 | PN | 0 | 1989 | 2 | 1981 |
| 1986 | 4 | GZ | 3 | 1990 | BERRESPENA AG E | 1983 |
| 1987 | 1 | GZ | 2 | 1990 | 3 | 1980 |
| 1988 | 1 | PN | 1 | 1990 | BERRESPENA AG E | 1986 |
| 1987 | 1 | GZ | 5 | 1992 | BERRESPENA AG E | 1982 |
| 1990 | 1 | GZ | 2 | 1993 | BERRESPENA AG E | 1991 |
| 1992 | 1 | GZ | 5 | 1994 | 5 | 1983 |
| 1993 | 1 | GZ | 3 | 1994 | BERRESPENA AG E | 1982 |
| 1994 | = | GZ | | 1995 | | 1982 |
| 1994 | 2 | GZ | 2 | 1996 | BERRESPENA AG E | 1984 |
| 1995 | 1 | PN | 2 | 1997 | BERRESPENA AG E | 1983 |
| 1995 | 1 | PN | 2 | 1997 | BERRESPENA AG E | 1981 |
| 1997 | 1 | PN | 2 | 1998 | BERRESPENA AG E | 1992 (KEPA URRA) |
| 1997 | 1 | PN | 4 | 1999 | BERRESPENA AG E | 1982 |
| 1997 | 1 | GZ | 3 | 1998 | 3 | 1983 |
| 1997 | 1 | PN | 3 | 1999 | BERRESPENA AG E | 1984 |
| 1998 | 2 | PN | 3 | 1999 | BERRESPENA AG E | 1984 |
| 2001 | 8 | GZ | 6 | 2003 | 3 | 1980 |

Ez daude sartuta prebarikazioagatik kondenatutakoak

Bestetik, azken hamarkadetan, nazioarteko zenbait erakundek Espainia kondenatu dute torturaren aurkako eta torturaren prebentzioaren arloko betebeharrak ez betetzeagatik.

Lehenengo kondena-epaia Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeak eman zuen 1998. urtean, BLANCO ABAD kasuan; operazio polizial batean Guardia Zibilak atxilotutako euskal emakume bat, terrorismoaren aurkako borrokaren baitan 1992. urtean. Batzordeak, amaierako ondorioan, adierazi zuen salatzaileak alegatutako gertakariek adierazten dutela *Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Konbentzioa*ren 12. eta 13. artikuluak urratu zirela, Estatuak Blanco andreak egindako torturen eta tratu txarren salaketak azkar eta eraginkorki ikertzeko betebeharra ez betetzeagatik.

Batzorde horrek Espainia kondenatu zuen berriz 2005ean, URRA kasua, 1992an izandako gertaera batzuengatik (barne-auzitegiek epaituak eta kondenatuak). Kasu honetan, Estatua larderiatu zen kasu honengatik prozesatutako Guardia Zibileko hiru agenteei emandako indultuengatik. Jokabide hori Konbentzioko 2, 4 eta 14. artikuluen urraketatzat jo zen eta, hala, Estatuari eskatu zitzaion tortura-egileei zigor egokiak jartzea eta biktima erabat erreparatzea.

*Nazioarteko Eskubide Zibil eta Politikoen Hitzarmen*aren alorrean, Giza Eskubideen Batzordeak 2009ko epaian, ACHABAL PUERTAS kasuan Espainiaren aurka, adierazi zuen salatzaileak salatutako gertaerek Hitzarmenaren 7. artikulua urratzen dutela, bakarrik irakurrita eta testu bereko 3. paragrafoko 2. artikuluarekin batera. Espainiari ezarritako kondenaren arrazoiketaren oinarriak atxilotuen eskubideen defentsa argia egiten du eta Batzordeak inkomunikazio-araubidea kentzea eskatzen du.

| GEEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| KASUA | GEEA EPAIA | GERTAEREN DATA | SALAKETAREN DATA | INKOM | LURRALDEA | KONDENA |
| MARTINEZ SALA, DAVID ETA BESTE 14 | 2004/11/02 | 1992/06/29 | 1992/08/01 (1.a) | | KATALUNIA | 3. artikuluaren urraketa ikerketarik eza |
| ARGIMINO ISASA, MIKEL | 2010/09/28 | 2002/05/14 | 2002/06/11 | BAI | (Madrilen atxilotua) | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| BERISTAIN UKAR, ARITZ | 2011/03/08 | 2002/09/05 | 2002/10/30 | BAI | EUSKADI | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| OTAMENDI EGIGUREN, MARTXELO | 2012/10/16 | 2003/02/20 | 2003/03/25 | BAI | EUSKADI | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| ATAUN ROJO, OIHAN UNAI | 2014/10/07 | 2008/11/10 | 2009/04/06 | BAI | NAFARROA | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| ETXEBARRIA CABALLERO, BEATRIZ | 2014/10/07 | 2011/03/01 | 2011/03/15 | BAI | EUSKADI | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| ARRATIBEL GARTZIANDIA, JON PATXI | 2015/05/05 | 2011/01/18 | 2011/03/11 | BAI | NAFARROA | 3. artikuluaren urraketa prozesala |
| BEORTEGI MARTINEZ, XABIER | 2016/05/31 | 2011/01/18 | 2011/05/16 | BAI | NAFARROA | 3. artikuluaren urraketa prozesala |

Ebazpen horiek guztiak kontuan izanda, egiaztatu da 1998tik aurrera giza eskubideen defentsarako nazioarteko hainbat erakundek Espainia kondenatu dutela tortura-salaketak ez ikertzeagatik. Jokabide horrek gertaera horien arduradunak kondenatu ahal izateko beharrezko froga-elementuak lortzea eragotzi du.

# **6.** 202 tortura-kasuen alegazioen analisi egituratua Istanbulgo Protokoloaren bidez

Perituen alderdiei dagokienez, esan dugun eran, Istanbulgo Protokoloa lagineko 202 kasutan aplikatu da:

## 6.1. Sarrera eta oinarria

Istanbulgo Protokoloak (IP), 2000. urtean Nazio Batuen Batzarrak berretsi zuenetik, tratu txarren eta torturaren ikerketa eta dokumentazio egokirako estandarrak ezartzen ditu.

Istanbulgo Protokoloaren Lantaldea osasuneko 40 profesionalek osatzen dute; gehienak, osasun mentalaren alorrekoak dira eta giza eskubideetan adituak dira. Profesional horiek profesionalen elkarteetako eta giza eskubideen elkarteetako kideak dira. Elkarte horien eragin-eremua bai EAE bai Estatua dira eta esperientzia handia dute, baita ospe handia ere giza eskubideen ikerketaren alorrean.

2014. urtean egungo proiektuari lotutako elkarteek –Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sozialaren Sailarekin lankidetzan– «Inkomunikazioa eta tortura. Analisi egituratua Istanbulgo Protokoloan oinarrituta» izeneko lana argitaratu zuten. Argitalpen hau asko zabaldu zen bai maila nazionalean bai nazioarte mailan eta giza eskubideen nazioarteko agintaritza eta erakunde nagusien errekonozimendua jaso zuen. Hauek dira agintaritza eta erakunde horiek: tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo lotsarazle batzuei buruzko Nazio Batuen errelatore berezia, terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak sustatu eta babesteari buruzko Nazio Batuen Errelatore Berezia eta IRCT (Torturaren Biktimak Birgaitzeko Nazioarteko Kontseilua).

Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiaren «*2013-16 aldirako Bakea eta Bizikidetza. Topaketa sozialerako helburu bat*» izeneko proposamenean egiaztatu zen giza eskubideen urraketa bakoitzari buruzko diagnostiko bat egin behar zela, torturarena barne, dagozkion errekonozimendu-eta prebentzio-neurriak hartzeko helburuarekin. Ikerketa honetan lehentasunezko eran salaketen sinesgarritasunari buruzko ikerketa bat egin beharko litzateke, irizpide psikologiko/forentseetan oinarrituta Istanbulgo Protokoloa izenekoaren arabera.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzako Idazkaritza Orokorrak Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI) 1960-2013 aldiko Euskadiko tortura ikertzeko proiektu globala egiteko eskatu zion. Proiektuaren parte gisa, KREIk lan hau sinatu duten profesionalen elkarteei Istanbulgo Protokoloari buruzko ikerketa bat egin zezatela eskatu zien.

Aurretiazko txosten honetan, behin betiko txostenaren aurrerapen bat (egiteke dago) aurkeztu dugu proiektuan jarraitutako metodologia eta proiektuko emaitza nagusiak era laburtuan jakinarazteko, eta era berezian aipatutako dira sinesgarritasunari buruzko aurkikuntzak peritu-irizpide psikologikoetan eta ebaluazio medikoan oinarrituta.

### Behin betiko txostenaren egitura

Behin betiko txostena bost kapitulutan banatuko da. Lehenengo kapitulua lanaren sarrera izango da eta lanaren zein ikerketa-taldearen esperientziaren funtsa azaltzeko balioko du, baita Istanbulgo Protokoloa zer den eta zertarako den azaltzeko ere. Lanaren helburuak kapitulu honetan ere garatuko dira.

Bigarren kapituluan proiektua egitean erabilitako metodologia zehatz-mehatz adieraziko dira: lantaldea eta bere antolaera, jarraitutako lan-prozedura, lagina hautatzeko irizpideak eta analisi estatistikorako erabilitako irizpideak aurkeztuko dira.

Hirugarren kapitulua emaitzak aurkezteko izango da. Lehenengo ataleko laginaren ezaugarri soziodemografikoak eta kriminologikoak era laburtuan deskribatu ondoren, aurkikuntzak beste bost ataletan aurkeztuko dira. Bigarrenean, analisia tortura-metodoei buruzkoa izango da gehienbat ikuspegi bikoitzetik: bere kodetzea Istanbulgo Protokoloarekiko eta bere ebaluazioa tortura-inguruneen eskalekiko. Hirugarren atalean torturaren ondorio psikologikoei buruzko datuak eskainiko dira: peritatutakoen diagnostiko psikiatrikoak eta eskala psikometrikoen emaitzak. Subjektu hauetan behatutako asistentzia psikologikoaren beharrak ere deskribatuko dira. Hurrengo atalean torturak osasun fisikoan duen inpaktua aztertuko da. Peritazioen sinesgarritasun-analisia lan honen funtsezko elementua da eta bosgarren atalean aurkeztuko da. Azken atalean biktimen pertzepzio sozialarekin erlazionatutako gai batzuk aztertuko dira.

Atal hauetan emaitzak atxilotuaren generoaren arabera ere aztertuko dira, baita atxiloketa egin zuen polizia-kidegoaren balizko eragina ere; izan ere, aurretiko ikerketak iradokitzen dute tortura-eredu bereiziak daudela. Bestetik, halaber, aldi soziopolitiko desberdinak zenbateraino diren funtsezkoak aztertuko da, torturaren errealitatea ezagutzeko.

Bosgarren eta azken kapituluan lanaren ondorioak zerrendatuko dira, baita lanak errekonozimenduaren politikoaren garapenean dituen inplikazioak ere.

## 6.2. Materiala eta metodoak

### Ebaluazio psikologikoaren txostena

Peritu-txosten psikologiko bakoitzaren lan-prozeduran pauso hauek egin ziren:

- Baimen informatua.
- Peritatuaren oinarrizko datu soziodemografikoak betetzeko dokumentua.
- Peritazioa egiteko sortutako protokoloa.
- Elkarrizketa eta miaketa psikologikoa, audioan eta bideoan grabatua.
- Froga psikometrikoak: VIVO; Beck eta PCL-C.
- Talde-saioa: itxiera-taldeak.
- Elkarrizketa peritu-txostena alderatzeko.
- Peritu-txosten psikologikoa.
- Asistentzi psikologikoaren beharra balioestea.

Peritu-txosten psikologikoaren eskema hau da:

1. Aurrekariak
    - 1.1. Peritu-datuak
    - 1.2. Biktimari buruzko datuak.
    - 1.3. Erabilitako materiala eta metodoak
    - 1.4. Aurrekari mediko eta psikologiko interesgarriak.
    - 1.5. Aurretiko txosten mediko eta psikologikoak – laburpena.
2. Torturen eta tratu txarren alegazioak.
    - 2.1. Detektatutako tortura-metodoak Istanbulgo Protokoloaren sailkapenaren arabera.
    - 2.1. Tortura-metodoak tortura-inguruneen eskalarekin bat.
3. Miaketa
    - 3.1. Inpaktuak (sintomak) osasun psikologikoan.
    - 3.2. Historia psikosoziala.
    - 3.3. Test psikologikoen emaitza.
    - 3.4. Inpaktuak (sintomak) osasun fisikoan (ebaluazioa mediku batek aurretiaz berrikusita).
4. Aurkikuntzen interpretazioa eta ondorioak.
    - 4.1. Aurkikuntzen ezaugarri psikologikoak eta fisikoak.
    - 4.2. Diagnostiko klinikoa.
    - 4.3. Ondorioak eta gomendioak.
5. Koherentzia aztertzeko adierazleak irizpide klinikoetan oinarrituta.

Psikologoen peritu-txosten guztiak Istanbulgo Protokoloa erabiltzen adituak diren profesionalek gainbegiratu zituzten.

### Ebaluazio medikoaren txostena

Talde medikoak psikologoaren elkarrizketan jasotako sintomatologia klinikoa ebaluatu zuen eta noizbehinka froga dokumental gehigarriak eskuratu ahal izan ziren, esaterako, inkomunikazioan auzitegi-medikuek egindako txostenak edo garrantzizkotzat joko diren bestelako txosten mediko batzuk.

Dokumentu normalizatu bat erabili zen kasua ebaluatzeko, eta item hauek zituen:

1. Aurrekari mediko eta psikologiko interesgarriak.
2. Torturen eta tratu txarren alegazioak.
3. Dokumentuetan deskribatutako datu fisikoak.
    3.1. Sintoma fisikoak.
        3.1.1. Tortura-unean eta ondorengo berehalako aldian.
        3.1.2. Epe ertaineko eta epe luzeko ondorioak.
    3.2. Indarkeriaren kanpo-zantzuak.
        3.2.1. Tortura-unean eta ondorengo berehalako aldian.
        3.2.2. Epe ertaineko eta epe luzeko ondorioak.
4. Egindako miaketa osagarrien datuak.
5. Dokumentuetan deskribatutako datu fisikoen interpretazioa.
6. Koherentzia aztertzeko adierazleak irizpide klinikoetan oinarrituta.

### Koherentziaren analisia: Sinesgarritasunaren irizpenaren bilakaera

Pertsonak adierazitako tratu txarren edo torturen koherentzia eta pertsonaren osasun psikologiko eta fisikoan dituen inpaktuak ebaluatzeko analisia peritu psikologoek, psikologo/psikiatra gainbegiraleek eta mediku ebaluatzaileek era multidisziplinarrean egin zuten.

## 6.3. Koherentzia aztertzeko adierazleak peritu-txosten psikologikoaren irizpide klinikoetan oinarrituta

Sinesgarritasuna aztertzeko, 11 adierazle dituen matrize bat eratu dugu. Adierazle horiek barne- eta kanpo-adierazleak dira eta adituak horietan oinarritzen dira amaierako sinesgarritasun-azterketa egiteko:

| Irizpidea | Honela kodetua: |
|---|---|
| 1. Ustezko torturaren kontakizuna (inguruabarrak, mota, metodologia, iraupena, etab.) | 1. Koherentea<br>2. Koherentziarik gabea |
| 2. Espero daitezkeen erreakzio psikologikoa edo muturreko estres-egoeran tipikoak direnak, peritatuaren testuinguru sozialaren eta kulturalaren baitan. | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 3. Bat etortzea gertaeren deskribapena eta haiek azaltzean izandako emozioak. | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 4. Bat etortzea hitzezko komunikazioa eta hitzik gabekoa gertaerak kontatzean. | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 5. Azaldutako gertaerekin bat datozen epe ertain eta luzeko arrastoak. | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 6. Diagnostiko kliniko nagusia peritatzean, elkarrizketa klinikoan oinarritutako gertaera peritatuei lotua | CIE-10 kodea idaztea |
| 7. Eskala klinikoen emaitzak(TEPT / Depresioa) | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |

| | | |
|---|---|---|
| 8. | Munduaren ikuspegiaren eskalen emaitzak (VIVO) | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 9. | Deskribatutako gertaeren aurretik eta ondoren haiei lotuta izandako aldaketa funtzionalak (lana, ikasketak, harremanak...). | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 10. | Deskribatutako gertaerei aldi batez lotutako nortasun-aldaketa iraunkorrak | 1. Koherentea<br>2. Ez dago elementu nabarmenik<br>3. Koherentziarik gabea |
| 11 | Deskribatutako gertaerekin bat datozen arrastoak edo lesioak egiaztatzen dituzten aurretiko txosten medikoak edo forentseak | 1. Bai<br>2. Ez |

Datu horiek aztertuta, irizpide kliniko psikologikoetan oinarritutako koherentzia-irizpen bat zehaztu zen, eta kasu hauetako baten bat izan zitekeen:

1. Koherentziarik handiena.
2. Oso koherentea.
3. Koherentea.
4. Koherentziarik gabea.

## Koherentzia aztertzeko adierazleak ebaluazio medikoaren irizpide klinikoetan oinarrituak (istanbulgo protokoloa)

Istanbulgo Protokoloko elkarrizketetako informazio klinikoa / medikoa aztertu ondoren, analisi bat egin zen taula hau aintzat hartuta:

| Irizpidea | Honela kodetua: |
|---|---|
| Sintoma fisikoak torturaren unean eta/edo alegatutako gertaerekin bat datozen ondorio fisikoak epe ertain eta luzera. | • Ez dago elementu mediko nabarmenik<br>• Erreferentziako informazio klinikoa ez da koherentea.<br>• Erreferentziako informazio klinikoa koherentea da, garrantzi gutxikoa da, halere.<br>• Erreferentziako informazio klinikoa koherentea da eta neurrizko garrantzia du.<br>• Erreferentziako informazio klinikoa koherentea da eta oso garrantzia da. |

### Koherentzia aztertzeko adierazleak ebaluazio medikoaren irizpide klinikoetan oinarrituak (emandako dokumentuak)

Emandako dokumentu medikoetako informazio klinikoa / medikoa aztertu ondoren, analisi bat egin zen taula hau aintzat hartuta:

| Irizpidea | Honela kodetua: |
|---|---|
| Sintoma fisikoak torturaren unean eta/edo alegatutako gertaerekin bat datozen ondorio fisikoak epe ertain eta luzera. | • Ez dago elementu mediko nabarmenik<br>• Dokumentuetako informazio klinikoa ez da koherentea.<br>• Dokumentuetako informazio klinikoa koherentea da, garrantzi gutxikoa da, halere.<br>• Dokumentuetako informazio klinikoa koherentea da eta neurrizko garrantzia du.<br>• Dokumentuetako informazio klinikoa koherentea da eta oso garrantzitsua da. |

**Koherentziari buruzko amaierako irizpena peritu-txosten psikologikoaren, istanbulgo protokoloaren ebaluazio medikoaren eta emandako dokumentuetako irizpide klinikoetan oinarritua**

Datu horiek guztiak aintzat hartuta, irizpide kliniko psikologikoetan oinarritutako koherentzia-irizpen bat zehaztu zen, eta kasu hauetako baten bat izan zitekeen:

1. Koherentziarik handiena.
2. Oso koherentea.
3. Koherentea.
4. Koherentziarik gabea.

## Lagina

### Aztertutako biztanleria eta denbora-eremua. Aztertutako subjektuak.

Ikerketan erabilitako biztanleria KREIk eratu zuen tratu txarrak eta torturak alegatu zituzten eta KREIren erroldan sartzeko baimen informatua eman zuten pertsonen kasuak jasotzeko duen sisteman oinarrituta. Errolda honetan, halaber, pertsona horren harremanetarako telefonoa edo helbidea ere jasota daude.

Errolda osatzen duten herritarrak, 1960tik 2014ra bitarte, arrazoi politikoen ondoriozko indarkeria-testuinguruan atxiloketan zehar (ia beri inkomunikazio-erregimenean) KREIri torturak pairatu zituztela adierazi zien herritarrak dira.

Subjektuak KREIren erroldan sartzeko irizpide hauetako baten bat bete behar zuen:

- Jaiotza-lekua edo bizilekua: Torturak salatu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) jaiotako edo bizi diren herritar guztiak, atxilotze-lekua edozein izanda ere.
- Gertaera-lekuaren arabera: EAEn torturak salatu zituzten subjektu guztiak, horien jaiotza-lekua edo bizilekua edozein izanda ere.

### Laginaren hautapena: ausazko ateratze-irizpideak

Erroldako pertsonak fitxategi batean ordenatu ziren eta anonimotasun-arrazoiengatik bakoitzari zenbaki korrelatibo bat esleitu zitzaion; horrela, pertsona bakoitza era unibokoan identifikatzen baita. Zenbaki hori, pertsona bakoitzari esleitua, egindako zozketan erabili zen. 2015eko maiatzean laginketan hautatuak izateko baldintzak betetzen zituzten 1.300 pertsonako zerrenda batetik ausazko laginketa sinple baten bidez 400 pertsona, 200 titular eta 200 ordezkoa hautatu ziren.

Laginketa biproduzigarria izateko, hazi-balio gisa zozketaren data erabili zen (14042015). Laginketa R-ren 3.1.3 bertsioaren funtzio sinplearekin egin zen (http://www.r-cran.org

## 6.4. Istanbulgo Protokoloaren azterketaren emaitzak

### Laginaren deskripzioa

| EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK (N=202) | | N | % |
|---|---|---|---|
| Sexua | Gizona | 160 | 79 |
| | Emakumea | 42 | 21 |
| Atxiloketa-uneko adina (urteak) | 21 urtetik behera | 48 | 24 |
| | 22-30 | 107 | 53 |
| | 31-45 | 42 | 21 |
| | 46-60 | 4 | 2 |
| | 61 urtetik gora | 1 | 0.5 |
| Peritazio-uneko adina (urteak) | 22-30 | 12 | 6 |
| | 31-45 | 61 | 30 |
| | 46-60 | 81 | 40 |
| | 61-75 | 43 | 21 |
| | >75 | 5 | 2 |
| Atxiloketaren eta peritazioaren artean igarotako denbora | 10 urtetik behera | 32 | 16 |
| | 11 eta 20 urte bitartean | 50 | 25 |
| | 21 eta 30 urte bitartean | 41 | 20 |
| | 31 eta 40 urte bitartean | 64 | 32 |
| | Duela 41 urte edo gehiago | 15 | 7 |
| Hezkuntza-maila | Oinarrizko Hezkuntza | 34 | 17 |
| | | | |
| | Maila ertaineko ikasketak - LH | 103 | 51 |
| | | | |
| | Unibertsitate-mailakoak | 65 | 32 |
| Lanbidea | Kualifikazio gabeko eskulangilea | 18 | 9 |
| | Eskulangile kualifikatua | 48 | 24 |
| | Administraria-Merkataria-Ostalaria | 20 | 10 |
| | Irakaslea | 23 | 11 |
| | Lanbide liberalak | 29 | 14 |
| | Ikasleak | 2 | 1 |
| | Langabezian | 16 | 8 |
| | Erretiratuta | 32 | 16 |
| | Beste batzuk | 14 | 7 |

| EZAUGARRI SOZIOPOLITIKOAK (n=202) | | | |
|---|---|---|---|
| Atxiloketaren eta galdeketaren segurtasun-kidego arduraduna | Guardia Zibila | 77 | 38 |
| | Polizia Nazionala | 62 | 31 |
| | Ertzaintza | 20 | 10 |
| | Kidego bat baino gehiago | 43 | 21 |
| Inkomunikatuta egondako egun-kopurua | 0-1 | 21 | 10 |
| | 2-3 | 59 | 29 |
| | 4-5 | 71 | 35 |
| | 6-10 | 45 | 22 |
| | 11-21 | 6 | 3 |
| Ondorengo neurriak | Askatasuna kargurik gabe | 72 | 36 |
| | Askatasuna karguekin | 13 | 6 |
| | Prebentziozko espetxeratzea, epaiketaren zain | 117 | 58 |
| Atxiloketa-aldia | 1979 baino lehen | 34 | 17 |
| | 80ko hamarkada | 71 | 35 |
| | 90eko hamarkada | 33 | 16 |
| | 2000tik aurrera | 64 | 31 |

## Tortura-teknikak: Istanbulgo Protokoloko sailkapenarekin bat

| ISTANBULGO PROTOKOLOAN DESKRIBATUTAKO TORTURA-TEKNIKAK[1] | N | % |
|---|---|---|
| Kolpeak, esaterako, ukabilkadak, ostikadak, zartadak, etab. | 172 | 85 |
| Postura behartuak, ariketa fisiko akigarriak. | 162 | 80 |
| Erredurak zigarroekin, likidoekin edo substantzia kaustikoekin | 5 | 2 |
| Txoke elektrikoak | 22 | 11 |
| Asfixia lehorra (kaputxa) edo hezea (ura) | 70 | 35 |
| Lesioak zapaltzeagatik, | 11 | 5 |
| Biluzaraztea | 68 | 34 |
| Iseka sexualak | 57 | 28 |
| Bortxaketa (penetrazio partziala edo osoa) | 4 | 2 |
| Atxiloketako baldintzak, zelda anormalki txikiak edo superpopulatuak, baldintza antihigienikoak, instalazio sanitariorik eza, elikagaien eta uraren hornidura irregularra edo elikagai eta ur kutsatuak hornitzea, muturreko tenperaturan edukitzea, etab. . | 149 | 74 |
| Estimulazio sentsorial normalak galaraztea, esaterako, soinuak, argia, denboraren zentzua, isolamendua, zeldako argia manipulatzea, loa, elikagaiak, ura, instalazio sanitarioak, bainua, jarduera eragileak murriztea, | 185 | 91 |
| Arreta mediko egokia jasotzeko aukera ez izatea | 95 | 47 |
| Hitzezko umiliazioak edo ekintza umiliagarriak egitera behartzea; | 142 | 70 |
| Heriotza-mehatxuak, familia kaltetzeko mehatxuak, beste tortura batzuk pairatzeko mehatxuak, espetxe-mehatxua, | 172 | 85 |

| | | |
|---|---|---|
| Itxurazko exekuzioak | 37 | 18 |
| Teknika psikologikoak pertsona desegituratzeko, traizio behartuak, babesgabetasun kontzientea, egoera anbiguoetan jartzea edo mezu kontraesankorrak ematea | 163 | 81 |
| Beste pertsona bat traizionatzera behartzea hura arriskuan jarriz; | 39 | 19 |
| Torturak edo beste pertsona batzuekin egiten ari diren basakeriak ikustera edo oihuen, musikaren eta antzekoen grabazioak edo entzutera behartzea | 78 | 38 |
| Galdeketetan garatutako bestelako teknika psikologikoak | 56 | 28 |

## Ondorio psikologikoak eta psikiatrikoak

### Diagnostiko psikiatrikoak ebaluazioaren unean

Peritutatutako 202 pertsonetatik 45ek CIE 10eko diagnostiko bat baino gehiago dituzte. Ehunekoa esleitutako diagnostiko guztiei dagokie (n=248)

| **PERITATUTAKO 202 PERTSONEN DIAGNOSTIKO PSIKIATRIKOAK** CIE-10 *Diagnostikoa* | | | |
|---|---|---|---|
| **Kodea:** | **Diagnostikoa** | **N** | **%** |
| F31.9 | Zehaztu gabeko nahasmendu bipolar | 1 | 0,40 |
| F32.0 | Nahasmendu depresibo arina | 2 | 0,80 |
| F32.1 | Neurrizko nahasmendu depresiboa | 25 | 10,1 |
| F32.4 | Nahasmendu depresibo handia arintzen | 7 | 2,8 |
| F32.9 | Nahasmendu depresibo handia | 2 | 0,80 |
| F34.1 | Nahasmendu distimikoa | 4 | 1,6 |
| F34.8 | Aldartean irauten duten bestelako nahasmenduak | 1 | 0,40 |
| F41.1 | Antsietate orokortuaren nahasmendua | 5 | 2,0 |
| F41.2 | Nahasmendu mistoa, antsietate handikoa/Depresiboa | 1 | 0,40 |
| F43.0 | Estres akutuaren erreakzioa | 2 | 0,80 |
| F43.1 | Trauma osteko estresaren nahasmendua | 50 | 20,1 |
| F43.2 | Egokitze-nahasmendua | 3 | 1,2 |
| F43.9 | Nahasmendu somatoformeak | 1 | 0,40 |
| F44.0 | Disoziaziozko amnesia | 1 | 0,40 |
| F51.0 | Substantzia batek edo afekzio fisiologiko ezagun baten eragiten ez duen insomnioa | 4 | 1,6 |
| F51.5 | Amesgaiztoak | 1 | 0,40 |
| F60.4 | Nortasun histrionikoaren nahasmendua | 1 | 0,40 |
| F60.7 | Mendeko nortasunaren nahasmendua | 1 | 0,40 |
| F62.0 | Pertsonalitatearen nahasmendu iraunkorra gertaera katastrofiko baten ondoren | 11 | 4,4 |
| Z63.4 | Familiako kide baten desagerpena eta heriotza | 2 | 0,80 |
| Z65.3 | Bestelako lege-inguruabar batzuekin erlazionatutako arazoak | 4 | 1,6 |
| Z65.4 | Tortura-biktima. CIE-10eko inolako nahasmenduren irizpiderik ez du betetzen. | 119 | 48,0 |

## Miaketa psikometrikoa

### Trauma osteko estresaren sintomatologia

TRAUMAOSTEKOESTRESAGATIKONAHASMENDUARIBURUZKOGALDEKETAREN EMAITZAK (TEPT)

| Trauma osteko estresa (TEPT) | % |
|---|---|
| Ez du TEPTrik | 74,8 |
| TEPTren sintomak | 7,9 |
| TEPT probablea | 7,9 |
| TEPT | 9,4 |
| N | 202 |

## Depresioaren sintomatologia

BECK GALDEKETAREN EMAITZAK

| Depresioa (BECK) | % |
|---|---|
| Ez du depresiorik | 64,9 |
| Depresio arina | 19,3 |
| Neurrizko depresioa | 12,9 |
| Depresio larria | 3 |
| N | 202 |

## Sinesgarritasunaren analisia

KOHERENTZIA AZTERTZEKO ADIERAZLEAK PERITU-TXOSTEN PSIKOLOGIKOAREN IRIZPIDE KLINIKOETAN OINARRITUTA

Perituek ebaluatu dituzten 202 pertsonen datuak pertsona bakoitzaren txosten indibidualetan jasotzen dira. Ondorengo taulan datuak era sinpleagoan laburbildu dira.

| Irizpidea | Koherentea | Ez dago elementu nabarmenik | Koheren-tziarik gabea |
|---|---|---|---|
| 1. Ustezko torturaren kontakizuna (inguruabarrak, mota, metodologia, iraupena, etab.) | 199 | 1 | 2 |
| 2. Espero daitezkeen erreakzio psikologikoa edo muturreko estres-egoeran tipikoak direnak, peritatuaren testuinguru sozialaren eta kulturalaren baitan. | 192 | 10 | 0 |
| 3. Bat etortzea gertaeren deskribapena eta haiek azaltzean izandako emozioak. | 175 | 24 | 3 |
| 4. Bat etortzea hitzezko komunikazioa eta hitzik gabekoa gertaerak kontatzean. | 183 | 18 | 1 |
| 5. Azaldutako gertaerekin bat datozen epe ertain eta luzeko arrastoak. | 168 | 83 | 0 |
| 6. Diagnostiko kliniko nagusia peritatzean, elkarrizketa klinikoan oinarritutako gertaera peritatuei lotua | Ikusi diagnostiko klinikoen taula | | |
| 7. Beste informatzaile batzuekin alderatutako gertaerak eta erreakzioak | 117 | 84 | 1 |
| 8. Deskribatutako gertaeren aurretik eta ondoren haiei lotuta izandako aldaketa funtzionalak (lana, ikasketak, harremanak...). | 171 | 29 | 2 |
| 9. Deskribatutako gertaerei aldi batez lotutako nortasun-aldaketa iraunkorrak | 134 | 68 | 0 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 10. Froga edo azterketa medikoak | 96 | 106 | |
| 11. Deskribatutako gertaerekin bat datozen arrastoak edo lesioak egiaztatzen dituzten aurretiko txosten medikoak edo forentseak | 28 | 174 | 0 |

Peritazio psikologikoaren amaierako sinesgarritasun-irizpidea hau izan zen:

| | N | % |
|---|---|---|
| Koherentziarik handiena | 18 | 9 |
| Oso koherentea | 81 | 40 |
| Koherentea | 98 | 48.5 |
| Koherentziarik gabea (1) | 5 | 2.5 |

1. Kontakizuna koherentea zen kasuak dira, atxiloketaren unean tratu krudel edo umiliagarriekin edo indarra gehiegi erabiltzearekin bat egiten zutenak, baina perituen ustez ez ziren tortura-kasuak.

## KOHERENTZIA AZTERTZEKO ADIERAZLEAK EBALUAZIO MEDIKOAREN IRIZPIDE KLINIKOETAN OINARRITUAK (ISTANBULGO PROTOKOLOA)

| | N | % |
|---|---|---|
| Garrantzia oso handia | 28 | 14 |
| Neurrizko garrantzia | 77 | 38 |
| Garrantzi txikia | 52 | 26 |
| Ez dago elementu nabarmenik | 40 | 20 |
| Aztertu gabe | 5 | 2 |

## KOHERENTZIA AZTERTZEKO ADIERAZLEAK EBALUAZIO MEDIKOAREN IRIZPIDE KLINIKOETAN OINARRITUAK (EMANDAKO DOKUMENTUAK)

| | N | % |
|---|---|---|
| Garrantzia oso handia | 9 | 4.5 |
| Neurrizko garrantzia | 9 | 4.5 |
| Garrantzi txikia | 3 | 1.5 |
| Ez da txostenik eman | 176 | 87 |

## KOHERENTZIARI BURUZKO AMAIERAKO IRIZPENA PERITU-TXOSTEN PSIKOLOGIKOAREN, ISTANBULGO PROTOKOLOAREN EBALUAZIO MEDIKOAREN ETA EMANDAKO DOKUMENTUETAKO IRIZPIDE KLINIKOETAN OINARRITUA

| | N | % |
|---|---|---|
| Koherentziarik handiena | 22 | 11 |
| Oso koherentea | 91 | 45 |
| Koherentea | 80 | 40 |
| Koherentziarik gabea (1) | 5 | 2.5 |

1.Kontakizuna koherentea zen kasuak dira, atxiloketaren unean tratu krudel edo umiliagarriekin edo indarra gehiegi erabiltzearekin bat egiten zutenak, baina perituen ustez ez ziren tortura-kasuak.

## 6.5. Istanbulgo Protokoloaren azken ondorioak

«1960-2013 ALDIKO EUSKADIKO TORTURA»ri buruz KREIk egindako ikerketa-proiektuaren baitan dagoen «202 TORTURAREN ALEGAZIO-KASUAEN ANALISI EGITURATUA ISTANBULGO PROTOKOLOAREN BIDEZ» izeneko aurretiazko txostenaren ondorioak aurkeztuko ditugu.

Proiektuaren zati hau Ekimen, Jaiki-Hadi eta OME elkarteek egin dute; eta ARGITUZ eta GAC elkarteetako profesionalen lankidetza izan dute.

Lan honetan tratu txarren edo torturen alegazioen sinesgarritasuna eta egiantzekotasunaren analisi bat egin da alor honetako nazioarteko peritu-estandarretan (Istanbulgo Protokoloa) oinarrituta, metodologia zatitu eta multidisziplinar batekin eta behaketa-sistemekin eta ikuskapen zientifikoarekin. Sinesgarritasun-analisi hau peritu-irizpide psikologikoetan eta ebaluazio medikoan oinarrituta egin da. Pertsonak alegatutako tratu txarren edo torturen eta bere osasun psikologikoaren eta fisikoaren arteko koherentzia ebaluatzen da.

Ikerketa osasunaren alorreko (batez ere, osasun mentalekoak) eta giza eskubideetan adituak diren (hainbat elkarte profesionaletakoak) 40 profesionalek baino gehiagok egin dute. Lantalde honek nazioartean esperientzia onartua du eta indarkeriarekin, traumarekin eta giza eskubideekin lotutako gaietan prestakuntza handia du.

1. KREIren erroldatik ausaz hautatu ziren 202 tortura-alegazio aztertu ziren.
2. Aurkeztutako emaitzek, ikuskapenerako nazioarteko erakundeek eta nazioko azterlanek deskribatutako aurkikuntzei loturik, adierazten dute tortura Espainian arazo larria dela inkomunikatutako atxilotuei dagokienez, eta tortura prebenitzeko neurriak eskasak eta eraginik gabeak direla.
3. Gure datuak bat datoz nazioarteko erakundeek Espainiara egindako bisitetan emandako aurrekariekin. Ebidentziek iradokitzen dute giza eskubideak urratzen diren arazo bat dela eta intzidentzia eta hedapen handia duela, gainera.
4. Ikerketa honetako xede nagusia izateaz gain, ikerketako honetako aurkikuntzarik garrantzitsuena hauxe da: sinesgarritasun-maila psikologo, psikiatra, mediku eta auzitegi-mediku desberdinek era konbinatuan neurtu dutela. Sinesgarritasuna ebaluatzeko oinarria miaketa psikologikoa / psikiatrikoa izan da, ondorioak kontuan izan beharrean (miaketa klinikoa, test psikometrikoak) miaketako hainbat arlotako koherentzia aztertu da (Istanbulgo Protokoloak horrela egin behar dela adierazten baitu).
5. Ebaluazio psikologikoan, peritazioen % 9 «koherentziarik handiena» gisa sailkatu ziren, % 40 «oso koherente» gisa, % 49 «koherente» gisa eta % 2 «koherentziarik gabe» gisa torturari dagokionez, baina koherenteak ziren tratu krudel edo umiliagarriei dagokienez edo atxiloketaren unean indarra gehiegi erabiltzeari dagokionez.
6. Ebaluazio medikoa 197 kasutan egin zen. Kasuen % 38ri dagokionez, uste izan zen ebaluazio honek neurrizko garrantzia duten datuak eskaintzen zituela, % 26ari dagokionez garrantzi txikikoak eta % 14aren kasuan garrantzi handikoak. Gainerakoetan ondorioztatu zen ebaluazio medikoak ez zuela datu interesgarririk eskaintzen.
7. Soilik 21 kasutan lortu ziren alegatutako torturarekin erlazionatutako txosten medikoak. 9 kasutan uste izan zen ebaluazioak garrantzi handiko datuak eskaintzen zituela, beste bederatzi kasutan neurrizko garrantzizko datuak eta gainerako 3etan garrantzi txikikoak
8. Faktore psikologikoak eta medikoak konbinatu ondoren ebaluazioen sinesgarritasun globala hau izan zen: % 11 koherentziarik handiena, % 46 oso koherenteak, % 41 koherenteak eta % 2 koherentziarik gabeak torturari dagokionez (koherenteak tratu krudel edo umiliagarriei dagokienez edo atxiloketan indarra gehiegi erabiltzeari dagokionez). 5 kasutan ez zen sinesgarritasun globala aztertu ez baitzegoen ebaluazio medikorik.
9. Gure azterketa, halaber, bat dator CPTk, Nazio Batuen Torturaren aurkako errelatoreak eta Amnistia Internazionalak egindako oharrarekin, hots, tortura-salaketak ezin direla asmatutako istoriotzat hartu, baizik eta sinesgarriak direla inguruabar pertsonalak kontuan izanda.
10. Gehien diagnostikatu den nahasmendu psikiatrikoa trauma osteko estresa izan da (% 20), ondoren neurrizko nahasmendu depresiboa (% 10).
11. Elkarrizketatutako pertsonen % 17k trauma osteko estresagatiko nahasmenduaren diagnostikoa izan dezakete (% 8k TEPT probablea izateaz gain), irizpide gisa eskala psikometriko aplikatuak erabiliz. Beste % 8k hobetzen ez duten sintoma partzialak mantentzen ditu.

12. Peritatutako pertsonen % 16k gaur egun tristuraren edo depresioaren neurrizko sintomak ditu (% 13) edo larriak (% 3), irizpide gisa eskala psikometriko aplikatuak erabiliz.
13. Ikerketa honetako datuetatik era argian ondoriozta daiteke erreparazio-neurrien artetik ez litzatekeela alde batera utzi behar arrera psikosoziala, ezta norbanakoa, familia edo komunitatea birgaitzeko eta babesteko neurriak ere. Beharrezkoa izango da era zabalean, integralean eta sakonean heltzea gaiari. Aurretiazko kalkuluek (kuantifikatu gabeko datuak) adierazten dute peritatutako pertsonen % 5 -% 15ek arreta psikologikoa beharko lukeela.
14. Azken batean, aditu forentseen ustez eta protokoloak eskatzen dituen zaintza eta neurri guztiak aplikatuta, 202 pertsona horietatik 197k atxiloketa inkomunikatuan zehar izan zuten tortura-esperientziaren benetako eta egiazko kontakizuna egin dutela uste da. Iritzi hori, berriro diogu, pertsonak alegatutako tratu txarren edo torturen eta bere osasun psikologikoan eta fisikoan izandako inpaktu objektibatuen arteko koherentzian oinarritzen da.



# 7. Behin-behineko ondorioak

Tortura tratu krudelen gauzatze larriagotutzat jotzen da. Bi delitu motak bereizten hasteko, kasuaren hainbat inguruabar, bai barnekoak bai kanpokoak, hartu behar dira kontuan, esaterako: adina, sexua, osasun-egoera, sufrimenduaren intentsitatea eta iraupena.

Datu-basean erregistratutako pertsonek adierazitako esperientzia traumatikoen larritasuna desberdina da. Biktimek adierazitako sufrimenduaren intentsitatea ez da beti iristen maila gorenera eta ezin dugu ahantzi torturaren eta tratu txarren arteko desberdintasuna.

Halere, ikerketa hau gaur egun dagoen eran ezinezkoa da talde bakoitzari (tortura edo tratu txarrak) dagozkion ehunekoak adieraz ditzaketen datu kuantitatiboak eskaintzea, horrek kasu bakoitzaren analisi zehatz bat eskatzen baitu. Halere, tortura-teknikei dagokienez (elektrodoak, poltsa eta bainuontzia), bideoetan eta audioetan jasotako lekukotzetan eta Istanbulgo Protokoloa aplikatuta eskaini ditugun emaitzetan oinarrituta egiten ari garen analisi kualitatiboari dagokionez, talde honek baiezta dezake kasu oso larrien kopurua oso handia izan daitekeela.

Sortutako informazioaren eta egindako lehenengo analisien bidez, ondorengo ondorioak behin-behineko gisa har daitezke; gogoratu behar dugu, gainera, informazio eta analisi horiek 1960-2013 aldiko unibertsoa aipatzen dutela eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako edo bizi diren edo bertan tratu txarrak edo torturak jasan dituen beste edozein hartzen dela aintzat:

- 1960-2013 aldian torturari buruzko etengabeko kezka egon da; izan ere, milaka herritarrek salatu dituzte publikoki eta/edo judizialki tratu txarrak eta/edo torturak pairatu dituztela poliziako funtzionario publikoen aldetik. Atxilotuak inkomunikatuta egotea bezalako neurriek era argian tratu txar eta tortura horiek egitea sustatu dute.

- Nazio mailako eta nazioarteko erakunde eta behatzaile ugarik atentzioa eman dute aurrez aipatutako errealitatearekiko, eman diren epai judizialetan oinarrituta; halaber, uste osoa dute irizpide profesionalen bidez ebaluatuta egin diren salaketa publikoek benetako oinarri dutela. Era berean, gai honetan sortutako bibliografiak aurrekoa egiaztatzen du.

- Polizia Nazionalari dagozkion 9 kondena-epai eman dira guztira eta 12 Guardia Zibilari dagokionez; hala, 50 funtzionario (emakume 1 eta 49 gizon) kondenatu dira 1979-1992 aldian 32 (4 emakume eta 28 gizon) pertsonari egindako gertaerengatik. Kondena-epairik ez da egon Ertzaintzaren aurka.

- Bereziki 80ko hamarkada nabarmentzen da, salaketen kopurua handia baita eta justizia-auzitegiek emandako lehenengo kondenak gauzatu baitziren Auzitegi Gorenak berretsiak. Ondoren, tortura-metodoetan aldaketak egin ziren, torturak egiaztatzeko froga forentseak zailtzen ahalegintzeko.

- Salatutako gertaeren, torturen eta tratu txarren adierazpenen ustezko autoretzak polizia-kidegoen arabera bereiziz gero, polizia nazionalak eta guardia zibilak antzeko datuak dituzte.

- Eraginpeko pertsonek alegatu dituzten tortura-metodoei dagokienez, desberdintasun nabarmena dago polizia-kidegoen artean. Poltsaren erabilera nabarmentzen da Guardia Zibilak atxilotu zituen pertsonek esandakoaren arabera. Luzaro tente egonaraztea eta akitze fisikoa, hiru polizia-kidegoek atxilotu zituzten pertsonek adierazitako teknika bat da; ordea, poltsa, elektrodoak eta bainuontzia Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak atxilotutako askok pairatu dutela adierazi dute. Aurrekoari gehitu behar zaio oihuek, irainek eta mehatxuek psikikoki duten garrantzia. Baina horiek guztiak ez dira atxilotuek alegatutako tortura-metodo bakarrak ezta larrienak ere.

- Aurretik aurkeztutakotik ondoriozta daiteke, maila kualitatiboan zein kuantitatiboan, ez direla parekagarriak torturen eta tratu txarren salaketak hiru polizien artean.

- Bestetik, azken hamarkadetan, nazioarteko zenbait erakundek Espainia kondenatu dute torturaren aurkako eta torturaren prebentzioaren arloko betebeharrak ez betetzeagatik. Gauza bera egin du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eman dituen epaietan ere, lau kasutan Euskal Autonomia

Erkidegoko herritarrei dagokienez (2002, 2003 eta 2011ko gertaerak), hiru kasutan Nafarroakoei dagokienez (2009 eta 2011ko gertaerak) eta bat Kataluniakoei dagokienez (1992ko gertaerak).

- Era berean, Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeak bi kondena-irizpen egin ditu 1992an gertatutako torturengatik.
- Tortura prebenitzeko neurri zuzentzaileak txerta daitezela eskatu dute etengabe denbora honetan guztian zehar giza eskubideen erakundeek eta erakunde publikoek, baina administrazioaren aldetik ez da behar besteko esku-hartzerik egin atxilotuen eskubideak era eraginkorrean bermatzeko.
- 1997an eta «nazioarteko erakundeek, bereziki, Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak egindako gomendioak gauzatzeko eta Espainiako Auzitegi Medikuen ekintzak nazioartean onartutako teknika eta prozeduretara egokitzeko helburuarekin», protokolo bat ezarri zen auzitegi-medikuek atxilotuak aztertzeko; horren helburua informazioa mediko argiagoa eta zehatzagoa izatea da, auzitegietarako funtsezko froga-elementua izan dadin.
- Tamalez, aurrez esandakoa ez da bete, salbuespenetan izan ezik; horrek atxilotuek alegatutako kasuak ikertzeko funtsezko feoga gauzatzea zaildu du.
- 2003an, Eusko Jaurlaritzak «Inkomunikazio erregimenean atxilotutakoentzako arreta koordinatzeko protokolo» bat ezarri zuten; hala, protokolo horrek zuzenean inplikatzen ditu Justizia Administrazioa, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua eta, gai honi dagokionez, atxilotuen kudeaketa kontrolatzeko tresna egoki bat da, bideograbaketa ere txertatzen duena.
- Tamalez, aurrez adierazitakoa Ertzaintzako agenteek egindako atxiloketetan betetzen da; hala, beharrezkoa da protokolo hau beste segurtasun-indar batzuek atxilotutako pertsona guztietara hedatzea, gaur egun ez dauden berme batzuk ekarriko bailituzke.
- Horrekin guztiarekin, protokolo hau hobetu daiteke Arartekoak 2011ko bere txostenean egindako iradokizunen arabera.
- Gauzatutako ikerketan 4.009 pertsonen kasuen errolda bat ezarri da (% 17 emakumeak eta % 83 gizonak); izan ere, milaka herritarrek salatu dituzte publikoki eta/edo judizialki tratu txarrak eta/edo torturak pairatu dituztela poliziako funtzionario publikoen aldetik. Horietatik % 17k behin baino gehiagotan jasan ditu. Zifra horiek eraginpekoen benetako dimentsioaren azpitik daude, kontuan izaten badugu pertsona gehiagok jakinarazi dutela erroldan sartuko direla (oraindik ez dute hori egin). Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak martxan jarritako ikerketan arreta ematea nahi dute pertsona hauek. Salaketa hauen bilakaera historikoari esker, egiazta daiteke salaketak pixkanaka jaitsi egin direla 2004. urtetik aurrera, eta ez da kasurik erregistratu 2015an, ezta 2016an ere.
- Ikerketan zehar kontsultatutako pertsona eta erakunde guztien ulermena eta lankidetza egiaztatu da. Horiek guztiek nabarmendu dute ikerketa hau eta ikerketa honek, gertaeren errekonozimenduaren mesedetan, neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko lortu nahi dituen helburuak egokiak direla, era bakarra baita gertaera horiek gainditzeko eta horiei amaiera emateko.
- Sortutako informazioa intereseko hiru alorretan jaso da, gertaerak egiaztatzeko behar beste elementu daudela bermatzeko helburuarekin, hauek dira: lekuko-froga, froga dokumentala eta peritu-froga, 22.000 dokumentu baino gehiago analizatuta.
- Ildo horri jarraikiz, audioan eta bideoan jasotako lekukotzak 900 baino gehiago dira eta peritu-frogak, hau da, Nazio Batuen Istanbulgo Protokoloa (2000) 202 pertsonari aplikatu zaie (% 76 demokraziaren aldikoak, % 20 demokraziaren aurreko aldikoak eta % 4 bietakoak). Horrek guztiak emaitza eztabaidaezinak eskaintzen ditu kontakizunen sinesgarritasunari dagokionez eta, ondorioz, salatutako gertaerei dagokienez. Izan ere, protokolo honen bidez egindako ebaluazio psikologikoan, torturari dagokionez, peritatzen % 9 a “sendotasun maximokoak” zirela jo zen, % 40 a “oso sendoak”, % 49 a “sendoak” eta % 2 a “sendotasunik gabeak”, tratu anker edo umiliagarritzat eta neurriz gainezko indarkeria erabili izanaz hartzeko sendoak ziren arren.

- Aztertutako kasuen % 5etik beherakoa ez den ehuneko batek ondorio psikologikoak ditu eta, horregatik, pertsona hauei asistentzia-neurri espezifikoak eta espezializatuak ezartzea gomendatzen dugu; horrela, une oro pertsona hauen birbiktimizazioa saihestuko da.

Azkenik, erabat beharrezkoa dela uste dugu hasitako lanarekin jarraitzea, ezin baita amaitutzat jo, eta gogoeta egin beharko da torturaren eta tratu txarren errekonozimendu, erreparazio eta prebentzioari dagokionez.

# Eranskina

## 2016KO UDAKO IKASTAROKO PROGRAMA

### VERDAD Y RECONOCIMIENTO PARA LAS VÍCTIMAS DE TORTURA, TRATOS INHUMANOS Y DEGRADANTES

https://www.uik.eus/es/verdad-y-reconocimiento-para-las-victimas-de-tortura-tratos-inhumanos-y-degradantes

### Donostian, 2016ko ekainaren 27, 28, eta 29an

### 2016ko ekainaren 27a (Antonio Beristain entzunaretoa, Carlos Santamaría Zentroa)

08:45 - 09:15 **Harrera eta dokumentazioa banatzea**
Aurkezpena: **José Luis de la Cuesta**

09:30 - 09:40
**Kongresuaren hasiera.**
Txostengilea: **Iñaki Goirizelaia**
Erakundea: UPV-EHU, errektorea

09:40 - 09:50
**Kongresuaren hasiera.**
Txostengilea: **Josu Erkoreka Gervasio**
Erakundea; Eusko Jaurlaritza. Herri Administrazio eta Justiziako sailburua eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea

09:50 - 10:00
**Kongresuaren hasiera.**
Txostengilea: **Maribel Vaquero**
Erakundea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

10:15 - 11:30 **Konferentzia**
Inaugurazio-hitzaldia: ***«1960-2013 aldiko tortura proiektua» izeneko ikerketari buruzko analisia eta iruzkinak***
Txostengilea: **Juan Ernesto Méndez**
Erakundea: Nazio Batuak. Torturaren aurkako errelatore berezia
Moderatzailea: **Francisco Etxeberria**

11:30 - 12:00 **Etenaldia**

12:00 - 13:00 **Konferentzia**
*«1960-2013 aldiko tortura-proiektua» izeneko ikerketako emaitzen aurkezpena*
Txostengilea: **Francisco Etxeberria**
Erakundea: Kriminologiaren Euskal Erakundea
Txostengilea: **Carlos Martín Beristain**
Erakundea: Kriminologiaren Euskal Erakundea

Txostengilea: **Laura Pego**
Erakundea: Kriminologiaren Euskal Erakundea
Txostengilea: **Benito Morentin**
Erakundea: Kriminologiaren Euskal Erakundea

16:00 – 18:30 **Mahai-ingurua:** *Tortura ikertzeko eta prebenitzeko mekanismoak.*

Parte-hartzailea: **Elisabeth Lira**
Erakundea: Valech Batzordea, Txile

Parte-hartzailea: **Helena Solà**
Erakundea: Torturaren aurkako Munduko Erakundea, Geneva
Moderatzailea: **Jon Landa**

## 2016ko ekainaren 28a (Antonio Beristain entzunaretoa, Carlos Santamaría Zentroa) )

09:00 - 09:45 **Konferentzia**
*La prueba en los procesos judiciales por denuncias de tortura: dificultad y medidas a adoptar.*
Txostengilea: **Iñigo Iruin**
Erakundea: Abokatua

09:45 - 10:30 **Konferentzia**
*La prescripción en los delitos de tortura*
Txostengilea: **Manuel Ollé**
Erakundea: Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea. Abokatua eta Nazioarteko Zigor Zuzenbideko irakaslea

10:30 - 11:00 **Konferentzia**
*La jurisprudencia del Tribunal Europeo de DDHH con relación a la tortura*
Txostengilea: **Manuel Lezertua**
Erakundea: Arartekoa
Moderatzailea: **Ana Isabel Perez Machío**

**11:00 - 11:30 Etenaldia**

11:30 - 12:00 **Konferentzia**
*Mecanismos de Prevención*
Txostengilea: **Jorge Aldekoa**
Erakundea: Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritza

12:00 - 12:30 **Konferentzia**
*Tortura prebenitzeko azpibatzordea*
Txostengilea: **Víctor Madrigal**
Erakundea: Tortura prebenitzeko azpibatzordea

12:30 - 13:00 **Konferentzia**
*La investigación y documentación de tortura y los malos tratos*
Parte-hartzailea: **Duarte Nuno Vieira**
Erakundea: Lege Medikuntzaren Europako Kontseilua
Moderatzailea: **Rafa Sainz de Rozas**

16:00 – 18:30 **Mahai-ingurua:** *Protocolo de Estambul como prueba pericial: análisis médico psiquiátrico de 200 casos de alegaciones de torturas y malos tratos*
Parte-hartzailea: **Iñaki Markez**
Erakundea: Psikiatra

Parte-hartzailea: **Miguel Ángel Navarro**. Psikologoa
Erakundea: Ekimen / Argituz

Parte-hartzailea: **Pau Pérez Sales**. Psikiatra
Erakundea: GAC/SiRa eta AEN

Parte-hartzailea: **Joana Miren Ruiz Goikotxeta**. Psikologo klinikoa
Erakundea: OME

Parte-hartzailea: **Teresa Velasco Plaza**. Psikologoa
Erakundea: Jeiki Hadi

Parte-hartzailea: **Olatz Barrenetxea Larrondo**. Psikologo klinikoa
Erakundea: OME
Moderatzailea: **Ignacio Muñagorri**

## 2016ko ekainaren 29a (Ignacio María Barriola (ikasgela-eraikina) eraikineko entzunaretoa)

09:00 - 10:15 **Mahai-ingurua**
*Denuncia social y activismo en contra de la tortura*

Amnistia Internazionaleko ordezkaria: **Virginia Alvarez**
Euskal Memoriaren ordezkaria: **Eugenio Etxebeste**
Argituz elkarteko ordezkaria: **Andrés Krakenberger**
Goldatu elkarteko ordezkaria: **Agurtzane Juanena**
Behatokiaren ordezkaria: **Iratxe Urizar**
Moderatzailea: **Sabino Ormazabal**

10:15 - 11:30 **Mahai-ingurua**
*Denuncia social y activismo en contra de la tortura*

Tortura Prebenitzeko Koordinakundearen ordezkaria: **Jorge del Cura**
TATen ordezkaria: **Lorea Bilbao**
SOS Arrazakeriaren ordezkaria: **Mikel Mazkiaran**
Espetxeko Pastoralaren ordezkaria:
Salhaketaren ordezkaria: **Carlos Ernesto Hernández Hernández**
Moderatzailea: **Andrés Krakenberger**

**11:30 - 12:00 Etenaldia**

12:00 - 12:45 **Mahai-ingurua**

1982ko tortura-biktima baten kontakizuna: **Axun Lasa**
1992ko tortura-biktima baten kontakizuna: **Enkarni Blanco**
2002ko tortura-biktima baten kontakizuna: **Miren Azkarate**
Moderatzailea: **Carlos Martín Beristain**

**12:45 – 13:00 Etenaldia**

**Konferentzia eta amaiera**
*Eusko Jaurlaritzako 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Planaren 6. ekimena «Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak»*
Txostengilea: **Jonan Fernandez**
Erakundea: Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

# **6.** dokumentua

Datuak bildu eta oinarrizko txostena egiteko 1936-1978 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzko Lankidetza-hitzarmena

# Lankidetza-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Aranzadi Zientzia Elkartearen artekoa, datuak bildu eta oinarrizko txostena egiteko 1936-1978 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzkoa

## Parte-hartzaileak

**Jonan Fernandez Erdozia** jauna, Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia, **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN** izenean eta hura ordezkatuz.

**Aintzane Ezenarro Egurbide** andrea, **MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUKO** zuzendaria, institutu horren izenean eta hura ordezkatuz.

**Iñaki Goirizelaia Ordorika** jauna, **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO** (aurrerantzean UPV/EHU) errektore magnifikoa, haren izenean eta hura ordezkatuz.

**Francisco Etxeberria Gabilondo** jauna, **ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO** burua, elkartearen izenean eta hura ordezkatuz.

Alderdi guztiek hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta horretarako, honako hau,

# Adierazten dute:

Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren 2013-2016 Bake eta Bizikidetza Planak, 2013. urtean onartuak, bere 1. ekimenean jaso zuen memoria historikoari buruzko lehentasunen oinarrizko programa bat egin behar zela. Programa hori 2014ko azaroan aurkeztu zen, eta, bertan, lehentasunen artean, frankismoan (1936-1978) urratutako giza eskubideen oinarrizko txostena egin beharra eta txosten hori prestatzeko batzordea sortu beharra adierazi zen.

Hala, 2015eko abenduan aurretiazko azterketa bat egin zen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak eskatuta, giza eskubideen nazioarteko eskubidea behatzen duten erakunde ofizialek Espainiako gerra zibilean eta ondorengo diktadura-garaian urratutako giza eskubideei buruz igorri dituzten adierazpen, aitorpen, txosten eta ebazpenik esanguratsuenak aztertzeko asmoz. Hori horrela, modu sistematikoan batu nahi izan dira erakunde horiek igorri dituzten elementu informatibo eta kritikoak, “1936-1978 urte bitartean urratutako giza eskubideei buruzko behin-behineko txostena” proiektatzeko oinarri gisa, txosten hori erabilgarria izan dadin, batez ere bidezko aspirazioen ikuspegitik, biktimen eta gizarte osoaren egiarako eskubidea aseta geratzeko.

Halaber, azterketa honetan metodologiaren aurretiazko proposamen bat egin nahi izan da, bai eta txostenaren behin-behineko aurkibidea, sumarioa edo egitura eman ere, eta, horren harira, biktimen kategorien zerrenda bat jaso eta txostena egiteko metodologia bat proposatu da.

Eremu honetan urteetan lanean diharduten EAEko erakunde publikoak hainbat dira. Gaiari buruzko dokumentazioa bildu dute, eta 1936-1978 urte bitartean urratutako giza eskubideei buruzko txosten hau egiteko interesa adierazi dute. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia dauka, lehendakariari bakea behin betiko finkatzeko eta bizikidetzaren gizarte-normalizazioa lortzeko estrategia eta jarduerak definitzen eta zuzentzen laguntzen diona. Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren 19. artikuluan adierazitakoaren arabera, bada, honako eskumenak dauzka, besteak beste: memoria historikoaren politika publikoak zehaztea; biktima guztiekiko elkartasun, aitorpen eta arretarako politikak garatu, hedatu eta horiei jarraipena ematea; eta helburu horiek lortzeko erakunde, elkarte eta instituzioekin lankidetzan eta elkarrekintzan aritzea.

Horretarako, “Frankismoaren biktimen kudeaketa” izeneko fitxategian eta “Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen kudeaketa” izeneko fitxategian gai honekin lotutako dokumentazioari buruzko hainbat artxibo dauzka.

Azaroaren 27ko 4/2014 Legearen bidez sortutako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren xedea da, gainera, euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearen eta bizikidetza demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartzea. Institutu horren zereginen artean, honakoak aurki ditzakegu:

- Kontserbazioa, Euskadiko memoria demokratikoaren ondarea gordetzeko lana eginez, haren euskarri material guztietan.
- Ikerketa, instituzioekin, entitate espezializatuekin eta gogoeta-foroekin lankidetzan arituz, ikerketa- eta azterketa-lanen bidez benetako informazioa eta datuak biltzeko behar diren dokumentazio-azpiegiturak sortzeko.
- Parte-hartzea eta zabalkundea, memoriaren ondarea Administraziok herritar guztiei modu irisgarrian bermatu beharreko eskubidetzat hartuz.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHUk), bere helburu eta eskumenen artean, jakitearen sorkuntza, kritika eta transmisioa sustatzeko bokazioa dauka, eta, hala, ezagutzaren aurrerapenean eta gizarte-garapenean laguntzen du, ikerketak egin eta horien emaitzak gizartean zabalduta (UPV/EHUko Estatutuak, 4.1.a artikulua). Era berean, unibertsitatean gaia hedatu eta proiektatzeko helburua dauka, gizarte- eta kultura-mailako desberdintasunak murriztu eta bizitza politikoan, kulturalean eta sozialean hobeto parte

hartzea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko asmoz (UPV/EHUko Estatutuak, 4.1.f artikulua). Eta, helburu horiekin batera, hitzarmen honen xedearekin hertsiki lotuta, UPV/EHUren estatutuek bizikidetza demokratikoa sustatzeko eta euskal gizartearen garapen bidezkoa eta iraunkorra indartzeko konpromisoa jasotzen dute, terrorismoaren eta indarkeriaren zantzu oro baztertuta (UPV/EHUko Estatutuak, 4.2.c artikulua).

Bizikidetza sustatzeko konpromiso hori, beraz, zuzenean lotuta dago proiektu honekin. Bada, Euskal Herriko Unibertsitateak profil bereziki egokia dauka proiektu honetarako, berau gauzatuko duen diziplina arteko ikerketa-talde independente eta kaudimenduna eratzen laguntzeko orduan. UPV/EHUk, gainera, guztien esku jarriko ditu dauzkan funts dokumental guztiak, eta, bereziki, gerra zibilaren, errepresio frankistaren eta memoria historikoaren azterketa historiko, mediko-forentse eta juridikoaren eremuan lan egiten aritu diren ikerketa-taldeekin lotutako horiek.

Aranzadi Zientzia Elkartea 1947an sortu zen ikerketa-zentro gisa. Artxiboan funts dokumental oparoa dauka, bai eta memoria historikoaren arloan gauzatu diren ikerketa zehatzen txostenak ere, euskal erakundeek finantzatuta. Material hori guztia ikerketaren profesionalen esku dago, eta urteetan zehar eskari partikularrei eta erakundeen eskariei erantzuna emateko balio izan du.

Horregatik guztiagatik, alderdiek LANKIDETZA-HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmena arautuko duten

# Klausulak

## LEHENENGOA. Xedea

Lankidetza-hitzarmen honen xedea 1936-1978 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzko datuak batzea eta datuok lotu eta modu zientifiko eta sistematikoan aurkeztuko dituen oinarrizko txostena egitea da, exekuzio, desagerpen behartu, hautazko atxiloketa, lan behartu eta erbesteratzeari bereziki erreparatuta.

Txosten hori oinarritzat hartuta, beraz, berau hedatzeko neurri osagarriak ezarriko dira.

## BIGARRENA. Jarduerak

Aurreko klausulan adierazitako xedea lortzeko, honako jarduera hauek gauzatuko dira:

- Alderdietako bakoitzak gai honekin lotuta daukan dokumentazioa aurkeztuko du.
- Batzorde akademikoak, bestalde, aurkeztutako datuak eta biltzeke daudenak aztertuko ditu, eta lan-plan bat egingo du, ikerketa-taldeak betearazi beharko duena.
- Ikerketa-taldeak datuak bildu eta ikerketak egingo ditu.
- Memoria-elkarteekin parte hartzeko dinamikak garatuko dira, ikerketaren emaitzak partekatu, eta, hala badagokio, informazio osagarria batzeko.
- 1936-1978 urte bitartean urratutako oinarrizko eskubideen txostena egingo da, exekuzioei, desagerpen behartuei, hautazko atxiloketei, lan behartuei eta erbesteratzeei bereziki erreparatuta.
- Azken agiria hedatuko da, eta, horretarako, agiri hori jendaurrean azalduko da. Fase horretan, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzak eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak parte hartuko dute.

## **HIRUGARRENA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren konpromisoak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, konpromiso hauek hartuko ditu bere gain, hitzarmen honen garapenean aurreikusitako jarduerak burutzeko eta abian jartzeko:

1.- Batzorde akademikoaren esku jartzea Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzan eskuragarri dagoen honako material hau:

"Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen kudeaketa" (1978ra arte) izeneko fitxategian eta "Frankismoaren biktimen kudeaketa" fitxategian jasotako edukia. Bi horiek lehendakariaren otsailaren 25eko 8/2016 Dekretuaren bidez aitortu dira. Besteak beste honako dekretuei buruzko datu-basea identifikatu da: 280/2002 eta 22/2006 Dekretuak, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun-gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioari buruzkoak, eta 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa.

2.- Ikerketa-taldearen eta batzorde akademikoaren lanak sustatu, aholkatu eta babestea, jarraipen-batzordearen bitartez.

3.- Garatzen diren ekimenak hedatu eta txostena aurkezteko ekitaldi publiko bat egitea.

4.- Txostena Espainiako Gobernuari eta NBEko Giza Eskubideen Goi Mailako Ordezkaritzari edo/eta Nazio Batuetan giza eskubideak kontrolatzen dituzten gainerako erakundeei edo Europa-mailan antzeko eskumenak dituzten erakundeei helaraztea.

5.- Hitzarmen honen zortzigarren klausulan adierazitako diru-kopuruaren ekarpena egitea, zehaztutako xedeetarako.

## **LAUGARRENA.** Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren konpromisoak

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak honako konpromiso hauek hartuko ditu beregain, hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak burutu eta abian jartzeko:

1.- Memoriaren eta giza eskubideen elkarte desberdinekin parte hartzeko prozesu bat garatzea, txostena egiteko eta berau hedatzeko elkarrizketa konstruktiboa sortuko duten ikuspegiak jasoz.

2.- Txostenaren emaitzak hedatzea, eta, horretarako, hitzaldiak antolatu eta memoria-elkarteekin harremanetan jartzea.

3.- Txostenean jasotako eta aipatutako gaiak sustatu eta hedatzeko politika zehatzak bultzatzea, hezkuntzaren munduan.

4.- Hitzarmen honen zortzigarren klausulan adierazitako diru-kopuruaren ekarpena egitea, zehaztutako xedeetarako.

5.- 1936-1978 urte bitartean urratutako giza eskubideei buruzko txostenaren harira 2015eko abenduan egindako aurretiazko azterlana aurkeztea.

## **BOSGARRENA.** UPV/EHUren konpromisoak.

UPV/EHUk honako konpromiso hauek hartu ditu:

1.- Batzorde akademikoaren esku jartzea UPV/EHUn eskuragarri dagoen material bibliografiko eta dokumentala, eta, batez ere, memoria historikoaren gainean egindako tesiak.

2.- Historiaren gaineko bi pertsona aditu jartzea, ikerketa-lanak egiteko, eta beste hiru pertsona, batzorde akademikoaren kide izateko: bat historia garaikidean aditua eta beste biak zuzenbidean adituak.

3.- Txostena egitean genero-ikuspegia sartzen dela bermatzea.

## **SEIGARRENA.** Aranzadi Zientzia Elkartearen konpromisoak.

Aranzadi Zientzia Elkarteak honako konpromiso hauek hartu ditu, hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak burutu eta abian jartzeko:

1.- Aipatu elkartearen artxiboetan dagoen material hau batzorde akademikoaren esku jartzea:

- Memoria historikoaren gaineko ikus-entzunezko lekukotasunak.
- El Ferroleko Erregistro Militar Nazionaleko (RMN) Bitarteko Artxibotik hartutako dokumentazioa, 50.000 pertsona baino gehiagori buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hobietatik ateratako gorpuei buruzko txostenak.
- Gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen beste zerrenda batzuk.

2.- Historiaren eta antropologiaren gaineko pertsona aditu bat jartzea, batzorde akademikoaren kide izateko.

3.- Historialari bat jartzea, landako ikerketa-taldean parte hartzeko.

4.- Txostena egitean genero-ikuspegia sartzen dela bermatzea.

## **ZAZPIGARRENA.** Lan-taldeen osaera

1.- Batzorde akademiko bat eratuko da, eta honakoak izango dira batzordekideak:

- Jon-Mirena Landa Gorostiza, Enara Garro eta Iosu Txueka irakasleak, UPV/EHUren aldetik.
- Lourdes Herrasti historialaria, Aranzadi Zientzia Elkartearen aldetik.

2.- Gainera, ikerketa-talde bat eratuko da, UPV/EHUko bi pertsonak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko pertsona batek osatuta. Talde hori arduratuko da batzorde akademikoak egiten duen lan-planean zehaztutako ikerketa-lana egiteaz, txostena prestatzeko beharrezkoak diren datuak jasotze aldera.

## **ZORTZIGARRENA.** Hornidura ekonomikoa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, hogei mila (20.000) euroren ekarpena egingo du, hitzarmen honen bigarren klausulan deskribatutako jardueren kostuaren zati bat ordaintzeko. Kopuru hori aurrekontuko partida honen kargura egingo da: 16.0.1.01.31.0000.1.238.99.46210.002/M

2.- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak hogei mila (20.000) euroko ekarpena egingo du. Kopuru hori aurrekontuko partida honen kargura egingo da: 16.0.1.42.00.0000.3.238 .99.46220.005/T

3.- Diru-ekarpena bi alditan ordainduko da, honela:

- Lehenengo ordainketa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak egingo duena, 20.000 eurotan, batzorde akademikoak ikerketa-taldearen eskutik egin beharreko lan -plana prestatzen duenean eta berau jarraipen-batzordean onartzen denean, 16.0.1.42.00. 0000.3.238.99.46220.005/T partidaren kargura. Lehenengo ordainketa horretatik 13.750,00 euro UPV/EHUri ordainduko zaizkio eta 6.250,00 euro Aranzadi Zientzia Elkarteari.
- Bigarren ordainketa, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak egingo duena, 20.000 eurotan, azken txostena aurkeztu ondoren, 16.0.1.01.31.0000.1.238.99.46210.002/M partidaren kargura. Bigarren ordainketa horretatik 13.750,00 euro UPV/EHUri ordainduko zaizkio eta 6.250,00 eurora arte Aranzadi Zientzia Elkarteari. Ordaindu beharreko azken zenbatekoa egindako eta justifikatutako gastuen araberakoa izango da.

4.- Bitarteko ekonomikoak Bake eta Bizikidetzarako Idazkariak eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak kudeatuko dituzte zuzenean.

## **BEDERATZIGARRENA.** Lankidetzaren ikusgaitasuna

Sinatzaileek hitzarmen honen xede den lankidetza nabarmentzeko konpromisoa hartu dute. Berariaz jasota geratuko da alderdien arteko lankidetza, eta bermatuta egongo da sinatzaile guztien irudi korporatiboaren ikusgaitasuna, ordezkagarritasun- eta neurri-ezaugarri berberekin, eta egokiak izan daitezkeen beste ezaugarri batzuk ezertan eragotzi gabe.

## **HAMARGARRENA.** Txostenaren jabetza intelektuala

1.- Erakunde sinatzaileek hitzarmen honen baitan egindako ekintzen eta ikerketa-lanen ondorio diren datuak eta ezagutzak erabili ahal izango dituzte.

2.- Hitzarmen honen xede diren jardueren ondorioz argitaratutako txostenaren jabetza intelektualari datxezkion ustiapen-eskubideak haren sinatzaile guztienak izango dira, neurri berean.

## **HAMAIKAGARRENA.** Jarraipen-batzordea

1.- Hitzarmenaren jarraipena egiteko, eta hura behar bezala interpretatzeko eta izan daitezkeen zalantzak argitzeko ere, jarraipen-batzorde bat zehaztuko da. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik, Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia.
- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren aldetik, institutuko zuzendaria.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen aldetik, Amaia Maseda, UPV/EHUko errektoreordea, eta Jon Mirena Landa Gorostiza, proiektuaren koordinatzaile eta zuzendaria.
- Aranzadi Zientzia Elkartearen aldetik, Juan Aguirre, Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusia.

Batzorde horrek zehaztuko du nola jardun elkarrekin hitzarmen honen garapenean.

2.- Batzordeak bilerak egingo ditu gutxienez bi aldiz, proiektua garatzen ari den bitartean. Hala ere, aldian-aldian harremanak izango dira hala eskatzen duten gai guztietarako.

- Ikerketa-taldeak betearazi beharreko lan-plana prestatu ondoren.
- Azken txostena prestatu ondoren.

3.- Bilera bakoitzari buruz akta bat egingo du idazkari-lanetan ari den pertsonak. Pertsona hori Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak aukeratuko du, Idazkaritza horretara atxikitako teknikarien artean.

4.- Batzordeak oniritzia emango du, aurreikusitako jarduera bakoitza egin ahala. Baldintza hori ezinbestekoa izango da hitzarmen honen zortzigarren klausulan aipatutako ordainketa partzialak egiteko.

5.- Kide anitzeko organoei buruzko arauei lotuko zaie batzordearen araubide juridikoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. kapituluan bildutakoaren arabera.

## **HAMABIGARRENA.** Datu pertsonalak

1.- Batzorde akademikoak eta ikerketa-taldeak (Aranzadi Zientzia Elkarteko eta UPV/EHUko langileez osatuak) egin beharreko lanetan gai honen gaineko indarreko araudian ezarritakoaren arabera arautitako fitxategietan jasotako datu pertsonalak tratatzen badira, bi erakundeek fitxategi horien gaineko segurtasuna eta konfidentzialtasuna betetzeko eta konfidentzialtasun osoz jokatzeko bermea eta betebeharra izango dute, indarreko legediaren arabera, eta, zehazki, tratamenduaren arduradun diren aldetik, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berau garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan jasotakoa bete beharko dute.

2.- Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren artean datuak helarazteko, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoa beteko da.

## **HAMAHIRUGARRENA.** Indarraldia eta iraungipena

1.- Izenpetzen den egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean hitzarmen hau.

2.- Hitzarmena amaituko da aurreko zenbakian ezarritako epea bukatzen denean, edota, bestela, alde guztiek idatziz horrela erabakitzen dutenean.

3.- Halaber, edozein alderdik amaitutzat eman dezake hitzarmena, alde bakarretik. Horretarako, amaiera hiru hilabete lehenago jakinarazi behar du gutxienez, idatziz. Amaiera gainerako alderdiei jakinaraziko zaie.

4.- Nolanahi ere, martxan dauden edo hirugarrenekin adostu diren jarduerek berariaz lotuko dituzte alderdi horiek, jarduerak amaitu arte, eta, azkenean egindako eta justifikatutako gastuak lehenengo ordainketan entregatutako zenbatekoak baino baxuagoak badira, ordaindu diren eta justifikatu ez diren zenbatekoak itzuli beharko dira.

Eta adostasunaren lekuko, hitzarmen hau izenpetu dute hitzarmeneko kideek lau aletan, orri guztietan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ALDETIK

**Jonan Fernández Erdozia**
Bake eta Bizikidetzarako
idazkari nagusia

MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUAREN ALDETIK

**Aintzane Ezenarro Egurbide**
Gogora Institutuko
zuzendaria

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ALDETIK

**D. Iñaki Goirizelaia Ordorika**
Errektorea

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ALDETIK

**Francisco Etxeberria Gabilondo**
Aranzadi Zientzia Elkarteko burua

# **7.** dokumentua

**Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena,** ETAren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean

# Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena,
## ETAren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean

**2014ko abenduaren 21a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

# Sarrera

Hiru urte baino gehiago dira ETAk indarkeria-estrategia behin betiko utziko zuela iragarri zuenetik. Orduz geroztik, euskal gizartea bakea behin betiko finkatzeko eta bizikidetza normalizatzeko prozesu bat bideratzen ari da. Aldaketa historiko hori sustatzeko eta garatzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak, 2013ko azaroaren 26an, Bake eta Bizikidetza Plana onartu zuen.

Sozialki, instituzionalki eta politikoki egindako aurrerapenak eta pausoak garrantzitsuak dira. Hala ere, oraindik ere prozesu hau erabat gauzatzea eragozten duten blokeo-faktore batzuk daude eta horietako bat ETAren desarmearen ingurukoa da. Bake eta Bizikidetza Planaren zazpi helburuetatik lehenengoa, zehazki eta esplizituki, auzi horrekin lotuta dago:

«ETAren desarmearen exijentzia eta haren benetako amaiera gauzatzen laguntzea».

Legegintzaldiaren hasieratik, Eusko Jaurlaritzak jarrera zorrotza, aktiboa, malgua eta egonarritsua izan du arlo honetan. Gaur egungo egoeran armagabetzeko zailtasun operatiboak daudela onartu du, armagabetzean ekarpen bat egiten ahalegintzen ari diren nazioarteko eragileekin elkarlanean aritu da, Espainiako Gobernuari laguntza eskatu dio eta bera ere laguntzeko prest agertu da, baita materialki laguntzeko ere.

Kontua da 38 hilabete igaro direla, denbora luzeegia, inolako emaitza efektiborik gabe.

2014ko urtarrilean aurkeztutakoa behar baino pauso txikiagoa izan zen, itxura guztien arabera. Aurrerapausorik ezak eta iragarritako konpromisoak –publikoki iragarritakoak barne– bete ez izanak frogatzen du ETA armagabetze-ezean eroso dagoela.

Hori ez da onargarria. Horren kostu sozial eta politiko handia euskal gizarteak ordaindu behar du, hipoteka bidegabe bat bailitzan. Eusko Jaurlaritzaren ustez, ETAri dei zuzena egiteko garaia iritsi da. Ildo horretan, armagabetzeko prozedura azkar, bideragarri eta eraginkor baterako proposamen zehatz hau luzatzen dio:

## 1. Armagabetze-ezaren kostuak

Armagabetze-eza ez da kaltegabea. Errealitate politiko eta soziala ez da berdina armagabetzea burututa edo burutu gabe. Armagabetzerik ezak prezio oso altua dauka eta euskal gizarteak ez dauka zertan ordaindu. Ondorengo lau eragin zuzenak dakartza, gutxienez:

- Armagabetze-ezak iragana atzean uztea eragozten du. Iraganera lotzen gaituen eta indarkeriaren mehatxua gogorarazten digun elementu faktikoa eta sinbolikoa da.
- Armagabetze-eza, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, azkenean alderdien artean edo

  Legebiltzarrean elkarrizketa plural bat izateko oztopo erreal bat da.
- Armagabetze-ezak, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, espetxe-politikan gauzak ez aldatzea bultzatzen du eta bai presoei bai haien familiei kalte egiten die.
- Armagabetze-ezak egoera zaharrak hiltzea eragozten du, eta berriak jaiotzea, eta neurri horretan, ezker abertzalea joko politikoan normalizatuta egotea blokeatzen du.

## 2. Armagabetzearen onurak

Alde bakarreko armagabetze ordenatu, egiaztatu, azkar eta eraginkor batek euskal gizartean, euskal politikagintzan eta bake- eta bizikidetza-prozesuan eragin positiboak izango lituzke. Kontrapuntu gisa, aurreko atalean deskribatutako eraginen aurkakoak aipatuko ditugu:

- Armagabetzea, sinbolikoki, etapa berri baten sorburua da. Gizarte honi iragana behin betiko atzean uztea ahalbidetuko lioke.
- Armagabetzeak gai estrategikoetan eta bizikidetzaren arloan elkarrizketa politiko eta parlamentarioko dinamika berriak bultzatuko lituzke.
- Armagabetzeak espetxe-politika eta presoen eta beraien familien egoera aldatzen lagunduko luketen baldintzak sortuko lituzke.
- Armagabetzeak ezker abertzaleko sektore soziopolitikoari iraganeko zamaren zati handi bat kenduko lioke eta joko politikoan modu normalizatuan parte hartzea erraztuko lioke.

## 3. Armagabetzerik ezaren zergatia

Argudioak hain argiak izanik, ondorengo galdera saihestezina da: hiru urte baino gehiago igarota, zergatik ez da aurrerapausorik eman armagabetzean? Eusko Jaurlaritzaren ustez, elkar elikatzen duten hiru arrazoi daude: Espainiako Gobernuaren laguntza eza, Estatuaren laguntzarik gabeko armagabetze baten zailtasun operatiboa eta ETAk erabakia atzeratzeko interes taktikoa izatea.

## 4. Hiru armagabetze-eredu orain arte

Orain arte, modu gutxi-asko argian, ETA armagabetzeko hiru eszenatoki ikusi ditugu:

- **Poliziaren konfiskazio bidezko armagabetzea**. Zuzenbide-estatu batean, egoera hori ezin da eta ez litzateke baztertu behar. Eusko Jaurlaritzak alde bakarreko armagabetze ordenatu bat gertatzea nahiko luke, armak uzteko konpromisoaren betetzean oinarritutakoa. Dena den, armagabetzea atzeratuz, poliziak desarmatzeko arriskua erabat bere gain hartzen du ETAk.

- ·**Espainiako Gobernuarekin adostutako armagabetzea.** Gaur egungo errealitate politikoan, egoera hori onargarria bezain bideraezina da. Espainiako Gobernuak ez du onartzen. Eredu horren bideraezintasunari buruzko datua ez da berria. ETAk 2012tik du errealitate horren berri, eta hala ere, horrek ez du bere estrategian aldaketa esanguratsurik ekarri.
- ·**Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatuz armagabetzea**. Horixe da ETAk aukeratu duen eredua. Ondorio praktikoen eta politikoen ikuspegitik, ez armagabetzeko modu bat da. Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatzea ezer ez egitearen parekoa da. Egoera hori ez da onargarria.

## **5.** Laugarren eredua: Eusko Jaurlaritzaren proposamena:

Euskal gizartearentzat eta politikarentzat funtsezkoa den auzi honetan blokeo-egoeran egonda, Eusko Jaurlaritzaren ustez, mahai gainean planteamendu argi bat jartzeko garaia iritsi da. Ondorengoa da bere «Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura- proposamena, ETAren gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundeen babespean». Proposamen hau ETArentzako dei zuzen bat da eta bost urratsetan deskribatuta dago:

1. urratsa. ETAk euskal gizartearen aurrean armagabetzea onartuko du eta armagabetze-batzorde baten lan onaren bitartez bideratzea. Batzorde hori gizarte, nazioarteko eta erakundeetako eragilez osatuta egongo da.
2. urratsa. Jakinaraziko den epe zehatz baten barruan, ETAk bere arma eta lehergailu guztiak aurki daitezkeen eta gizartearentzat seguruak izango diren gordeleku batzuetan –gordeleku kopuru jakin batean– utziko ditu.
3. urratsa. Aldi berean, Armagabetze Batzorde bat eratuko da eta kideak honako hauek izango dira: Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin bildu izan zen Gizarte Foroko ordezkaritza bat, nazioarteko eragileen ordezkaritza bat eta Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari. Eusko Legebiltzarrari batzordea babesteko eskatuko zaio.
4. urratsa. ETAk armen eta lehergailuen gordelekuen zerrenda Armagabetze Batzordeko kide den euskal gizarteko ordezkaritzari entregatuko dio.
5. urratsa. Gizarte-ordezkaritza horrek aipatutako informazioa Armagabetze Batzordeari emango dio eta horrek, era berean, Eusko Jaurlaritzari, legez dagokion moduan jardun dezan.

Eusko Jaurlaritzak ETAri proposamen hau onartzeko deia luzatzen dio, euskal gizartearen gehiengoaren borondatea delako. Armagabetze-eza ETA euskal gizarteari ordainarazten ari zaion hipoteka bat da. Armagabetzea ETAk euskal gizartearekin duen zor bat da. Eusko Jaurlaritzak gogoeta hauek eta proposamen hau Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari helarazi dizkio gaur bertan.

# **8.** dokumentua

**Zuzendu programa,**
Giza eskubideen arloan
autokritikaren pedagogia
egiteko dibulgazio programa

Elkarrizketarako dokumentu irekia

Bake eta Bizikidetza Planaren jarduera osagarria



# Zuzendu programa

## Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia egiteko dibulgazio programa

**2015eko apirilaren 1a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

# Aurkezpena

2013-16ko Bake eta Bizikidetza Plana 2013ko azaroan 26an onartu zen. Ordutik, sei hilez behin txosten bat egiten da plana nola betetzen ari den aztertzeko. 2014ko bigarren sei hilekoari dagokion txostenak azaleratu duenez, plana aurreikusi bezala betetzen ari da. Planean jasotako ekimen guztiak martxan dira, zentzuzko garapen maila batekin, eta, inkesta guztien arabera, gizartearen oniritziarekin.

Edonola ere, txostenak ahultasun bat azalarazten du argi eta garbi: adostasun politiko eta parlamentarioan aurrerapausoak emateko ezintasuna. Egindako diagnostikoaren arabera, gainera, alderdi politikoen arteko desadostasunen arrazoi nagusia iraganean aurkitu behar da. «Iraganak min ematen digu, eta banatu egiten gaitu». Hori dela eta, harreman politikoak berrezartzeko ahalegin berezia egin beharra dago.

Paraleloki, Hitzeman programa, bost hilabetez zabalik izan duen kontsulta aldiaren ostean, antzeko ondorio batera iritsi da: «Terrorismoari, indarkeriari, giza eskubideen urraketari, zatiketari hain lotuta izan den iragan hurbilak zauri handiak utzi ditu zabalik politikagintzan, konfiantza gabezia handiak, eta, hori gizarteratzea bezalako hain arlo delikatuetan adostasunak lortzea zailtzen duen eragilea da».

Testuinguru horretan, honakoa da ezinbestean mahai gainean jarri beharreko galdera: *«Iraganaren pisua kontuan izanik, nola sor daitezke konfiantza, elkarlan eta adostasun guneak sortzeko baldintzak alderdi politikoen artean bakea, elkarbizitza, espetxe politika edo gizarteratzea bezalako arloetan?»*. Hain zuzen ere, galdera horri erantzuna aurkitzeko ahaleginean kokatu behar da Zuzendu programa bera.

Honakoa da programak planteatutako erantzuna: *«iraganarekiko autokritika da gure herriko familia politiko ezberdinen arteko konfiantza eta elkarlana sortzeko baldintzak eraikitzeko oinarria»*. Izan ere, autokritika iragana gainditu, orainaldia berregin eta etorkizuna adostasun minimo batekin bideratzeko gakoa izan daiteke. Autokritikak funtsezko zeregina izan dezake gizarteratze prozesuetan ere.

Ildo horretan, Euskal Herrian 1960tik 2010era emandako giza eskubideen urraketak biltzeko Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramon Mugika eta Juan Maria Uriartek egindako oinarrizko txostenak –2013ko ekainean aurkeztu zen–, eskaera zuzena egiten die alderdi politiko eta erakundeei bere gomendioetan: *«iraganaren irakurketa autokritiko eta arduratsua egitea beharrezkoa da, biktimei lehentasuna emanez, batik bat euren bizitza bidegabeki etenda ikusi zutenei»*.

Zuzendu programa, hain zuzen ere, hausnarketa horiei guztiei emandako erantzuna da. Bake eta Bizikidetza Planaren baitan, iraganaren kudeaketari lotuta dago, 1. ekimenaren jarduera osagarri gisa (Giza eskubideen urraketei buruzko txostenak egitea eta eratortzen diren ekintzak). Hain zuzen ere, Zuzendu programa bera gure iraganean izandako giza eskubideen urraketetatik eratorritako ekintza bat da.

Esku artean dugun dokumentu hau bi zatitan egikarituta dago. Lehendabizikoak, oinarriak, autokritikaren esanahi teoriko eta praktikoa argitzea du helburu. Bigarrenak, proiektuak, elkarbizitza bultzatzeko autokritika prozesu eta lekukotzak sortzeko baldintzak sustatzeko jarduerak artikulatzea du xede. Guztion ardatza giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia hedatzea da. Dokumentu hau ez da proiektu itxi bezala jaio. Dokumentu irekia da, elkarrizketarako tresna.

# Lehendabiziko zatia: oinarriak

## 1. Autokritikaren gorespena

Gizakiak mugatuak gara berez. Gizakiak akatsak egiten ditu eta hori gizakiaren ezinbesteko ezaugarria da, ez ohiz kanpoko tasuna. Gizakiak bere errealitate inperfektuari egin behar dio aurre ezinbestean. Akatsei zintzoki aurre egiteko bitartekoa zuzenketa da. Gaizki egindakoa zuzentzea gizakiaren funtsezko gaitasuna da, bizitzaren eta elkarbizitzaren arlo guztietan eragin erabakigarria duena.

Aukera ezberdinen artean bakoitzaren kontzientziak agindu bezala hautatzeko gaitasuna ere gizakiaren berezko ezaugarria da. Aukeratzea pertsonaren autonomiaren parte da. Horrenbestez, gizakiak, bere mugak eta akatsak ezagututa, gaizki egindakoa zuzentzeko aukera du. Gaizki egindakoa zuzentzea askatasun adierazpen handienetakoa da.

Ahalmen harrigarria du zuzenketak, gaizki egin edo esandakoa zuzentzeko gaitasuna baitu berezko. Hiztegiaren arabera, zuzentzea «aldez aurretik egindako zerbaiten inperfekzio, akats edo gabeziak konpontzea da», eta, beraz, definizio hori pertsona bati aplikatzen badiogu, pertsona baten ekintzak edo jokabidea zuzentzeaz ariko gara .

Gaizki egindakoa zuzendu ahal izateko aldez aurreko urratsa, noski, gaizki egindakoa aitortzea da. Ezinbestekoa da hori, aitorpen gabe zuzenketarik ez baitago. Hori dela eta, gaizki egindakoa konpontzeko ezinbesteko oinarria autokritika da, hau da, «bakoitzaren ekintza edo jokabideen gaineko epaiketa kritikoa egitea». Autokritika, berez, zuzenketa modu bat besterik da.

Autokritikaren funtsezko ezaugarria zintzoa izan behar dela da; zinezkoa eta aldebakarrekoa bada bakarrik du benetako balioa. Autokritika ez dago ez negoziatzerik ez konpentsatzerik. Benetakotasuna ematen diona boluntarioa, argia eta egiazkoa izatea da.

Autokritikak hainbat norabideko eragin konpontzaileak ditu. Alde batetik, autokritika egiten duenari bere buruarekin adiskidetzeko aukera ematen dio. Bestetik, egindako hanka sartzeen eraginak jasan dituztenengana urreratzeko aukera ematen du. Azken batean, autokritika da barkatzeko eta barkamena eskatzeko oinarria, edota izandako hanka sartzeak zuzentzeko ekintzak garatzekoa.

Agian, bizi dugun mundu honetako errealitatean, bai hezkuntza arloan bai arlo pertsonal, sozial edo politikoan, zuzenketa eta autokritika ez dira behar beste aintzat hartzen.

# 2. Autokritikaren zazpi ondorio gure testuinguruan eta une zehatz honetan

Orain arteko gogoetek irismen generikoa besterik ez dute. Bizi izan dugun terrorismo eta indarkeria iraganarekin lotzen baditugu, baina, autokritikak sor ditzakeen zuzeneko hainbat ondorio antzeman ditzakegu.

1. Biktimek jasandako bidegabeko kaltea nolabait osatzeko baliagarria da.
2. Konfiantza sortzen du, elkarrengandik urrun daudenak gerturatzen ditu eta topaketarako guneak sortzen ditu.
3. Gainontzekoen autokritika errazten du, kutsadura sortzen baitu.
4. Iraganarekin adiskidetzen gaitu, zauriak itxi eta gorroto eta ezinikusiak atzean uzteko baliagarria baita.
5. Presoen gizarteratze prozesurako gakoetako bat da.
6. Balio handia du hezkuntza eta prebentziorako. Iragana ez errepikatzeko bermea indartzen du.
7. Elkarbizitzarako funtsezko topagunea da: iragana, oraina eta etorkizuna lotzen ditu.

Autokritika, beraz, ez da kontzientziaren edo moralaren eremu pribatuan geratu behar den planteamendua. Autokritika erabaki politikoak eskatzen dituen prozesu politiko bat garatzeko proposamen politikoa da. Eta bere ondorioak eta helburuak ere politikoak dira.

# 3. Autokritika: zertan? zer esparrutan? nork?

## 3.1. Autokritika zertan?

Autokritika zertan? Gauza baten inguruan bakarrik: giza eskubideen urraketarekin zerikusia izan duen guztian. Autokritika beharrezkoa da giza eskubideak urratu direnean edo giza eskubideen urraketa babestu denean, urraketa horien aurrean nahi besteko irmotasuna azaldu ez denean, edota urraketon ondorioen aurrean erantzunik izan ez denean.

Giza eskubideen arloko hausnarketa kritiko hori egiteko oinarrizko erreferentzia honakoa da: une bakoitzean giza duintasunak balioen eskalan izandako lekua. Azken batean, norberaren uste osoak giza duintasunaren gainetik izan ziren edota norberaren usteen gainetik giza duintasuna izan zen hausnartzea da kontua.

## 3.2. Autokritika zer esparrutan?

Bere inplikazio etiko, sozial, politiko, pedagogiko eta prebentiboen ikuspuntutik, autokritika bi esparru kualitatibo ezberdinetan egitura daiteke: gertakari zehatzen gaineko autokritika eta egiturazko sistematikaren autokritika.

· Gertakari zehatzen gaineko autokritikaren oinarrian iraganean giza eskubideen aldeko konpromisoarekin kontraesankorrak diren jarduerak izatea dago.

· Egiturazko sistematikaren autokritikaren oinarrian iraganean giza eskubideen urraketa bermatzen zuen estrategia bat arma politiko sistematizatu eta egituratu gisa erabiltzea babestu izana dago.

Bai kasu batean bai bestean, autokritika beharrezkoa eta sozial zein politikoki baliagarria da, baina kasu bat eta bestea zeharo ezberdinak dira. Lehen kasuan, autokritika sakona egin behar da iraganean egindako akats zehatzengatik. Bigarren kasuan ere, iraganean egindako akats zehatzengatik autokritika sakona egin behar da, baina, hori bezain garrantzitsua edo gehiago da helburu politikoak lortzeko bitarteko gisa giza eskubideak urratzea zuritu, bermatu, bultzatu edo onartu zuen arrazoitze sistemaren gaineko autokritika sakona egitea.

### 3.3. Autokritika *nork*?

Autokritika inposatzerik ez dago, modu askean, borondatez, hautatzen da; autokritika aldebakarrekoa da, ez dago besteen autokritikarekin negoziatzerik. Ez dago konpentsazio itunik sinatzerik. Guztiek ez dute autokritika modu berean gauzatu beharrik. Guztiek ez dute erantzukizun maila bera. Autokritika prozesu bat da eta guztiok gaude bertan parte hartzera gonbidatuta, bakoitza bere erantzukizunen esparruan. Ildo horretan, familia politiko guztiak daude iraganaren balorazio kritiko eta autokritikoko prozesu batean parte hartzera gonbidatuta.

Behin hori esanda, baina, ETAren ingurune politikoak erakunde armatuaren indarkeriaren balorazio espezifikoa egiteko berariazko eskaera sozial eta politikoa dagoela azpimarratu behar da. Horrek ez du beste balorazio espezifiko batzuk egiteko beharra alde batera uzten, indartu baizik ez du egiten. Hori bai, ETAren indarkeriak izandako larritasunaren gaineko balorazioa egiteko beharra ezin da saihestu beste batzuek egin beharreko balorazioak aitzakiatzat hartuta.

ETAk eragindako giza eskubideen urraketen gaineko balorazio kritiko eta argia premiazkoa da hainbat arrazoirengandik, batik bat honakoa: ETAk eragindako giza eskubideen urraketak kritikoki baloratzeko uzkur jokatzen dutenen jarrerak indarkeria justifikatzen duten edo biktimek jasandako bidegabeko sufrimendua ontzat ematen duten susmoa areagotzen du. Hori, XXI. mendeko euskal gizartean erabat onartezina izateaz gain, orainaldian zein etorkizunean ondorio etiko, humano, sozial eta politiko suntsitzaileak dituen zerbait da.

## 4. Iraganaren kritika espezifiko batentzako puntu zehatzak

Autokritikaren irismen eta esanahiaren gaineko gaizki-ulertuak saihesteko asmoz, ezinbestekoa da zehatz-mehatz identifikatzea autokritika zer arlotan den beharrezkoa. Hain zuzen ere, giza eskubideen urraketa larrienei eragiten dieten horiez ari gara: bizitzeko eskubideari eta osotasun fisikorako eskubideari eragiten dietenak. Horrek ez du esan nahi giza eskubideen bestelako urraketarik izan ez denik, baina aipatutakoak aitortzeak lehentasuna du izandako ondorio larriengandik. Horrenbestez, eta betiere elkarrizketara irekitako lan hipotesi gisa, autokritikarako honako lau eremu hauek definitzen dira:

1. ETA, ETA (pm), Komando Autonomo Antikapitalistak eta antzeko beste taldeek eragindako indarkeria zuzena. Taldeon ekintza zehatzak (hilketak, bahiketak, estortsioa...) zein giza eskubideak sistematikoki eta modu antolatuan urratzen dituen indarkeria arma politiko gisa erabiltzea legitimatzea.
2. Sufrimendua eta honen ondorioak gizarteratzeko estrategia: kale borroka eta mehatxatutako, estortsionatutako eta eskoltarekin bizi behar izan duten lagunen errealitatea, batik bat 1990etik 2010era.
3. Estatuaren indarkeriaren bidegabeko erabilpenaren edo indarkeria paraestatalaren erabilpenaren gaineko erantzukizuna, bai berau antolatzeagatik, ukatzeagatik edo ezkutatzeagatik bai bere ondorioz izandako giza eskubideen urraketak minimizatzeagatik. Gehiegikeria polizialak, tortura, botere penalaren eta espetxe politikaren gaineko boterearen neurrigabeko erabilpena, eta BVE, GAL eta antzeko beste talde batzuen terrorismoa daude urraketon artean.
4. Biktimen arreta eza:
    - ETAk eta antzeko beste erakunde terroristen biktimek 70eko eta 80ko hamarkadetan pairatutako arreta eza. Autokritika horren beharra azalarazten duen adibidea biktimek Ajuria Eneko, Iruñeko eta Madrileko hitzarmenetan jasandako ahanztura da, baita 70eko hamarkadan zehar zein 80ko hamarkadaren ia azken urteetara bitartean komunikabide nagusiek indarkeriari eta biktimei emandako tratamendua ere.
    - Erakundeek BVE, GAL eta antzeko beste erakunde terrorista batzuen biktimak zein gehiegikeria polizialen biktima mortalek ikusezin bihurtu izana, batik bat 70eko eta 80ko hamarkadetan. Autokritika beharraren adibide da errealitate horren gaineko inolako ikerketa polizial eta judizialik ez egotea, edota une hartan hedabideek eskainitako arreta txikia.

# Bigarren zatia: proiektuak

«Zuzendu» hitzak adiera ugari hartzen ditu baitan, guztiak ere espiritu bakarrean elkartzen direnak. Konpontzea, zentzatzea, ordainetan ematea, bideratzea, arteztea... da zuzentzea, eta aukera horiek guztiak jarraian jasotako proiektuetan elkartzen dira.

## 1. Premisa bat

Zuzendu programarekin Eusko Jaurlaritzak ez dio inori autokritika eskatzen, autokritika iradoki egiten du. Konpromiso horren garrantziaren balioa nabarmentzen du. Behin eta berriz esan bezala, autokritika benetakoa izatea bermatzen duena berau gauzatzea erabaki libre eta boluntarioa izatea da. Eusko Jaurlaritzak hausnarketa hori bere egiten du autokritika prozesuak sustatzeko asmoz. Horretaz guztiaz hausnartzeko gonbitea luzatzen du. Aipatutako premisa, gainera, jarraian deskribatutako proiektu guztiekiko transbertsala da.

## 2. Helburuak

### 2.1. Helburu orokorra

·Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia hedatzea elkarbizitzaren normalizazio prozesuari egindako ekarpen kualitatibo gisa.

### 2.2. Helburu espezifikoak

·Ahal den neurrian biktimen sufrimendua arintzeko baldintzak sortzea, jasan zuten kaltea bidegabea izan zela aitortuz.

·Bakearen eta elkarbizitzaren arloan alderdi politikoen arteko elkarrizketa eta adostasuna eraikitzeko baldintzak sortzea.

·Konponbiderako justizia garatzearen aldeko eta gizarteratze eta sozializazio prozesuak garatzearen aldeko baldintzak sortzea.

# 3. Proiektuak

## 1. proiektua. Urtero autokritikaren balio sozial eta politikoaren gaineko ekitaldi bat egitea

Eusko Jaurlaritzak autokritikaren balio sozial eta politikoaren inguruan hausnartzeko topaketak bultzatuko ditu urtero. Jardunaldion prestakuntza, antolakuntza eta garapena topaketarako eta esperientzia trukerako aukera izango da, betiere autokritikak eraikuntza sozial etiko eta demokratikorako dituen adierak oinarri. Lehendabiziko jardunaldiak 2015eko bigarren seihilekoan egingo dira, eta topaketa antolatu eta dinamizatzeko ardura erakunde espezializatu eta independente baten esku geratuko da.

## 2. proiektua. 2016ko ekimenak garatzea autokritikak, historian zehar, artean, kulturan eta politikan izandako islaren inguruan.

2016ko ekitaldiei begira jarrita, zuzenketak eta autokritikak artean, kulturan, gizartean eta politikan historian zehar izandako islan sakontzeko aukera aztertuko da. Zentzu honetan, ekimen hau Donostia 2016 kultura hiriburutzaren programazioan sartzeko aukera eta egokitasuna aztertzeko, bertako lantaldearekin elkarrizketak izango dira.

## 3. proiektua. Hitzeman Programaren garapenarekin lotura.

Hitzeman programak autokritikak presoen gizarteratzerako tresna gisa dituen aukerak aztertzen dituen alderdi bat ere badu. Horrek giza eskubideen edozein urraketa suposatu duen delituetatik urruntzeko hausnarketa kritikoa eskatzen du. Esperientzia pilotu hau Zuzendu programan aurreikusitako proiektuen osagarri da. Zentzu honetan, Zuzendu eta Hitzeman programen garapenek lotura izango dute.

## 4. proiektua. Autokritika beste jarduera eremuetan aplikatzea aztertzea

Zuzendu programa martxan jartzeak legegintzaldia amaitu bitartean autokritika Bake eta Bizikidetza Planaren kudeaketako beste arlo batzuetan ere aplikatzeko aukera mahai gainean jartzen du. Elkarlan eremuak irekita ditugun aktore eta eragile guztiekin aztertuko den aukera da aipatutakoa, adibidez gizarte erakundeak, unibertsitateak, Peace Program ekimena, hezkuntza arloa, gazteria...